



**GIZARTE
ZERBITZUAK**

**EAEko
GIZARTE-ZERBITZUEN
II. PLAN ESTRATEGIKOA
2023-2026**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4
1. SARRERA	7
1.1. DOKUMENTUAREN TESTUINGURUA ETA EZAUGARRIAK	7
1.2. DOKUMENTUA EGITEKO PROZESUA	10
2. ESPARRU ESTRATEGIKO PARTEKATUA	13
2.1. ERREFERENTZIA GAKO BATZUK GIZARTE-ZAINTZEN POLITIKETAN	13
2.1.1. Zeharkako erreferentziak	13
2.1.2. Sektoreko erreferentziak	19
2.1.3. Lankidetzari eta gobernantzari buruzko erreferentziak	24
2.2. GIZARTE-ZAINTZEN POLITIKA	26
2.2.1. Gizarte-zaintzen definizioa	26
2.2.2. Zaintzen eredua	27
2.2.3. Gizarte-zaintzen politikaren ezaugarriak	29
2.3. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA (HORIZON 2030)	31
3. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	34
3.1. GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN EGOERA	34
3.1.1. Ikuspegi kuantitatiboa	34
3.1.2. Ikuspegi kualitatiboa	43
3.2. ERRONKAK	47
3.3. GZES-N ERAGINA DUTEN JOERA NAGUSIAK	53
3.3.1. Trantsizio demografikoa eta zaintza-ereduaren krisia	53
3.3.2. Trantsizio soziala eta kohesioa	60
3.3.3. Krisien eragina GZESn	71
3.3.4. Trantsizio digitala, berrikuntza sozial eta lankidetzaren publiko-soziala	72
3.3.5. Aldaketak GZESren pertzepzio sozialean	75

4. NORTASUNA, ORIENTABIDE ESTRATEGIKOA ETA HEDAPENA	77
4.1. EGINKIZUNA ETA PRINTZIOAK	77
4.2. GOBERNU-PROGRAMA ETA BESTE PLAN ETA ESTRATEGIA BATZUK	80
4.3. IKUSPEGIA, ARDATZAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK	87
4.4. AGINTE-KOADROA	90
4.5. EKINTZEN TAULA, EGUTEGIA ETA EGIKARITZE-ADIERAZLEAK	95
5. PROIEKTU ERAGILEAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK	107
5.1. ESKEMA OROKORRA	107
5.2. XEHETASUNA ARDATZEN ARABERA	108
6. GIZARTE-ZERBITZUEN MAPA ETA MEMORIA EKONOMIKOA	133
6.1. HORIEK EGITEKO IRIZPIDEAK	133
6.2. EAE-KO GIZARTE-ZERBITZUEN MAPA	135
6.3. MEMORIA EKONOMIKOA	159
7. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA	176
7.1. PLANAREN KOORDINAZIOAZ, DINAMIZAZIOAZ, JARRAIPENAZ, EBALUAZIOAZ ETA EGUNERATZEAZ ARDURATZEN DIREN ORGANOAK ETA FIGURAK	177
7.2. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-TRESNA NAGUSIAK	177

AURKEZPENA

Plangintza estrategikoa tresna bat da, erantzunak gizarte-aldaketetara egokitzeko eta, horri esker, hobeto bete ahal izateko erakundeen, antolakundeen eta enpresen eginkizuna.

Helburu jakin baterako bitarteko bat da, hau da, *herritar guztiak, bizi-ibilbidean zehar, ahalik eta autonomia handienarekin gizarteratzeko bitartekoa*. Hori kalterik eragin gabe Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES), berezko bitartekoen bidez, eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemako beste sistema batzuen arteko lankidetzari, erabateko inklusioa, kohesioa eta gizarte-ongizatea lortzeko.

Baina, trantsizio-testuinguru batean garrantzi berezia daukan bitartekoa da, eta plangintzak egokitu egin behar du politiken diseinua, egikaritzea eta ebaluazioa; horretarako, gizarte-berrikuntza (lankidetzatza), lankidetzako gobernantza eta ikaskuntza partekatua sendotu behar dira eta epe laburrera plan estrategikoak eta denbora-tarte handiagoa izango duen esparru estrategiko bat bultzatu, biak elementu bizitzat hartzen baitira.

GZESrentzat, trantsizio digitalak, besteak beste, gizarte-eragina artatzea dakar berekin, teknologia horrek gizarteratzeko eta autonomiarako eskaintzen dituen aukerak maximizatzea, dauzkan arriskuei aurre egitea, eten digitala murriztea eta erabilera etikoari buruzko gogoeta sustatzea. Halaber, sistemaren beraren eraldaketa digitala bultzatzea ere badakar. Ekologia eta ingurumen trantsizioek ere gizarte-dimentsioa daukate, oinarrizko beharretan eta bizi-baldintzetan eragina daukana.

Baina trantsizio sozial eta demografikoak GZES, zaintzen eta ongizatearen eredu indartzeko eta egokitzeko beharra eskatzen du, 2030eko hamarkada jomuga dela, *baby-boomaren* belaunaldia desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenaren batez besteko adinera iritsi ahala; 72 urtekoa da gaur egun adin hori.

GZESren eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren gainerako sistemen eginkizunean eragina duten trantsizio horren adierazpide batzuk dira gizartea zahartzea (adina), migrazioak (jatorria) eta emakumeen ordaindu gabeko zaintza-lanari buruzko zaintza-eredu tradizionalaren krisia (generoa), bai eta gazte, migratzaile eta emakumeei gehiago eragiten dien desberdintasuna areagotzea ere.

- Bizitza luzatzea eta osasun onarekin bizitza luzatzea, arrakasta pertsonala eta kolektiboa da, aukerak sortarazten dituena, eta gizartearen zahartzeak gizarte-sektore guztien, babes-sistemaren eta GZESren erantzunak egokitzeko eskatzen du.
- Immigrazioa zutabe bat da, euskal gizartea gaztetzeko eta pertsona eta familia horiek dauzkaten bizi-proiektuak garatzeko, euren ekarpena behar duen gizartean, eta euskal gizarteak kulturen arteko ereduaz egin nahi die harrera, ez kultura anitzeko edo asimilazioko ereduaz, erabateko inklusiora bideratuta.
- Zaintza-eredu tradizionalaren krisia ez du familia-zaintzako orduak murrizteak eragin. Bata eta bestea zaintzaren rola gizarte-esleipena, generoaren araberakoa, eta ongizatearen eredu familista –zeinak zaintzaren erantzukizuna familietan kokatzen duen, eta, azken finean, emakumeengan– zalantzan jartzearen emaitza dira.

Adina, jatorria, generoa eta autonomia maila lotuta daude EAeko gizartea *gero eta anitzagoa* izatearekin, baina baita, ongizatea handitu den testuinguruan, paradoxikoki gorantz doan *desberdintasunarekin* ere (Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta, PGDI 2020). Desberdintasunak lau faktore horiei lotutako *dualizazio* sozialeko prozesu bat adierazten du; faktore horiek, konbinatuta, askotariko diskriminazio-egoerak eragiten dituzte, eta genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala zabaltzeko eskatzen dute esku-hartze sozialean, oro har, eta GZESn, bereziki.

Eta GZESk zahartzeari erantzuteko funtsezko zeregina izanda, erabateko inklusioa, gizarte-koheresioa eta aukera-berdintasuna sustatzeko garaian ere badagokio eginkizuna gero eta anitzagoa den euskal gizartean. Bereziki, pertsonen, hainbat faktoreren arabera eta beti Gizarte Babeseko Euskal Sistemako beste azpisisistema batzuekin lankidetzan, aurre egiten dietenean kalteberatasun-, desberdintasun- edo diskriminazio-egoerei, pertsona bakoitzarengan zentratutako eta erkidegoan erabat gizarteratzera bideratutako zerbitzuak (laguntzak) zabalduz.

Zahartzea/Autonomia eta Aniztasuna/Kohesioa eta Berdintasuna dira gizarte-politikaren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren, 2023-2026 aldirako plan estrategiko honen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Ehuntzen 2030 esparru estrategikoaren bi ardatz handiak.

Emakumeen berdintasunaren aldeko borrokak, trantsizio soziodemografikoaren agertokiak eta 2008an, 2020an eta 2022an hasitako hiru krisiren eragin erantsiak, ondorioak ia elkarren jarraian izan dituztenak, honako hau eskatzen dute:

Plan estrategiko honen jomugan, aintzat hartuta posible den irismena eta bat etorritik lehenengo planaren ebaluazioko gomendioekin eta ondorengo ekarpenekin:

1. Erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta indartzea kontingentzia guztietarako (degaitasuna, mendekotasuna, babesgabetasuna, bazterketa), eta, horretarako, GZESn, egoitza-arretari dagokionez, gastu publiko arruntean duen pisua handitzea.
2. Egoitza-arreta zabaltzen jarraitzea eta egoitza-zentroak adinekoentzat egokitzea, aniztuz, bizikidetzaren unitateen tamaina murriztuz eta ahal den neurrian etxeko giroarekin parekatuz.
3. Degaitasuna duten pertsonen bizimodu independentearen eredua eta bizi-kalitatea bultzatzea, eta, horretarako, bizitzan zehar laguntza-sareak diseinatzea eta zabaltzea, beren bizi-proiektua autonomiaz garatzeko eta erabat gizarteratzearen bidean aurrera egiteko.
4. Bazterketa-sarea indartzea eta haren deszentralizazioan aurrera egitea, bai eta lehen eta bigarren mailako arretaren antolaketan, arretaren malgutasun eta pertsonalizazioan eta prebentziozko ikuspegiaren ere, bizimodu independentearen eredua eremu horretara zabaltzea aztertuz.
5. Familia-zaintzaren pisua murriztea erakunde-zaintzarekiko (erantzukizun publikokoa), zaintzen dutenen erakunde-zaintza ere indartuz, eta familia-zaintza aske, kritiko, erantzukide eta mugaturako, eta, beraz, erakunde-zaintzarekin antolaturako beharrezkoak diren baldintzak bultzatzea.
6. GZESren kudeaketa integratuan eta elkargo-kudeaketan aurrera egitea, Legearen 40. artikulua Eusko Jaurlaritzari koordinazio-eskumenak gauzatzean ematen dizkion eginkizunak bultzatuz.
7. Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala hedatzea arretan, kontingentzia guztietan, eta GZESren kudeaketan, GZESren baliabideen erabileran unibertsaltasuna eta ekitatea lortzeko, aniztasunaren arreta egokituz, eta diskriminazioaren aurka egiteko.

2030eko hamarkadaren jomugan, baby-boomaren belaunaldia degaitasunik gabeko edo osasun oneko bizi-itxaropenaren batez besteko adinera iristen denean:

- Ongizatearen familia-eredu batetik zaintzaren gizarte-antolamenduko eredu propio batera igarotzea (social care), lidergo publikotik, beste sektore batzuekiko lankidetzatik eta erantzukidetasunetik abiatuta, zaintzak desfamilizatuz eta desfeminizatuz.
- Arreta-piramidearen iraultzea amaituta egotea eta GZESren eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren beste sistema batzuen arteko elkarreragina indartu izana, gizarte-aldaketei erantzuteko.

Urrats horiek mugimendu bikoitza dakarte: a) zaintzaren erantzukizuna publiko egitea edo instituzionalizatzea; b) arreta desinstituzionalizatzea, erkidego-arreta indartuz eta, era berean, egoitza-zentroen eskaintza handituz eta eraldatuz, baina GZESren prestazio eta zerbitzuetan gastu publiko arruntean duen pisua murriztuz.

Erantzukizun publikoa zabaltzea nahi da gizarte-zaintzen antolaketaren gainean. Zaintza horiek, beren xedearen arabera definitzen dira, laguntza gisa, batez ere harremanetakoak, modu autonomoan gizarteratzeko. Eta erakunde-zaintzak (erantzukizun publikokoak) senitartekoekiko duen pisua handitu.

EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategiko honen helburua da XXI. mendean GZES sendotzen, eta gizarte-aldaketetara egokitzen eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemari behar bezala txertatzen laguntzea, politika egonkortuen eta trantsizio-politiken edo, beharrezkoa izanez gero, larrialdiko politiken bidez, herritar guztien inklusioa, kohesioa eta gizarte-ongizatea lortze aldera.

1. SARRERA

1.1. DOKUMENTUAREN TESTUINGURUA ETA EZAUGARRIAK

1.1.1. Testuingurua

Zalantzarik gabe, XII. legegintzaldia COVID-19aren pandemiaren eta Ukrainako gerraren legealdi gisa gogoratuko da gerora ere. Gizarte Zerbitzuen 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legea (aurrerantzean, Gizarte Zerbitzuen Legea) onetsi ostean sortutako finantza-krisiaren gizarte-danbategatik geure onera etortzen hasita geundenean, beste bi krisi iritsi zitzaizkigun, biek ala biek izan duten eragin ekonomiko eta soziala urte batzuetan oraindik iraungo dutela.

Gainera, gizarte-testuingurua aribideko hiru trantsizioek zedarritzen dute: trantsizio sozial eta demografikoa, zeinak beren artean lotutako alderdiak dituen (besteak beste, gaztetzea eta aniztasuna); trantsizio digitala eta trantsizio ekologiko eta ingurumenekoa, gizarte-eragin garrantzitsua daukatenak: eten digitala, pobrezioa energetikoa...

Hiru krisiek eta hiru trantsizioek hiru politika eta erantzun mota behar izan dituzte: a) **larrialdiko politikak**, pandemiaren eta Ukrainako gerraren gizarte-eraginari erantzuteko; b) **trantsizioko politikak**, gizarte-testuinguruan aurreikusitako bilakaerari epe ertain-luzean erantzuteko; c) eta **politika egonkortuak**, lehen estandarizatu zirenak eta oraindik ere beharrezkoak izaten jarraitzen dutenak.

Horiek horrela, 2020az geroztik GZESren prestazioak eta zerbitzuak zabaltzen jarraitu da, eta hura eta premiazko beste batzuk eraldatzera bideratutako proiektu eragileak bultzatu dira (horietako batzuk egiturazkoak dira), gero eta anitzagoa den euskal gizarteari erantzuteko.

Hiru politika mota dira, helburu, bitarteko eta epe desberdinekin. Eta, hala ere, elkarren artean lotuta daude, eta batetik bestera igaro daiteke ebaluazioaren, eskalatzearen eta egonkortzearen bidez.

- Mendekotasunaren/autonomiaren esparruan, **trantsizio-politiken baitako ekimenen**, erakusle dira etxean bizi diren adinekoei ematen zaien erkidego-arreta garatzea, lehen eta bigarren mailako arretako baliabideak konbinatuz (hala nola Gipuzkoan dauden 14 tokiko zaintza-ekosistemak edo Bizkaiko Etzetik proiektua), edo egoitza-zentroetako arreta-eredu berriak konbinatuz (Arabako harremanetan oinarritutako arreta-eredua). ABEN Euroeskualdearen (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa) polo europarra da beste adibide bat, trantsizio-politikak bultzatu nahi dituen bizi-luzetasunean eta gizarte-zaintzetan nahiz arlo soziosanitarioko zaintzetan.

Proiektu horietako batzuk eta GZESk bultzatutako beste batzuk Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren baitan (BEM) sartuta daude, gizarte-aldaketa garrantzitsuei eta, bereziki, hiru trantsizioei erantzungo dieten egitura-aldaketak (baita araudiak ere) sendotzera bideratutako trantsizio-politikak bultzatzeko helburua daukatelako.

Altxor 7.0 da beste BEM proiektuetako bat, eta haren bultzada funtsezkoa da autonomia sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko bitartekoak indartze aldera, aukerak sortzeko adinekoek dauzkaten proiektuak bultzatu dituzten, bizitza osoko ikuspegi batetik eta gizarte-eraginarekin, daukaten talentuaz baliatuz, eta politikak gizarte-testuinguru berrira egokitze. Gaur egun, adineko gehienak autonomoak direnez, mendekotasun-egoeran daudenak dira gizarte-politiken eta GZESren arretagune nagusia. Gaur egun, adineko gehienak autonomoak direnez, mendekotasun-egoeran daudenak dira gizarte-politiken eta GZESren arretagune nagusia. Alde hori arintzera bideratutako proiektu pilotuen familia batekoa da *Altxor 7.0*.

- Honako hauek dira, hurrenez hurren, Inor Atzean Utzi Gabe eta Isuri funtsen bitartez pandemiaren eta Ukrainako gerraren gizarte-eraginari erantzuteko gaitu ziren eta bazterketa/gizarteratze eta babesgabatasun esparruko **presako politiken baitako**

ekimenen adibideak: a) familia-laguntzako sarerik gabeko gazteak helduarora igarotzen laguntzeko *Trapezistak* programa; b) eta eskolaz kanpoko hezkuntza indartzeko *Aukerak Suspertzen* programa, gizarte-hezkuntza arloan eten digitalari erantzutekoa, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan. Trantsizio sozial eta demografikoarekin (*Trapezistak*) eta trantsizio digitalarekin (*Aukerak Suspertzen*) daukaten loturak lagundu egin die egitura-programa moduan finkatzen, aurretik presazko jarduketaren lehen fase bat eta pilotu erako beste fase bat igaro ondoren.

1.1.2. Dokumentuaren ezaugarriak

Lehenenik eta behin, **Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoaren orientazioari dagokionez** (ikuspegia, ardatzak eta helburu estrategikoak), lehenengo planak arreta berezia jarri zuen GZESren sendotzean eta haren hedapenean, maparen eta lurralde-eranskinen bidez, 2008an hasitako finantza-krisian jatorria duen krisi-testuinguru batean prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko eskubide subjektiboa eraginkor baliatzen zela ziurtatzeko.

Baina gaur egun eskubide hori ziurtatzeko, trantsizio-politika bat antolatu beharra dago, 2030eko hamarkadako jomugari begira, *baby boom*aren belaunaldiak GZESri ekarriko dion presioa jasan ahal izateko, desgaitasunik gabeko edo osasun oneko batez besteko bizi-itxaropena kokatuko den adinera iristen denean.

Horretarako, erakunde-zaintza indartzeaz gain, berrikuntza txertatu behar da ezinbestean, prebentzioa bultzatu eta autonomia sustatu, arreta-piramidea iraultzeko, erkidego-arreta indartzeko eta arreta hori hartzaileen beharren eta itxaropenen bilakaerara egokituz.

Erraz ulertzeko moduan esanda, gastua handitzea ez da nahikoa. Sistema indartu eta egokitu behar da, eta planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistemak aukera eman behar du bai noranzko horretan egindako aurrerapausoak balioesteko, eta bai epe ertain eta luzera arreta, hartzaileen lehentasunekin bat, eta sistemaren iraunkortasuna hobetzen laguntzeko. Horixe da, hain zuzen ere, II. planaren ardatza.

Bigarrenik, **planaren eta esparru estrategikoaren xedeari dagokionez**, gizarte-zerbitzuetako plan estrategikoak GZESn zentratuta badaude ere, barnean bilduta dauzkate bai gizarte-zerbitzu guztiak, bai esparru horien eta beste esparru zein sistema batzuen arteko elkarreragin-espazioak. Hau da, esku-hartze sozialaren esparruko zati handi bat, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 4. artikuluan arauz zehaztuta dagoena, beste esparru eta sistema batzuekiko elkarreragin-espazioak barne hartuta (gizarte-guneak), hala nola gizarte-hezkuntza espazioa, gizarte-osasun espazioa, gizarte-lan espazioa eta gizarte-egoitza espazioa, gizarteratzea, kohesioa eta gizarte-ongizatea sustatzeko, berezkoak dituen bitartekoetatik eta beste batzuekin lankidetzan.

Beraz, gizarte-zerbitzuen eta, bereziki, GZESren (proiektu eragileak) esparruko helburuei begira jarrita garrantzitsuak diren jarduketak bultzatu nahi dira, bai eta gizarte-politiken ikuspuntu zabalenean ere, eta, bereziki, GZESren eta beste sistema batzuen (jarduketa osagarriak) arteko elkarreragin-espazioetan. Jarduketa horiek gizarte-babeseke sistemaren ikuspegi integral eta koherente bati erantzuten diote, komunikatzeko hodiak dituzten azpisistemek osatutako sistema bakar gisa, eta batera aritzeko jarduketak eta lankidetzarako prozesuak nahiz egiturak egon behar dute.

Hala, EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa:

- *Gizarte-zaintzan (gizarte arlokoa, xedearen arabera) ardatzen da, hau da, gizarteratzea ahalik eta autonomia handienaz ahalbidetzera eta sustatzera bideratutako harreman-laguntzan, pertsonen artekoetan.* Eta, bereziki, GZESren zorroan zehaztutako erakunde-zaintzan (erantzukizun publikokoa).

GZESren zorroaren prestazioak eta zerbitzuak zabaltzea da planaren muina eta maparen eta memoria ekonomikoaren xedea.

- Halaber, erantzunak hiru trantsizioetara egokitu nahi ditu, GZESren xede diren gizarte-zaintzei eta gizarte-osasun, gizarte-egoitza, eta gizarte-lan espazioetako *jarduketa osagarri* lotutako *proiektu eragileen* bidez.

Ekimen horien emaitzak, neurri handi batean, epe luzeagoan ikusiko dira, baina baita plan estrategikoaren aldian ere, aginte-koadroak aurreikusten duen moduan.

Hirugarrenik, **planaren iraupenari eta esparru estrategikoaren denbora-jomugari dagokienez** (dokumentuaren 2. atala), GZES indartzeko eta hiru trantsizioetara egokitzeko prozesuari laguntzeak, edozein trantsizio-politikak bezala, aurrerapen progresibo bat sortzeko eskatzen du, emaitzak epe laburrera (2025), ertainera (2030) eta epe luzera (2040) emango dituen, elkar ordezkatuz doazen taldeek kudeatuta, baina era jarraian, eta ahalik eta adostasun zabalenean oinarrituta.

Eta horretarako, herrialde-helburuei buruzko jarrerak hurbildu eta itunak sustatu behar dira, kasu jakin honetan, *gizarte-zaintzen* aldeko itun bat, lehenengo proiektu eragilea osatzen duena.

Hori bereziki beharrezkoa da askotariko sektoreak eta eragileak tartean daudenean. Eta, zehazki, lau sektoreen lidergo publikoan eta lankidetzan oinarrituta dagoen zaintzak antolatzeke eredu batean, eta euskal administrazio publikoetako hiru maila biltzen dituen sistema izanda, abiapuntu moduan hartuta lidergoa eta erantzukizun publikoa, lehentasun direla zerbitzuak ematea, zuzeneko kudeaketa publikoa, gizarte-ekimenaren bitartez, Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusita dagoenaren arabera.

Hala, dokumentu honek II. Planari aplikatu beharreko esparru estrategiko bat jasotzen du, baina denbora-jomuga zabalago baterako diseinatuta: 2030eko hamarkadarako. Esparru estrategiko horri gehitu behar zaizkio Elkarrizketa Sozialerako Mahaian berriki lortutako akordioa eta gizarte-zaintzen aldeko etorkizuneko ituna.

Espero da zaintzen gizarte-antolaketa eredu berria 2030eko hamarkadan ezartzea, familia-zaintzak erakunde-zaintzaren aldean duen pisua murriztuz, arreta-piramidea alderantzikatuz, erkidegoetan lehen eta bigarren mailako arreta indartzuz eta egoitza-zentroen eraldaketa amaituz. Horrela, mapak proiektzioak ezartzen ditu epe laburrera (2025), baina baita epe ertainera (2030) ere. II. plan estrategikoa, ordea, 2023-2026 aldirako ezartzen da, lau urtean behin, Gizarte Zerbitzuen Legean eta aginte-koadroan aurreikusitakoaren arabera.

Laugarrenik, plan estrategikoaren **edukiari dagokionez**, lehen planaren ebaluazioak bigarrena sinplifikatzeko beharra azpimarratzen zuen, eta arreta GZESren iraunkortasun sozial eta ekonomikoa ziurtatzeko faktoreetan eta erkidego-ereduaren arabera hedapenean jartzen zuen. Hori dela eta, planak lehenak baino helburu estrategiko, ardatz eta jarduera txikiagoak ditu; izan ere, lehenak diagnostikoan identifikatutako ia hobekuntza-arlo guztiak hartzen zituen.

Azkenik, planaren ezaugarriak eta hori alderatzeko eta onesteko egindako prozesua egokituta daude gobernuaren plan estrategikoak egiteko eta izapidetzeko prozeduran aurreikusita dagoenera, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen 2008ko abenduaren 5eko Legearen 35. artikuluan jasota dagoenaren arabera.

35. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa

<< 1.– Lau urtez behin, Eusko Jaurlaritzak, bere koordinazio-eskumenak erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egingo du, foru-aldundiekin eta udalekin koordinaturik. Plan horren bidez planifikatuko ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren eta sistema horrek ahalik eta ondoena lan egiteko beharrezkoak diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta bestelako jarduerak, lege honetan jasotako finantza-bitartekoan eta -formulen barruan. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa Eusko Jaurlaritzaren komunikazio baten bidez bidaliko zaio Eusko Legebiltzarrari.

2.– Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko horren baitan egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa. Mapa horretan egongo da zehazturik, oinarrian, plana autonomia-lurraldearen luze-zabalean nola antolatu behar den.

3.– Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko horretan, besteak beste, gauza hauek denak zehaztu beharko dira: gizarte-premien diagnostikoa eta premia horien bilakaeraren iragarpena; lortu beharreko helburuak eta helburu horiek lortzeko lan-ildo estrategikoak eta ekintzarik egokienak; sektore publikoak eta pribatu itunduak zerbitzuak emateko parte-hartzeari buruzko orientabideak, beharrezko koordinazio-neurriak; planaren ebaluazio sistematiko eta jarraitua egiteko baliabideak, eta hori guztia 5. artikuluan aipatutako gizarte-zerbitzuen sare publikoa taxutzeko amaiera-helburuarekin, 7.a) artikuluan ezarritako moduan. Azkenik, 76. artikuluan aipaturik datozen tresna eta prozedurak ere bildu behar ditu. Tresna eta prozedura horiek, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten prestazio, zerbitzu, programa eta jardueren kalitatea hobetzeko balio behar dute.

4.– Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak memoria ekonomikoa izan behar du beti aldamenean. Memoria horretan zehaztu beharko da, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Katalogoan eta Karteran zehazturik datozen prestazioak eta zerbitzuak aldian-aldian martxan jartzeko ustez zertan zenbat diru beharko den, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan datozen biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak gogoan izanik.

5.– Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak, onartua izan baino lehen, beharrezkoa izango du Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren txosten nahitaezkoaz gain, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren nahitaezko txostena, organo hori kontsulta eta gizarte partaidetzarako organo nagusia den aldetik>>.

1.2. DOKUMENTUA EGITEKO PROZESUA

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea memoria ekonomikorik gabe onetsi zen, eta haren ondoren krisia heldu zen, diru-bilketan ia hamar urteko eragina izan zuena. Hala ere, 35. artikuluan ezarrita dago, plan estrategikoek eduki beharra dutela memoria hori, bai eta erakundeek ere, zentzuzkoa denez, eta ez zitzaien arduratsua iruditu zorroari buruzko dekretua onestea hura kontuan hartu gabe.

Hain zuzen horrexegatik, 2015era arte ez zen onetsi Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren (GZEO) adostasuna behar zuen Zorroari buruzko Dekretua. Eta dekreturik gabe, ezin egin zerbitzuak hedatzeko plangintzarik, ezta antolatu beharreko maparik ere. Horregatik guztiagatik, EAEko Gizarte Zerbitzuen lehen Plan Estrategikoa lau urtez behingo izaeraz onartu zen, baina 2016-2019 aldirako; horrek, ordea, ez zuen eragozten, ebaluazioak erakusten duen bezala, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zabaltzen aurrera egiten jarraitzea.

Arrazoi desberdinengatik, II. Plana lehen planarekiko hiru urteko aldearekin egin da, baina, era berean, ez zaio utzi GZES zabaltzeari, pandemiaren baldintzapean, eta aldi berean lan eginez gizarte-zaintzen arloko trantsizio-politikei lotutako berrikuntza-ildoak diseinatzen eta bultzatzen. Hiru arrazoi nagusiki justifikatzen dute alde hori:

- Lehenengo da – krisi ekonomiko, sozial eta sanitarioko testuinguru batean – egokia ematen zuela pandemiak GZESn eragina izateari utzi arte itxarotea, larrialdiko egoerak itxi edo bideratu ondoren GZESren bilakaeraren plangintza egiteko.
- Gainera, Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren (GZPE) ebaluazioa¹, zehaztuta eta zabalduta analisisan zein eskainitako gomendioetan, 2019an hasi zen, artean ere I. Planaren indarraldia amaitu gabe zegoela, baina pandemiak eten egin zuen, eta ezin izan zen 2021era arte amaitu.
- Azkenik, II. Planaren (2026) dimentsionatze ekonomikoari eta denbora-jomugari dagokienez, II. Planaren eta urriaren 7ko 4/2021 Legearen arteko denbora-lotura dago (4/2021 Legea,

¹ Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (2021), EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco, 85 orrialde.

urriaren 7koa, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiak 2022-2026 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzkoa), gizarte-zerbitzuetako aurreko funtsa 2022-2026 aldirako ohiko sisteman berritzearekin, zabaltzearekin eta integratzearekin lotuta.

Nolanahi ere, XII. legegintzaldiaren hasieran, *gizarte-zaintzako politikari* buruzko dokumentu bat egin eta kontrastatu zen erakundeekin eta beste eragile batzuekin, Sailaren jardun-esparruan aplikatuta; sail horretako oinarriek guztientzako erakundeen eta eragileen jardunaren inguruko informazioa ematen dute.

Bestalde, XII. legegintzaldiko lehen urteetan, elkarren segidako bi krisiren eraginari erantzuteaz gain (2020 eta 2022), zeharkako *planak eta estrategiak* diseinatu, ebaluatu eta eguneratu behar izan dira. Horietako batzuk erakunde artekoak dira, Sailaren eskumen-esparruan bereziki garrantzitsuak direnak. Horiek horrela, plan estrategikoa alde aurreko lan-prozesu horietatik abiatuta osatu da.

- Zeharkako plan eta estrategiez ari gara, hala nola *Erronka Demografikorako Euskal Estrategiaz*. Lehenengo ardatzak gazteen emantzipazioa du jomuga, bigarrenak familien proiektuak eraikitzea, hirugarrenak (plan honekin harreman estuena duena) adinekoen bizitza betea eta autonomia sustatzea eta laugarrenak migrazioa txertatzea, landa-balioa handitzeko asmoa duen zeharkako lehen ildoarekin batera.
- Orobat ari gara *gizarteratzeko euskal planaren eta etxerik gabeko pertsonen euskal estrategiaren ebaluazioei eta etxerik gabeko pertsonen bi urtean behingo kontaktar²* buruz ere, gizarteratze-plan berri bat eta etxerik gabeko pertsonen estrategia berri bat landu ahal izateko gakoak diren horiez.
- Era berean, *eredu eta estrategia sektorialen* diseinuari buruz. Zehazki, *bizimodu independentearen ereduari*, hau da, bizitzan zehar bizi-proiektua autonomiaz garatzeko laguntza-eredu jarraituari, hartzaileen parte-hartzearekin diseinatutakoari. Desgaitasunaren esparruko erakunde eta sareekin bultzatu beharreko ereduak, Araban aurrekariak dituena. Horiez gain, *adinekoentzako euskal strategiari* buruz ere ari gara, era parte-hartzaileen jorratuta (Nagusi Agenda) giltzarri diren gaiak jorratzen dituena, hala nola bakardadea, Araban (Araba a Punto) eta Gipuzkoan (Hariak) aurrekariak dituena, adinkeria eta adinekoentzako egoitza-zentroen diseinua, bai eta oraintxe prestatzen ari diren *Haurrentzako bermatze-estrategiari* buruz ere.

Prozesu horiek guztiak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak diseinatu ditu, edo horietan Sailak era aktiboan parte hartu du, legegintzaldiaren hasieratik gaur egunera arte. Saileko lantaldeak, eta, bereziki, Gizarte Politiketako Sailburuordetza eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak bultzatu dute plana egitea eta plana idazteko ardurak hartu dute, Saileko gizarte-politiketako aholkulariaren koordinazioarekin eta datuak kudeatzeaz eta ustiatzeaz arduratzen den GIIZko (Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua) eta EDE Fundazioko talde baten laguntza teknikoarekin.

Bestalde, aurretik adierazi den bezala, 2019. urtea amaitu baino lehen, *2016-2019 lehen planaren ebaluazio-prozesua* hasi zen. Zehazki, GZEOren 2019ko abenduaren 2ko bileran gertatu zen, ebaluazio-prozesuaren hasierari buruzko akordio-proposamen bat eta lan-plan bat aurkeztu zirenean. Prozesu horretan, GZESren 2018ko hedatzeari (2019/01/01) eta, ahal bezain laster, 2019koari (2020/01/01) buruzko datuak bildu ziren, ebaluazioa lehen planean aurreikusitakoaren arabera ixteko.

Landa-lana 2019ko abendutik 2020ko urtarrilera bitartean gauzatu zen, 2019ko datuak biltzeko; baina, pandemia hasi zenean, martxoan eten beharra izan zuten. Hala eta guztiz ere: a) maiatzean datuak biltzeari ekin zioten berriro, zailtasun batzuekin izan arren; b) ekainaren 24ko

²2020ko maiatzean zehar egin zen, pandemiaren eta konfinamenduaren barruan, eta 2022ko urriko gau jakin batean ekin zioten berriro egiteari, ohiko moduan (orduko hartan, urriaren 26tik 27ra).

GZEOren bileran prozesuaren egoerari buruzko informazioa eman zuten; c) azaroan landa-lana itxi egin zuten.

Ebaluazioak ekintzen gauzatze maila jorratu zuen, galdetegi baten eta horren emaitzen bitartez (plazak, erabiltzaileak edo hartzaileak, estaldurak eta konbergentzia, eta gastu publiko arrunta), Exceleko bilketa-txantilo bat baliatuta. Gainera, landa-lanean, 50.000 biztanletik gorako udalekin lantaldeak dinamizatu ziren, 20.000 biztanletik gorako udalekin harremanetan jarri ziren, eta datuak eta balorazio kualitatiboak egiaztatzeko eta alderatzeko saioak egin ziren, GZES osatzen duten EAEko administrazio publikoetako hiru mailekin.

Ebaluazio-txostenaren zirriborroa Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren (GZEK) eta GZEOren bilera monografiko banatan aurkeztu zen. GZEKren bileraren ondoren, ekarpen osagarriak jaso ziren, bai Plena Inclusión Euskadi erakundearenak, bai Elkartean erakundearenak, bai Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoarenak. GZEOren martxoaren 26ko bilera horretan, ebaluazioaren azken zirriborroa aurkeztu zen, II. GZPE egiteko lehen urrats garrantzitsu eta ezinbesteko gisa, eta bigarren plan hau egiteko planteamendua ere aurkeztu zen, horretarako ekarpenak eginez, eta prozesua hasi zen.

Horren ondorioz, ebaluazioaren emaitza txosten luzea da, eta II. Plan Estrategikoaren ezaugarriei, orientazioari, ardatzei eta helburuei buruzko orientabide eta gomendio zehatzak bilduta dauzka. Eta, horrenbestez, hori gauzatzeko funtsezko iturria, partaidetza-prozesu bati erantzuten diona. Prozesu horretan, erakundeek eta GZESren zerbitzuen horniduran garrantzitsuak diren gainerako eragileek esku hartu dute, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren bitartez, dokumentuari egin nahi izan zizkieten eta kontuan hartu ziren ekarpenak bidaliz. Azken ebaluazio-txostena, GZEOren bileraren ondoren eta GZEK adituta, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen 2021eko ekainaren 21ean.

Lehenengo planean bezala, II. Plana **taxutzeko lanaren** zati handi bat EAEko mapa eta memoria ekonomikoa egitera bideratuta dago, horretarako oinarritzat hartuta, batik bat, EUSTATEko proiektio demografikoak eta Zorroko 2019ko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen gaineko datuak (2020/01/01); datu horiek 2021eko uztailen bildu eta sistematizatu dira, GZES osatzen duten EAEko administrazio publikoetako hiru mailen lankidetzarekin. Datu horiek eta I. Planaren ebaluazioa izan dira *EAEko Gizarte Zerbitzuetako II. Plan Estrategikoaren* zirriborroa egiteko funtsezko bi iturriak, beste plangintza-prozesu batzuez gain; prozesu horiek guztiak parte hartzeak dira, eta II. Plana estu lotuta dago horiekin, lehen aipatu ditugunekin, hain zuzen. Zirriborroa Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluarekin kontrastatu zen, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian aurkeztuko, eta, amaitzeko, GZEOk nahitaezko txostena egin zuen.

2. ESPARRU ESTRATEGIKO PARTEKATUA

Hemen aurkezten den esparru estrategikoak tresna irekia eta partekatua izan nahi du gizarte-zaintzen eta zaintza soziosanitarioen arloko trantsizio-politika garatzeko, bi hamarkadatan zehar, hain zuzen ere, 2020an eta 2030ean.

Zaintzak antolatzeko eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema trantsizio sozial eta demografikora egokitzeko eredu berri bateranzko trantsizio-prozesua bideratu eta lagundu nahi du. Eta, bereziki, 2030eko hamarkadan *baby-boom*aren belaunaldiko pertsonak desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenaren mugara iristen direnean planteatuko den agertokiari.

- Esparru horrek funtsezko erreferentziak jasotzen ditu mundu eta Europa mailan, bai zeharkakoak – berdintasunaren eta zaintzen arloan –, bai sektorialak, adinekoei, desgaitasuna duten pertsonari, haurrei eta nerabeei edo migratzaileei dagokienez. Bai eta esku-hartze sozialaren eta GZESren eremuko sektoreen arteko interakzioari buruzko gure araudiaren erreferentziak ere.
- Ondoren, zehatz-mehatz aurkezten dira zaintzetan gizarte-antolaketaren eredia (social care), zaintza-politikaren ikuspegia eta gizarte-zaintzen politika. Politika hori gizarte-zerbitzuetara, GZESra eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren beste sistema batzuekiko elkarrenginera mugatzen da, eta,aldi berean, nahitaez lotzen da emakumeen eta gizonen berdintasunetik, printzipio eta helburu gisa, eraturako zaintza-politika integral batekin.
- Azkenik, eta enkoadratze horrekin, ikuspegi estrategikoa aurkezten da, 2030eko hamarkadaren jomugarekin. Ikuspegi horretan kokatzen da EAeko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa, baina, zalantzarik gabe, jarraipena izango du denbora-jomuga hori duten ondoko ondoko plan estrategikoetan.

Hala, gerora planean sartutako proiektu eragileek eta jarduketara osagarriek aukera ematen diote GZESri eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren sistemen arteko lankidetzari aurrera egiteko, ikuspegi estrategikoko horren ildotik, bi ardatz nagusitan: autonomia eta gizareratzea; zahartzea, aniztasuna eta kohesioa. Eta kasu batzuetan, krisialdiko eta gizarte-trantsizioko testuinguru konbinatu batean, II. GZPE egin aurretik aktibatu ziren, eta, trantsizio-politika baten bitarteko izanik, jarraipena izan dezakete trantsizio-politika hori amaitzen denean ere. Era berean, agintekoadroak ikuspegi estrategikoarekin koherenteak diren adierazleak eta lehen planaren denbora-jomugan ebalua daitezkeen xedeak biltzen ditu. Eta mapak GZES 2025ean eta 2030ean zabalatzeko aurreikuspenak -ez helburuak- biltzen ditu.

Hori guztia bat dator plangintza estrategikorako tresnak trantsizio-politiken garapenera egokitu beharrekin.

2.1. ERREFERENTZIA GAKO BATZUK GIZARTE-ZAINTZEN POLITIKETAN

2.1.1. Zeharkako erreferentziak

Planaren helburu estrategikoak, bereziki, gizarte-zaintzen eredia eraldatzera bideratuta dauden neurrian, ongizate-eredua sakonago eraldatzearen adierazpide moduan, jarraian mundu mailako eta Europar Batasun mailako erreferentzia giltzarri batzuk aurkeztuko ditugu, bizitzan zehar zaintzekin eta gizarte-zaintza instituzional edo ez-instituzionalekin harremana daukatenak.

Nola gizarte-zerbitzuen eta GZESren berezko esparruan, hala espazio soziosanitarioan, bereziki aplikatzekoak dira iraupen luzeko gizarte- eta osasun-zaintzei dagozkien alderdiak, nahiz eta garrantzi gradu handienekoak diren beste printzipio orokor batzuk ere, eta batik bat emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta daudenak. Beste alde batetik, erakunde-zaintzei dagokien planteamenduak koherentea izan behar du, eta zaintzen antolamendu-eredu batean kokatu behar da, hala nola zaintzen gizarte-antolamenduaren eredian (social care) eta oinarri komunak dauzkan zaintza-politika zabalago batean (gizartearen, osasunaren, hezkuntzaren arlokoa).

Mundu mailan, genero-berdintasunerako eta emakume zein neskek ahalduz, Agenda 2030aren **5. GJHen 4. xedeak** honako hau proposatzen du: <<Ordaindu gabeko zaintza eta etxeko lanak aintzat hartzea eta baloratzea, zerbitzu publikoak emanez, azpiegiturak eskainiz eta gizarte-babeseko politikak formulatuz, bai eta etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatuz ere, herrialde bakoitzean egokia denaren arabera>>.

NBE EMAKUMEAK erakundeak 2015ean argitaratutako “El progreso de las mujeres en el mundo 2015-2016. Transformar las economías para realizar los derechos” dokumentua bereziki interesgarria da, egileen iritzia azalduz, 2030 Agendarekin bat datozen proposamenak eta Europar Batasunaren esparruko beste funtsezko erreferentzia batzuk biltzen dituelako.

Hala, txostenak esku-hartze publikorako lehenetsun dekalogo bat ezarri du, eta horietako bi lehenetsun zuzenean lotuta daude gizarte-zaintzako politikekin; eta gainerako zortzi lehenetsunak aplikatzekoak dira. Lehenengo biak: a) etxeko lanak eta ordaindu gabeko zaintza-lanak aintzat hartzea, murriztea eta birbanatzea; b) genero-ikuspegia duten gizarte-zerbitzuetan inbertitzea.

Txostenean jasota dagoenez, ordaindu gabeko zaintza-lana, baldintza jakin batzuetan eta politika makroekonomiko egoki baten esparruan egindakoa, gizartearen aurrerapenerako faktorea ere bada, produkzio-gaitasunak hobetzen ditu eta balio ekonomiko erreala eratzen du.

<<Ordaindu gabeko etxeko lanak eta zaintza-lanak egiteak lagundu egiten dio garapen ekonomikoari eta giza ongizateari, ikasteko eta sormena zabaltzeko gai diren pertsona ekoizleak gara daitezten bideratzen baitu. Hala ere, era horretako lanaren karga desberdin banatuta dago. Zaintza-zerbitzu egokirik ez baldin badago, ordaindu gabeko etxeko eta zaintzako lan gehienak emakumeen gain uzteak horien desabantaila sozioekonomikoa indartu dezake, mugatu egiten baitie sarbidea hezkuntzarako, osasun-arretarako eta ordaindutako enplegurako, bai eta bizitza politikoan eta kulturean daukan parte hartzea ere. Emakumeentzako berdintasun egiazkoa lortzeko, ezinbestekoa da lan mota hori aintzat hartzea, murriztea eta birbanatzea>>.

Bestalde, eskubideetan oinarritutako ikuspegia ere nabarmentzea garrantzitsua da, eta, horrenbestez, zaintza-politika, beste edozein bezala, emakume guztientzako eskubide guztiak onartzean eta gauzatze eraginkorrean txertatzeko beharra.

Horrek egitura-eraldaketak eskatzen ditu, eta, zehazki, politika ekonomikoan –eta, horrez gain, ekonomiako eta enpresetako ereduetan, enpresen eta enplegu-emaileen praktikan–, baita eskubide sozial eta ekonomikoak lotzea ere, pertsona eta emakume ororen eskubide guztiak benetan baliatzen direla bermatu ahal izateko baldintza gisa, dauzkaten bizi-proiektuak autonomiaz garatzea, berdintasunean eta gizarte-aurrerapenaren baitan.

<<Zerbitzu publikoak funtsezkoak dira emakumeen eskubideak gauzatzeko eta eremu askotan egiazko berdintasuna lortzeko. Osasun-zerbitzu egokirik gabe, esate baterako, emakumeek eta neskek zailtasun handiak izango dituzte euren sexu- eta ugalketa-eskubideak gauzatzeko. Eta, lehenago eztabaidatu izan den bezala, haurren zaintza lortzeko moduko zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ez baldin badago, emakumeek lan egiteko daukaten eskubideak oztopo handi bati egin beharko dio aurre. Emakumeen eskubideei erantzun ahal izateko, gizarte-zerbitzuetako inbertsio maila handitu behar da nahitaez, eta zerbitzu horien prestazioa eraldatu>>.

Ikuspegi hori zerbitzu publiko guztiei dagokie, zainduei eta zaintzen dituztenei zuzendutako erakundeen gizarte-zaintzak ematen dituztenak barne.

Europar Batasunean, **Eskubide Sozialen Europako Zutabea (ESEZ)** gizarte-politiketako funtsezko erreferentzia da, esanahi zabalean hartuta, eta zaintzei dagokienez, zainduak izateko eskubidea aitortzen die pertsonari, bai eta zaintzen dituzten profesionalek edo senitartekoek kontziliazio erantzunkidea³, enplegua, prestakuntza edo gizarte-babesa izateko daukaten eskubidea ere.

³Dokumentuan zehar, nahiz eta zehaztu iturriak hala egiten ez baldin badu, ulertu beharra dago kontziliazio-politikak kontziliazio erantzunkidea sustatzera bideratuta daudela. Bestela, emakumeek ordaindu gabeko zaintza-lanetan daukaten pisua indartzeko eta zaintza-rolen eta desberdintasunaren tradizioko esleipena betikotzeko lagundu dezake kontziliazioak.

Zaintzen esparruan aplikatu beharreko zutabearen helburuetako batzuk honako hauek dira:

- Lehenengo kapituluan, genero-berdintasuna (02), esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko tratua- eta aukera-berdintasuna bermatzea eta sustatzea dakarrena.
- Bigarren kapituluan, bizitza profesionalaren eta bizitza pribatuaren arteko oreka (09), eta, bereziki, gurasoek eta asistentzia-erantzukizunak dauzkaten pertsonen baimen egokiak, lan-baldintza malguak eta laguntza-zerbitzuak izateko duten eskubidea. Emakumeek eta gizonen aukera berdina izan beharko dituzte baimen bereziak eskuratzeko, asistentzia-erantzukizunak betetzeko, eta baimen horiek modu orekatuan erabiltzera animatu beharko dira.
- Hirugarren kapituluan, iraupen luzeko (18) zaintza eskuragarriak eta kalitate onekoak izateko eskubidea, bereziki etxeko laguntza eta erkidego-zerbitzuak jasotzeko eskubidea.

Era berean, zaintza-politikarekin lotuta daude I., II. eta III. kapituluetakoa hainbat elementu.

- I. kapituluan, aukera-berdintasunari eta lan-merkatuan sartzeari buruzkoan: a) hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza iraunkorra izateko eskubidea (01), besteak beste, lan-merkatuko trantsizioak arrakastaz kudeatzeko asmoz; b) aukera-berdintasuna, arreta berezia jarri ordezkaritza txikia daukaten taldeetan (03); c) enplegurako laguntza aktiboa (04), lanbide-trantsizioetan prestakuntza jasotzeko eskubidea barne⁴.
- Lan-baldintza bidezkoak gozatzeari buruzko II. kapituluan, zaintza profesionalan aplikatzen diren hainbat elementu, kontziliazioari eta familia-zaintzari buruz adierazitakoez gain: a) enplegu segurua eta moldagarria; b) bidezko soldatak; c) laneko osasunean eta segurtasunean babes maila handia izateko eskubidea.
- Gizarte-babesari eta gizarteratzeari buruzko III. kapituluan, honako hauek bereziki: a) hurrek haur-hezkuntza eta -laguntza eskuragarria eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea, bereziki zainduta pobrezia aurkako babesak eta aukera-berdintasuna; b) langileen gizarte-babesa; c) zahartzaroko pentsioak eta prestazioak, pentsio-eskubideak eskuratzeko emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatuz, eta zahartzaroan pertsona orok bizitza duina bermatuko dioten baliabideak edukitzeko duen eskubidea; d) osasun-laguntza eskuragarria, prebentiboa, sendagarria eta kalitatekoa izateko eskubidea.

Zaintzen Europako Estrategian garatuta daude, printzipio bezala, genero-berdintasuna, bizitza profesionalaren eta pribatuaren arteko oreka, haurrei laguntzea eta bermea eskaintzea, eta Gizarte Eskubideen Europako Zutabearen iraupen luzeko zaintzak. Arreta 11. eta 18. printzipioetan jarrita, elkarlotuta dago bai lana eta familia bateratzeari buruzko 9. printzipioarekin, eta bai desgaituen eskubideei buruzko 17. printzipioarekin.

Gainera, Koordinazio Sozialerako Metodo Irekiaren testuinguruan, estatu kideek hiru helburu komun ere adostu zituzten gizarte eta osasun arloko zaintzetan, baita zaintza soziosanitarioetan ere: (1) Pertsona guztiek zerbitzu egokiak eskuratu ahal izango dituztela bermatu, zaintza-beharrak ez dituela pobrezia eta finantza-mendekotasuna eragingo ziurtatu, eta eskuragarritasunean eta osasun-eraketan desberdintasunak jorratu. (2) Kalitatea sustatu eta asistentzia beharizan eta lehentasun aldakorretara egokitu, kalitate-arauak ezarri eta osasun-profesionalen eta pazienteen eta asistentziaren onuradunen erantzukizuna indartuz. (3) Zaintza eskuragarriak eta iraunkorrak bermatu, sustatuz bizimodu osasuntsuak eta aktiboak, sektorerako giza baliabide onak, baliabideak zentzuz erabiliz, bereziki erabiltzaile eta hornitzaileentzako pizgarri egokien bitartez, gobernantza ona eta asistentzia-sistemen eta -erakundeen arteko koordinazioa.

Aurrekoek gain, eta betiere Europar Batasunaren baitan, honako hauek ere aipatu behar dira: *Zahartzeari buruzko Liburu Berdea*, zaintzen ikuspegi integratua izateko beharra azpimarratzen duena; *Genero Berdintasunerako Estrategia*, funtsezko helburutzat dituen, besteak beste,

⁴Lanbide-trantsizioei dagokienez, senitarteko bat zaintzeko lan-egoera bat (baimena, eszedentzia, lanaldi-murrizketa) hasi, garatu edo amaitzetik eratorritako joan-etorriak sartu behar dira.

borrokatzea genero-estereotipoak, soldaten eta pentsioen arteko desberdintasunak, eta zaintzetan genero-arrakala ezabatzea.

Azkenik, Zaintzen Europako Estrategiaren oinarriari buruzko beste aipamen batzuen artean, honako hauek aipatu behar dira: *Lana eta familia uztartzeari buruzko Komunikazioa* –EB osoan asistentzia-zerbitzu formalak, eskuragarriak eta kalitatezkoak izateko beharra aitortzen duena, enplegurako oztopoak ezabatzeko, batik bat emakumeentzat–, *Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Estrategia, Gizarte Ekonomiako Ekintza Plana edo Migrazioari eta Asiloari buruzko Itun Berria*.

Berehala helduko diogu erreferentzia horietako bati, baina, orain, Zaintzen Europako Estrategia zuzenean jorratuz, esan behar kalitate handiko laguntza-zerbitzuak bermatu nahi dituela, eskuragarriak eta eskuragarriak, zaintzaileen lan-baldintza hobeeekin eta familia-bizitza eta bizitza profesionala uztartzeko baldintza hobeeekin.

Eta, horretarako, *hiru jardun-eremu estrategiko* ditu ardatz: haur-hezkuntza eta haurren arreta; iraupen luzeko zaintzak; eta bidezko lan-baldintzak lortzea zein laguntzako langileen prestakuntza bultzatzea. Azkeneko bi horiei ekingo diegu orain.

Iraupen luzeko zaintzei dagokienez, ESEZren 18. printzipioan ezarrita dago iraupen luzeko zaintza eskuragarriak eta kalitate onekoak izateko eskubidea, eta bereziki etxeko laguntza eta erkidego-zerbitzuak izateko eskubidea. Eta iraupen luzeko zaintza eskuragarriak eta kalitate handikoak eskuratzeko aukera hobetzea da arlo honetako strategiaren helburua.

Estrategian, EBko zaintza-sistemen diseinuan eta heldutasunean dauden desberdintasunak jabetuta, erronka komun batzuk identifikatu dira honako hauen inguruan: eskuragarritasuna, prestasuna eta irisgarritasuna, kalitatea, eskulana (zaintza formalak eta informalak), finantzaketa eta gobernantza.

Batzordeak gomendatu du estatu kideek ekintza-plan nazionalak egin beharko lituzketela, iraupen luzeko zaintzak eskuragarriagoak, lorgarriagoak eta kalitate hobekoak izan daitezen denentzat, esate baterako:

- a) Egokiak, globalak eta eskuragarriak direla bermatuz, eta iraupen luzeko zaintza-premiak dituzten pertsonen bizi-maila duina izateko aukera emanez.
- b) Zerbitzu profesionalen eskaintza eta konbinazioa handituz (etxeko laguntza, hurbileko laguntza eta egoitza-arreta), eskuratzeko aukeretan lurralde-arrakalak itxiz, zerbitzuak ematean konponbide digital eskuragarriak ezarri eta zerbitzuak eta instalazioak desgaituentzat eskuragarriak direla bermatuz.
- c) Iraupen luzeko zaintza-emateentzat kalitate handiko irizpideak eta arauak bermatuz (kalitatea bermatzeko esparru eta mekanismo egokia barne).
- d) Zaintzaile informalei laguntza emanez, zaintzaileak, askotan, emakumeak eta zaintzaileen senitartekoak izaten baitira, prestakuntzaren, aholkularitzaren eta laguntza psikologikoaren eta finantzarioaren bitartez.
- e) Iraupen luzeko zaintzetarako finantzaketa egokia eta iraunkorra mobilizatuz, bereziki EBko funtsak erabiliz.

2022ko irailaren 7ko Europako Batzordearen “*Proposal for a council recommendation on access to affordable high-quality long-term care*” 2022 COM (2022) 441 azkena 2022/0264 (NLE) dokumentuan garatuta daude bost puntu horiek. Lehen kapituluaren dokumentuaren funtsezko kontzeptu batzuk definitu ostean, aztertuta daude gero zerbitzuen egokitasuna, erabilgarritasuna eta kalitatea (1., 2. eta 3. puntuak eta aurrekoak), zaintzaile informalak (4. puntua) eta formalak, gobernantza, gainbegiratzea eta informazioa, eta iraupen luzeko zaintzen ebaluazioa eta finantzaketa (5. puntua).

Lan-baldintzei eta prestakuntzari dagokienez, estrategiak honako gomendio hauek ezarri eta justifikatu ditu: negoziozko kolektiboa eta elkarrizketa soziala sustatzea, soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko (ESEZen II. kapituluko 8. printzipioa); laneko osasunari eta segurtasunari buruzko araurik zorrotzenak bermatzea; zaintzaileentzako hezkuntza- eta etengabeko prestakuntza-programak diseinatzea (ESEZen II. kapituluko 5. printzipioa); zaintzen inguruko

genero-estereotipoak jorratzea eta komunikazio-kanpainak abiaraztea; etxeko langileei buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) 189. hitzarmena berrestea eta aplikatzea.

Dagokionaren arabera, Europako Batzordeak:

- a) Gizarte-zerbitzuetarako beste elkarrizketa sozial sektorial bat eratzea aztertuko du EB mailan.
- b) Gaitasunen arloko elkarte bat finkatzea sustatuko du, iraupen luzeko zaintzen sektorerako Gaitasunen aldeko Itunaren esparruan.
- c) Laguntza-sektoreko lanaren eta lan-baldintzen balio sozial eta ekonomikoa ebaluatzeko proiektuak eta azterlanak finantzatzeko ditu.
- d) Lan-baldintzak zuzentzen dituzten EBko arauen aplikazioa ikuskatuko du.
- e) Egungo onarpen-baldintzen eta EBkoak ez diren herrialdeetatik datozen iraupen luzeko zaintzaileen eskubideen inbentarioa egingo du, eta zaintzaileak erakartzeko EB mailako araubideak garatzearen bideragarritasuna aztertuko du.
- f) Erasmus+ programen esparruaren baitan, lehen haurtzaroko hezkuntza eta zaintza arloko langileentzat dauden aukerak sustatuko ditu.

Berriro ere lehen aipatutako *“Proposal for a council recommendation on access to affordable high-quality long-term care”* dokumentura jota, horiek zehazten dituzten jarduera-proposamenak finkatu dira.

Alde batetik, iraupen luzeko zaintzetan bidezko lan-baldintzak bermatzeko, Estatu kideek honako hauek egin beharko lituzkete:

- Elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa sustatu, sektorean soldata erakargarriak garatzen laguntzea barne dela, aldi berean gizarte-solaskideen autonomia errespetatuz.
- Laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan estandarrik altuenak sustatu.
- Talde kalteberen erronkei ekin: epe luzerako etxeko zaintza-lana, barneko zaintzaileak eta zaintzaile migratzaileak, baita zaintza-lan hori eraginkortasunez arautzearen eta profesionalizatzearen bitartez ere.

Bestalde, egokia hori denean, gizarte-solaskideekin, iraupen luzeko zaintzen hornitzaileekin eta beste alderdi interesdun batzuekin lankidetzan, gaitasunen premiari eta iraupen luzeko zaintzetan dagoen profesional eskasia jorratu beharko liokete, eta honako jarduera hauek batik bat:

- Hasierako eta etengabeko hezkuntza eta prestakuntza diseinatzea eta hobetzea, beharrezko trebetasunak eta gaitasunak emateko, digitalak barne.
- Lanbide-ibilbideak sortzea, baita kualifikazioak, lanbide-birmoldaketa eta informazio- eta orientazio-zerbitzuak hobetzearen eta baliozkotzearen bitartez ere.
- Aitortu gabeko lanak egiten dituztenentzako enplegu-estatus erregularrerako bideak ezartzea, eta epe luzeko zaintzaileentzako legezko migrazio-bideak aztertzea.
- Estandar profesionalak indartzea, langileei estatus profesional erakargarria eta lan-ibilbiderako aukerak eskainiz, orobat kualifikazio gutxi edo batere ez dutenei.
- Genero-estereotipoari eta genero-segregazioari heltzeko neurriak txertatzea, eta sektoreko lanbideak erakargarriak izan daitezen eragitea, bai gizonentzat, bai emakumeentzat.

Gainera, zaintzaile informalei dagokienez, prozedura argiak ezartzea gomendatu zaie Estatu kideei horiek identifikatzeko eta egiten dituzten zaintza-jardueretan laguntzeko:

- Iraupen luzeko zaintzetan aritzen diren profesionalekin lankidetzan aritzea bideratuz.
- Horretarako, beharrezko gaikuntza, aholkularitza, arreta medikoa, laguntza psikologikoa eta “errelebo-zaintza” eskainiko zaizkie (arnasaldia eta zainduaren erakunde-zaintza).
- Finantza-laguntza egokia eskainiz, lan-merkatuan parte hartzeko asmoa zapuztu gabe.

Batzordeak, ostera, hitza eman du honako hauek egiteko:

- Batasunaren finantzaketa eta laguntza teknikoa mobilizatu, Estatuetakoa erreformak eta gizarte-berrikuntza sustatzeko iraupen luzeko zaintzetan.
- Gomendio hau Europako Seihilekoaren baitan txertatzeko aurrerapausoak monitorizatu, Gizarte Babeseko Komitearekin eta, garrantzitsua denean, Enplegu Komitearekin aldi behin egindako aurrerapausoak ebaluatuz, Estatu kideetako ekintza-planetan eta aurrerapen-txostenetan oinarrituta eta (e) puntuak aipatutako adierazle esparruan, eta Gomendio hau onartu eta hurrengo 5 urteetan Kontseiluari horren berri eman.
- Lanean batera aritu Estatu kideekin, bitartekotzat hartuta epe luzerako arretako Estatuetakoa koordinatzaileak, Gizarte Babeseko Komitea eta Enplegu Komitea, gizarte-solaskideekin, gizarte zibileko erakundeekin, gizarte-ekonomiako eragileekin eta interesa duten beste alderdi batzuekin, elkarrekiko ikaskuntza bideratu ahal izateko, esperientziak partekatzeko eta Gomendio horri erantzunez hartutako ekintzen jarraipena egiteko, Estatu bakoitzeko ekintza-planetan ezarrita dagoen bezala.
- Estatu kideekin lan egin, hobetu ahal izateko Europar Batasunean iraupen luzeko zaintzei buruzko datu alderagarriak eskura izatea, irismena eta egokitasuna, iraupen luzeko zaintzen estatistikei buruzko Batzordearen lantaldearen hurrengo emaitzetan oinarrituta.
- Gizarte Babeseko Batzordearekin lan egin Gomendioa txertatzea monitorizatzea adierazle esparru batean, epe luzerako arreta-adierazle komun eta beste monitorizazio-esparru batzuen lan bateratua oinarrituta, lana ez bikoizteko.
- Gizarte Babeserako Komitearekin batera txostenak egin, iraupen luzeko zaintzen erronka komunak eta Estatu kideek horiei heltzeko hartutako neurriak aztertuz.
- Batasunaren mailan eta Estatu kideen eta alderdi interesdunen artean sentsibilizazio- eta komunikazio-ahaleginak indartu.

Gobernantzari dagokionez, komeni da azpimarratzea, datuak partekatzeko behararekin batera, *nazio, eskualde eta toki mailan* garrantzitsuak diren alderdi interesdun guztiak inplikatzeko planteamendua, epe luzerako arreta-politikak prestatzean, inplementatzean, jarraitzean eta ebaluatzean, eta politika horien koherentzia hobetzeko beste politika egoki batzuekin, hala nola osasunarekin, enpleguarekin, hezkuntzarekin eta prestakuntzarekin, gizarte-babesarekin eta gizarteratzearekin, genero-berdintasunarekin eta desgaituen eskubideekin.

Beste funtsezko erreferentzia bat da Europako Parlamentuaren 2021eko urtarrilaren 21eko Ebazpena, Europar Batasunak genero-berdintasunerako duen estratergiari buruzkoa **(2019/2169 (INI))**

Ebazpenean jasotako gogoetetan, berdintasun-politiken testuinguru orokorrari dagokionez adierazita dago genero-berdintasuneko bidean aurrera jotzeko ahaleginak moteldu egin direla nolabait, <<aldir berean, genero-berdintasunerako politikaren eta emakumeen eskubideen aurkako mugimenduek aurrera egin dute, genero-rol tradizionalak arautzat berrezarri nahian, statu quo-a zalantzan jarriz eta aurrerapen berriak blokeatuz (...), eta emakumearen eskubideen aurkako mehatxu horiek mehatxuak dakartzatela beti bai demokraziarentzat eta bai gogoeta sozial eta ekonomikoarentzat>> (E Gogoeta).

Bestela, emakume guztien eskubideak defendatzeak eta sustatzeak demokrazia indartzen du eta gizartean eta ekonomian aurrera egiteko aukerak sortzen ditu. Eta ordaindu gabeko zaintze-lana aitortzea, murriztea, birbanatzea eta irudikatzea, eta, horrenbestez, erakunde-zaintza indartzea, betebeharra da genero-berdintasunerako eta emakumeen eta gizonen lana, bizitza pertsonala eta familia-bizitza modu erantzunkidean uztartzeko.

Orobat, Ebazpenean nabarmenduta ageri da beharrezkoa dela ikuspegi intersektionala bultzatzea emakume guztientzat genero-berdintasuna lortzeko, ekinez horiei eragiten dieten diskriminazio-mota guztiei eta, bereziki, diskriminazio anizkoitzari, eta egiaztatu du <<Batasunaren politikak ez dutela orain arte ikuspegi intersektionalik aplikatu, eta diskriminazioaren banakako dimentsioan zentratu direla batik bat, dimentsio instituzionala, egiturazkoa eta historikoa jorratzen ez dituen horretan>>. (D Gogoeta).

Koherentziaz, ohar orokorretan, 71. oharrean poza adierazita dago Batzordeak Eskubide Sozialen Europako Zutabea aplikatzeko ekintza-plan bat onartzeko konpromisoagatik, eta genero-ikuspegia integratzeko beharra azpimarratuta, ikuspegi interseksionala erabiliz, zutabearen 2. eta 3. printzipioekin bat etorrira.

Zaintzen esparruan, nabarmentzekoak dira ebazpenaren 39. eta 40. ohar orokorrak, zaintzen aldeko Europako itun moduko bat aipatzen dutenak (letra lodia guk ezarria da):

<<39. Bartzelonako helburuak berraztertzea babesten du, eta Estatu kideei eskatzen die iraupen luzeko laguntza-zerbitzuetan eta zaintza-zerbitzuetan berma ditzatela inbertsio egokiak, eskura dagoen Batasunaren finantzaketaren kargura ere bai, eta berma ditzatela haurtzaindegi-zerbitzu ordaingarriak, eskuragarriak eta kalitate handikoak, haur-hezkuntza barne dela, bereziki ama gazteei lan egiteko edo ikasteko aukera eskaintzen diena, eta, horren harira, gogora ekarri nahi du Eskubide Sozialen Europako Zutabearen 11. printzipioa; finantza-laguntza eskatzen du oraindik helburuak lortu ez dituzten Estatu kideentzat, eta horien artean jardunbide egokienak bateratzeko elkartzea; gogo onez hartu du, gainera, Estatu kideentzat orientabideak prestatzea finantza-pizgarrien aurkako borrokaren inguruan, gizarte-, ekonomia- eta zerga-politikei dagokienez; azpimarratzen du helburu izan behar dela zaintzen arloko berdintasuna eta diru-sarreraren ekarpenen arloko berdintasuna, ahalegin horien muina jomuga hori izan behar duela, eta egokia iruditu zaio, testuinguru horretan, lehen urrats gisa, familia-bizitza eta bizitza profesionala uztartzeari buruzko Zuzentaraua>>.

<<<40. Batzordeari eskatzen dio Europarako laguntza-itun bat proposa dezala, zeinaren baitan onartuko den laguntza-premia eta laguntza-zerbitzu guztiei buruzko ikuspegi orokor, eta bizi-ziklo osoko laguntza-zerbitzuetarako gutxieneko arauak eta kalitate-jarraibideak ezar ditzan, batez ere haurrentzat, adineko pertsonentzat eta epe luzeko premiak dauzkaten pertsonentzat; Batzordeari eta Estatu kideei eskatzen die laguntza-zerbitzuen prestazioari buruzko datu banakatuak bil ditzatela; Estatu kideei eskatzen die familia eta bizitza profesionala uztartzeari buruzko zuzentaraua azkar eta osoki ezarri eta aplikatu dezatela, lana eta familia-bizitza behar bezala bereiz daitezzen bermatu ahal izan dadin; eta Zuzentarauaren gutxieneko arauetatik haratago joan daitezela eskatzen die orobat, hainbat neurri erantsiz, hala nola erabateko ordainsaria daukan baimena, zaintzale moduan gizonen berdintasuna sustatzea, bitarteko horrekin, aitatasun- edo amatasun-baimena eskuratzeko genero-estereotipoen aurka borrokatuz, zaintzaile informalak zeregina aitortuz, gizarte-segurantzara eskuratzeko eta erretiro-pentsiorako eskubidea bermatuta izan dezaten, babestuz desgaitasuna edo iraupen luzeko gaixotasunak dauzkaten pertsonak edo adineko pertsonak zaintzen dituzten gurasoen edo senitartekoen erronka eta beharrezko espezifikoei erantzuteko zerbitzuak, eta langileen soldaten eta, gizarte nahiz lan-prestazioen eskura izateko aukerari kalterik eragin gabe, langileek lanetik deskonektatzeko duten eskubidea errespetatzen duten lan-modalitate malguak bultzatuz; Batzordeari eskatzen dio urtero era sistematikoan zorrotz gainbegiratzeko Estatu kideek familia-bizitza eta lanbide-bizitza uztartzeari buruzko zuzentaraua aplikatzen dutela>>.

Bi ohar horiez gain, zaintzaren alorrari egiten diote erreferentzia berriaz 41. oharretik 49.era bitarteko oharrek eta 59., 69., 70. eta 77. oharrek.

Enpleguari eta lan-baldintzei dagokienez, EBko Gizarte Babeserako Batzordeak eta Komiteak argitaratu berri duten argitalpen batean, "*Long term care workforce: employment and working conditions*" izenekoan, hain zuzen, azpimarratuta dago iraupen luzeko zaintzen sektoreak gero eta pertsona gehiago enplegatzen dituela, langile gutxi duela eta sektore feminizatua dela, migratzaileak lan jakin batzuetan biltzen dituen.

Txostenean mapa bat dago osatuta, lan-baldintzen, enpleguaren izaeraren eta sektoreko negoziazio kolektiboaren eginkizunaren ingurukoa, eta hor aztertuta daude enplegua erakargarria izatea lortzeko politikak, horrez gain borrokatuz aitortu gabeko lana eta hobetzeko bidea erakutsiz preso gisa lan egiten duten pertsonen egoera.

2.1.2. Sektoreko erreferentziak

Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak modu zabalean aitortzen ditu nazioarteko araudiak, zehazki, ***Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak***.⁵

⁵ Konbentzioa gure ordenamendu juridikoaren parte da 2008tik. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren berreste-agiria, New Yorken egina 2006ko abenduaren 13an (BOE, 96. zk., 2008ko apirilaren 21eko). Hemendik berreskuratuta: <https://www.boe.es/boe/dias/2008/04/21/pdfs/A20648-20659.pdf>

Bertan, gizarte-babesari (28. artikulua) eta bizimodu independenteari (19. artikulua) lotutako eskubide garrantzitsuak daude, eta, beraz, desgaitasuna duten pertsona guztien eskubidea da.

Union of Equality. Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Europako 2021-2030 estrategia

Lehenik eta behin, Europako strategiak irisgarritasuna beste eskubide batzuen, autonomiaren eta berdintasunaren erabilera errazteko baliabidea dela azpimarratzen du, eta herritartasunaren ikuspegia hartzen du, mugikortasunarekin eta parte-hartzearekin, bizi-kalitatearekin eta bizimodu independentearekin lotuta. Eta koherentziaz, erkidegoan oinarritutako zerbitzuak garatzea eta gizarte-babeseko sistema sendotzea du helburu.

Gizarte-babeseko sistema finkatzea eta desgaitasunen bat duten pertsonen egokitzea, azpisistema bakoitzerako sarbidean berdintasuna modu proaktiboan sustatuz (berriz ere irisgarritasuna da eskubideak benetan baliatzeko baldintza). Eskubideen ikuspegi horrek, hezkuntza inklusiborako, osasunerako, gizarte-zerbitzuetarako, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko, enplegurako eta etxebizitzaren babes sozialerako politika aktiboetarako eskubideaz gain, barne hartzen ditu justiziarako, lege-babeserako eta segurtasunerako eskubidea, bai eta kulturarako, aisialdirako, kirolerako edo turismorako eskubidea ere.

Ikuspegi horrek, beraz, zeharkako politika publikoak eskatzen ditu, haien autonomia, bizi-kalitatea eta bizimodu independentea sustatzera bideratuak, haiek parte hartuta.

Ildo beretik, 4. atalean, bizitza duinaren eta bizimodu independentearen mailan: “Independentzia, kalitatezko gizarte- eta enplegu-zerbitzuak, etxebizitza eskuragarri eta inklusiboa, etengabeko ikaskuntzan parte hartzea, gizarte-babes egokia eta gizarte-ekonomia indartzea ezinbesteko elementuak dira desgaitasuna duten pertsona guztiek bizitza duina izan dezaten”.

Eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorrek gizarte-babesari eskaintzen dio VII. kapitulua. Legearen artikuluetan, honako hauek garatzen dira: gizarte-babeserako eskubidea (48. artikulua), gizarte-babesa aplikatzeko irizpideak (49. artikulua), gizarte-babeserako eskubidearen edukia (50. artikulua), gizarte-zerbitzuen motak (51. artikulua) eta lanerako zentroak (52. artikulua).

Zahartzeari buruzko Liburu Berdea. Belaunaldien arteko elkartasuna eta erantzukizuna sustatzea

Liburu Berdeak zahartzeak gizartean daukan eragina eta 70 urtetik gorako mendekotasun-tasek iraupen luzeko zaintzen premian eragin duten gorakada progresiboa aztertzen ditu, arriskuak (bakardadea, pobrezia zahartzaroan...) eta aukerak (enplegua, gizonen eta emakumeen berdintasuna...) identifikatuz. Ildo horretan, honako hau adierazten du:

- Iraupen luzeko zaintza profesionalak eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeak orobat lagun dezake adinekoen beharrei erantzuten eta enplegu berriak sortzen. Zehazki, hamarkada batean 8 milioi osasun- eta gizarte-laguntzan, eta horrek gaikuntza eta birziklatze arlorako politikak eskatzen ditu. *Gaitasunen aldeko Itunak* (2020ko azaroa) erantzuna ematen du politika horiei dagokienez, zeinetan EBko eta kanpoko migrazio-ikuspegitik ere eragin beharra dagoen.
- Berdintasunaren arloan, beti erantzunkidea den kontziliazio-politikak eta zaintza profesionalak sustatzeak enplegua lortzeko eta hori mantentzeko aukerak sor baldin baditzake, genero-arrakalaren aurkako borrorak sustatuko egingo luke gizonak etxeko lanetan parte hartzea, zerga-araubidea eta gizarte-babeseko sarea erreformatzeko egiturazko beste neurri batzuekin batera. Beste alde batetik, politika horiek ez betetzeak kostuak ere eragiten ditu, zuzenean lotuta baitago zainduen eta zaintzaileen osasunean eta ongizatean dauzkan ondorio negatiboekin, lan-merkatuan gutxiago parte hartzearekin eta diru-sarrerara txikiagoak izatearekin.

Zaintzen eskariari dagokionez, Liburu Berdeak egiaztatuta ageri da autonomia sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko ahaleginek ez dutela eragotziko zahartzeak eta bizitza-luzatzeak <<nahitaez osasun-laguntzako zerbitzuen eta iraupen luzeko zaintzen eskari orokorraren egiturazko handitze bat>>⁶. Premia larriagotu bat <<urruneko eta landa-eremuko zenbait eskualdetan, non erronkei aurre egin behar izaten dieten gizarte-zerbitzuen kalitateari eta estaldurari dagokienez>>.

Testuinguru horretan, EBren erronka komunak identifikatu dira liburuan, besteak beste, hemen jarraian azaldukoak:

- *Bermatu iraupen luzeko zaintzak eskura izatea, ordaingarriak, kalitatekoak eta lan-indar egokiarekin*, eta, horretarako: a) *gizarte-babesa* eskaini, iraupen luzeko zaintzen beharrak pertsonak pobrezia bultzatzen ez dituzan eta, aldi berean, zahartzen ari den gizarte bateko sistemen aurrekontu-iraunkortasuna ziurta dezan; b) *kalitate-estandar* homogeenagoak sustatu EBn, bai eta *erkidego-zerbitzuak* eskaintzea ere, iraupen luzeko zaintzak behar dituztenek erkidegoan era independentean bizitzeko daukaten eskubidea gauzatu ahal izan dezaten, ahal den denbora guztian, *egoitza-zerbitzuen* bitartez bermatuz erkidego-esparruak dauzkan gaitasunak gainditu dituzten zaintzak; c) iraupen luzeko zaintzen sektoreko *langile kualifikatuak* kontratatu eta atxikitzea lortu, soldatak eta lan-baldintzak hobetuz (halaber, ESEZ ere ikusi).
- *Gizarte-berrikuntza eta berrikuntza teknologikoak eskala handian sartu*, hala nola osasun elektronikoa eta mugikorra, telelaguntza, laguntza integratua edo bizimodu independentea, hobetu ahal izan daitezkeen osasun-sistemen eta gizarte-zerbitzuen eraginkortasuna eta iraupen luzeko zaintzak. Urrutiko zaintzako osasun-ereduek, batez ere laguntza-taldean pazienteak eta senitartekoak sartu baldin badituzte, onurak dakartzate gaixotasun kronikoak dauzkaten pazienteentzat.
- *Langileen, pazienteen eta zaintzaile ez-profesionalen arteko lankidetzaren eta informazio-trukearen bitartez zaintzak integratu*, osasun eta gizarte laguntzak dauzkan kostuak igotzeko eutsi ahal izateko, aldi berean adinekoren independentziari denbora gehiagoz lagunduz eta horien ongizatea hobetuz.
- *Osasun- eta gizarte-laguntzako zerbitzuak eskaini, baita adinekoei ere, enpresa sozialen, irabazi-asmorik gabeko erakundeetan eta mutuen bitartez*, daukaten sustraitzeko eta tokiko ezagutzari esker eta dituzten helburu sozial esplizituei esker eraginkorrak izan daitezkeenak.

EBk iraupen luzeko zaintza-sistemak hobetzen laguntzen die estatu kideei, bitartekotzat erabilita lan analitikoak, elkarrekiko trukeak, orientazio politikoak eta finantzaketa. Hainbat ekimenek lagunduko dute zaintzaile ez-profesionalen egoera hobetzen eta sektorean ordainsari egokia bermatzen, hala nola *familia-bizitza eta bizitza profesionala uztartzeari buruzko zuzentarauak* edo *gutxieneko soldata egokiei buruzko zuzentzarau-proposamenak*.

Arlo sozialean, Liburu Berdean azpimarratuta dago beharrezkoa dela gogoeta egitea, gai ekonomikoek eta kalitatezko zerbitzu eskuragarrien garapeneri buruzkoek gain, beste hainbat alderdiri buruz, hala nola <<bakardadea eta isolatze soziala jasateko bai gazteek eta bai nagusiek daukaten gero eta arrisku handiagoa>>, pertsona askok pandemian zehar bereziki bizi izan dutena eta sistema ekonomiko, sozial eta sanitarioetan benetako eragina izan duena. Horren harira, biztanleria adinaren arabera finkatzeko eredu desberdinek (gazteak hiriguneetan, familia gazteak bizitegi-eremuetan eta adinekoak periferian edo landa-eremuan) zailtasunak eragin ditzakete, belaunaldien arteko kohesioarekin, segurtasunarekin eta gizarte-elkarreraginarekin edo zerbitzuen banaketarekin lotuta. Belaunaldien arteko elkarbizitzarako aukerak ugaritzen ari dira, horietako batzuk egituratze kooperatibokoak.

⁶EB-27an espero dutenez, iraupen luzeko zaintzak behar ditzakeen lagunen kopuruak gora egingo du, 2016ko 19,5 milioitik 2030eko 23,6ra eta 2050eko 30,5era. <<Zaintzaile ez-profesionalen mende egotea jada ez da jasagarria dagoeneko, gero eta zailagoa baita senitartekoen laguntza bermatzea, eta familiek gero eta seme-alaba gutxiago dauzkate, gero eta bananduago bizi dira eta emakumeek gero eta gehiago parte hartzen dute lan-merkatuan>>.

Bestalde, iraupen luzeko erakunde-zaintza, gizarte-zaintza eta zaintza sanitarioaren garapenak aurrea hartzen dio edo jorratu egiten du zahartzaroko pobrezia, erretiroaren ostean diru-sarrerak galtzearen ondorioz gertatzen dena, eta horrek, adin jakin batetik aurrera, <<osasun-laguntzaren premiarekin lotutako finantza-arriskuak areagotzea dakar, eta, bereziki, iraupen luzeko zaintzak>>. Horri dagokionez, Liburu Berdeak zahartzaroko diru-sarrera nahikoak izatearekin lotutako funtsezko bi gai ere aurkezten ditu, EA Eren eskumen-eremuan, nolabait familia zaintzaileei laguntzeko gizarte-osasun estrategiari heltzen diona.

Nola bermatu pentsio egokiak osatutako lan-bizitzako aldi luzeetan ordaindu gabeko lanak (askotan zaintzak) egin dituzten pertsonen? Zer eragin izan dezakete pentsio osagarriek erretiroko diru-sarrera egokiak bermatzeko garaian? Nola zabaldu ahal izango lirateke EB osora, eta zein izango litzateke EBren zeregina prozesu horretan?

Adinarekin lotutako gastu publikoa EBko BPGd-ren % 25etik gorakoa da dagoeneko, eta 2018ko Zahartzeari buruzko txostenak aurrekusi zuen batez beste ehuneko 1,1 puntu handituko dela 2070era bitartean (3 puntu edo gehiago 11 Estatu kidetan), batez ere zahartzen ari den biztanleriari lotutako iraupen luzeko zaintzetan eta osasun-laguntzan egindako gastuagatik.

Gastua handitzeko beste faktore batzuk izan dira Covid-19aren eta horren ondorioen aurkako borroka, pentsioen erreformak, aurrerapen teknologikoak gizarte- eta osasun-arretan, edo iraupen luzeko ordaintzeko moduko zaintza eskurago izatea.

EBk gizarte maila altuei eusteko konpromiso irmoa daukanez, neurri politikoez iraunkortasun soziala eta fiskala bateratzen lagun dezakete, lan-bizitzak luzatuz, gizarte-babeseko sistemak birplanteatuz eta horien estaldura handituz.

Azkenik, 35 herrialdeetako politikak aztertu zituen *Europako iraupen luzeko zaintzen erronkei buruzko azterlanean*⁷ ondorioak eta gomendioak ezarrita daude, irismen orokorra duten eta gure testuinguruan aplikagarriak diren adineko pertsonen iraupen luzeko zaintzei buruz.

- Politika horiek argi eta garbi azaltzeko beharra, eta erakundeen eta lurraldeen arteko erantzukizunen zatiketa gainditzea (bide zehatzik iradoki gabe).
- Lehen mailako arretaren, gizarte-arretaren eta osasun-arretaren integrazio handiagoa behar da.
- Etxeko zaintzen azpigarapena.
- Prebentzioko eta errehabilitazioko estrategiak arrakastaz txertatu ez izana.
- Herrialde batzuetan egoitza-alternatibak gutxi garatzea edo murriztea, desinstituzionalizazio-politiken ondorioz.
- Kalitatearen ebaluazioa sustatzeko beharra, batez ere etxeko arretarena, eta baldintza eta lanbide-kualifikazioen hobekuntza.
- Zaintza formalaren garapen eskasa, informalekin alderatuta, eta etxeko barnekoen zerbitzuarekin daukan "lehia", neurri handi batean emakume migratzaileek egindakoa, daukaten baldintzak ere nahitaez hobetu beharrekoak direla.
- Iraupen luzeko zaintzen gastu publikoa bultzatzen jarraitzeko beharra eta finantzaketa-estrategia argia eta globala (soziala eta sanitarioa, egoitza eta erkidego mailan).

Herrialdeei emandako gomendioei dagokienez (EBri egindako gomendioak ere jasotzen ditu):

A. Etxean eta erdi-egoitzako esparruetan zerbitzuak garatzea, eskuragarri eta ordaingarriak izan daitezen; prebentzio- eta errehabilitazio-politikak indartzea, etxeko zerbitzuak iraupen luzeko zaintza-premiak daukaten pertsona guztiengana hedatuz, ez soilik mendekotasun handieneko egoeran daudenengana; gizarte- eta osasun-zerbitzuen arteko integrazioa hobetzea, etxean zaintza egokia ziurtatzeko, eta zaintzako diziplina anitzeko planak bultzatzea; etxez etxeko edo erkidegoko zerbitzuak ematen dituzten pertsonen prestakuntzan inbertsio gehiago egitea, zaintza mota horien kalitatea hobetu ahal izan dadin; eta etxeko eta erkidegoko zaintzen kalitate-estandarren monitorizazio-prozesua indartzea.

⁷Hainbat egile. *Challenges in long-term care in Europe. A study of national policies.* 2018

B. Etxez etxeko zaintzari lehentasuna emanda ere, etxean behar adina zerbitzu eduki gabe egoitza-eskaintza murriztuko duten politikak saihestea, egoitza-zentro nahikoa eskura izatea bermatuko duten politikan oreka egokia bilatuz eta plaza-kopurua planifikatuz, eskualdeko edo tokiko premiak era objektiboan aztertzean oinarrituta.

C. Prestazio ekonomikoak emateko, ordainketak zaintzak erabili direla egiaztatu ondoren eginda. Etxeko langileei ordaintzeko erabiltzen baldin badira, horiek kontratatuta egon beharko dute. Baldin eta zaintzaile informala konpentsatzeko erabiltzen badira, haren parte hartzea zehaztu egon beharko da zaintzen diziplina anitzeko planean.

D. Zaintzaile informalei ematen zaien laguntza indartzea, honako hauen bidez:

- Informazioa, prestakuntza eta orientazioa (telelaguntza/online arreta eraginkorra izan daiteke).
- Atsedenerako zerbitzuak, zaintza-lanetan atsedean hartzeko aukera ematen dietenak.
- Zaintzaren ondorioz jasandako zama eramateko eta norbere beharrak asetzeko daukan gaitasunaren eta gogoaren aldizkako ebaluazioak.
- Zaintzaile informal bat baino gehiagoren artean zaintza-lanak partekatzeko formulak.
- Gizarte-segurantzarako eskubideak eta lan-merkatuan jarraitzeko aukerak zabaltzea (adibidez, lanaldi-murrizketen bidez) eta merkatu horretara itzultzea.
- Iraupen luzeko zaintza-akordio egokiak, zaintzaileei lan-merkatuan parte hartzen laguntzeko, batez ere zaintzaile emakumeei.
- Mendekotasuna duten senitartekoak zaintzeko ordutegi-malgutasuneko edo lan-denbora murrizteko akordioak, lanaldi partzialeko lana edo lan-merkatua uztea aukeratu behar ez izateko (emakumeek batik bat).
- Ordainketak gauza-truke eta eszedentziak, mendekotasuna duten senitartekoak dauzkaten adin ertaineko langileen bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren balantze iraunkorra eta enplegu maila handia lortzeko.

E. Etxeko langile migratzaileen rola eta egoera adi behatzea, batez ere horien estatusari, kualifikazioari eta lan-baldintzei dagokienez.⁸

F. Iraunkortasun-datuak eguneratuta izatea, iraupen luzeko zaintza-politiken finantzaketa planifikatzeko, prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak konbinatuta.

G. Eraginkortasuna eta efizientzia (kostu-irabazia) hobetzea, oraindik ere hobeto azpimarratuz birgaitzea eta prebentzio-estrategietan, teknologia berritzaileetan, gizarte-zerbitzuetan eta beste beharretan egindako inbertsio sozialak.

H. Hornitzaileei estandar zorrotzagoak aplikatzea eta etxeko zaintzara zabaltzea, indartuz zaintzaren kalitatea era eraginkorrean ebaluatzea eta gainbegiratzea.

Europako Haur Bermea (EHB). Kontseiluaren 2021eko ekainaren 14ko 2021/1004 (EB) Gomendioa.

Haurren pobrezia eta bazterketa prebenitzeko eta borrokatzeko ezarri da berme hau, eta ziurtatzeko pobrezia edo gizarte-bazterketa bizi duten etxeetako haur zein nerabeek aukera izatea funtsezko politika-zerbitzuak eta arloak eskuratzeko. Helburua da haur eta nerabe guztiek oinarritzko sei eskubide izatea: haurren hezkuntza eta zaintza, hezkuntza eta eskolaz kanpoko jarduerak, gutxienez eskola-egun bakoitzeko otordu osasungarri bat, osasuna, etxebizitza egokia eta nutrizio osasungarria.

Europako testuinguruan, Estatuko plan guztien ardatz nagusia dira pobrezia-egoeran dauden haurrak, eta horietako batzuetan jomuga bakarra, nahiz eta pobrezia-egoerak oso era desberdinetan identifikatutako hainbat adierazle dauzkaten (AROE tasa, gizarte-bazterketa,

⁸Egoera hori aztertzeko eta jorrazteko, baliagarriak izan daitezke, batez ere datuei begiratuz gero, nazioartean aitzindari izan den Denboraren Aurrekontuen eta Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteen Inkestaren (1998-2018) ekarpena, eta, ikuspegiarekin lotuta, ikuspegi intersektionala osatzea begirada dekolonialarekin (Lugones, et al 2014) eta zaintza-kate globalekin (Hochschild, 2001).

langabezia, diru-sarrerarik eza, gutxieneko errentak jasotzea...). Kolektibo batzuk plan gehienetan agertzen dira (egoitza-bazterketa bizi duten haurrak, desgaitasunen bat dutenak, jatorri atzeritarrekoak, gutxiengo etnikoetakoak, guraso bakarrekoak...), baina beste batzuk ere aintzat hartu dira (Ikasketarik eta lanik gabeak, LGTBIQ+, ama gazteak...). Herrialde batzuek (FI, FR) lehendik dauden politika publiko orokorrekin lotu dute plana, eta beste batzuek (KR, GR), berriz, kolektibo zaurgarrienei begira osatutako zerbitzuak garatu dituzte. Lehen Haurtzaroko Hezkuntza eta Zaintzak (LHHZ), hezkuntza eta eskolaz kanpoko jarduerak, osasuna eta nutrizioa, buruko osasuna, etxebizitza eta babesik gabe dauden haurrak dira Jarduera-eremu ohikoena.

Haurren Eskubideei buruzko Europar Batasunaren Estrategia

Europako Haur Bermea bat dator estrategia horrekin, zeinak hainbat arlo hartzen dituen:

- *Bizitza politikoan eta demokratikoan parte hartzea*, haurrak ahaldunduz herritar aktibo eta gizarte demokratikoetako kide bezala.
- *Gizarteratzea eta ekonomia, osasuna eta hezkuntza*, haurren pobrezia-aren aurka borrokatuz eta aukera-berdintasuna bultzatuz, haur guztiek osasun-zaintzak jasotzeko duten eskubidea ziurtatuz eta kalitatezko hezkuntza inklusiboa sustatuz. Eta, oro har, gizarte inklusiboak eta hurrekin adiskidetsuak.
- *Haurren aurkako indarkeria borrokatzea eta haurren babesaren bermea*, haurrak indarkeriarik jasan gabe hazten direla ziurtatuz.
- *Neska-mutikoekiko justizia lagunkoia*, sistema judizialak horien eskubideak defenda ditzan eta dauzkaten beharretara egokitu dadin.
- *Gizarte digitalerako eta informaziorako sarbidea*, haur guztiek ingurune digitalean segurtasunez nabigatzeko eta horko aukerak baliatu ahal izan ditzaten.
- *Haurren laguntza eta babes globala*, krisi- eta gatazka-egoerak barne.
- *Haurtzaroren ikuspegia txertatzea ekintza guztietan (EBn)*, ekintza guztiak zeharkatuz.

Haurren Berme Europarra bereziki lotuta dago honako estrategia honetako bigarren arloarekin eta haurrak zaintzeari eta laguntzeari buruzko Eskubide Sozialen Europako Zutabearen 11. printzipioarekin.

2.1.3. Lankidetzari eta gobernantzari buruzko erreferentziak

Hemen aurkezten diren erreferentziek zerikusia dute GZESren arkitekturarekin eta lankidetzako gobernantzarekin, batetik, eta eredu mistoarekin eta lankidetzako publiko sozialarekin, bestetik. GZES mistotzat jotzeak (5. artikulua) eta erakunde-arkitekturak (deszentralizatua) lotura dute, besteak beste, xedearekin (6. artikulua), printzipioekin (7. artikulua), erkidego-ereduarekin (8. artikulua) eta hartzaileen eta erabiltzaileen eskubideekin (9. artikulua).

Gizarte-ekimena (hirugarren sektore soziala), familiak, haien aniztasunean, eta erkidego-ekimenak sustatzea, bai eta sektore publikoak eta gizarte-ekimenak lankidetzan jardutea ere, esku-hartze sozialaren hartzaile diren familiak eta pertsonak dituzten erakundeak barne, gizarte-eredu antolatua eta parte-hartzailearekin lotuta daude, zeinak hura osatzen duten sektore guztien gaitasunak eta lankidetzaren ondoriozko sinergiak maximizatzen dituen. Auzolanaren ereduak da, elkarlaneko gobernantzarekin eta elkarrizketa zibilarrekin bat datorrena eta koherentea dena, bai eta aurkeztu diren zaintzen gizarte-antolaketa-ereduarekin eta gizarte-zaintzen politikarekin ere, besteak beste, 4R eta 4S eruedetan oinarritzen direnak.

12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuena

Legeak aurreko esparru juridikoan jasotako printzipioetan zehaztutako arreta-eredua finkatzen du, eta erkidego-ikuspegiaren alde egiten du.

Horrez gain, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema erantzukizun publikoko arretarako sare antolatutzat jotzen du, titulartasun publikoko eta titulartasun pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduek osatua, pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea eta autonomia

bultzatzea helburu duena; horretarako, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioa garatzen ditu, funtsean pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

GZES sendotzeko eta haren helburuak lortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan prestazio eta zerbitzu berberak eskuratu ahal izatea bermatzeaz gain, zerbitzuen eta itunpeko titulartasun publiko eta pribatuko zentroen sare bat indartu eta sendotu behar zen, eta, horretarako, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak emateko itun-araubide espezifiko bat ezarri eta hedatu behar zen, GZES behar bezala garatzeko bete beharreko helburu gisa.

Hala, legeak honela definitzen du GZES: mistoa (5. artikulua) eta kudeaketa publikoaren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketaren nagusitasuna duena (7. artikulua, a letra).

Eta, erkidego-ereduarekin koherente izanik (hurbiltasuna, deszentralizazioa, hartzaileren parte-hartzea), sistemaren arkitektura bat ezartzen du, euskal administrazio publikoen hiru mailetan oinarritua, eta kide anitzeko gobernantza bat, zorroari buruzko dekretua dela-eta adostasuna lortzera behartua eta Eusko Jaurlaritzak bere koordinazio-eginkizunean eta GZEOan (Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa) egituratua.

6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa

Hitzaurrean honako hau baieztatzen da: “Gizarte-inklusioa, eskubideen benetako erabileraren emaitza izateaz gain, harremanezko ondasuna ere bada, pertsonen, familien eta sozializatorako eta laguntza informalerako bestelako agenteen, gizarte-ekimeneko erakundeen, sektore publikoaren eta enpresen arteko askotariko elkarreraginen emaitza dena. Arestian aipaturiko gizarteko lau sektore handi horiek indartzea eta horien arteko lankidetzak maximizatzea (bakoitzak bere eginkizunak gauzaturik) ezinbesteko helburua da aukera-berdintasunean eta gizarte-inklusioan aurrera egiteko”.

Legeak irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeen aintzatespena jasotzen du: “Beste alde batetik, gizarte-ekimeneko erakundeek, kontuan izanik gizarte zibiletik sortuak direla eta bazkidez eta boluntarioz osatutako oinarri soziala daukatela, bai eta pertsona eta familia hartzailerekin parte hartzeko mekanismoak ere (erakundeok pertsona eta familia horiek beraiek zuzenean eratuta ez daudenean), bokazioa eta zilegitasuna dute administrazio publiko eskudunekin lankidetzan eta elkarlanean aritzeko gizarte-politikan fase guztietan, baita exekuzio-fasean ere”.

13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa.

Familiei buruzko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen 3. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren familia-politika funtsezko balio hauetan oinarrituko dela:

- a. Familia-proiektuari buruz erabakitze eta hautatzeko eskubidea errespetatzea.
- b. Familiako kide guztien eskubideak errespetatzea, kide horien adina eta autonomia-maila edozein delarik ere.
- c. Familia-aniztasuna errespetatzea eta familia-mota guztiak berdintasunez tratatzea.
- d. Emakumeek eta gizonek aukera berak izatea, eta erantzukizunak bikotekide biek partekatzea.
- e. Familiak betetzen duen eginkizuna aitortzea, familia belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasun-eragile nagusia den aldetik.
- f. Familiak betetzen duen eginkizuna aitortzea eta errespetatzea, familiak hainbat balio transmititzen dituen aldetik, hala nola askatasuna, elkartasuna, errespetua, tolerantzia, berdintasuna, pluraltasuna, parte-hartzea eta elkarbizitza, baita, oro har, gizarte-elkarbizitzarako printzipio demokratikoak transmititzen dituen aldetik ere.

Eta, balio horiekin koherentzian, Euskal herri-administrazioek familiak betetzen duen eginkizuna aitortu, sustatu eta babestuko dute, familia belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasunerako eta balio-transmisiorako eragile nagusia den aldetik.

Esparru horretan, Legearen 21. artikulua honako neurri hauek zehazten ditu gizarte-zerbitzuen arloan:

21. artikulua. Familiei gizarte-zerbitzuen arloan laguntzeko berariazko neurriak.

1. Oro har, euskal herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, behar diren neurriak hartuko dituzte gizarte-zerbitzuen arloko beren esku-hartzeetan familia-alderdia ere bermatzeko, hala egitea egoki denean.

2. Bereziki, eta gizarte-zerbitzuei buruzko araudian une bakoitzean xedaturik dagoena ere betez, euskal herri-administrazioek familiei arreta eta laguntza emateko zerbitzuak garatuko dituzte, honako arlo hauetan: a) Familientzako orientazioa eta arreta psikosoziala. b) Familia-bitartekotza eta elkarguneak. c) Etxez etxeko laguntza. d) Beren kasa moldatzen ez direnak zaintzen dihardutenentzako laguntza (atseden emateko zerbitzuak). e) Larrialdietako aterpea eta babesa. f) Haurren babesa eta umeak familian hartzeko eta adoptatzeko laguntza. g) Arriskuan dauden familietan esku hartzeko programak. h) Gizarte-arriskuko egoerei aurrea hartzea, batez ere familietako indarkeria-egoerei

Azken batean, zaintzen gizarte-antolamenduko eredu baten esparruan, zaintzen gaineko erantzukizun eta lidergo publikoaren ikuspegiak eta, ondorioz, familia-zaintzaren pisua murrizteak sektoreen arteko lankidetzaren ere eskatzen du, familiak eta erkidegoak barne. Eta planteamendu horrek esan nahi du familiak, aldi berean, laguntzak jasotzen eta ematen dituztela, eta adin nagusiko senitartekoak zaintzea betebeharretatik (adibidez, elikagaiak ematek) haratago doan aukera bat dela.

Beraz, zaintza librea, kritikoa eta erantzunkidea da, zainduen eta zainzaileen erakunde-zaintzarekin konbinatuta, denboran mugatua eta bizitza pertsonalarekin, familiarekin eta lanarekin bateragarria. Alderdi horiek eta beste batzuk kontuan hartu beharko dira zainzaileen etorkizuneko Estatutu batean.

2.2. GIZARTE-ZAINTZEN POLITIKA

2.2.1. Gizarte-zaintzen definizioa

Gizarte-zaintzak harreman-laguntzak dira, pertsonen artekoak, eta gizarteratzea ahalik eta autonomia handinez ahalbidetzera eta sustatzera bideratuta daude, bizitzaren lehen etapetatik amaierakoetara arte.

- Gizarte-zerbitzuak eta familia- edo erkidego-zaintzako lana (ordaindu gabea) edo lan profesionala harremanezkoak dira. Eskaintzen dituzten laguntzak harremanaren araberakoak dira. Horregatik, jasotzen dituenarentzat, dimentsio instrumentala eta afektiboa (emozionala) dute, normalean lotuta daudenak. Eta zerbitzua ematen duenarentzat, dimentsio materiala (lana), ekonomikoa (kostua) eta psikologikoa (lotura afektiboa).
- Gizarte-zaintzak bizitzan zehar lortzen eta jasotzen dira, eta autonomia dute beti jomuga (kasu bakoitzean ahalik eta autonomia handiena). Intentsitate handiagoz, normalean, hasieran eta amaieran, autonomia pertsonala handiagoa edo txikiagoa denean.

Erantzukizun publikoaren eremuan, gizarte-zaintzek autonomiaz gizarteratzeko laguntza-sistema bat osatzen dute, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES), eta gizarte-osasun eta gizarte-hezkuntza eremuan ere badaude. Erakunde-zaintza (erantzukizun publikokoa) zainduei eta zainzaileei zuzenduta dago (informazioa, prestakuntza, atsedena...).

- GZESk bere zorroko zerbitzuen bidez antolatzen ditu laguntza horiek, eta zerbitzu horiek eskuratzea eskubide subjektiboa da. Prestazio osagarriak (ostatua, mantenua...) edo teknologikoak barne har ditzaketen zerbitzuak dira, eta, besteak beste, honako hauek hartzen

dituzte beti: prestazio teknikoak, harremanezkoak, informaziokoak, orientaziokoak, bitartekaritzakoak, etxeko arretakoak eta arreta pertsonalekoak, hezkuntzakoak, esku-hartze psikosozialekoak, estimulaziokoak eta errehabilitaziokoak.

- Prestazio teknikoek eguneroko bizitzako jarduerak egitea errazten dute, baita ohiturak, balioak, jarrerak eta eskumenak (gaitasunak) eskuratzea, mantentzea, berreskuratzea eta garatzea ere. Beraz, bizitzan zehar gizarteratzea eta autonomia sostengatzera eta sustatzera bideratzen dira.
- Gizarte-zaintzak eta GZESren gainerako laguntzak babesgabetasun-, desgaitasun-, bazterketa- edo mendekotasun-arrisku eta -egoerak prebenitzera eta horiei aurre egitera bideratuta daude. Kontingentzia horiek, maiz, modu konbinatuan agertzen dira.

Autozaintza funtsezko alderdia da gizarte- eta osasun-zaintzen politiketan (autonomiaren sustapena eta mendekotasunaren prebentzioa, autozaintza gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen artean...) eta emakumeen eta gizonen berdintasunean. Autozaintza, zaintzaren bidez ahalbidetzez gain, zaintzaren helburua ere bada. Bereziki bizitzako lehen etapetan, baina ez horietan bakarrik.

Gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zaintzak funtsezko zerbitzuak dira, pertsonen artekoak: Interes Orokorreko Gizarte Zerbitzuak. Zerbitzu horiei *Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparrua* eta erkidego-eredua aplikatu behar zaizkie. Honako hauek dira erkidego-ereduaren ezaugarriak: arretaren pertsonalizazioa, integraltasuna, jarraitutasuna eta hurbiltasuna, prebentzio-ikuspegia eta pertsona, familia eta talde edo kolektibo hartzaileen parte-hartzea, zuzenean eta ordezkari-erakunde bidez, esku-hartzean, zerbitzuetan eta arreta-sareetan.

Familia- eta erkidego-zaintza arautu behar den bezala – pertsonen, zainduen eta zaintzaileen eskubideak bermatzeko, zaintzaren erabilera aske eta arduratsua ziurtatzeko eta mugak ezartzeko –, beharrezkoa da elkartasun antolatuko ekimenak (hirugarren gizarte-sektorea) eta enpresen ekimenak arautzea.⁹

2.2.2. Zaintzen eredia

II. GZPE **zaintzen gizarte-antolamenduko eredu** baterako trantsizio-politikaren barruan sartzen da (social care)¹⁰, zaintzaren arloko nazioarteko erreferentziei erantzuten diena eta gizarte gisa dugun nortasuna, gure kultura, beharrak eta gaitasunak kontuan hartzen dituena.

Bizialdi osoko gizarte-zaintzen politika sustatu nahi da, zaintzak desfamilizatze eta desfeminizatze, honako 4 ekintza (4E) hauek azpimarratuta:

- Zaintza-lana **onartzea**, ordainsari egokia barne.
- Gizarte-zaintzako ordu guztien barruan familia-zaintzakoek duten proportzioa **murritztea**.
- Zaintzak sektoreen artean **birbanatzea** maila guztietan, erakunde-zaintza indartuz eta gizonen erantzunkidetasuna bultzatuz.
- Zaintza-lana **irudikatzea**, ordaindua eta familiakoa, ahotsa emanez, protagonismoa eskainiz eta zaintzen dutenei eta zaintzen dituztenei adituz.

Familien – eta emakumeen – erantzukizuna sektore publikora eraman nahi da, beste sektore batzuen beharrezkoa den ekarpen baliotsua galdu gabe, **erkidegoan partekatutako zaintza-eredu bat** sustatuz, **lidergo eta erantzukizun publikotik abiatuta**.

Hala, esate baterako, adinekoentzako egoitza-zentroen araudia aplikatzeko izango da erantzukizun publikoko sarearen baitan dauden homologatuetan eta jarduera hori merkatuan egiteko baimenduta daudenetan.

¹⁰Lewis (1998) eta Dalyk eta Lewis (2000) garatutako social care eredu zaintzen diamantearekin (Razavi, 2007) eta mosaikoarekin (Comas eta Soronellas, 2019) osa daiteke, hain zuzen ere zaintza-lanaren banaketa, mikro eta makro mailetan, eta horietako bakoitzaren ezaugarri diren balizko desorekak aztertze.

Eta, hala, ongizatearen eredu familista batetik –zeinak zaintzaren erantzukizuna familietan kokatzen duen, eta, azken finean, emakumeengan– bizitzan zeharreko gizarte-zaintzak ematean erantzukizun eta lidergo publikoko eta lau sektoreen (publikoa, pribatua, soziala eta erkidego-familiarra) lankidetzako eredu batera igarotzea, gizarte-premiei erantzuteko, bai eta esparru honetan ere (**4S**).

Eredu hori honako hauetatik abiatzen da:

- Zainduak eta zaintzaileek zainduak izateko duten eskubide subjektiboa onartzea, GZESren zorroko prestazioen eta zerbitzuen esparruan (gizarte-zaintzak).
- Familien barruko zaintza-lana eta gizarte-ekarpena onartzea eta baloratzea, baina senitarteko helduak zaintzea aukera bat izan dadin beharrezko baldintzekin.
- Beste hiru sektoreen jarduera aitortzea, baloratzea eta sustatzea, baina honako hauek saihestuz: a) zaintzen ardura familiei eta, azken batean, emakumeei leporatzea; b) antolatutako edo antolatu gabeko elkartasunaren mende egotea, eta horren parte-hartzearekin bakarrik antolatzea; c) merkantilizatzea.

Zaintzen-politikaren ikuspuntu horrek, feminismoari lotutako ikuspegi eta garapen teorikoetan (4E, social care, bizitzaren jasangarritasuna...) oinarrituta, ikuspegi hau hartzen du:

- *Globala* da, zaintza-politika integrala diseinatu eta transmititzeko bide ematen duena, eta, aldi berean, gizarte-zaintzen berezitasunak aintzat hartu eta artatzen dituena.
- Eredu familista (mediterraneo) *eraldatzen du*, euskal gizartean oraindik ere oso presente dagoena, eta, beraz, emakumeen eta gizonen berdintasuna ardatz duena, lortu nahi den aldaketaren eragile eta emaitza gisa.
- Zainduen eta zaintzaileen *eskubideak eraikitzen eta bermatzen ditu*.
- Autonomiaz gizarteratzea *sustatzen, prebenitzen eta babesten du*, bizitzan zehar autonomia, autodeterminazioa eta bizitza osoa sustatuz, baita autozaintza ere; mendekotasuna eta bakartze soziala prebenituz; eta familia-zaintzako egoera desegokietan eraginez, zaintzailea eta zaindua babestuz.

Beraz, *gizonen eta emakumeen berdintasuna* aktiboki sustatzera bideratzen da, genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersektionalaren arabera, eta horrek eskatzen du gizonen erantzunkidetasuna zaintza-lanetan (familia- edo erkidego-zaintza eta zaintza profesionala), eta kontziliazio erantzunkidea.¹¹

Gizarte-zaintzen politikak, besteak beste, enpresak eta lan-merkatua eraldatzeko ekimen zehatzak jaso behar ditu, Kontzilia Komunitatea bezalakoak, berdintasun-planak bultzatzea, sektore publikoan eta pribatuan berdinak eta besterenezinak diren aitatasun- eta amatasun-baimenak, guraso bakarreko familientzako kontziliazio-laguntzak, edo zaintzaileen etorkizuneko diru-sarrerak bermatzeko tresnak.

Eta helduen familia-zaintza *aukera* bihurtzeko baldintza materialak sortu nahi ditu.

Hau da, zaintza librea, kritikoa, kontzientea, erantzunkidea, kualifikatua, bateragarria eta berrikusteko modukoa, mugatua (espazioan, denboran, erantzukizunean) eta, beraz, zaintzaileen eta zainduen erakunde-zaintzarako (erantzukizun publikokoa) sarbidearen bidez antolatua (zaintzaileen estatutua).

¹¹ Etxeko eta familiako lana bikote heterosexualetan nola banatzen den aztertzeke, teoria ekonomikoak aztertu ditugu (Becker, 1985; McElroy eta Horney, 1981), bai eta genero- doinggender efektukoak ere (West eta Zimmerman, 1987, 2006; Coltrane, 2000). Gizonen zaintzan duten inplikazioari buruzko eztabaidan, munta handikoak dira maskulinitate hegemonikoari (Connel eta Messerschmidt, 2005), zaintzaileari (Elliot, 2016) eta hibridoari (Bridges eta Pascoe, 2014) buruzko gogoetak ere.

2.2.3. Gizarte-zaintzen politikaren ezaugarriak

Gizarte-zerbitzuen, GZESren eta euskal babes-sistemaren beste azpisistema batzuekiko elkarrekintza-espazioen esparruko gizarte-zaintzen politika honako hau da eta izan nahi du:

- Gizarte-zaintzetan oinarritutako politika, hau da, autonomiaz gizarteratzeko pertsonen behar dituzten harreman arloko *laguntzetan*, harreman-laguntzak izanik GZESren prestazio nuklearra, ahalik eta autonomia handieneko gizarteratzea helburutzat hartuta.
- Herritar guztiei bizitzan zehar laguntzeko politika bat, honako hauek azpimarratuz: a) hasierako eta amaierako etapak, bitarteko-etapetan autonomia sustatzeaz ahaztu gabe; b) pertsona mendekoak, babesgabeak, baztertuak eta/edo desgaituak, eta, egoki denean, horien familiak.
- Sektorre publikoak zuzentzen duen politikak daukan erantzukizuna hedatu egiten du, eta garatuz doa:
 - 4 gizarte-sektoreen parte-hartzearekin: sektore publikoa (betearazleak eta legegileak); enpresak; gizarte-ekimeneko eta esku-hartze sozialeko erakundeak (hirugarren sektore soziala); eta familiak eta erkidegoa (laugarren sektorea).
 - Eta 4 eremuetan: publikoa (erakunde-zaintzak), merkatukoak (nahitaez arautua), elkartasun antolatukoak (boluntariora edo elkarrekiko laguntza barne) eta familiakoak edo erkidegokoak (elkartasun-sare informalak edo elkarri laguntzekoak).¹²
- Gizarte-zaintzen zeharkako politika *honako hauekin konektatzen duena*:
 - Berdintasun-politikarekin, genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektorialetik, eta kontziliazio erantzunkidera bideratutako familia-politika.
 - Haur eta nerabeekiko eta adinekoekiko politikekin, babesgabetasun- eta mendekotasun-egoerak edo arrisku-egoerak adi jarraitzearekin batera (GZES), horien talentua, gizarte-partaidetza¹³, autonomia eta bizitza betea sustatzeko estrategiak biltzen dituenarekin.
- GZESren baitan, erakunde arteko lankidetzatik garatutako zaintza-politika integral baten barruan kokatutako politika, sailen artekoa, besteak beste, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren parte hartzea bideratu duena, honako hauekin:
 - Osasun Saila, erakunde-zaintzak (gizarte eta osasun arlokoak eta iraupen luzeko soziosanitarioak) antolatuz, bai erkidegoan, bai egoitza-ingurunean, eta familia zaintzaileei laguntza emanez, Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia eta Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia hedatuz.
 - Hezkuntza Saila, arreta goiztiarra (gizarte-hezkuntza-osasuneko arreta), zaintzetan hezkidetzeta edo eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzua bultzatzeko.
 - Lan eta Enplegu Saila, esparru horretan zaintza profesionalaren eta kalitatezko enpleguaren kualifikazioa sustatzeko.
 - Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, zaintzen lurraldearen ikuspegia bultzatzeko (bizitza zaintzea bermatzeko eraikitzen den lurraldea), sustatuz hurbileko

¹²Edozein eremutan esku har dezake sektore batek baino gehiagok, eta esku hartzen du. Esate baterako, titulartasun publiko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduek osatzen dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema.

¹³Kontuan hartu behar dira gizonek eta emakumeek parte-hartze soziopolitikorako dauzkaten aukera eraginkorrak eta familiako zaintza informalearen inpaktua, parte-hartze sozialeko eta herritartasun aktiboko modu bat ere badena (Kershaw, 2005), erkidego-zentzua (Herd eta Harrington Meyer, 2002) eta beste partaidetza-modu batzuek bezalako guztien ondasunak aberastuz, eta partaidetza horiek kapital soziala sortzen ote duten norberarentzat edo hirugarren pertsonentzat (Arneil, 2006). Oro har, genero-ikuspegiak gain, kontuan izan behar da beti zaintzen eta desberdintasunaren arteko lotura, eta, kasu jakin honetan, zaintzen, desberdintasunaren eta parte-hartzearen arteko lotura, parte-hartze soziopolitikoaren kontzeptuan zaintza bezalako dimentsioak txertatuta.

hirigintza eta eguneroko bizitzarako azpiegiturak, hiri osasungarri eta lagunkoiak eta harremanak katalizatzen dituen espazio publikoa, horiek ere erkidego eta zaintza arlokoak.¹⁴

Politika hori erronka demografikoari aurre egiteko inbertsio soziala da.

Ahalik eta autonomiarik handiena bizitzaren amaierara arte sustatzera bideratuta dago, aldi berean inbertsio soziala eta lehen mailako tresna dena erronka demografiko osoari aurre egiteko, belaunaldiari arreta eta laguntza eskainiz, bizitzako etapen arteko joan-etorriak kudeatuz eta belaunaldien artean ordezkatzeko bideratuz.

Aukera ematen du berdintasunean aurrera egiteko eta kalitatezko enplegua sortzeko (lanerako adinean dauden belaunaldi berrientzat, aurrekoen eta ondorengoaren arretan), bai eta aukera berriak eta kapital soziala ere, sektoreen arteko lankidetzaren bitartez edo adinekoen parte-hartze soziala sustatuz eta daukaten talentua baliatuz.

Eta trantsizio-politikak bultzatzea eskatzen du, zaintza-eredua eraldatzea kudeatuz¹⁵, erantzukizun publikoak eta sektoreen arteko lankidetzak gidatuta:

- Lehenengo eta behin, zaintzaren gizarte-antolamenduan erantzukizun publikoa indartuz, familiaren eta emakumeen zaintzak gaur egun duen pisuarekin alderatuta.

Beraz, zaintzen familiarizazioaren eta feminizazioaren kontrako norabidean, horiek familien eta, azken batean, emakumeen bizkar uzten baitute zaintzekiko erantzukizuna. Eta, beraz, instituzioen eta familia- eta erkidego-zaintzaren (ez profesionala) oreka berri bat lortu nahi da, lehenengoaren mesedetan, eta beste hainbestean ordaindu gabeko zaintza-lana aitortu, murriztu eta birbanatzea ere.

- Bigarrenik, prebentzioa, autonomia eta bizitza betea sustatzeko ikuspuntua indartzea, bai eta arreta-piramidea alderantzikatzea ere, erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta indartuz. Lehen mailako arreta ez da lehentasun handienekoa gaur egun. GZESren gastu publiko arruntaren % 81 foru-eskumeneko bigarren mailako arretako zerbitzuetan metatzen da. Eta, lehenago adierazi dugun bezala, gastu osoaren % 30 adinekoentzako egoitza-zentroetan soilik; beraz, ehuneko horri eutsi egin behar zaio lehenik, eta gero murriztu. Osterantzean, handitu egingo da egoitza-zentroen gaineko presioa – batez ere adinekoentzako egoitzetan–, gastuaren eta gastuaren hazkundearen zati handi bat xurgatuko baitute, eta etxean bizi direnen eta mendekotasunaz bestelako kontingentzien alternatibak finantzatzeko gaitasuna murriztu egingo da.

Beste hainbestean, adineko gehienak autonomoak dira, baina arreta gainerakoetan ezartzen da. Beharrezkoa da: a) arreta etxean edo erkidegoan lehenestea, lehen eta bigarren mailan, arretarik galdu gabe bizitoki lagunduak edo egoitzakoak izateko aukeretan eta horiek eraldatzean, zentroak dibertsifikatuz, osasun-langileen karga gehiago edo gutxiagorekin, baina beti etxe moduan irudikatuta; b) adinekoekin lan egiten hastea, autonomoak direnean, bizitza beteko ikuspegiarekin, ez soilik prebentzioari begira, daukaten gaitasunak azpimarratzeko moduan, bizitzan zehar, baita egoitza-inguruneetan ere. Horren harira, adinekoen Estatutu bat bultzatu behar da, egiten duten gizarte-ekarpena, gaur egungoa eta potentziala onartzeko eta sustatzeko, eta daukaten eskubideak ere bai.

¹⁴LAGetan dagoeneko jasota dago osasunaren ikuspegia, eta Bultzatu 2050 Hiri Agendan zaintzak. Era berean, interesgarria izango litzateke ikuspegi hori etxebizitzaren aldeko itun sozialaren eta politika sozialen (etxebizitzaren politika soziala) garapenarekin lotzea.

¹⁵Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Operatiboan aurreikusita dago, hain zuzen ere, zaintzen antolaketa sozial berri bat bultzatzea, besteak beste, zaintza horiek birbanatzeko.

- Hirugarrenik, familiaren eta erkidegoaren laguntza, elkartasun antolatua eta jarduera ekonomikoa sustatuz, lagunduz eta antolatuz, beharrezkoa den guztian, honako hauen bitartez:
 - o Familia-zaintzako eredu berri bat bultzatuz, kualifikatua, erantzunkidea eta bizitza pertsonalarekin, lan-bizitzarekin eta familia-bizitzaren beste dimentsio batzuekin uztartzeko modukoa.
 - o Boluntariora, elkarrekiko laguntza eta laguntza informaleko sareak sustatzea.
 - o Jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatzea zaintzen eta zilar-ekonomiaren esparruan, arlo horretako jarduera ekonomikoa behar den neurrian arautuz.
- Laugarrenik, egoitza-arreta indartuz eta haien kalitatea hobetuz, bizikidetzaren unitateen tamaina murriztuz eta etxe baten antzekoak bihurtuz, II. eta III. mailako mendekotasuna eta patologia neurodegeneratiboak dituzten eta erkidegoan arreta egokitzen ez zaien pertsonen gero eta kopuru handiagoaren premiei erantzuteko.

Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen zahartzeari erantzuteko, ezinbestekoa da autonomia sustatzea eta hauskortasuna eta mendekotasuna prebenitzea, arreta-piramidearen oinarria bultzatuz, bai eta autonomoentzako politikak eta zerbitzuak ere. Aldi berean, areagotuz doan zahartzeak eta mendekotasun-egoeren eta patologia neurodegeneratiboaren (alzheimerra, parkinsona...) kopurua handitzeak egoitza-arreta indartzeko eskatzen du, nahiz eta GZESn gero eta handiagoa den gastu publiko arrunta murriztu. Egoitza-zentroen bertsio hobetuak berebiziko garrantzia izaten jarraituko du ekosistema berri batean; izan ere, ekosistema horrek ezin du erkidego-arretan bakarrik oinarritu.

Desinstituzionalizazioak pertsona gehienek lehentasunez erantzuten die. Pertsona horiek beren etxean bizi nahi dute, beharrezko laguntzekin, eta, azkenean egoitza-zentro batean bizi behar badute, etxeko giro baten ahalik eta antzekoena izatea nahi dute. Baina familia-zaintza eta etxeko zaintza ez dira beti aukerarik egokiena ez zainduarentzat ez senitarteko zaintzaileentzat. Batzuetan, bizitegi-aukera bat izan daiteke irtenbiderik egokiena eta bideragarriena.

2.3. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA (HORIZON 2030)

Gure ongizateko eta gizarte-zaintzako eremuan aurrera jo

Ongizate-eredu propioa eskuratzeko urrats sendoak ematen ari gara euskal gizartea eta erakundeak, Europako beste eredu batzuekiko bestelakoa dena. Ez hobe, ez okerragoa, baizik eta gure gizartearen balio, behar eta gaitasunekiko koherentea izango dena.

Gizarte-babeseko sistemaren baitako hainbat sare edo azpisisistemak osatutako ongizate-eredua:

- bereizitako prestazio eta arkitekturak izan arren, elkarren artean artikulatuta daude;
- elkarri eragiteko espazioekin (gizarte-osasun, gizarte-lan, gizarte-hezkuntza, gizarte-justizia, gizarte-kultura arloetakoak, besteak beste), sustatu beharrekoak;
- eta gutxienez hiru ezaugarri komun dituen: a) erkidego-ikuspegia, pertsonen eta harremanetan oinarritutako arreta barne; b) gizarteratzea helburu bezala bilatzea; c) eta lankidetzaren, gizarte-testuingurutik eta pertsonaren izaera bakarretik eratorritako agindu bezala.

Euskal ereduak erantzukizun publikoko katalogoetan eta zorrotan sartutako prestazio eta zerbitzuen inguruko erantzukizun eta lidergo publikoa du ezaugarri, aintzat hartuta, dena dela ere, lau sektoreen arteko lankidetzaren (publikoa, pribatua, soziala eta erkidego-familiarra), gizarte-premiei erantzuteko eta, bereziki, gizarte-zaintzak hornitzeko.

Gizarte-politiketan erreferente garrantzitsu eta berritzaile izateko aukera eman diezaioketen ezaugarriak dituen gizarte baten behar eta gaitasunetara egokitutako eredu (tradizio eta kultura

erkidegoa, gizarte-ehunaren garrantzia, gizarte-babesaren arloko ibilbidea, sektoreen arteko lankidetzak, oro har, eta erantzukizun publikoaren garapena..).

Berezko eredia, GZESren esparruan (gizarte-zaintzak) Gizarte Zerbitzuen Legearen 5., 7a eta 35.3 artikuluekin koherentea dena, eta, beraz, erantzukizun publikoan eta lankidetzak publiko-pribatuan oinarritua, zeinetan kudeaketa publiko zuzena den nagusi, eta gizarte-ekimenaren bidez.

Horrenbestez, bestelako eredia da, bai historikoki lidergo eta kudeaketa publikoak identifikatu dituen Eskandinaviako ereduarekiko, bai ekimen publikoa zibilaren subsidiariotzat jotzen duen Alemaniakoa bezalako Europa erdialdeko ereduarekiko, bai eta erantzukizuna familiei eta, azken batean, emakumeei egozten dien Mediterraneoko ereduarekiko.

Eredu familista horretatik gatoz, baina pixkanaka alde batera uzten ari gara, batik bat Gizarte Zerbitzuen Legea onetsi zenetik eta zorroko zerbitzuak eta prestazioak eskubide subjektibo bezala hartu zirenetik. Horrela, zaintzen gizarte-antolamenduaren eredu baterantz goaz (social care):

- a) Familia-zaintzarekiko erakunde-zaintzaren proportzioa handitzeari esker, zainduen eta zaintzaileen erakunde-zaintza indartuta¹⁶, familien ekarpena galdu gabe, baina familia-zaintza emakumeengan gain leporatu gabe, sustatuz gizonak egindako zaintza, bai familia arloan, bai erakundeetako arloan, bai eta rol sozial hori gizonak zein emakumeek esleitzea ere.
- b) Euskal babes-sistemari lotutako (azpi)sistemak hedatzean (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, diru-sarreraren bermea eta gizarteratzeko bermea, enplegu-politika aktiboak eta etxebizitzaren gizarte-babeseko politikak), horiek hobetzeko gastua eta inbertsio publikoa handitzeari esker, egoera sozioekonomikoari erantzun nahian (diru-bilketa handitu egin da inflazio-aldiko une honetan), eta presako eta trantsizioko politikak bultzatuz, lidergo publikoan eta lankidetzak publiko-pribatuan oinarrituta, zeinetan gizarte arloak duen lehentasuna, betiere horretan guztian ahal den adostasun sozial eta politikoa handiena bilatuz.

Hauek dira Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren eta GZESren garapenean egindako ahaleginaren dimentsio ekonomikoaren erakusleak:

- Hurrenez hurreneko hiru krisi jasan beharra izan ostean, 10.000 milioi euroko gastu publikoa gainditu izana hezkuntzako, osasuneko, gizarte-zerbitzuetako, enpleguko eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko (azpi)sistemetan.
- 2011tik 2018ra bitartean, krisialdi garai betean, GZESn gastu publiko arrunta % 21 hazi izana, I. Planaren ebaluazioan egiaztatutaz; 12/2008 Legea onetsi ostean, krisialdiaren eraginez, 2007ko diru-bilketako zifrak ezin izan ziren gainditu 2017ra arte.

Eta, horretarako, beste bultzada bat eman GZESri, lehen sendotze-fase baten ondoren.

Gizarte-zerbitzuen esparru osoa hartzen du Planak, baina Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema du ardatza, eta, horrenbestez, erakunde-zaintza, katalogoko prestazio eta zerbitzuen eta erantzukizun publikoaren zorroaren bidez antolatuta.

- Horiek horrela, I. Plana tresna baliagarria izan zen aurrera jo ahal izateko GZES hedatzen eta antolatzen, kide anitzeko plangintzan oinarrituta. Plan estrategikoa bat egitea, bere horretan, aurrerapausoa da, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sisteman oinarritutako

¹⁶Gizarte-zaintzak **instituzionalizatzeak** erakunde publikoek zaintza horien inguruan duten lidergo eta erantzukizuna gero eta gehiago garatzeko prozesuari egiten dio erreferentzia, edo zaintzak pribatizatu edo kanpoan kontratatu ordez publikifikatzeari. Ez da, beraz, desinstituzionalizatze prozesuaren aurkako mugimendua, hau da, erakundeetan arreta ematetik erkidegoan arreta jasotzera pasatzea eta egoitza-esparruan erkidego-eredua bultzatzea.

tresna den neurrian, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arauz ezarrita duenaren arabera.

- Elkargo-plangintza baten emaitza dira aurrerapenak horiek, era berean, 2020rako GZES unibertsal bihurtzean aurrera egiteko irizpideari buruzko akordioak, lurraldeen arteko estaldurak EAeko batez besteko estalduraren +/- % 20 inguru bateratuz, lehenik, eta % 15 ondoren. Irizpide hori +/- % 15ean finkatu da orain. Eta, jakina, lurralde historiko bakoitzeko mapak EAeko Maparen eranskin bezala egitea, lurralde bakoitzean zerbitzuak hedatzeko eta banatzeko erreferentzia bezala hartuta EAeko Mapan aurreikusitako estaldurak eta zerbitzuak ezartzeko irizpide egokienak.

Nolanahi ere, II. Plan Estrategikoak bultzada berri bat eman behar dio GZESri, zenbaki mailan nahiz ezaugarri mailan, GZES indartuz eta 2030eko hamarkadako jomugan trantsizio-politika bultzatuz, trantsizio sozial eta demografikoari behar bezala erantzuteko. Helburu horiek lortu ahal izateko, legea onetsi zenean hartutako bideari eutsi behar zaio, gastua handituz, baita krisi-garaian ere, ahalegina mantenduz edo, ahal izanez gero, handituz (diru-sarrerekin lotutako gastua). Gastu arruntari dagokion ahalegina izango da, adinekoentzako egoitza-zentroak egokitzeko inbertsio-plana egitearekin batera.

Deskribatu dugun testuinguruan, nahitaezkoak dira berrikuntza eta eraginkortasuna, baina ez dira aski. Sistemaren iraunkortasun sozial eta ekonomikoak bultzada bikoitza eskatzen du gastuan eta inbertsioan, erakundeen, familien, erkidegoaren eta etxebizitzaren zaintzan oreka berri bat bilatu ahal izateko. Egungo testuinguru sozioekonomikoak bultzada horretarako aukera eman dezake, baina iritsitako gastu maila iraunkorra izan behar da, gorabeherak gorabehera. Hala, gastu publiko arrunta gaur egun onargarritzat jo daitezkeen parametro batzuen barruan dagoela ziurtatzeaz gain, ezinbestekoa izango da haren bilakaera egoera aldakorretara eta benetako aukeretara egokitzea.

Aukera erreala finkatzeko garaian, gogoeta lasaia egitea komeni da, "luzerako argiak" erabiliz taxutzen den horietakoa; gizarte-premia guztiei eta horien bilakaerari buruz, beti urriak diren baliabideen banaketari buruz, askotariko faktoreak aintzat hartuta, eta, horien artean, hazkunde ekonomikoaren eta gizarte-kohesioaren arteko elkarreragina, bi noranzkoetan, ahaleginduz gizarte-kohesioak hazkunde ekonomikoa eta gizarte-kohesioa bultzatzen dituzan, aukera berdina izatearen aldeko birbanatzearen bitartez. Gainera, komeni da aintzat hartzea baliabideak honako hauen artean banatzen direla: a) gizarte-premien artean (gizarte-babesa eta beste batzuk); b) gizarte-babeseko sistemaren azpisistemen artean (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, enplegua, diru-sarreraren bermea...), ibilbide eta heltze-maila handiagoa edo txikiagoa dutenak, eta negu demografikoak era askotara eragiten dienak (beheranzko presioa haurren, nerabeen eta adinekoen arretan); c) (egoitzetako eta erkidegoetako) zerbitzuen artean eta GZESko administrazio publikoen mailen artean, finantzaketa eta eskumenak elkarri ahalik eta ondoen egokitu nahian.

3. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren (2018) ebaluazioa egitean lortutako GZESren egoerari buruzko datu nagusiak aurkezten dira hemen, bai eta ebaluazioak ezartzen dituen gomendioen ondoriozko erronkak ere.

Adierazi den bezala, I. Planaren ebaluazioa haren denbora-aldia amaitu baino lehen egiten hasi ziren, eta, beraz, 2018ko datuarekin, nahiz eta 2019ko datuak geroago bildu ziren. Datu horiek EAEko Mapa egiteko abiapuntua dira.

Ildo horretan, mugak daude euskal administrazio publikoen hiru mailek parte hartzen duten sistema deszentralizatuari buruzko informazio osoa eskuratzeko epeetan. Horrela, I. Planean (2016-2019), 2011ko datuak izan ziren Maparen proiektzioak ezartzeko abiapuntua.

2018ko eta 2019ko eskaintza osoaren irudi osoa eduki nahi izanez gero:

- Ebaluazioa, 2018ko datuekin, 2021eko ekainaren 21ean aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean, eta osorik kontsulta daiteke [esteka honetan](#).
- 2019ko datuak Mapari eta Memoria Ekonomikoari buruzko atalaren tauletan daude sartuta abiapuntu gisa.

3.1. GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN EGOERA

3.1.1. Ikuspegi kuantitatiboa

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) sistema unibertsal gisa sendotu da Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/ 2008 Legea onetsi zenetik eta ondoren, nahiz eta ibilbide luzeko krisi-garaia izan.

Hala, I. GZPEren ebaluazioak agerian utzi zituen sistema zabaldu eta finkatzeko orduan lortutako aurrerapenak. Izan ere, 2011. eta 2019. urteen artean, sistemak nabarmen egin du gora zerbitzuen erabiltzaileei edo prestazio ekonomikoen hartzaileei, plazei eta estaldurei dagokionez.

Eta estalduren kopurua handituta, lurraldeen arteko konbergentziaren adierazlea hobetu egin da, EAEko batez besteko estalduraren +/-% 15eko tartean dauden zerbitzuak eta prestazioak handituz.

Gainera, gastuari dagokionez:

- 2008ko krisiaren ondoren, 2008ko BPGd-a (68.575 milioi) ez zen berreskuratu 2016ra arte (71.239 milioi), eta bilketak 10 urte behar izan zituen berreskuratzeko.
- GZESren gastu publiko arruntak BPGd-arekiko zuen ehunekoa % 1,24tik % 1,42ra igaro zen (2011-19), eta ahalegina handitu egin zen.

Plazen, ZLPEren (zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa) eta kontingentziengatiko bestelako prestazioen bilakaera

Jarraian, I. GZPEren ebaluazioan sartutako bilakaera-taula aurkezten da. Ikus daitekeen bezala, honako hauei buruzko informazioa bereizten zuen: ZLPEak, adinekoentzako ostatu-zerbitzuak eta eguneko zerbitzuak eskuratzeko prestazioak (plaza bakoitzeko kostu osoa estaltzen dutenez, kudeaketa-modalitateak dira, eta ez ZLPE), eta Bizkaiko Foru Aldundiak bazterketaren eremuan ematen zituen babes teknikoko laguntzak eta prestazioak.

1. taula. Plazen, ZLPEren eta beste prestazio edo laguntza batzuen bilakaera Egoera 2012/1/1ean, 2019/1/1ean eta alde

	Egoera 2012/1/1ean (2011)				Egoera 2019/1/1ean (2018)				Aldakuntza 2011-2018				
	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	A	B	G	EAE	
Mendekotasuna/ autonomia	Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.1)	133	65	0	198	254	149	243	646	121	84	243	448
Adineko pertsonak	Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak: tutoretzapeko apartamentuak (1.9.3) eta etxebizitza komunitarioak (1.9.4)	483 480+3*	224 70+154*	707 705+ 2*	1.414	468	398 81+317*	581	1.447	-15	174	-	33
	Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.1)	590	1.349 912+437*	1.407	3.346	555 517+38*	1.362 775+587*	1.559	3.476	-35	13	152	130
	Gaueko zentroa, mugak autonomian (2.3.1)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	Adinekoentzako egoitza-zentroak (2.4.1)	1.463 980+483*	5.640 5.053+587*	4.400 4.313+87*	11.503	1.913 1.041+872*	6.974 5.118+1.856*	4.935 4.655+280*	13.822	450	1.334	535	2.319
Desgaitasuna	Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.2./ 2.2.1.3)	131	707	641	1.479	128	742	710	1.580	-3	35	69	101
	Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.4)	15	335	203	553	28	359	234	621	13	24	31	68
	Laneko zerbitzu edo zentroa (2.2.2)	419	1.276	860	2.555	433	1.304	1.098	2.835	14	28	238	280
	Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.2)	281	1.106	749	2.136	266	1.237	854	2.357	-15	131	105	221
	Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.3)	152	208	142	502	160	223	239	622	8	15	97	120
Babesgabetasuna	Ettxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako harrera-etxea (1.9.1.2)	60	94	70	224	57	133	71	261	-3	39	1	37
	Adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4)	174	669	405	1.248	244	860	398	1.502	70	191	-7	254
	Tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak (2.4.6)	18	120	25	163	19	121	30	170	1	1	5	7
Bazterketa	Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.2)	49	0	90	139	70	199	144	413	21	199	54	274
	Gaueko harrera-zerbitzuak (1.8)	99	162	128	389	97	244	147	488	-2	82	19	99
	Gizarte-larrialdietarako harrera-etxea (1.9.1.1) / Bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza (1.9.2)	114	38	261	413	160	465 205+260*	296	921	46	427	35	508
	Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua (2.2.3)	0	491	0	491	36	817	185	1.038	36	326	185	547
	Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroak (2.3.2)	0	15	0	15	0	15	12	27	0	0	12	12
	Bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5)	47	351	434	832	39	543 266+277**	457	1.039	-8	192	23	207
	[ZLPEak, gizarteratzeko dirulaguntzak edo bestelako dirulaguntzak]	[486]	[1.178]	[89]	[1.753]	[910]	[3.297]	[282]	[4.489]				
Guztira	Plazak + ZLPE				27.600				33.265				5.665

* ZLPEak, gizarteratzeko dirulaguntzak edo bestelako dirulaguntzak. * Etxebizitza eskuratzeko laguntza teknikoko prestazioak dira, eguneko arreta-zerbitzuetatik ematen direnak (gastua hor sartzen da).

Bestalde, EUDELen ekarpenak kontuan hartuta eta Gizarte Zerbitzuen Legearen aurreikuspenekin bat etorriz, honako gogoeta hauek egin dira:

- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak ez dira plazak.
- ZLPEak Gizarte Zerbitzuen Legeak GZES zabaltzeko aurreikusten duen tresna dira, baina kasu jakin batzuetan eta aldi baterako bakarrik.¹⁷ Horiek horrela, eta legeak denbora-mugarik zehazten ez badu ere, txandakatu egin behar dira ZLPEak jasotzen dituzten pertsonak, zentroetan plaza berriak sortzen diren heinean.
- Horrek esan nahi du ZLPEak plangintzan sartu behar direla, baina horien erabilerari buruzko jarraipena egin behar da, zehazki, irismenari eta txandakatzeari buruzkoa. Horrela, II. GZPEren hedapena jarraitzean eta ebaluatzean ZLPE-en kopuruari eta txandakatzeari buruzko datuak gehituko zaizkio.
- II. GZPEk ez du haren garapen-maila aurreikusten, hedadura jakin bat izango dutela ziurtzat jotzea saihesteko, baina proiektatutako gastu publiko arruntak kontuan hartzen du 2019an duen pisua (% 9,68, eta 2011n, berriz, % 6,4); beraz, ehunekoa ez handitzeko hipotesia ezartzen du 2025eko eta 2030eko gastua zenbatesteko.
- Horrez gain, I. GZPEren ebaluazioak adierazten duen bezala:
 - ✓ Beharrezkoa da prestazio ekonomikoei buruzko hausnarketa eta planteamendu partekatua egitea, batez ere gai hauei buruz: a) FGZPE eta LPPE; b) ZLPE eta bazterketaren eremuko laguntza eta prestazio teknikoak (82. orrialdea).

Horri dagokionez, GZESren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua ebaluatzeko prozesuari eutsi behar zaio, bai eta etxebizitzaren arloan eskumena duen sailarekin batera gizarte- eta bizitegi-espazioa definitzeari ere, sistema bakoitzaren erantzukizuna mugatuz. Ildo horretan, ulertu behar da GZPEren ebaluazioan ZLPE-ei buruz hausnartzeko beharra aipatzen dela, 2018an bazterketaren eremuan hedatutako laguntzak eta prestazioak barne.

- ✓ Gaur egungo ereduak (kudeaketa publiko zuzena edo gizarte-ekimenarekin lankidetzan, ZLPE-en edo FGZPE-en garapen-maila, etab.) lurralde bakoitzaren ezaugarriak eta aurretiko ibilbideari erantzuten diete.

Eta sistemaren jasangarritasunerako eragin handiko faktoreak dira: administrazio publikoek beharrezko prestazioen eta zerbitzuen eskaintza sortzeko duten gaitasuna arriskuan jartzen dute, ez baitago proportzio bera gastu publiko arruntaren hazkundearen eta kudeaketa-ereduaren araberako plazak sortzearen artean (ikus "Gastua igotzea, plazak sortzea eta kudeaketa-ereduak" atala I. GZPEren ebaluazioaren 53. eta 54. orrialdeetan).

¹⁷ <<Era berean, Legearen arabera, ulertu behar da GZESren plangintzan aurreikusitakoaren arabera (indarrean dagoen GZPE hornitzeko bidean dauden zerbitzuei baino ez litzaiekeela aplikatuko ZKPE. Hau da, unean-unean dagoen eskuragarritasunetik gorako estaldura-helburua handiagoa duen zerbitzuei aplikatuko litzaieke. Era berean, sisteman ZKPE-en guztizko kopuruari eutsi edo, are, handitu arren, horiek erabiltzen dituzten pertsonak txandakatu beharko lirake. Aldi berean, zenbait kasuri buruzko gogoeta egin beharra dago, hala nola: errotze-printzipioa errespetatu beharra, edota nola jokatu behar den pertsonak hura eskatzeari uko egiten badio GZESen sartutako zerbitzu batean arreta eskaintzen zaion unean, edo lehenago>> (EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, 54. orrialdea).

Gastu publiko arrunta


Serie historikorako datuak 1. grafikoko kalkuluen arabera harmonizatuz, GZESn gauzaturako gastu publiko arruntak **222,8 milioiko igoera izan du hasierako (2011) 832,2 milioiko eta amaierako (2018) 1.055,0 milioiko gastu publiko arruntaren aldean.**

Hazkunde hori euskal administrazio publikoen hiru mailetan erregistratu da. Jakinarazi den gastu gehigarriko 222,8 milioietatik: udal-gastua 22,05 milioi igo da 184,39tik; foru-gastua 197,33 milioi 858,94tik; eta Eusko Jaurlaritzarena 3,47 milioi 11,68tik.

Bestalde, 222,8 milioi horietatik, 136 2016rako aurreikuspenari dagozkio, data horretan (2017/01/01) estimaturako estaldurak ordaintzeko, eta gastua beste 86,8 milioi handitu da aldi osoan (2011-2018).

Hala, gauzaturako gastu publiko arrunta, koordainketa kenduta, 7 urtean % 21,12 handitu da 2018ko gastu publiko arrunt osoarekin alderatuta, eta urteko batez besteko hazkundeportzentajea % 3 izan da. % 3,28ko erritmora igo da urtero, denboraldi berean, foru-gastua Bizkaian, % 3,18kora Gipuzkoan eta % 4,38kora Araban. Foru Aldundiaren gastua gastu publiko arruntaren % 81,4 izan da 2018an: 858,94 milioi 1.055etik.

1. grafikoa. Gastu publiko arruntaren bilakaera 2011-2018



Zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen ondoriozko gastu publiko arrunta

Jarraian, zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzeko gastu publiko arruntaren datuak aurkezten dira, 2011ko datuak 2018koekin alderatuta (2. taula). 3.3 atalean, zerbitzu eta prestazio bakoitzaren analisisia egiten da, gastu publiko arruntaren datuak aurretik aurkeztutako plazei edo erabiltzaileei/hartzaileei eta estaldurei buruzko datuekin konbinatuta.

2. taula Gastu publiko arrunta GZESren gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan. Egoera 2011n eta 2018an, eta aldakuntza

	2011				2018				Aldakuntza			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Informazio-, balorazio- (...) zerbitzua (1.1.)	8.546.655	19.363.818	15.542.662	43.453.135	10.674.664	21.761.261	19.711.019	52.146.944	2.128.009	2.397.443	4.168.357	8.693.809
Ettxeko laguntza-zerbitzua (1.2.)	21.628.190	40.358.282	21.403.617	83.390.089	14.335.354	38.693.769	22.455.034	75.484.157	-7.292.836	-1.664.513	1.051.417	-7.905.932
Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3.)	3.968.213	11.110.430	4.155.660	19.234.303	2.053.037	10.912.314	4.876.708	17.842.059	-1.915.176	-198.116	721.048	-1.392.244
Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4.)	122.339	1.003.587	162.962	1.288.888	273.217	970.642	403.481	1.647.340	150.878	-32.945	240.519	358.452
Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.1.)	1.829.029	733.277	0	2.562.306	3.915.573	730.870	246.263	4.892.706	2.086.544	-2.407	246.263	2.330.400
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.2.)	528.956	0	267.497	796.453	455.347	1.081.215	1.219.681	2.756.243	-73.609	1.081.215	952.184	1.959.790
Gaueko harrera-zerbitzuak (1.8.)	1.473.397	1.020.176	2.024.178	4.517.751	2.038.853	2.303.613	1.688.232	6.030.698	565.456	1.283.437	-335.946	1.512.947
Larrialdietarako harrera-etxea /Tutoretzapeko etxebizitza (1.9.1.1./1.9.2.)	731.285	8.026	202.210	941.521	1.363.822	1.157.934	290.551	2.812.307	632.537	1.149.908	88.341	1.870.786
Emakumeentzako harrera-etxea (1.9.1.2.)	301.091	441.924	303.858	1.046.873	618.695	538.560	56.601	1.213.855	317.604	96.636	-247.257	166.982
Adinekoentzako ostatu-zerbitzua (1.9.3/1.9.4)	3.209.455	1.901.318	--	5.110.773	11.440.516	4.451.798	3.668.938	19.561.252	8.231.061	2.550.480	#¡VALOR!	14.450.479
Lehen mailako arreta eta udal-eskumena	42.338.610	75.940.838	44.062.644	162.342.092	47.169.078	82.601.975	54.616.508	184.387.560	4.830.468	6.661.137	10.553.864	22.045.468
(...) baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua (2.1.)*	--	--	--	--	1.800.847	6.404.961	4.079.065	12.284.873	--	--	--	--
Adinekoentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.1.)	6.332.324	15.218.174	17.334.550	38.885.048	11.774.782	17.000.289	20.783.545	49.558.616	5.442.458	1.782.115	3.448.995	10.673.568
Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.2/3.)	3.058.781	15.155.176	8.732.620	26.946.577	3.681.750	15.373.668	10.613.049	29.668.467	622.969	218.492	1.880.429	2.721.890
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.4.)	146.080	1.800.149	1.686.311	3.632.540	299.994	1.483.918	1.044.473	2.828.385	153.914	-316.231	-641.838	-804.155
Laneko zerbitzu edo zentroa (2.2.2.)	6.554.344	9.986.530	6.634.684	23.175.558	8.160.593	8.827.297	7.600.149	24.588.039	1.606.249	-1.159.233	965.465	1.412.481
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.3.)	0	4.123.225	0	4.123.225	419.911	6.461.382	1.443.217	8.324.510	419.911	2.338.157	1.443.217	4.201.285
Gaueko zentroa, mugak autonomian (2.3.1.)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroak (2.3.2.)	0	130.984	0	130.984	0	133.970	247.808	381.778	0	2.986	247.808	250.794
Adinekoentzako egoitza-zentroak (2.4.1.)	46.749.959	111.860.093	91.577.039	250.187.091	66.134.967	126.672.290	104.015.554	296.822.811	19.385.008	14.812.197	12.438.515	46.635.720
Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.2.)	11.948.197	42.230.977	25.709.680	79.888.854	17.254.218	56.638.858	37.180.239	111.073.315	5.306.021	14.407.881	11.470.559	31.184.461

Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.3.)	3.749.991	3.115.631	3.023.454	9.889.076	5.953.172	1.750.834	7.247.790	14.951.796	2.203.181	-1.364.797	4.224.336	5.062.720
Adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4.)	9.496.358	32.270.614	25.820.807	67.587.779	16.505.909	42.653.391	29.168.018	88.327.318	7.009.551	10.382.777	3.347.211	20.739.539
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5.)	925.822	7.464.102	6.595.849	14.985.773	943.439	7.361.997	8.698.124	17.003.561	17.617	-102.105	2.102.275	2.017.788
Emakumeentzako egoitza-zentroak (2.4.6.)	349.019	2.841.277	724.759	3.915.055	473.913	2.752.896	1.587.155	4.813.963	124.894	-88.381	862.396	898.908
Adinekoentzako atsedeen-zerbitzua (2.5.)	648.066	590.465	1.123.287	2.361.818	240.496	203.702	4.682.873	5.127.071	-407.570	-386.763	3.559.586	2.765.253
Desgaitasuna duten pertsonentzako atsedeen-zerbitzua (2.5.)	470.117	1.572.959	269.691	2.312.767	107.468	1.996.995	571.402	2.675.865	-362.649	424.036	301.711	363.098
Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua (2.6.)	600.175	955.437	1.037.233	2.592.845	523.199	947.500	1.076.200	2.546.899	-76.976	-7.937	38.967	-45.946
Bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2.7.2.1.)	--	--	75.117	75.117	360.798	692.376	345.954	1.399.128	360.798	692.376	270.837	1.324.011
Laguntza teknikoen zerbitzua eta (...) egokitzapena (2.7.2.2.)	0	426.455	427.092	853.547	73.251	1.004.791	980.921	2.058.963	73.251	578.336	553.829	1.205.416
Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua (2.7.2.3.)	454.336	2.160.516	880.089	3.494.941	754.100	2.690.000	1.104.039	4.548.139	299.764	529.484	223.950	1.053.198
Garraio egokituko zerbitzua (2.7.2.4.)	--	--	--	0	3.201.370	513.000	0	3.714.370	3.201.370	513.000	0	3.714.370
Familian esku-hartzeko zerbitzuak (2.7.3.1.)	1.855.435	1.722.481	5.707.427	9.285.343	2.176.607	3.750.128	4.672.185	10.598.920	321.172	2.027.647	-1.035.242	1.313.577

	2011				2018				Aldakuntza			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua (2.7.4.)	287.081	849.289	117.047	1.253.417	770.899	4.032.980	743.710	5.547.589	483.818	3.183.691	626.663	4.294.172
Gizarte eta lege arloko arreta-zerbitzuak (...) (2.7.5.)	451.903	1.553.016	529.255	2.534.174	640.757	1.164.966	1.853.916	3.659.640	188.854	-388.050	1.324.661	1.125.466
Familia-harrerako zerbitzuak (2.7.6.1.)	759.729	2.364.511	1.691.044	4.815.284	1.513.442	2.748.372	7.356.172	11.617.986	753.713	383.861	5.665.128	6.802.702
Adopzio-zerbitzua (2.7.6.2.)	75.785	227.792	123.600	427.177	79.186	312.900	84.972	477.058	3.401	85.108	-38.628	49.881
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) (3.1.1.)	6.660	32.806	8.152.981	8.192.447	887.620	349.412	29.836.903	31.073.935	880.960	316.606	21.683.922	22.881.488
Familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa (FGZPE) (3.2.1.)	18.761.828	41.676.524	36.454.020	96.892.372	12.917.436	60.906.454	29.928.377	103.752.267	-5.844.392	19.229.930	-6.525.643	6.859.895
Prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazioak (3.3.)	258.087	1.287.220	1.620.424	3.165.731	333.731	1.004.791	1.405.000	2.743.522	75.644	-282.429	-215.424	-422.209
ZLPE (3.4.1.)	--	--	--	--	7.983.416	8.702.910	2.366.545	19.052.871	--	--	--	--
Bigarren mailako arreta eta foru-eskumena	113.940.077	301.616.403	246.048.060	661.604.540	164.166.426	378.132.067	316.638.290	858.936.782	50.226.349	76.515.664	70.590.230	197.332.242
Telelaguntza zerbitzua (1.6.)	685.609	2.462.312	1.513.593	4.661.514	955.680	4.384.184	2.578.254	7.918.118	270.072	1.921.872	1.064.661	3.256.604
Haurrentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.1.)	23.944	85.992	52.860	162.795	29.317	91.476	62.807	183.600	5.373	5.484	9.947	20.805
Emakumeentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.2.)	45.889	164.805	101.306	312.000	55.449	196.798	122.153	374.400	9.560	31.993	20.847	62.400
Familia-elkargunea (2.7.3.2.)	239.917	861.645	529.656	1.631.218	208.980	882.000	345.960	1.436.940	-30.937	20.355	-183.696	-194.278
Familia-bitartekaritzako zerbitzua (2.7.3.3.)	139.464	500.876	307.890	948.230	154.096	409.719	191.185	755.000	14.632	-91.157	-116.705	-193.230
Biktima diren emakumeentzako prestazioak (3.1.2.)	72.555	260.576	160.177	493.308	189.144	587.880	232.596	1.009.620	116.589	327.304	72.419	516.312
Eskumen autonomikoa	1.207.378	4.336.205	2.665.482	8.209.065	1.592.667	6.552.057	3.532.955	11.677.678	385.289	2.215.852	867.473	3.468.613
Guztira	157.486.065	381.893.446	292.776.186	832.155.697	212.928.170	467.286.099	374.787.753	1.055.002.021	55.442.105	85.392.653	82.011.566	222.846.324

Oharra: 2018an, bigarren mailako arretako eta foru-eskumeneko zerbitzu guztiek eta guztizko orokorrak ez dute 2.1 zerbitzuko gastua barne hartzen, ez baitago sartuta 2011ko datuetan, ezta 2016koetan ere, eta 2011ko datuak askoz ere handiagoak ziren. 1.063.183.164 (2018) – 968.135.060 (2016ko helburua) = + 95.048.405 milioiko igoera 2016ko helburuarekiko, 2018an besterik gehitu ez diren 2.1 zerbitzuko 12.284.405 milioiak kontuan hartu gabe.

2019an, GZESk gora egiten jarraitu du, bai plazetan, bai gastu publiko arruntan, 30.525 plaza (+1.747 plaza) eta 1.132 milioi euro (+77 milioi) lortu arte. Plazen eta gastuaren hazkunde hori hiru lurralde historikoetan gertatu da. Berriz ere, ez dira kontuan hartzen ZLPEak eta bazterketaren eremuan Bizkaiko Foru Aldundiak etxebizitza eskuratzeko aipatzen dituen laguntza ekonomikoa eta laguntza teknikoko prestazioak.

Plazak areagotu egin dira zentro guztietan, bostetan izan ezik: a) adinekoentzako ostatu-zerbitzuak (1.9.3 eta 1.9.4), murrizketak Araban eta Gipuzkoan (-44 plaza guztira); b) adingabeentzako egoitza-zentroak hiru lurraldeetan (-25 plaza guztira), modu koherentean bilakaera demografikoarekin eta migrazio-fluxuekin; c) adinekoentzako eguneko zentroak Bizkaian (-9); d) desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroak Bizkaian (-43 plaza guztira); e) bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Gipuzkoan eta Bizkaian (-25 plaza guztira).

Jarraian, gastu publiko arruntaren bilakaerari buruzko datuak aurkezten dira.

Gastu publiko arrunta GZESren gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan. Egoera 2018an eta 2019an

	2018				2019			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua (1.1.)	10.674.664	21.761.261	19.711.019	52.146.944	9.565.937	26.606.631	20.209.882	56.382.450
Etxeko laguntza-zerbitzua (1.2.)	14.335.354	38.693.769	22.455.034	75.484.157	16.585.189	41.440.759	26.562.374	84.588.322
Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3.)	2.053.037	10.912.314	4.876.708	17.842.059	7.238.581	13.897.159	6.964.941	28.100.681
Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4.) *	273.217	970.642	403.481	1.647.340	208.368	873.660	344.647	1.426.675
Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.1.)	3.915.573	730.870	246.263	4.892.706	3.736.855	1.480.271	1.118.780	6.335.906
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.2.)	455.347	1.081.215	1.219.681	2.756.243	455.012	1.418.279	1.455.177	3.328.467
Gaueko harrera-zerbitzuak (1.8.)	2.038.853	2.303.613	1.688.232	6.030.698	2.066.198	2.799.717	2.197.326	7.063.241
Gizarte-larrialdietarako harrera-etxea eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza (1.9.1.1./1.9.2.1.)	1.363.822	1.157.934	290.551	2.812.307	1.761.006	1.325.486	541.664	3.628.156
Etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako harrera-etxea (1.9.1.2.)	618.695	538.560	56.601	1.213.855	299.742	521.364	67.994	889.100
Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak: tutoretzapeko apartamentuak (1.9.3) eta etxebizitza komunitarioak (1.9.4)	11.440.516	4.451.798	3.668.938	19.561.252	11.890.181	5.419.636	3.549.326	20.859.143
Lehen mailako arreta eta udal-eskumena, guztizko partziala	47.169.078	82.601.975	54.616.508	184.387.560	53.807.069	95.782.961	63.012.111	212.602.140
Mendekotasuna, desgaitasuna, bazterketa eta babesgabetasuna baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua (2.1.)**	1.800.847	6.404.961	4.079.065	12.284.873	1.781.554	6.404.961	4.805.297	12.991.812
Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.1.)	11.774.782	17.000.289	20.783.545	49.558.616	10.501.907	18.043.328	21.363.402	49.908.637
Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.2./ 2.2.1.3.)	3.681.750	15.373.668	10.613.049	29.668.467	3.873.719	16.441.780	18.347.360	38.662.859
Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1.4.)	299.994	1.483.918	1.044.473	2.828.385	306.829	2.150.766	1.989.600	4.447.195
Laneko zerbitzu edo zentro (2.2.2.)	8.160.593	8.827.297	7.600.149	24.588.039	8.579.375	9.264.526	6.908.597	24.752.498
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.3.)	419.911	6.461.382	1.443.217	8.324.510	437.671	13.550.265	1.599.647	15.587.583
Gizarte-premiei erantzuteko gaueko harrera-zerbitzuak (2.3.2.)	0	133.970	247.808	381.778	0	137.320	307.404	444.724
Adinekoentzako egoitza-zerbitzuak (2.4.1.)	66.134.967	126.672.290	104.015.554	296.822.811	69.342.507	138.848.319	102.404.315	310.595.141
Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuak (2.4.2.)	17.254.218	56.638.858	37.180.239	111.073.315	18.458.258	57.962.381	28.711.521	105.132.161
Gaixotasun-mentala duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuak (2.4.3.)	5.953.172	1.750.834	7.247.790	14.951.796	6.445.728	4.514.130	6.658.569	17.618.427
Adingabeentzako egoitza-zerbitzuak (2.4.4.)	16.505.909	42.653.391	29.168.018	88.327.318	18.232.601	46.700.000	32.210.513	97.143.114
Bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zerbitzuak (2.4.5.)	943.439	7.361.997	8.698.124	17.003.561	962.532	4.079.103	10.785.364	15.826.999
Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zerbitzuak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk (2.4.6.)	473.913	2.752.896	1.587.155	4.813.963	577.004	3.074.089	1.265.161	4.916.254
Adinekoentzako atsedeen-zerbitzua (2.5.)	240.496	203.702	4.682.873	5.127.071	302.133	247.378	898.059	1.447.570
Desgaitasuna duten pertsonentzako atsedeen-zerbitzua (2.5.)	107.468	1.996.995	571.402	2.675.865	155.567	2.382.512	495.042	3.033.121
Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua (2.6.) ***	523.199	947.500	1.076.200	2.546.899	464.861	1.002.820	1.122.280	2.589.961
Bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2.7.2.1.)	360.798	692.376	345.954	1.399.128	340.380	768.217	364.042	1.472.639
Laguntza teknikoaren zerbitzua (laguntza-produktuak) eta ingurune fisikoaren egokitzapena (2.7.2.2.)	73.251	1.004.791	980.921	2.058.963	73.251	1.004.791	1.463.094	2.541.136
Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua (2.7.2.3.)	754.100	2.690.000	1.104.039	4.548.139	779.502	3.020.000	1.294.340	5.093.842
Garraio egokitzeko zerbitzua (2.7.2.4.)	3.201.370	513.000	0	3.714.370	3.395.067	513.000	0	3.908.067
Familiarekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (2.7.3.1.)	2.176.607	3.750.128	4.672.185	10.598.920	2.176.469	4.186.432	4.498.214	10.861.115
Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua (2.7.4.)	770.899	4.032.980	743.710	5.547.589	809.659	3.697.189	1.271.988	5.778.836
Gizarte eta lege arloko eta arlo psikosozialeko arreta-zerbitzuak (...) (2.7.5.)	640.757	1.164.966	1.853.916	3.659.640	689.017	1.153.731	427.339	2.270.088
Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua (2.7.6.1.)	1.513.442	2.748.372	7.356.172	11.617.986	1.142.636	2.709.307	3.593.200	7.445.143
Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua (2.7.6.2.)	79.186	312.900	84.972	477.058	9.338	312.900	93.692	415.930
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) (3.1.1.)	887.620	349.412	29.836.903	31.073.935	1.201.591	331.369	31.094.114	32.627.074
FGZPE (3.2.1.)	12.917.436	60.906.454	29.928.377	103.752.267	12.235.898	65.730.115	27.493.616	105.459.629
Prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazioak (3.3.)	333.731	1.004.791	1.405.000	2.743.522	244.456	1.236.301	1.404.833	2.885.590
Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE) (3.4.1.)	7.983.416	8.702.910	2.366.545	19.052.871	8.525.200	9.690.933	2.369.515	20.585.648
Lehen mailako arreta eta udal-eskumena, guztizko partziala	164.166.426	378.132.067	316.638.290	858.936.782	172.044.710	419.157.964	315.240.119	906.442.793

Gastu arrunt publikoa GZESren gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan. Egoera 2018an eta 2019an

	2018				2019			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Telelaguntza zerbitzua (1.6)	955.680	4.384.184	2.578.254	7.918.118	1.058.788	4.828.277	2.956.120	8.843.185
Haurrentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.1.)	29.317	91.476	62.807	183.600	19.950	108.425	55.225	183.600
Emakumeentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.2.)	55.449	196.798	122.153	374.400	67.626	205.541	101.233	374.400
Deribazio judizialaren bidezko familia-elkargunea (FE) (2.7.3.2.)	208.980	882.000	345.960	1.436.940	216.306	961.040	419.800	1.597.146
Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala (2.7.3.3.)	154.096	409.719	191.185	755.000	113.337	394.383	247.281	755.000
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa (3.1.2.)	189.144	587.880	232.596	1.009.620	219.816	662.004	217.260	1.099.080
Lehen eta bigarren mailako arreta eta Eusko Jaurlaritzaren eskumena, guztizko partziala	1.592.667	6.552.057	3.532.955	11.677.678	1.695.823	7.159.670	3.996.919	12.852.411
GUZTIRA	212.928.170	467.286.099	374.787.753	1.055.002.021	227.547.601	522.100.595	382.249.148	1.131.897.344

* Udal-eskumeneko zerbitzua den arren, zerbitzu horren esparruan udalek eta foru-aldundiek egiten duten gastua gehitu da.

**2018an, foru-eskumenekoa den bigarren mailako arretaren zerbitzu eta prestazioen gastuari dagokion zenbateko osoak ez du barne hartzen 2.1 zerbitzuaren gastua.

***Foru-eskumeneko zerbitzua den arren, zerbitzu horren esparruan foru-aldundiek eta udalek egiten duten gastua gehitu da.

3.1.2. Ikuspegi kualitatiboa

Aintzat hartuta I. GZPEren ebaluazioa, aipatzekoak dira analisiaren oinarriko zenbait dimentsioekin lotutako honako alderdi hauek: a) unibertsalizazioa, lurralde-antolamendua eta ekitatea sarbidean; b) arau-garapena; c) kasua koordinatzea eta intrasistema; d) prebentzioa eta prospekzioa; e) barne-antolaketa, sistemaren kudeaketa eta finantzaketa; f) lankidetzaren beste sistema batzuekin.

a) Aurrerapausoak ematea unibertsalizazioan, lurralde-antolamenduan eta sarbidearen ekitean

Egiaztatu da GZESren unibertsalizazioan aurrera egin dela; izan ere, administrazioek katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak zabaldu dituzte, definizioaren eta zorroari buruzko legean eta dekretuan aurreikusitako eskumen-banaketaren arabera, eta aintzat hartuta lurralde-mapetan ezarritako mugapen geografikoak.

Tokiko erakundeek eta kasuan kasuko aldundiak osatutako hiru lurralde-mahaiak eratzea aurrerapauso garrantzitsua da GZESren erakunde-arkitekturarekin koherentea izango den plangintza deszentralizatua eta kide anitzekoa lortzeko bidean. Eta lurralde-mapen bidez lurraldeko zentroen eta bestelako zerbitzuen banaketa hobetzea ekitate-faktorea da sistemarako sarbidean eta unibertsalizazioan.

Aurrerapen horren beste adierazle bat da 40 zerbitzu edo prestaziotatik 33tan estaldurek gora egin dutela. Udalen ebaluazioa aintzat hartuta aurrera egin da, halaber, oinarriko gizarte-zerbitzuen deszentralizazioan eta zerbitzu berri edo gutxi garatu batzuetan, hala nola adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuan. Eta, era berean, gizarte-larrialdiak koordinatzeko foru-zerbitzuak eta bazterketaren eremuko zerbitzuak abian jartzeari dagokionez. Hala ere, ikusten da hurrengo zerbitzu eta prestazioetan erantzuna hobetu egin behar dela. Hobekuntza horiek II. Planaren ekintzen, egutegiaren eta egikaritze-adierazleen taulan txertatu dira.

1. koadroa. Ebaluazioan identifikatutako hobekuntzak kontingentzia bakoitzari dagokionez

Mendekotasuna

- Familia zaintzaileentzako prestazioak eta zerbitzuak indartu (zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak, aurrez aurrekoak eta online, atsedena, familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa, prestakuntza, laguntza psikosoziala...).
- Adinekoentzako egoitza-plazak ugaritu, egoitza-zentroen eredia eraldatuz, dibertsifikatuz, arreta egokituz banan-banan mendekotasun larria daukaten pertsonen, demenziak daukaten eta abarren profil desberdinetara, eta horien tipologia dibertsifikatuz, arretan progresibotasun handiagoa txertatu eta prestazio sozial eta sanitarioak egoiliarren profilerara eta beharretara hobeto egokitu ahal izateko.
- Aumentar los servicios de alojamiento con apoyo en la comunidad a personas mayores, impulsando alternativas adecuadas a las necesidades y expectativas de las nuevas generaciones, al medio urbano y rural..., diversificando las alternativas y su combinación con otros servicios (los cuatro propios de los SSB, servicios y centros de día, teleasistencia...) evitando o retrasando la demanda de recursos residenciales.
- Etxeko Laguntza Zerbitzua, ELZ (1.2.) sakon berrikusi, etxeko arreta oro har birplanteatzearen baitan, ulertuta, azken urteotan estaldurak zertxobait berreskuratu diren arren, intentsitatea etengabe jaisten ari dela, eta zerbitzua bideraezintasun-zantzuak erakusten ari dela, azterketa eta birplanteamendu bat behar dutenak.
- Gaueko zentroa katalogotik eta zorrotik kanpo uzteko aukera baloratu, autonomia mailako mugek eragindako premiei erantzuteko.

Desgaitasuna

- Bizimodu independenteari laguntzeko eta LPPEko zerbitzuak ugaritu.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzen eskaintza garatu, bizimodu independentera eta desinstituzionalizaziora bitartekotzak bideratuz.
- Prestazio eta zerbitzu espezifikokoak egokitu hainbat erronkatarara, pertsona desgaituak zahartzearen erronkara edo haur eta gazteenera, eta intentsitate txikiagoko laguntza-premia dutenetara (mendekotasun muga, arina eta moderatua) eta/edo jokabide-arazoaren beharrezanetara;
- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eta haien familientzako zerbitzu-sarea zabaldu.
- Autonomia pertsonalerako laguntza-produktuen aldeko apustua egin, garapen eta berrikuntza teknologikoak txertatuta.

Gizarte-bazterketa

- Bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzako arreta-sarea sendotu, eta, batez ere, lehen eta bigarren mailako arretaren artikulazioa eta sarea lurraldean hedatzea, hiru hiriburuetan kontzentrazio maila murriztuz.

Babesgabetasuna

- Inoren ardurapean ez dauden adin txikiko atzeritarrak eta gazteak artatzeari ekin.¹⁸

b) Arauak garatzea

Zerbitzu eta prestazio bakoitzaren dekretuak lantzean aurrera egin da, adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuetatik hasita. Lau dekretu onetsi dira arreta goiztiarraren (bi), familia-harreraren eta adinekoentzako egoitza-zentroen arloetan. Gainera, beste bost dekretu landu dira: adinekoentzako ostatu-zerbitzuak, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak, desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak eta zentro okupazionalak, eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.¹⁹

Hala ere, ez da landu zorroko zerbitzuen finantzaketan (“koordainketa”) ordaintzera behartuta dauden pertsonen parte hartzeko dekretua, aurreko legegintzaldietan huts egin duten bi esperientziaren ondoren, erakundeekin irizpide bat adosteko zain, ez eta Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) erregulatzeari buruz ere, diagnostikoaren eta fitxa sozialaren inguruko 353/2013 Dekretua berrikusi arte itxarotea komeni delako.

Beste alde batetik, Foru Aldundiek eta udalek arau-ahalegin handia egin dute, dagokien eskumen-esparruaren baitan, zorroko zerbitzuak eta prestazioak hedatzeari lotuta dauden kontuetan. Toki-erakundeak ere lankidetzan aritu dira EUDEL-en barruan, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzarekin batera, jardunbide egokiak eta tresnak (besteak beste, erregelamenduak) trukatzeko gunee bat antolatu dute: www.berrituz.eus

Dena den, arauak garatzeak II. GZPEren bultzada irmoa behar du, horretarako nahitaez erakundeen artean zenbait irizpide adostuta, GZESren araudia garatuko baldin bada erakundeek elkarren artean ados izan behar baitute, zerbitzuen ezaugarriak, arretaren erkidego-eredua eta sistemaren arkitektura aintzat hartuta, eta, aldi berean, etengabeko hobekuntza eta, justifikatutako salbuespenak salbuespen, nolabaiteko konbergentzia lortzen saiatuz, plangintzaren esparruan bezala.

Bestela, irizpide bezala gutxieneko izendatzaile komuna hartzen baldin bada, errealitateak azkar zaharkituko du araua, eta etengabe eguneratuko da, baina ez da ez eraginkorra ez efizientea izango. Badirudi hobe dela zorrotzagoak izatea eta, egokia denean, araudia indarrean jartzeko bitartekoaldiak ezartzea.

c) Kasua koordinatzea eta intrasistema

Baloratzeko eta diagnostikatzeko tresna komunei dagokienez, lau kontingentziekin lotuta diseinatu eta aplikatu dira, eta helduen babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna diseinatzea soilik kenduta.

Bestalde, Arreta Pertsonalizatuko Plana (aurrerantzean, APP) oraindik arautzeko dagoen arren, zabaldua dago baliabideak esleitzeko (BAP Banakako Arreta Plana) eta esku-hartzea orientatzeko tresnak erabiltzea (zerbitzuetan eta zentroetan egin ohi diren banakako programazioak, izan arreta pertsonalizatuko planak, izan banakako planak, izan hezkuntza-proiektuak...).

APP eta aipatutako balioesteko tresna dira, lau kontingentziekin lotuta, oinarriko esku hartzeko prozedura eta hari lotutako funtzioak gauzatzeko behar diren tresna guztiak eskura edukitzeko, legearen arabera nahitaez kudeaketa publiko zuzenekoak izanik, oraindik gauzatu gabe dauden tresna bakarrak. Gainera,

¹⁸ Plana ebaluatu ondoren, Trapezistak finkatu egin da egitura-programa moduan, pandemian zehar abian jarritako Lehen Urratsa programatik eratorrita, familia-laguntzako sarerik gabeko 18 urtetik 25era bitarteko gazteei zuzenduta. Euskarri Estrategiaren baitakoa da Trapezistak, eta pertsona horiek artatzea migrazio- eta gazteria-politiketan kokatzeko erakundeen arteko adostasunari dagokio, ez GZESren bazterketa-baliabideetan eta etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetan, bazter utzi gabe bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenean GZESren laguntza jakin batzuk behar izatea.

¹⁹ Gaur egun, adinekoentzako egoitza-zentroi buruzko dekretua aldatzeko proiektua lantzen ari dira.

aurreikusita dago gizarte-diagnostikorako tresna sinplifikatzea eta hobetzea, eta, ondorioz, fitxa soziala aldatzea.

Bestalde, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileak (administrariak eta gizarte-lanekoak) gehitu egin dira, eta lehen eta bigarren mailako arretan lanak egin dituzte, kasuaren koordinazioa eta gizarte-laguntza indartzeko eta arlo horretan hirugarren sektore sozialeko erakundeekin lankidetzan aritzeko, baina ez da eredu partekaturik landu erreferentearen figurari, kasuaren koordinazioari (sektoriala eta sektore artekoa) eta gizarte-laguntzari buruz.

Azkenik, lehen eta bigarren mailako arretaren arteko koordinazioa eta lankidetzaren argitu eta indartu beharra baldin badago ere, aurrera egin da lankidetzaren eta koordinazio-protokoloak egiten, eta gizarte-larrialdiak koordinatzeko zerbitzua eta horien protokoloak bultzatu dira, neurri batean hiru hiriburuetakoko GLUZetan (Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuak) ardatza ezarrita.

d) Prebentzioa eta prospekzioa

Adineko pertsonen laguntza-premiak hautemateko udal-ekimen ugari sustatu dira, eta zaintzen inguruko ikerketa-ildo bati ekin zaio.

Mendekotasunaren prebentzioari eta autonomia sustatzeari dagokienez, laguntzeko produktuei buruzko zerbitzuetan zenbait hobekuntza gauzatzeaz gain, arreta goiztiarrenean ere benetako bultzada eman da, garraio egokituak jarduerak eta autonomia pertsonaleko zentroak sustatu dira, eta beste hainbestean zahartze aktiboa eta adinekoen parte-hartze soziala sustatzeko ekimen ugari ere.

Prebentzioaren ikuspegitik, zaintza-egoera desagokiak detektatzea bultzatu da, eta esku-hartze psiko-gizarte-hezkuntzako eta familia-orientazioko programak ere sustatu dira, gurasoen eta seme-alaben mailan, daudenak mantenduz eta ekimen berriak sustatuz.

Esparru horretan, lau kontingentziei dagokienez, funtsezkoa da detekzio eta ekite goiztiarra indartzea, eta prebentzio-eredu zabalago eta ez hain intentsibo baterantz aurrerapausoak egiten jarraitzea, lehen eta bigarren mailako arreta hobetzeko erkidego-ingurunean, batik bat, baina ez adinekoentzako arretari dagokionez soilik, epe ertainera arretaren piramidea azpikoz gora iraultzeko eta erakunde- eta familia-zaintzaren oreka berrirako helburuekin bat etorrita. Ildo horretan, prebentzio-eredua adostu eta finkatzeko, aurrera jo behar dugu zenbait gairi heltzeko garaian, hala nola unibertsaltasuna, iraunkortasuna, erkidego-arretaren jarraitutasuna eta izaera integrala (lehen eta bigarren hezkuntza), zaintzen oreka edo etxeko eta erkidego-ingurunearen arretaren bilakaera.

Era berean, beharrezkoa da honako arlo hauetan aurrera egiten jarraitzea: beharren ebaluazioa, betiere ekintzaren plangintzara bideratuta; prospekzio-funtzioaren sistematizazioa eta lau kontingentzien determinatzaileen inguruko lana; eta autonomiaz gizarteratzea. Hala eta guztiz ere, azken alderdi horretan, hasteko, ikerketa-ildo egonkor bat definitu eta abiarazi behar da, osasunaren baldintzatzaileekin lotuta dagoena bezalakoa, eta, horretarako, lau kontingentzietan adituak diren pertsonekin elkarriketan oinarritutako lehen hausnarketa sustatu behar da, demografiaren, osasun-baldintzatzaileekin lan egiteaz, eta abarrez, hurrengo plan estrategikoan eman beharreko urratsak zedarrizteko aukera emango duena.

e) Barne-antolaketa, sistema kudeatzea eta finantzaketa

Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa (GZEO) bultzatu da, eta dinamika berriak txertatu dira informazioa planifikatzeko edo kudeatzeko lanetan.

Era berean, taldeak indartu dira, kasuen koordinazioari lotutako prestazioen zuzeneko kudeaketa publikoa bermatzeko, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen gobernuaren egitura indartu da neurri batean, eta aurrerapausoa egin da kalitatean, prestakuntzan eta berrikuntzan hiru erakunde mailetakoa hainbat ekimenen bitartez.

Gainera, sistema barruko eskumenen birdoitzea ia amaitu da, eta mantendu egin dira bai 2011n zegoen titulartasun-egitura eta bai Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakiz eraturako 20 milioiko urteroko funtsa²⁰.

²⁰ Ebaluazioa egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak 24.514.000 euro bideratu ditu gizarte-zerbitzuen funtserako. 2021eko urriaren 7ko 4/2021 Legea, baliabideak banatzeko eta Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzkoa, 2022-2026 aldiari aplikatzeko. 2021eko azaroaren 5eko EAOk 265. zenbakian argitaratua, 134336 orrialdetik 134352ra bitartekoetan (17 orrialde)

Bestalde, hiru erakunde mailek eta lurraldeek gastua handitu dute norbere ardurapeko zerbitzuak eta prestazioak lehen aipatutako heinean hedatzeko.

Edonola ere, oraindik ere beharrezkoa da erakundeen arteko lankidetzan aurrera jarraitzea, GZES gorpuztu eta hedatu dadin, Eusko Jaurlaritzak ekinean bultzatuz, koordinazio-eskumena baliatuta. Giltzarri dira horretan erakundeen arteko dinamika eta, batik bat, GZEOa. Hori dela eta, plangintzaren moduko alderdietan lankidetzeta-dinamiketan egindako aurrerapenetan oinarrituta, beharrezkoa da gainerako funtzioak bultzatzea eta lankidetzeta-kulturarekin bat datozen lan-irizpideak eta -prozedurak ezartzea, GZESren gobernantza hobetzen laguntzeko.

GZEOaz gain, munta handikoa da GZESko eragileekin edo gizarte-zerbitzuen eremuan esku hartzen dutenekin lankidetzan aritzeko organoak edo espazioak indartzen jarraitzea: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak, Nagusi Agenda, erakunde arteko eta sektore arteko batzordeak eta lantaldeak, eta abar.

Beste alde batetik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) bultzatu behar da, plana ebaluatzeko diseinatutako tresna errazak abiapuntutzat hartuta. Sistema hori sendotu egin beharko litzateke, eguneratuta ezagutu ahal izateko dauzkan magnitude nagusiak eta gizarte-zerbitzuen arloko plangintzaren koherentzia eta egokitasuna. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia indartu behar da, kalitatearen ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza bultzatzeko eta gizarte-zerbitzuen esparruan ikerketaren gidalerroak garatzeko, II. GZPEn ezarrita dauden lehentasunen esparruan.²¹

GZESren finantzaketari dagokionez, azpimarratu beharrekoak dira eraginkortasuna hobetzea, baliabideak erakartzea eta jasagarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren eraldaketak ere.

f) Beste sistema batzuekiko lankidetzeta

Aurrera jo da gizarte-osasun eta gizarte-lan esparruetan, ez hainbeste gizarte-egoitza esparruan.

Gizarte-osasun esparruan, aurrerapausoak ikus daitezke lehentasun estrategikoen eta gizarte- eta osasun-arloko gobernantzaren eredia definitzean, gizarte- eta osasun-arloko baliabideen katalogoa egin da eta aurrera gizarte- eta osasun-arloko elkarreragingarritasuna diseinatzeko eginkizunean. Halaber, aurrerapausoak eman dira komunikazio-ekinbidean (arreta soziosanitarioko ataria) eta hitzarmen soziosanitarioak berraztertzean eta eguneratzean.

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalen arteko gizarte-osasun lankidetzeta hobetzeko, besteak beste, honako hauek bultzatu dira: lehen mailako arreta soziosanitarioko eta kasu soziosanitarioen koordinazioko taldeak, koordinazio-protokoloak, etxez etxeko esku-hartzerako programa pilotuak eta gaixotasun mentala duten eta, bereziki, jokabide-arazoak dauzkaten adingabeak artatzeko programak.

Taldean lan egiteko eta kasuak koordinatzeko ekimenak bultzatzen jarraitu behar da, bai eta talde espezifikoak artatu ahal izateko ekimenak ere: gaixotasun mentala eta jokabide-arazoak dauzkaten adin txikikoak eta bestelakoak.

Horrez gain, aurrera jo beharra dago lurralde-koordinazioaren egituraketan, informazio soziosanitarioko sisteman, zerbitzu soziosanitarioen zorroa onestean eta prestazio sanitarioak eta plaza soziosanitarioak finantzatzeko eredu bateratuan.

Beharrezkoa da **gizarte-lan esparruan** ere aurrerapausoak ematen jarraitzea, eta beste hainbestean gizarteratzerara bideratutako politiketan eta ekintzetan ere, Jaurlaritzako sailen, foru-aldundien eta udalen arteko koordinazioan eta lankidetzan oinarrituta.

²¹Ebaluazioa egin ondoren, aurrera jo dugu bi ildo horietan.

- Alde batetik, GZESren alde aurreko diseinua egin da, ondoren oinarri horien gainean diseinatzeko lizitazioa egiteko, eta, hirugarren fasean, hori konfiguratu, abiarazi eta garatzeko. Hori da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (BEM) finantziazioa daukaten Eusko Jaurlaritzaren bost proiektuetako bat, eta horri erantsi behar zaio gizarte-osasun datuen elkarri eragiteko ahalmenean oinarritutako beste proiektu konektatu bat gehitu.
- Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia indartu da, daukan jardunbidea birplanteatuta, funtzio eta produktu berriak txertatuz, dauzkan tresnak hobetuz, atari espezifiko bat abian jarriz (www.behatuz.eus) eta ekonomikoki birdimentsionatuz. Behatokiaren fase berri hori eta atari berria 2022ko azaroan aurkeztu ziren.

Eta, alde horretatik, Lanbideren eta GZESren arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzen jarraitzea, hori osatzen duten hiru mailetan aurrerapausoak egin ostean, bai eta gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu pilotuak garatzean ere, hezkuntza-laguntzarekin, bereziki kualifikazio txikiko gazte langabeentzat.

Gizarte-hezkuntza esparruan ere aurrerapausoak egin dira, batez ere hezkuntza-sistemarekiko eta **gizarte-egoitza** sistemarekiko koordinazioa hobetzeko; azken esparru horretan, beharrezkoa da eragiten jarraitzea, batik bat bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen etxebizitza eskuratzeko duten aukerari eta bizitegi-egoerak gizarteratzeko edo gizarte-bazterketako prozesuetan duen eraginari dagokienez.

Etxebizitza-sistemarekin koordinatuta unean uneko jarduerak egin badira ere, beharrezkoa da ekimenak bultzatzea, besteak beste, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen etxebizitza eskuratzeko laguntzeko; adinekoak beren ingurunean mantentzeko; eta desinstituzionalizazio-prozesuak eta bizimodu independentea edo bizitza autonomia bultzatzeko desgaituen eta mendekoen artean.²²

Azkenik, **emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako** borrokan dabilzan zerbitzu eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko, lurralde mailan bereziki azpimarratu da baliabide-sare integratuak eratzea eta koordinazioa bermatzea, bai eta genero-indarkeriaren biktimei Eusko Jaurlaritzaren genero-indarkeriaren arloko baliabideen kudeaketa integratua eskaintzea ere, azkenik leihatila bakarra eratzeko bidean jarraitu beharreko urratsak ginez.

Atal honetan eta hurrengoan II. GZPERako aurrerapen-ildo eta gomendio moduan azalduta dauden alderdi guztiak horretan sartu ditugu, betiere GZEOn adostutako ikuspuntuaren arabera, trakzioko ardatzen eta ekintzen multzo murriztean txertatuta.

3.2. ERRONKAK

I. GZPERen ebaluazioaren arabera, egin beharreko eraldaketak bultzatzeko lehenetsutako erronkak, bereziki gizarte-zaintzen eremuan, eta GZESk trantsizio sozial eta demografikoan lagundu dezan, Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioarekin bat, honako hauek dira:

Arreta-piramidea iraultzea, familia-zaintzaren pisua murriztea eta egoitza-zentroak eraldatzea

Zenbait faktore elkartu dira sistema bidegurutze batean ipintzeko. Hala, ezinbestekoa da arreta-piramidea iraultzea eta erakunde-zaintzen (erantzukizun publikokoa) eta familia-zaintzen arteko oreka berria eskuratzeko, azkenekoaren proportzioa murriztuz. Horien artean, honako hauek ditugu:

- Erronka demografikoa, Euskadiko adineko biztanleria hazteko proiektzioarekin: % 7,6koa 2023an eta % 23,9koa 2030ean (65+); % 5,9koa 2023an eta % 29,4koa 2030ean (80+); eta, bizi-itxaropenaren igoera (80,8 urtera artekoa gizonen artean, eta 86,6 urtera artekoa emakumeen artean, 2019an,²³ bai eta adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen artean ere).
- Zaintzen eredu tradizionalaren krisia, neurri handi batean familia-zaintzaren gainean, batik bat emakumeen gain, sostengatu izan den horrena, etengabe jaisten ari dena. Bi alderdi horiek berdintasuneko aurrerapenen eta zaintzaren erantzukizuna familietan eta, azken batean, emakumeengan oinarritzera bultzatzen duen eredu bat zalantzan jartzearen ondorio dira.

²² 2002an lantzen ari garen etxebizitzaren aldeko itun sozialak neurriak bultzatzea du xede, etxebizitza izateko guztiok daukagun eskubide subjektiboa bizitokia eskuratzeko gauzatu ahal izateko. Horretarako, prestazio ekonomikoak eman ahal izango dira, behar duenak alokairu-erregimeneko etxebizitza edo beste modu bateko etxebizitza bat eskuratzeko.

²³ Iturria: EUSTAT. *Bizi-itxaropena Euskadin, gizonak eta emakumeak jaiotzean. 2019*. Jaiotze garaiko bizi-itxaropena murriztu egin da 2020an, baina 2030erako proiektzioa 83,7 urtekoa da gizonengan, eta 88,6 urtekoa emakumeengan. Iturria: *Eustat. Biztanleriaren proiektzioak. 2031ko txosten metodologikoa*.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Legearen xedearekin, printzipioekin eta arretaren erkidego-ikuspegiarekin bat etorritik (6. artikulutik 8.era bitartekoak), eta hainbat erreferentziarekin, hala nola Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparrua, GZESren garapenak eskatzen du etxean ahalik eta denbora gehien egoten eta erkidegoko baliabideak ahalik eta gehien erabiltzen lagunduko duten zerbitzuak eta prestazioak bultzatzea, bat etorritik, halaber, herritarren lehentasunekin.

Gainera, etengabe beharrezko egoitza-plazak ugaritzeak arriskuan jarriko du beste zerbitzu batzuk hedatzea eta arreta-piramidea iraultzea, eta baliabideak zenbat eta mugatuago izan, arriskua orduan eta handiagoa da. Arreta-piramidea epe ertainean iraultzea ezinbestekoa den GZESren gaineko presioa gehiago handitu ez dadin.

Adinekoen arretaren esparruan, kontuan hartu behar da gero eta handiagoa den premia-profilen aniztasuna, alde batean mendekotasun-egoera larrienak dituzten pertsonak dituen – patologia neurodegeneratiboen gorakada handia da– eta beste aldean pertsona autonomoak, bizitza bete izateko²⁴, zahartze aktiboko, gaitasunei eusteko eta mendekotasuna prebenitzeko eskaera eta itxaropen berriekin.

Horrek guztiak honako hau eskatzen du:

A) Iraupen luzeko zaintza-estrategia bultzatzea, erronka demografikoarekin lotutako hiru helburu azpimarratuz, GZESk artatutako lau kontingentzietan dagokienez:

– **Arreta-piramidea iraultzea, erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta indartuz**

Etxean ahalik eta autonomia handienaz bizitzen jarraitzeko zerbitzuak eta prestazioak eskatzen dituzten pertsonen kopuru gero eta handiagoari erantzuteko. Eta autonomia sustatzeko, mendekotasunari aurrea hartzeko eta, ondoren, bereziki adinekoen egoitza-zentroetako gastu publiko arruntak, eremu horretako eta GZPEko guztizko gastuaren gainean duen ehunekoa mantentzeko eta, ondoren, murrizteko.

– **Erakunde- eta familia-zaintzaren oreka berri bat sustatzea** (erantzukizun publikokoa), **familia-zaintzaren egunekoa murriztuz**, alde batera utzi gabe aukera bati benetan erantzungo dion erakunde-zaintza (elkarri laguntzea, auzokideen laguntza...) eta familia-zaintza. Horretarako, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa bultzatu behar dira eta zainduei eta senitarteko zaintzaileei zuzendutako prestazioak eta zerbitzuak indartu (zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak, aurrez aurrekoak eta online, atsedena, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa...).

– **Egoitza-zentroetako plazen kopurua handitzea, eta, aldi berean, haien pisua murriztea gero eta handiagoa den gastu publiko arrunt, eta egoitza-zentroak eraldatzea**, bereziki adinekoenak, bizikidetzaren unitateen tamaina murriztuz eta etxe baten antzekoak izan daitezkeen eginez, bai eta ingurunearekiko lotura sendotuz ere, erkidego-ikuspegiaren arabera, eta ostatu-zerbitzuak eta bizikidetzaren aukerak bultzatzea (adinekoentzat, belaunaldien artekoentzat...), laguntzak (gizarte- eta osasun-prestazioak eta horien intentsitatea) hartzaileen premien bilakaerara egokituz.

Egoitza-zentroen eskaintza handitu egingo da, II.GZPEren Mapan eta haren eranskinetan aurreikusitakoaren arabera. Handitze horren proportzioak zenbatetsitakoa gainditu ahal izango du – planeko zenbatespen guztietan gertatzen den bezala –, eta haren beharra eta eskaria benetan murriztea izango du helburu. Horrela, II. GZPEren jarraipen- eta ebaluazio-datuen arabera, plangintzan beharrezkoak diren doikuntzak egingo dira.

²⁴Ebaluazioa egin ondoren, adineko autonomoekiko proiektuak diseinatzearen eta adinekoekiko euskal estrategiaren esparruan, **bete-beteko bizitza ikuspegia** txertatu da, bizitza aktiboa bere baitan hartzen duena, baina era berean pertsonaren dimentsio guztiak aintzat hartuta, gizarte-partaidetza ere barnean dela.

Bizimodu independenterako eredia eta laguntza-sistema edo -sarea bultzatzea

Desgaitasunen bat duten pertsonak artatzearen esparruan, zahartzeari buruz adierazitakoaz gain, I. GZPEn aurreikusi zen bizimodu independentea babesteko zerbitzuak eta LPPE sustatzeko beharra, zerbitzu eta prestazio berrien edo gutxi garatutakoan artean.

Zerbitzu horietan gastu publiko arrunta handitu den arren, eta LPPEren hartzaile- eta estaldura-kopurua handitu den arren²⁵, diseinuan eta garapenean lurraldeen arteko desberdintasunak badaude ere, beharrezkoa da LPPEren eta beste zerbitzu batzuen hedapenean aurrera egitea, desgaitasuna duten pertsonentzako bizitzan zehar etengabeko laguntzak, luzetarakoak eta zeharkakoak, antolatu arte, beren bizi-proiektuak autonomiaz garatzeko eta erkidegoan erabat sartzeko lagungarri izan dadin.

Erronka hori koherentea da honako hauekin:

- Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 19. artikulua, zeinak modu independentean bizitzeko eta erkidegoan sartzeko eskubidea ezartzen duen.
- Bizimodu independentearen eta Europa Batasuneko desinstituzionalizazioaren politiken aldeko apustuarekin eta, bereziki, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Europako Batzordearen Estrategiarekin (2021-2030).²⁶
- Esparru horretan erkidego-eredua hedatuta, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arretari buruzko planteamendu berberak eginez.
- Eusko Jaurilaritzak eta foru-aldundiek bultzatzen dituzten ekimen, orientabide eta lan-esparruekin.²⁷

Bizimodu independenterako etengabeko laguntzak, luzetarakoak eta zeharkakoak, antolatzeak berekin dakar **bizimodu independenterako laguntza-sistema edo -sare bat sustatzea**, desgaitasuna duten pertsonen modu independentean eta erkidegoan bizitzeko duten eskubidea gauzatzeko laguntzeko, Konbentzioaren 19. artikulua eta arretaren erkidego-ikuspegiaren arabera. Horretarako, beharrezkoa da:

- Bizimodu independenteari laguntzeko zerbitzua eta LPPE bultzatzea, bi erantzunak konektatuz eta *luzetarako etengabeko laguntza batean kokatuz*, non eta norekin bizi diren aukeratu ahal izateko, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuta egon gabe, baita erkidegoan sartzea ere, erkidegotik isolatzea edo bereiztea saihestuz: etxeko laguntza, egoitza-laguntza eta erkidegoaren beste laguntza-zerbitzu batzuk, laguntza pertsonala barne, autonomia pertsonalerako laguntza-produktuak, garapen eta berrikuntza teknologikoak barne.
- Eta bizimodu independenterako laguntza-sistema definitzea, Euskadiko bizimodu independentearen eredia definitzera, adostera eta sustatzera bideratutako lan-prozesu baten esparruan, horretarako beharrezkoak diren baldintzei, alternatibei, prestazioei, aukerei eta baliabideei (gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, enplegua eta diru-sarreraren bermea, besteak beste) erantzuteko eta haiek eraldatzeko gaitasuna duten sistemak *zeharka* inplikatu.

²⁵ I. GZPEren ebaluazioak agerian utzi du bizimodu independentea laguntzeko zerbitzuaren gastu publiko arrunta (2.7.2.1.) handitu egin dela 2011koarekiko, eta 2018an 2016rako helburuetan aurreikusitakoa baino % 21,50 handiagoa dela –zerbitzuaren garapenik gabe eta erabilizaitelen kopuruari buruzko daturik gabe egindako proiektioekin–. EAEn, era berean, nabarmen handitu da LPPE garatzera bideratutako gastu publiko arrunta (2011ko 8.192.447 eurotik 2018ko 31.073.935 eurotara), bai eta 2016ko helburuekiko hartzaileen eta estalduraren kopurua ere (3.344tik 5.779ra, eta % 0,167tik % 0,268ra, hurrenez hurren), baina alde handiak daude lurraldeen artean, Gipuzkoan prestazio horri eragindako garapena oinarri hartuta, eta FGZPEren aldean.

²⁶ Eskualdeetako Europako Komitearen irizpena, tokiko eta eskualdeko laguntza-sistemak desinstituzionalizatzeari buruzkoa (2018/C 164/07). Epe luzerako gizarte-laguntzari eta desinstituzionalizatzeari buruzko Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen esploratzeko irizpena (2015/C 332/01). Europako Batzordearen txostena: *Transition from Institutional Care to Community-Based Services in 27 EU Member States: Final report. Research report for the European Expert Group on Transition from Institutional to Community-based Care (EC, 2020)*. Berdintasunaren Batasuna: Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko 2021-2030 Estrategia (COM (2021) 101 azkena).

²⁷ Besteak beste, “Modelo de apoyos a la vida independiente en Álava” (Arabako Foru Aldundia); Gipuzkoan bizimodu independentea bultzatzeko dirulaguntzen aldeko apustua (87/2008 Foru Dekretua, desgaitasuna duten edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako Etxean programako banakako laguntzak ematea arautzen duena); edo erantzun-sistema bultzatzea, bizimodu independenteko aukera zabalagoetara igarotzea bultzatuz, [Bizkaian Desgaitasuna duten Pertsonen Parte-Hartzerako eta Bizi Kalitaterako Plana 2021-2023](#); argitalpenean identifikatutako lehentasunetako bat den heinean.

Bazterketa- eta arrisku-egoerak artatzeko sarea indartu

2011z geroztik sare horretan aurrerapen nabarmena egin da: zerbitzuak bultzatu dira, batez ere eguneko eta gaueko harrera bigarren mailako arretan, sarea lurraldean zabaldu da eta zerbitzu jakinen inguruko erantzukizuna eta finantzaketa publikoa argitu da. Hala ere, gutxien garatutakoa izaten jarraitzen du beste hiru kontingentzien arreta-sareei dagokienez.

Hori dela eta, ahaleginak egiten jarraitu behar da, bai kopuru mailan (besteak beste, COVID-19ak eragindako konfinamenduak hautemandako eskaria nabarmen igoarazi zuen) eta bai kalitate mailan, eskaintza handituz eta, batez ere, lurralde bakoitzeko arreta-sareak indartuz eta deszentralizatuz.

Eskaintzari dagokionez, Bilboko eta Donostiako metropoli-esparruetan eta gainerako lurraldean arreta deszentralizatzen planteamendu bat egin beharra dago, lehen eta bigarren mailako arretaren arteko lotura indartu, arreta gizarteratzeko ibilbide desberdin guztietara egokitzea bideratzeko.

Gainera, komeniko da gogoeta egitea, besteak beste, bizitokiaren premiak betetzeko laguntza ekonomiko batzuen izaerari eta funtzioari buruz, eta, oro har, GZESk etxebizitza-premiak estaltzeko duen zereginari buruz, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen etxebizitza eskuratzea sustatzeko gizarte- eta bizitegi-esparrua eta lankidetzaren publiko-publikoa eta publiko-soziala bultzatuz.

Horrekin guztiarekin, nahitaez bultzatu beharrekoa da arrisku- eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak artatzeko sarea, lau helburu nagusiri erantzungo dien estrategia integral baten bidez:

- A. Lehen eta bigarren mailako arretaren artikulazioa hobetzea, arretaren jarraitutasuna eta malgutasuna lortze aldera, bi noranzkoetan joan-etorria sustatuz.

Besteak beste, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen gizarteratze-ibilbideetara arreta egokitzea bideratuko duten protokoloak ezarriz, arreta maila batetik beste batera igarotzea ekarri behar duten aurrerapenekin eta atzerapenekin edo arreta malgutzeko formulekin.

- B. Lurralde bakoitzean gizarte-zerbitzuen sarea hedatzen aurrera jotzea, era integratu eta koherentean gizarteratzeko hainbat ibilbiderekin, esparru bakoitzean lehen eta bigarren mailako arretako baliabideen sarea ziurtatuz, hedatze eraginkorra gerta dadin eta, ahal den neurrian, erantzunak hiru hiriburuetan bil daitezten.

Zehazki, arreta-sarea deszentralizatzen alternatibak definitu beharko lirateke, udalerriri eragin eta txikietan udalen eta lurralde bakoitzeko aldundiaren arteko lankidetzaren oinarrituta, lurralde bakoitzaren beharretara eta baliabideetara egokitutako formulen bitartez: kudeaketa-gomendioak, partzuergoak, mankomunitateak edo koadrilak eratzea, eta abar. Halaber, eskumenen banaketa egokia den ebaluatu beharko litzateke.

- C. GZESren rola argitzea, etxebizitza-sistemaren rolarri dagokionez, bizitoki lagunduen beharrak asetzean zentratuta. Etxebizitza Sailarekin batera gogoeta egin beharko litzateke bi esparruetako zerbitzu eta prestazioei buruz, behar adina mugatuz eta irizpide edo printzipio partekatuak, interes komunak eta lankidetzaren-erlazioak identifikatuz, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeari dagokionez.

Aldi berean, beharrezkoa da: a) osasun-sistemarekin partekatutako lana indartzea, batez ere osasun mentalean, Lanbiderekin, enplegarritasuna hobetzeko eta sistema judizialarekin, sistema judizialek GZESrako igarotzeak kudeatzeko. Eta babesgabatasun- eta bazterketa-sareen arteko loturari heldzea, helduarora igarotzearen antzeko uneetan, baita Trapezistak programa sustatzen jarraitzea ere, programa hori unibertsalizatuz, eta aurrera egin behar da bazterketaren eremuan Estatuko Administrazio Orokorrekin elkarriketan.

- D. Sare horren sendotze-prozesua amaitzea, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzeko premien gorakadari erantzuteko, besteak beste, pandemiaren eragin ekonomiko eta sozialetik eratorritako premiak. Lehen eta bigarren mailako arreta-zerbitzuak indartu behar dira, eta balorazio-zerbitzu teknikoak indartu behar dira hasteko. Halaber, unean-unean eskumenaren araberrako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenei maila bakoitzean erantzuteko gaitasuna bermatu behar zaie. Eta aurrera egin behar da bazterketaren eremuan antolatzen ari diren laguntza ekonomiko batzuei – beste sistema batzuek estaltzen ez dituzten premiak

betetzeko – eta eremu horretan bizimodu independentearen ikuspegia aplikatzeari buruzko planteamendu partekatu baterantz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen Legearen 40. artikuluko eginkizunen kudeaketa garatzea

I. GZPEren ebaluazioak GZESren beste egoera-alderdi batzuk ere erakusten ditu, kudeaketarekin eta Gizarte Zerbitzuen Legeak Eusko Jaurlaritzari esleitutako funtzioekin lotuta, lankidetzako gobernantzatik, erantzukizun publikoko sistema unibertsala, deszentralizatu eta mistoa garatzeko: erregelamenduak egiteko ahala, plangintza orokorra, gizarte-ekintzako eta herritarren partaidetzako hirugarren sektorea sustatzea, GZESren eta beste sistema eta politika publiko batzuen arteko koordinazio orokorra, informazio-sistema, arretaren kalitatea, berrikuntza eta ikerketa.

Hala, hainbat erronka ikusten dira honako alderdi hauei dagokienez.

Kudeaketa-eredua

Aurrera jo beharko litzateke hiru lurraldeetan Gizarte Zerbitzuen Legeak hautatutako eredura iristeko bat egitean²⁸.

Egungo ereduak (zuzeneko kudeaketa publikoa edo gizarte-ekimenarekin lankidetzan, ZLPEren edo FGZPEren garapen maila, eta abar), lurralde bakoitzaren ezaugarriari eta egin duten ibilbideari erantzuten badiete ere, sistemaren iraunkortasunerako ez dute uzten eragin handiko faktorea eraten, eta administrazio publikoek beharrezko prestazioen eta zerbitzuen eskaintza sortzeko daukaten gaitasuna arriskuan jartzen dute, ez baitago proportzio bera gastu publiko arrunta haztearen eta aukeratu den kudeaketa-ereduaren araberrako plazak sortzearen artean.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera, **une bakoitzean dagoen prestasuna baino estaldurahalburu handiagoa duten zerbitzuei soilik aplikatu beharko litzateke ZLPE**. Hartzaileak txandakatu egin beharko lirateke.

Aldi berean, gogoeta egin beharra dago zenbait hipotesiri buruz, hala nola sustraitze-printzipioa errespetatu beharraz, edo nola jokatu norbaitek bere eskaerari uko egiten badio GZESn integratutako zerbitzu batean arreta eskaintzen zaionean edo lehenago.

*Erregelamenduak egiteko ahala (arauak garatzea)*²⁹

Zorroari buruzko Dekretuaren ebaluazioan eta GZESren zerbitzuen eta prestazioen planifikazioan, koordinazioan eta arau-garapenean aurrera egin behar da, eta, bereziki, adinekoen arretari dagokionez. Zehazki, adinekoentzako egoitza-zentroak arautzen dituen dekretua egokitu behar da, eta aldeztu aurretik adinekoentzako ostatu-zerbitzuetan eta bestetan aurretiko lana egiten duten zentroak bultzatu. Eta horiekin batera, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroei, eguneko zentroei eta laneko zentroei eta gizarte-bazterketako egoeran daudenentzako egoitza-zentroei dagozkienak.

Era berean: a) gizarte-zerbitzuen esparruko itun-araubidea erregulatzen duen dekretua egin behar da; b) GZESren prestazioen eta zerbitzuen zorroko doakotzat hartu ez diren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen parte-hartzea arautzen duen dekretua egin behar da; c) gizarte-diagnostikorako tresnari eta gizarte-fitxari buruzko 353/2013 Dekretua berraztertuta behar da, lehenengoa sinplifikatzeko; d) Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) berariaz egindako dekretu batean edo aurrekoaren esparruan arautu behar da; e) helduen babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna diseinatu eta abian jarri behar da.

Azkenik, elkarriketa zibila indartu behar da arauak garatzeko prozesuetan erantzukizun publikoko zerbitzuak ematen dituzten gizarte-erakundeekin, eta, bereziki, laguntza-eredu integrala garatzen duten eta jarduera berezia daukaten erakundeekin. Horrez gain, dekretuak ezarri ahal izateko denborak

²⁸Eredu mistoa, kudeaketa publiko zuzenari lehentasuna emanda, gizarte-ekimenaren bidez gauzatu, eta, aldi berean, prestazio jakin batzuk zuzeneko kudeaketa publikorako gordetzen dituen: eskaeren lehen harrerakoak eta kasuaren koordinazioarekin zuzenean lotutakoak, esku hartzeko oinarritzko prozedura gisa, eta, bereziki, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa.

²⁹Adierazi den bezala, adinekoentzako egoitza-zentroen dekretua aldatzeko proiektua lantzen ari dira, zorroari buruzko dekretua ebaluatzeko prozesua duela gutxi abiarazi da eta gizarte-itunaren araubidea arautzen duen dekretu-proiektuaren administrazio-prozedura amaitzen ari da.

errespetatzen dituzten trantsizioak bermatu behar dira, erakundeen gaitasunekin, eta beharrezko baliabideak eman behar zaizkie horiei, beharrezkoa denean, zerbitzu horien jarraitutasuna eta bideragarritasuna bermatzeko, araudian jasotako aurreikuspenen arabera.

Plangintza orokorra eta finantzaketa-arloko aurreikuspenak (mapa eta memoria ekonomikoa)

II. GZPE hau egiteaz gain, eta Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Funtsa finkatzeaz gain (egin den bezala), beharrezkoa da finantzaketa-eredu jasangarri bat ezartzea, erakunde arduradunek elkarren artean adostua eta hornitua, dauzkaten eskumenen eta baliabideen arabera; horrekin batera, EAEko administrazio publikoak azpiegituretan egiten ari diren egitura- eta mantentze-inbertsioetan gizarte-azpiegiturek txertatzea edo indartzea ere beharrezkoa da, lurraldeentzat beharrezkoak eta balio sortzaileak baitira.

Informazioko Euskal Sistema eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia

Informazio-sistema oinarritzako eta bizkor bat diseinatu eta abian jarri behar da, I. GZPE ebaluatzen sortutako tresna abiapuntutzat hartuta; horren bitartez, aukera izango da katalogoko prestazioak eta zerbitzuak hedatzearekin eta GZESko prestazioen eta zerbitzuen zorroarekin lotutako funtsezko parametroen inguruko serie historiko bat edukitzeko, erakundeek baliozkotuta.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia berriz diseinatu behar da, eta horren ekinbidea indartu, Gizarte Politiketako gainerako behatokiekin (Ikusmirak) lankidetzak eta sinergiak eraginez, Gizarte Zerbitzuen Legearen 77. artikulua esleitu dizkion eginkizunak hobeto garatzeko. Halaber, gaur egungo eta etorkizuneko beharrak identifikatu beharko lirateke, eremuen edo kontingentzien arabera, plangintzara bideratuta eta pertsona, familia eta erkidego hartzaileen eta GZESn parte hartzen duten erakundeen parte-hartzearekin.

Gizarte-berrikuntza

Gizarte-berrikuntzako sistema eta prozesuak bultzatu behar dira GZESn, proiektu berritzaileekin, besteak beste GZES garatzeko funtsezko faktoreei lotutako ekintza eragileen bitartez.

Horrekin batera, Adinberri, Nagusi Intelligence Center eta Health Intelligence Center eta antzeko ekimenak ere bultzatu behar dira, gizarte-berrikuntzako polo moduan (lankidetzan) sinergiak eta ezagutza partekatua eraginez, EAEn eta ABEN Euroeskualdearen (Akitania-Berria, Euskadi, Nafarroa Euroeskualdea) baitan. Eta gizarte-berrikuntzaren aldeko apustua indartu behar dute I+G+b-ko ekimenetan inbertitzen duten eragileek, uztarri berean lotuta premien ebaluazioarekin, prospekzioarekin, gizarte arloko esku-hartze berriak jorratzearekin, erakundeetan teknologia ezartzearekin, pertsonen ematen zaizkien laguntzak hobetzearekin eta abarrekin.

Era berean, GZESren digitalizazio-prozesuan jauzi bat egiteko gune egokia sortu behar da, eta etxeko arretarako eta erabiltzaileak eta zaintzaileak zaintzeko teknologia eta aplikazio digital berritzaileak eskuratu, garatu eta ezartzea bideratzeko proiektuak sustatu, horiek bultzatzeko eten digitala murrizteko modua eginda. Berrituz sustatu behar da, EUDELen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren bitartez, esku-hartzean eta kudeaketan hobekuntzak sartzeko edo berritzeko aukera emango duten jardunbide egokiak eta tresnak trukatzeko gune gisa.

Azkenik, berrikuntza-eragileen sare bat sustatu behar da (unibertsitateak, hirugarren sektoreko erakundeak eta sareak, teknologia-enpresak), gizarte-politiken eta gizarte-zerbitzuen esparruan gizarte-berrikuntza bultzatzeko (lankidetzan), honako hauekin lotu ahal izateko: a) GZESren iraunkortasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta hobekuntza; b) jarduera ekonomikoa bultzatzea eta zaintza-sektorean kalitatezko enplegua sortzea; c) ezagutza eragitea eta transferitzea tokiko, estatuko eta nazioarteko mailan.

Kalitatea eta prestakuntza

Beharrezkoa da GZESko eragile guztiek prestakuntzaren arloan egindako ekintzen koordinazioa hobetzea, horiek helburu estrategiko partekatuekin lerrotatuta, sinergiak sortzea eta baliabideak ustiatzea, gero eta eraginkorrago jokatzeko. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren kalitatearen arloko ekintza sustatu behar da, Gizarte Zerbitzuen Legearen 77. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik; eta erkidego-eredua bultzatu behar da, beste funtzio batzuen bitartez (arauak garatzea, prestakuntza, berrikuntza...), eta funtsezko erreferentziak ezagutzeko eta aplikatzeko, hala nola Gizarte Babeseko Batzordearen Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparrua edo beste erreferentzia espezifikoko batzuk, erkidego-ereduari lotuagoak, hala nola gizakiengan oinarritutako plangintza.

Gobernantza, elkarrizketa zibila eta sistemaren barruko eta sistemen arteko koordinazioa

Eragile guztien lankidetzak aktiboa sustatu behar da, kasua edo esku hartzeko prozedura koordinatzean, eta, batik bat, hartzaile direnena, aurrerapausoak emanez helburu pertsonalak eta bizitza beteko proiektuak lortzeko laguntzak banakatzeko ikuspegitik aritzerantz. Administrazio publikoen eta gizarte-erakundearen arteko lankidetzak eredu sendotu behar da ezinbestean, eta elkarrizketa zibila eraginkorragoa eta zehatzagoa izan dadin lortu, esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizun publikoko zerbitzu-sistemetan parte hartzeko garaian ere bai.

Horrez gain, zerbitzu soziosanitarioen gobernantzari eta zorroari buruzko dekretuak onetsi behar dira, prestazio sanitarioak eta plaza soziosanitarioak finantzatzeko eredu bateratua hedatu behar da, lurralde-koordinazioaren eta informazio soziosanitarioko sistemaren egituraketan aurrera jo behar da, eta talde-laneko ekimenak, kasu soziosanitarioen koordinazioa eta talde espezifikoaren arreta bultzatzen jarraitu.

Gizarte- eta lan-esparruan, beharrezkoa da Lanbideren eta GZESren arteko lankidetzak eta koordinazioa bultzatzen jarraitzea, hiru mailetan, lan-merkatuan enplegua lortzeko edo diskriminazioa jasateko unean desabantaila daukaten pertsonak gizarteratzeko prozesuei arreta eskainiz. Etxebizitza Sailarekin lankidetzak bultzatzen jarraitu behar da, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak etxebizitza eskuratzeko aukera bereziki azpimarratuz, bizitoki-egoerak gizarteratzeko edo baztertzeko prozesuetan daukan eraginarekin batera.

Orobat, beharrezkoa da baliabide-sare integratuak sortzea eta, zehazki, leihatila bakarria abian jartzea (Eusko Jaurlaritzaren genero-indarkeriaren arloko baliabideen kudeaketa integratuan, esate baterako); GZESren eta Justizia Sistemaren arteko koordinazioa indartzea (gazteen justizia, askatasunik gabeko pertsonak gizarteratzea, barneratzearen ordezkotako neurriak, eta abar); GZESren eta beste sistema batzuen arteko lankidetzak bultzatzea, osasun- eta hezkuntza-sistemarekiko arreta bereziz.

Beste erronka garrantzitsu batzuk

Genero-ikuspegia garatzea plangintzan eta esku-hartzean, era agerikoan eremu eta kontingentzia guztiak zeharka aintzat hartuta.

II. Plana prestatzean eta ebaluatzean genero-ikuspegia txertatzeaz gain, jarduerak eta zerbitzuak bultzatu behar dira, emakumeei gizarteratzen lagunduko dietenak eta irmo ekingo dietenak jasan behar dituzten bazterketa, mendekotasun, desgaitasun, babesgabetasun, tratu txar eta indarkeria erako egoerei, baina baita gizarte- eta familia-sarea arintzeko eta indartzeko neurriak eta zerbitzuak ere, askotariko diskriminazio-egoerekiko arreta bereziz, ikuspuntu intersektionaletik.

Komunikazio-ekintza sustatzea unibertsaltasunaren alde

Katalogoko zentro eta zerbitzu guztiak GZESren baliabide gisa identifikatzea ahalbidetuko duen ikur bereizgarri bat zabaltzeaz gain, pertsonengana, familiengana, kolektiboengana eta lurraldeetara era proaktiboan hurbiltzeko ekimenak bultzatu behar dira, zerbitzuak behar izan arren, gutxiago erabiltzen dituztenengana.

3.3. GZES-N ERAGINA DUTEN JOERA NAGUSIAK

3.3.1. Trantsizio demografikoa eta zaintza-ereduaren krisia

Proiektzio demografikoak

EUSTATen proiektzio demografikoen arabera³⁰, 2031ko urtarrilaren 1ean EAEk 2.215.900 biztanle izango ditu: 1.071.500 gizonezkoak izango dira (% 48,4) eta 1.144.000 emakumezkoak (% 51,6). Horrenbestez, 2020ko urtarrilaren 1ean baino 16.200 pertsona gehiago izango lirakeke, % 0,07ko urte arteko hazkunde-tasarekin. Horrek esan nahi du biztanleria-bolumena ia egonkortu egin dela.

³⁰ Epigrafe honetako datuak bat datoz EUSTATEk epe labur eta ertainera egindako proiektzioekin; proiektzio horiek 2021ean berrikusi ziren, 2020ko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Estatistikari dagozkion biztanleria-datuarekin, 2020ko fenomeno demografikoen azken bilakaera aintzat hartuta. Horiek horrela, datu horiek ez datoz bat EUSTATen argitaratutako datuekin, horien proiektzioen oinarri-urtea 2016a izan baitzen.

2020tik 2031ra bitartean, Lurraldeka, Araban eta Gipuzkoan 9.500 eta 17.900 biztanleko hazkundera dago aurreikusita, hurrenez hurren, eta Bizkaian, aldiz, 11.200 biztanle gutxiago biziko dira. Lurraldeen arteko alde horiek azken bosturtekoetan hautemandako joeraren luzapena dira; izan ere, Arabako biztanleria-pisua gora egin du pixkanaka, Bizkaia EAE osoan izan duenaren kaltetan.

2020tik 2031ra bitartean biztanleria ia egonkor izana hazkunde demografikoaren bi osagaietan saldoak konbinatzearen emaitza da, nola naturalean (jaiotzak ken heriotzak), hala migrazioan (immigrazioak ken emigrazioak).

Hazkunde naturalak gero eta saldo negatiboagoak izango lituzke heriotzak ugaritu eta jaiotza kopurua gutxitzeagatik; migrazio-saldoak, berriz, immigrazioen hazkundera dela eta, biztanleriaren galera konpentsatuko luke.

EUSTATen proiektzioek biztanleriaren zahartze-prozesua ere nabarmen erakusten dute.

2020tik 2031ra bitartean, 18 urtetik beherako biztanleria % 11,4 murriztuko dela kalkulatu da, eta 18 urtetik 64ra bitarteko biztanleriaren bolumena % 4,5 murriztuko dela. Aitzitik, 65 urte edo gehiagoko biztanleria 118.300 lagun inguruko kopuruan handitu daiteke, eta, beraz, horien pisua % 27,7ra iritsiko litzateke 2031n, 2021ean baino 5,2 puntu gehiago.

Hazkunde erlatibo handienak adin handieneko biztanleen artean (80 urte eta gehiagoetan) gertatuko lirateke, 2031n 202.300 lagun izatera iritsiko bailirateke (biztanleria osoaren % 9,1), eta, horrenbestez, bolumena % 29,4 igo litzateke 2020tik 2031ra bitartean.

3. taula. EAEko biztanleriaren bilakaera, Lurralde Historikoaren eta adin-taldeen arabera. 2019-2030*						
		2019	2025	2030	2019-25	2019-30
Biztanleak guztira	Araba	330.209	335.800	339.700	% 1,7	% 2,9
	Bizkaia	1.149.044	1.146.100	1.137.800	-% 0,3	-% 1,0
	Gipuzkoa	720.458	730.300	738.400	% 1,4	% 2,5
	EAE	2.199.711	2.212.200	2.215.900	% 0,6	% 0,7
Emakumeak	Araba	167.948	171.400	173.800	% 2,1	% 3,5
	Bizkaia	596.173	595.800	591.800	-% 0,1	-% 0,7
	Gipuzkoa	368.374	374.600	378.800	% 1,7	% 2,8
	EAE	1.132.495	1.141.800	1.144.400	% 0,8	% 1,1
0-17 urte bitartekoak	Araba	57.766	56.400	53.200	-% 2,4	-% 7,9
	Bizkaia	179.991	166.400	154.200	-% 7,6	-% 14,3
	Gipuzkoa	123.162	116.800	112.200	-% 5,2	-% 8,9
	EAE	360.919	339.600	319.600	-% 5,9	-% 11,4
18 urte edo gehiagokoak	Araba	272.443	279.400	286.500	% 2,6	% 5,2
	Bizkaia	969.053	979.700	983.600	% 1,1	% 1,5
	Gipuzkoa	597.296	613.500	626.200	% 2,7	% 4,8
	EAE	1.838.792	1.872.600	1.896.300	% 1,8	% 3,1
18 urtetik 64ra bitartekoak	Araba	202.923	199.500	196.000	-% 1,7	-% 3,4
	Bizkaia	705.827	685.100	659.100	-% 2,9	-% 6,6
	Gipuzkoa	435.678	433.700	428.500	-% 0,5	-% 1,6
	EAE	1.344.428	1.318.300	1.283.600	-% 1,9	-% 4,5
	Araba	69.520	79.900	90.500	% 14,9	% 30,2

65 urte edo gehiagokoak	Bizkaia	263.226	294.600	324.500	% 11,9	% 23,3
	Gipuzkoa	161.618	179.800	197.700	% 11,2	% 22,3
	EAE	494.364	554.300	612.700	% 12,1	% 23,9
80 urte edo gehiagokoak	Araba	20.936	25.000	30.200	% 19,4	% 44,2
	Bizkaia	85.451	93.800	106.100	% 9,8	% 24,2
	Gipuzkoa	49.957	57.000	66.000	% 14,1	% 32,1
	EAE	156.344	175.800	202.300	% 12,4	% 29,4

*Abiapuntuko biztanleriari buruzko datuak Eustaten Biztanleen Udal Estatistikakoak dira, 2020ko urtarrilaren 1ekoak. 2023ko eta 2030eko datuak, Eustatek 2024ko urtarrilaren 1erako eta 2031ko urtarrilaren 1erako kalkulatuak, hurrenez hurren.

Iturria: EUSTAT. 2020ko urtarrilaren 1ean eguneratutako Biztanleria Proiekzioak.

Bizi-itxaropena handitzea eta mendekotasun- eta desgaitasun-egoerak egonkortzea

Datozen urteetan gizarte-zerbitzuen eskariak eta erabilerak izango duen bilakaera ulertzeko, aintzat hartzeko funtsezko joera izango da bizi-itxaropenaren igoera, batez ere emakumeei dagokienez, eta, horrekin batera, desgaitasuna dutenen bizi-itxaropena ere handitzea.

Adinekoen mendekotasun-tasak egonkortu eta are apaldu ere egin direla aipatu behar da, mendekotasun-egoeran dagoen biztanleria haztearekin bateragarria dena, adineko biztanleriaren hazkundearen ondorioz, zeinak mendekotasun-tasa handiagoak dauzkalako.

Bestalde, ez da aldaketa nabarmenik gertatu desgaitasun-ziurtagiria daukaten pertsonen ehunekoan, biztanleriaren % 6 inguruan egonkortu baita, 2013tik behintzat bai.

Zehatzago adierazita, honako hauek dira plazara daitezkeen joera nagusiak.

- 1976tik, gizonen eta emakumeen bizi-itxaropena ia hamar urtean hazi da, eta 2020an 80,7 eta 86,3 urtera iritsi da, hurrenez hurren. 65 urterekin, bizi-itxaropena 1976ko 15,6 urtetik 2020ko 21,5era igo da.

2020an, 2019ko datuen aldean, bizi-itxaropena murriztu egin zen apur bat, COVID19aren inpaktuaren ondorioz. Hala erakusten dute EUSTATEN adierazle demografikoek; izan ere, 2019tik 2020ra bitartean bizi-itxaropena 22,0 urtetik 21,5era murriztu dela ageri da horietan.

- EAEko 2018ko Osasun Inkestaren arabera, desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena 70,5 urtekoa izan zen gizonetan, eta 72,8 urtekoa emakumeetan. 1997az geroztik, desgaitasunik gabeko urteen kopurua 5,4 urte igo da gizonetan (65,1 urte 1997an) eta 1,5 urte emakumeetan (71,3 urte 1997an).
- Mendekotasun-balorazioa duten pertsonen ehunekoa Euskadin 2008an % 2,1koa zen – mendekotasunari buruzko Legea ezarri berri zela–, eta 2021ean, ostera, % 3,5koa. % 16,1etik % 27,5era 80 urtetik gorakoan artean.

III. gradua daukaten pertsonen ehunekoa egonkor samar mantendu da biztanleriaren % 0,9an; bestalde, I. graduko pertsonen ehunekoa hirukoiztu egin da eta II. graduko pertsonena ia bikoiztu, besteak beste, mendekotasuna artatzeko sistemaren hedatze-eritmo desberdinak direla eta.

4. taula. Mendekotasun-balorazioa daukaten pertsonen ehunekoa, hainbat aldagairen arabera. 2008-2021

		2008	2021
Sexua	Gizonak	1,5	2,71
	Emakumeak	2,7	4,31
Adina	<65 urte	0,6	1,17
	65 eta gehiago	8,7	11,51
	- 65-79 urte	5,8	4,14
	- 80 eta gehiago	16,1	27,5
Gradua	I. Gradua	0,5	1,53
	II. Gradua	0,7	1,13
	III. Gradua	0,9	0,87
Guztira	%	2,1	3,53
	Zenbakia	45.567	78.189

Iturria: geuk egina, Foru Aldundiek emandako informazioan oinarrituta.

Gizarte Premiei buruzko Inkestak (GPI) Euskadin mugaren bat edo mendekotasunen bat izanda etxean bizi diren pertsonen ehunekoari buruz ematen dituen bilakaera-datuei dagokienez (MBBk balioetsiak ala ez), ikusten da egoera horien prebalentzia apaldu egin dela adin-talde bakoitzean eta, bereziki, 65 urtetik 79ra bitartekoen artean³¹.

5. taula Etxean muga eta/edo mendekotasun bereziko egoera daukan biztanleriaren ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. 2006-2018

		2006	2010	2014	2018
Sexua	Gizonak	9,0	9,6	10,3	7,9
	Emakumeak	11,9	11,9	11,5	11,0
Adina	<15 urte	2,9	3,8	2,5	2,4
	15-24 urte	1,7	2,1	2,1	1,9
	25-34 urte	3,1	2,7	3,4	3,1
	35-44 urte	4,9	4,0	5,0	4,8
	45-54 urte	7,4	7,1	9,0	6,0
	55-64 urte	12,0	11,9	13,7	8,9
	65-74 urte	20,1	20,9	17,1	13,4
	75 urte eta gehiago	46,4	48,5	45,4	42,0
Guztira		10,5	10,8	10,9	9,5

Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GPI).

³¹Hala erakutsi dute, orobat, 2013-2018 aldirako Osasun Inkestaren datuek. Ildo berean, INEren 2020ko Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestak ((DAMI) agertu zuenez, Euskadin desgaitasun-egoeren prebalentzia sei urte eta gehiagoko mila biztanleko 83,5ekoa zen 2020an; 2008an, aldiz, milako 83,9koa zen, eta desgaitasuna daukaten 6 urtetik gorako pertsonen kopuruak gora egin du, 169.400 izatetik 171.800 izatera igaro baita (% 1,4).

Hala ere, oro har biztanleria gehiago hazi denez, kopuru absolutuetan izandako igoera horrek desgaitasunaren prebalentzia globala apur bat jaistea eragin du.

Hala eta guztiz ere, muga eta/edo mendekotasun bereziko egoerak dauzkaten pertsonen proportzioa puntu bat murriztu da ozta-ozta 2006-2018 aldian, adinekoren garrantzi demografikoaren hazkundeak —2006az geroztik intzidentzia-tasa handiagoak eta murrizketa txikiagoa izan ditu— mendekotasun-tasa globalak hazarazi egin dituelako.

Edonola ere, aurreko puntuan adierazitako aurreikuspen demografikoak kontuan hartuta, 75 urtetik gorako pertsonen kopuruaren eta pisu espezifikoaren hazkunde handiak —gaur egun % 45 inguruko mendekotasun-tasak eta mugak dituztenak—, dena den, zaintza-zerbitzuen eskari potentziala nabarmen handituko du.

Era berean, aurreikuspenen arabera, datozen urteetan adimen-desgaitasuna duten pertsonen % 60k baino gehiagok 45 urte baino gehiago izango dituzte, eta adituak bat datoz adin horretan zahartze-prozesua hasi dela adierazterakoan.

Adimen-desgaitasuna eta programa eta zerbitzu espezifikoen garapena eta diseinua hobeto ulertzea erabakigarria izan da azken urteotan adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen bizi-itxaropenak nabarmen gora egin dezan.

Lehenik eta behin, etapa honek ez du zertan pertsonen bizitzan hausturarik eragin. Funtsezkoa da harreman pertsonalak mantendu ahal izatea, bizi-kalitatearen eredia finkatu ahal izatea eta laguntzak pertsonalizatu ahal izatea, pertsonarengan oinarritutako plangintzaren bidez, laguntzak eta zerbitzuak malgutuz, inguruneak irisgarriak izan daitezen, arreta soziosanitario egokia ziurtatuz, etab. Azken batean, funtsezkoa da zerbitzuak eta laguntzak emateko eredu bat finkatzea, zeinetan adimen-desgaitasuna duten adineko pertsonak edo zahartze-prozesuan daudenak izango diren beren bizitzaren protagonista nagusiak, eta baldintza berberetan parte hartu ahal izango duten zerbitzuez eta laguntzez baliatzean. Arlo horretan aurrera egiteko, ezinbestekoak dira zerbitzuen berrikuntza, ikerketa edo lankidetzaproiektuen garapena.

Hala, proiektzio demografikoen azterketa osatuz, eta bereziki desgaitasuna duten pertsonen zahartzea kontuan hartuz, funtsezkoa da eta planean aurreikusi da bai egoitza-plazak sortzea, egunekoak eta atsedenekoak, bai egoitza-zerbitzuak, eguneko arreta-zerbitzuak eta laneko zerbitzuak arautzea.

Gainera, beharrezkoa da zerbitzu multzo hori desgaitasuna duten pertsonen eta senitarteko zaintzaileen zahartze-prozesura egokitzea, bai eta ahalmen juridikoa baliatzean desgaitasuna duten pertsonen laguntzak emateko zerbitzua arautzea eta finkatzea ere, batez ere ekainaren 2ko 8/2021 Legearen eta horren ondorio garrantzitsuen ondoren.

Bestalde, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen laguntza gutxiago behar dutenek, batez ere gazteenek, sarritan oztopo gehiago izaten dituzte zerbitzuak, laguntzak edo aukerak eskuratzeko. Horrez gain, beharrezkoa da gizarte-zerbitzuek eta espazio soziosanitarioak gaixotasun mentala duten gazteentzako arreta indartzea eta egokitzea.

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen zahartzea – zerbitzuetan eta laguntzetan berritzea eskatzen du, pertsonaren borondatea eta aukeratutako ingurunean duten sustraitzea errespetatuz – eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen edo hainbesteko laguntza behar duten pertsonen erantzutea, batez ere biztanle gazteen artean, sortzen ari diren bi erronka dira, erakunde- edo garapen- desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako zerbitzuak emateari dagokionez.

Gizarte-zaintzen eredu tradizionalaren krisia

Mendekotasun-tasen egonkortasunarekin batera, azpimarratu beharreko beste elementu bat zaintza-eredu tradizionalaren krisia da; izan ere, eredu hori lotuta dago, lehenik eta behin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aurreratzearekin eta belaunaldi berrien zaintzaren gaineko itxaropenak aldatzearekin.

Zaintzen krisiaren eraginez, besteak beste, mendekotasun-egoeran dauden edo desgaitasuna duten pertsonen familia-zaintzak (informalak edo ordaindu gabeak) ematen dizkieten pertsonen kopurua murriztu da, erakunde-zaintzarekin alderatuta zaintza informalaren, ordaindu gabekoaren edo familia-zaintzaren ehunekoa aldatuz, are gehiago Euskadikoaren antzekoa den eta hazten ari den testuinguruan.

Bilakaera-ikuspegitik, eta adinari eta generoari erreparatuta, Gizarte Premiei buruzko Inkestak (GPI) erakutsi du 2010az geroztik zaintza-eginkizunak bere gain hartzen dituen biztanleriaren ehunekoak murriztu egin dela, 55-64 urteko tartean izan ezik, adin guztietan, bai emakumeetan, bai eta, neurri handiagoan, gizonetan ere.

Edonola ere, 2022an baieztatu beharreko joera da, hurrenez hurren hiru krisi jasandako testuinguruan, eta pandemiak zaintzan, oro har, eta familiartekoan bereziki, daukan eraginarekin.

6. taula. Gaixotasunarekin, desgaitasunarekin edo zahartzearekin lotutako etxeko beste pertsona batzuek artatzeko edo zaintzeko ardura berezia hartzen duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleen bilakaera, zaintzailearen sexuaren eta adinaren arabera. Euskadi, 2006-2018.

		2006	2010	2014	2018
Sexua	Gizona	4,0	4,6	3,8	2,7
	Emakumea	4,9	5,9	4,1	3,7
Adina	15-24 urte	2,2	1,4	1,7	0,6
	25-34 urte	2,2	2,6	1,2	1,2
	35-44 urte	3,4	4,0	2,3	1,6
	45-54 urte	6,0	6,7	4,9	4,0
	55-64 urte	5,9	8,4	4,8	6,4
	65-74 urte	7,3	6,6	7,2	4,1
	75 urte eta gehiago	5,3	7,4	6,2	3,6
Guztira	%	4,4	5,3	4,0	3,3
	Zenbakia	82.083	97.227	73.230	60.414

Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GPI).

Eta, beste alde batetik, zaintza-lanek zaintzaileengan daukaten inpaktuari buruz GPIk argitara emandako informazioak agerian uzten du, batez ere 2014 urtetik 2018ra bitartean, zaintzan bi ordu edo gehiago ematen dituzten zaintzaileen ehunekoak gora egin duela, eta oso igoera argiak izan direla gizarte- eta lan-bizitzari uko egin dioten zaintzaileen ehunekoan, bai eta zaintzaren eraginaren ondorioz eragindako familia-tentsioetan ere.

Horren harira, inkestako emaitzen txostenean adierazita dago “zaintzaileen kopurua jaitsi egin den arren, pertsona horiek gaur egun euren gain hartzen dituzten zaintza-lanei lotutako kargak handiagoak” direla.

Dena dela, zaila da zehaztea zer neurritan ari den garatzen zaintza informalak egiten dituzten pertsonen kopurua eta zaintzen aritzen direneko ordu-kopuruak, puntu horretan eskura dagoen informazioa asko aldatzen baita iturri batetik bestera. Hala, EUSTATen Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera, helduen zaintzara bideratutako denboraren bilakaerak gora egin du, pixkanaka, nola zaintza horiek egiten dituzten 16 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoak — 1993ko % 2,7tik 2018ko % 5,2ra—, hala parte-hartzaile bakoitzeko batez besteko denbora, egunean bi ordu inguruan kokatuta dagoena.

Eskura dauden inkestak abiapuntutzat hartuta, pentsa genezake biztanleriaren % 3,5 inguru zaintzaile informaltzat har daitekeela: Gizarte Premiei buruzko Inkestaren (GPI) arabera herritarren % 3,3, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestaren (EAEIO) arabera % 3,8.

Edonola ere, familia-zaintzaren kopurua, ehunekoa eta/edo intentsitatea murrizteak ez du beti esan nahi belaunaldi berrietan zaintzeko prestasunik ez dagoenik. Pertsona batzuk, emakumeak eta gizonak, prest daude ahultasun- edo mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko, baina laguntzekin, eta seme-alabak zaintzeko ere eskatzen eta jasotzen dituzte.

Gainera, belaunaldi berriak kritikoak dira zaintzen eredu tradizionalarekin eta horrek pertsonengan duen eraginarekin, emakume zaintzaileengan bereziki, horietako batzuk 365/24 zaintzen jarraitzen baitute, eta eurek ere zaintzak behar dituzte.

Bestalde, zaintza-ereduaren krisiarekin batera, zaintza-eredu tradizionalari eustea zailago bihurtu duten beste faktore batzuk ere badaude, hala nola bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak gora egitea³², eta lanean ari diren 16 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoa nabarmen gora egitea, 1985eko % 40,2tik 2021eko % 50,5era, EUSTATEN Biztanleria Jardueraren arabera sailkatzeko Inkestako (BJA) emaitzek erakusten dutenez.

Nolanahi ere, ikusitako joerak gorabehera, familiek eta erkidegoek edo laguntza-sare informalek mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzaile moduan duten zeregina garrantzitsua eta beharrezkoa da oraindik ere.

EINren 2020ko Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko Inkestaren datuen arabera (DAMI 2020), Euskadin 94.800 pertsona inguru dira desgaitasuna duten sei urtetik gorakoak eta familia-etxeetan bizi direnak³³, eta, beste zerbitzu edo prestazio batzuk jasotzeko aukeraz gain, etxean zaintzak jasotzen dituzte, egoiliarrek edo ez-egoiliarrek emandakoak; kopuru horrekin, desgaitasuna duten pertsona guztien erdia baino zertxobait gehiago (% 55,2) osatzen da. Zaintzaile nagusiari dagokionez, pertsona horien % 84,7rentzat senitartekoa da eta % 6,2rentzat etxeko langilea. Horietatik guztietatik, % 55,9 emakumeek zaintzen dituzte.

Zaintza informalen eskuragarritasunari buruzko etorkizuneko aurreikuspenei dagokionez, beharrezkoa da belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko zaintza-ereduak bereiztea³⁴.

Belaunaldien arteko zaintzari dagokionez, eskura dagoen informazioak adierazten digu, azken hogeitau urteetan, Euskadin 1998an adineko pertsona bakoitzeko 17 zaintzaile potentzial izatetik, 2018an 9 zaintzaile potentzial izatera igaro ginela. Etorkizuneko proiektzioen arabera, litekeena da 2033an kopuru hori 7 zaintzaile potentzialetara jaitea. Emaitzek adierazten dute, beraz, zaintzaile informalen balizko prestasuna bizkor ari dela murrizten.

Belaunaldiaren barruko zaintza-patroiei dagokionez, aldatu egiten dira zainduen eta zaintzaileen sexuaren eta adinaren arabera:

- Zaintzaile izan daitezkeen gizonen ratioak ia egonkor mantendu dira 90eko hamarkadaz geroztik, eta badirudi aldiaren amaieran gora ere egin dutela, eta, proiektzioek erakutsi dutenaren arabera, 80 urteko eta gehiagoko gizon zaintzaileen artean ere gora egin du.
- Adin aurreratuko emakume zaintzaileen prestasunak beheranzko joera agertu du. 1998an 80 urte edo gehiagoko 2,5 emakume zaintzaile potentzial zeuden 80-89 urteko gizon bakoitzeko, eta zifra hori 2,1ko kopurura jaitsi da.

³² INEren Familien Inkesta Jarraituaren arabera, 2020an Euskadiko etxeen % 28,2 (256.600 inguru) pertsona bakar batek osatzen zuen.

³³ EINren DAMI 2020ren arabera, Euskadin 6 urteko eta gehiagoko 171.800 pertsona desgaitu daude guztira. Inkesta horretan desgaitasuntzat hartu da eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga handiak dauzkaten pertsonen egoera, baldin eta muga horiek urtebete baino gehiago iraun badute edo urtebete baino gehiago iraungo dutela aurreikusi bada, eta urritasun batek eragindakoak baldin badira.

³⁴ Belaunaldien arteko zaintza-ereduak belaunaldi gazteenek mendekotasun handieneko biztanleriari emandako zaintza-fluxuari dagozkio; era berean, belaunaldi barruko patroiek zaintzaileen eta adin oso berdintsuko mendeko pertsonen artean finkatutako zaintza-fluxuari egiten diote erreferentzia.

- Azkenik, nahiz eta 60-79 urte bitarteko zaintzaile potentzialen kopurua 1etik beherakoa izan, hurrengo urteetan espero ahal dena da, gizonen bizi-itxaropena luzatzearen eraginez, adineko gizon gehiagok zaintzaile-rola hartzea.

Zaintza-eredu tradizionalaren krisiari buruzko datu eta gogoeta gehiago aurki daitezke Familia Zaintzaileei Laguntzeko 2021-2030 Estrategia soziosanitarioan.

Kontziliazio-neurriei dagokienez ere, beharrezkoa da ikuspegi interseksionala hartzea, aintzat hartuta zaintzailearen eta zainduaren generoaren, adinaren, jatorriaren eta kontingentziaren (desgaitasuna, mendekotasuna, bazterketa, babesgabetasuna) arabera zaintza-egoerak.

Bereziki, beste egoera posible batzuen artean, eta ez arlo honetan bakarrik, arreta jarri behar da adineko emakume zaintzaileen egoeran, baita familia-zaintza luzatuaren eraginean ere, ohikoagoa baita adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak edo bizitzan zehar gaixotasun mentala (edo beste gaixotasun batzuk) duten gazteak zaintzen dituztenengan. Hala, Euskadiko Osasun Mentaleko eta haren elkarteek 2022an egindako azterlan batean (argitaratzeke dago), gaixotasun mentala duten pertsonen zaintzailearen profila 60 urteko emakume bat da, batez beste; normalean, urte asko daramatza zaintza-lanetan.

Zaintza-egoera horiek zaintza-trantsizioaren ikuspegia garatzea eskatzen dute, eta zainduentzat eta/edo zaintzaileentzat desegokitzat jotzen diren zaintza-egoeretan berariaz eragitea.

Ildo horretan, gazteei dagokienez, egiaztatu da laguntza-sarea indartu behar dela osasun mentaleko arazo larriak dituzten gazteen kasuak ugaritu egin direlako, Euskadiko Osasun Mentaleko erakundeek – FEDEAFES – 2021ean aurkeztutako azterlan batean hautemandakoaren arabera, pertsona horiek egoera konplexuagoetara eta bazterketa-prozesuetara (etxegabetasuna edo askatasunik eza) eraman ahal zituzten egoera kronifikatuagoak eta familia-klaudikazioko egoerak prebenitzeko.

3.3.2. Trantsizio soziala eta kohesioa

Euskadin pobrezia izan duen bilakaera

Pobrezia eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (PGDI), lau urtean behin egiten dena, oinarriko eragiketa estatistikoa da Euskadin pobrezia aztertu ahal izateko; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistikak / Gizarte Premiei buruzko Inkestak (GZEE-GPI) osatzen dute hura. Ezaugarri hauek dituzte biek:

- Euskadin jartzen dute arreta berariaz, eta izaera publikoa dute.
- Datuen serie historiko bat dute, XX. mende amaieran hasitakoa eta, beraz, azken hiru krisiek batak bestearen atzetik izan duten eragina aintzat hartzeko ahalmena duena.
- Hainbat urtean asko garatutako metodologia kontrastatua dute, eta PGDIren kasuan, barnean hartzen ditu Eurostat sistemaren hainbat adierazle, hala nola Arope, bai eta beste batzuk ere.
- Euskal biztanleriaren unibertsoarekin lotuta, laginaren tamaina beste inkesta batzuetakoa baino handiagoa da, eta, horri esker, haren emaitzak esanguratsuak dira EAEn, betiere halakoei eskatzen zaien konfiantza mailarekin bat etorrira.

Azkeneko Pobrezia eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkestak (PGDI 2020) emandako datuek adierazten dute halako hobekuntza bat izan dela 2014koarekiko eta 2016koarekiko, aurreko krisi ekonomikoak eragin handiagoa izan baitzuten urte horietan. Dena den, ongizate handiagoko testuinguru horretan, desberdintasunak handitu egin direla ikusten da.

Egiazki, 2118tik 2020ra, AROPE pobrezia eta bazterketaren adierazle sintetikoak % 20,7tik % 19,9ra murriztu da, eta esanguratsuak dira bereziki lan-intentsitate txikiaren eta gabezia materialaren neurketarekin lotutako osagaietan izandako murrizketan (lehen kasuan, % 9,1etik % 7,6ra, eta bigarren kasuan, 2018ko % 5,6tik 2020ko % 4,1era).

Pobrezia errearen adierazlea ere (PGDIren adierazle espezifikoak) jaitsi egin da, eta nahiko egonkor eusten diote beste adierazle batzuek, hala nola pobrezia-arriskuaren tasak (medianaren % 60an), hamarren bat inguru baino ez baita hazi bi urte horien artean (% 17,8 2020an).

Dena dela, aldeko testuinguru horretan, beste alderdi batzuk ere nabarmendu dira, pobrezia larriaren adierazleak gorako bidea hartzea, esaterako (medianaren % 40), eta diru-sarreraren arloko desberdintasunak areagotzearekin lotuta egon daiteke hori batik bat. Izan ere, 2020ko PGDI desberdintasunen baliorik altuenak erregistratu ditu 2000. urtetik, erabilitako askotariko adierazleetan.

Kontuan hartu behar dira Gini koefizientea, S80/S20 ratioa, eta biztanle pobreenen % 10en diru-sarreraren ehunekoa. 2018tik 2020ra, Gini koefizientea 26,7tik 28,2ra handitu da; S80/S20 ratioa, 4,1etik 4,4ra; eta biztanle pobreenen % 10en diru-sarreraren ehunekoa 3,35etik 3,18ra jaitsi da.

Gizarte-egoera ahulenean dauden taldeen posizio ekonomikoak *erlatiboki* okerrera egitea ekarri du prozesu horrek.

“Pobrezia eta Gizarte Desparekotasunei buruzko 2020ko Inkesta. Eraitza nagusiak” txostenaren (PGDI 2020)³⁵ lehen kapituluaren, Euskadiko pobrezia eta prekaritatearen inpaktu orokorraren adierazle nagusiei buruzko informazioa eskaintze da.

- Eurostat sistemako adierazle orokorrak: pobrezia erlatiboa, pobrezia larria eta AROPE tasa.
- PGDI sistemaren adierazleak: mantentze-pobrezia (diru-sarrerak), metatze-pobrezia (bizibaldintzak eta erreserbako ondarea), pobrezia erreala eta pobrezia atalasearekiko distantzia.
- Eurostat eta PGDI hurbilketetan erabili ohi diren gabezia-adierazle espezifikoak.

Dena den, komeni da oso kontuan hartzea, oro har, oraindik ez direla lortu hiru krisien aurreko mailak eta, horrez gain, desberdintasunak areagotzeak, ongizatea indartu den testuinguru batean izan arren, gizartearen dualizaziorako joera adierazten duela, adinarekin (gazteak), generoarekin (emakumeak) eta jatorriarekin (migratzaileak) lotuta. Hainbat hamarkadatan zehar lortutako gizarte-kohesioaren narriadura saihesteko, ezinbestekoa da arreta jartzea horretan.

Hala, EAEko biztanleriaren zati handi batek ongizate-maila altua lortzeaz gain, oso kezkarriak diren hiru fenomeno hauteman dira: desberdintasunaren, pobrezia larriaren eta etxerik gabeko pertsonen gorakada. Lehenbailehen jardun behar da gai horien gainean, biztanleriaren zati txiki samar bati eragiten dioten problematika horiek zabaltzea edo gaitzotzea saihesteko, eta esku hartzeko aukera zailteza ekiditeko.

³⁵POBREZIARI ETA GIZARTE-DESPAREKOTASUNEI BURUZKO 2020ko INKESTA. Eraitza nagusiak, 2021eko maiatza, 5 eta 6. orrialdeak. PGDIren azken txosteneko datuek serie historiko bat eskaintzen dute 1986-2020 eperako. Lau urtean behingo hurrengo inkesta 2024koa izango da, eta azken bi krisien inpkatuaren berri emango du. 2023an, GZEE-GPIren txostena eskuragarri izango da. Hurrengo lau urteko txostena 2024koa izango da, eta azken bi krisien eraginaren berri emango du. 2023an, GZEE/GPIren beste txosten bat edukiko da.

7. taula. Mantentze-pobreziaren tasak, etxearen edo/eta etxeko pertsona nagusiaren ezaugarrien arabera. Euskadi 2008-2020

		2008	2020	Igoera (%)
Sexua	Gizonak	4,8	6,3	31,3
	Emakumeak	10,2	11,0	7,8
Adina	35 urtetik beherakoak	11,8	19,6	66,1
	65 urtetik gorakoak	3,2	4,2	31,3
Jatorria	Ez atzerritarra	4,4	5,5	25,0
	Atzerria	28,5	41,9	47,0
Atzerritarra	Ikasketarik gabea	10,4	18,7	79,8
	Ikasketa kualifikatuak dituztenak	2,4	2,9	20,8
Ardurapeko adingabeak	Beren ardurapean adingabeak dituztenak	8,8	12,7	44,3
	Beren ardurapean adingaberik ez dutenak	4,0	6,0	50,0
Familia-mota	Guraso bakarrekoak	13,7	18,6	35,8
Guztira		5,7	8,0	40,4

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei buruzko 2020ko Inkesta, 2020.

Ikuspegi intersektionalaren arabera, beharrezkoa da analisisian sartzea desgaitasunak eta mendekotasunak (autonomia-maila) pertsonen eta familien pobrezian duten eragina, honako egoera hauek kontuan hartuta: mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden adineko emakumeena, desgaitasunaren kostua bizitzan zehar, edo desgaitasuna duten, bazterketa-arriskuan dauden eta familiaren laguntzarik ez duten pertsonen egoera.

Gainera, begien bistakoa da pandemiak eta Ukrainako gerrak euskal gizartean eta egoera zaurgarrienean dauden pertsonengan izan duten eragina, eta pobrezia larrian (medianaren % 40tik beherako diru-sarrerak dituzten etxeak) egoteko arriskuari eragiten dio batik bat; horrez gain, pobrezia erlatiboaren kasuan ez bezala, etengabeko goranzko joera erakusten du 2012tik honetik, bai eta haur-pobreziaren kasuan ere.

<<Pobreziak seme-alabak dituzten bikoteen artean beheranzko ildo arinari jarraitzen badio ere, 2018 eta 2020 artean gora egin du haur-pobreziaren inpaktuak. Horrek adierazten du eten egin dela 2016-2018 aldian ikusi zen hobekuntza. Izan ere, 2008az geroztik, lehen aldiz 14 urtetik beherako biztanleen artean benetako pobrezia tasak behera egin izana du bereizgarri bihurtzeko horrek.

Bilakaera hori zehatz-mehatz azter daiteke 15.a eta 15.b tauletan. Horiek horrela, 14 urtetik beherakoak zituzten etxetako biztanleen artean, benetako pobrezia tasak etengabe egin zuen gora 2008ko % 7,6tik 2014ko % 10,1eraino. Dinamikak egonkortzeko joera izan arren, tasa % 10,2ra igo zen 2016an. Hori zela eta, 2018ko % 9,5ak garrantzi handiko aldaketa ekarri zuen 2016 arte ikusi zen gehikuntza-prozesuan.

Hala ere, 14 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien zati baten bizi-baldintzak pandemian zehar narriatu izanaren ondorioz, benetako pobrezia gorakada garrantzitsua izan du 14 urtetik

beherakoak dituzten etxeetako biztanleen artean. Hala, 2020an kolektibo hori % 10,7ko benetako pobrezia-aren tasara iristen da, 2008az geroztik izan den handiena>>.

Pobrezia lurraldean duen banaketari dagokionez, alde esanguratsuak daude pobrezia-tasan, eta pobrezia-egoeran dauden pertsona gehienak hiri-eskualdeetan pilatzen dira.

Azkenik, aipatu beharra dago, oro har, areagotu egin direla kalteberatasun-egoerak eta segurtasun faltarekin lotutakoak, eta egoera horiek are gehiago okertu dituzte zenbaitetan bat-batean datozen kanpoko aldaketek, hala nola krisi ekonomikoek, osasun-krisiek, energia-krisiek edo klimaren esparrukoak.

Testuinguru horretan, larrialdiko egoerarako administrazioei egiten zaizkien babes-erakundeak, bai diru-sarrerak bermatzearren esparrukoak eta bai oinarrizko beste premia batzuk estaltzekoak, ugaritzeko joera indartu daiteke hurrengo urteetan, eta gizarte-zerbitzuetatik kanpo dauden gizarte-sektoreetara iritsi daitezke.

Halako kasuetarako, larrialdiko erantzunak aurreikusi beharko lirateke, pandemian gaitutako programak, adibidez, Euskadin pandemiaren inpaktu sozialari aurre egiteko xedez oinarrizko premiak estaltzeko abiatutakoak (Inor Atzean Utzi Gabe funtsa), edota Ukrainako gerraren inpaktuari aurre egitekoak (Isuri funtsa).

Bazterketaren emaitza da pobrezia, eta, aldi berean, baita haren dimentsioetako bat ere, bereziki desberdintasuneko testuinguru batean gauzatzen baita, goranzko mugikortasun soziala, igogailu soziala deritzona, murrizten denean. Hala, arlo ekonomikoan gero eta dualizazio handiagoko egoera bat izateak (jada egiaztatuta) eragina du bai pobrezian eta bai bazterketan, eta arlo ekonomikotik harago doazen adierazpideak hartzen ditu; aukera-berdintasunari ere eragiten dio, gainera. Aukera horiez mintzo gara hainbat ekimen garatzen ditugunean; arrakala digitala murrizteko ekimenak, esaterako, edo bizitegi-izaerako bazterketari heltzekoak, eskolako segregazioa saihestekoak, edo aisia, kultura, informazio, gizarte-partaidetza eta abarretarako sarbidea sustatzekoak.

GZESren jarduketaren eremuan, abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, onartu zenetik, ahalegin handia egin da bazterketaren arloko sarea sustatzeko, lauretatik (mendekotasuna, babesgabetasuna, ahalmen-urritasuna eta bazterketa) garapen-maila txikienetik abiatzen zena hura zela ohartuta (2011ko datuak), eta erantzukizun publikoaren aldetik horrek behar zuela, hain zuen, bultzada handiena.

Hala, bazterketaren esparruan –bigarrena plazen gorakadan, mendekotasunaren atzetik–, plazak gehitzea lortu zen 2018an, 2011ko 2.279tik 2018ko 3.926ra. Epe horretan, ostatu-plazak % 31 gehitu ziren, eta eguneko arreta-zerbitzuetakoak % 130³⁶. Gizarte-zerbitzuen aurreko plan estrategikoak hartu zuen epeari soilik begiratzen badiogu, gizartetik baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako arreta-zerbitzuen ahalmena ere nabarmen indartu da. Laburbilduz:

- EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren (2016-2019) Ebaluazioak erakusten du nabarmen egin dutela gora plazek eta gastu arrunt publikoak ostatu-zentro eta -zerbitzuetan eta eguneko arretakoetan, gizartean baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen premiei erantzuteko.
- GZGEEren arabera, 2017tik 2019ra, ostatu-plazen kopurua % 20,7 hazi zen (+698 plaza), eta eguneko arretako plazen kopurua % 18,7 (+213 plaza).

Modu osagarrian, bata bestearen atzetik etorritako krisiei erantzun ahal izateko, gehitu egin dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta oinarrizko premiei erantzutearekin lotutako bestelako tresnak, eta gizarte-larrialdiko egoerak sortzen dituzten koiunturetan aktibatzen edo indartzen

³⁶ Lehen mailako arretan, gaueko harrera-zerbitzuak (1.8), gizarte-larrialdiko harrera-pisua (1.9.1.1) eta baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestua (1.9.2) sartzen dira. Bigarren mailako arretan, bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5). Eguneko arreta-zerbitzuetan, bazterketa-kasuetarako eguneko arreta zerbitzua (1.7.2) eta gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroa (2.2.3).

dira horiek, hala nola pobrezia energetikoarekin lotutako egoeretan, elikadura-pobreziarekin lotutakoetan edo gabezia materialen kasuan, EGIF+ esparruan.

Gainera, Inor Atzean Utzi Gabe eta Isuri funtsen barnean, zenbait programa jarri dira abian, Azken Sarea Indartzen, esaterako, aparteko laguntza ekonomikoak emateko bai pandemia garaian diru-sarrerarik gabe geratu ziren pertsoneri edota baita euskal familietan hartu diren eta behin-behineko babes-estatutua duten ukrainarrei ere; eta beste batzuk ere abiarazi dira, fase pilotu baten ostean, egiturazko programa gisa sendotzen ari direnak. Hor daude, esaterako, Loturak, Euskadiko harrera-ereduaren barnean txertatuta dagoen babes erkidegoko programa aberastu eta sendotzera zuzendua, edo Aukerak Suspertzen, eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzua indartzen duena, eta Trapezistak.

200 pertsona eta bazterketa- edo arrisku-egoeran eta konfinamendua agindu zenean kalean lo egiten zuten beste batzuk, 600 inguru guztira, artatu egin ziren konfinamenduan gaitutako zenbat babesgunetan egon ondoren; lehenik, ostatua, mantenua eta gizarte-babesa eskaini zitzaizkien Lehen Urratsa programaren bidez; eta, gero, bai Trapezistak programaren bidez (familia-sarerik gabeko gazteak), eta bai GZESren bazterketaren esparruko sareko baliabideen bidez.

Trapezistak programak, 2023, 330 plaza eskaintzen dizkie familia-sarerik gabeko gazteei, helduen bizimodura iragateko bidean, eta uste sendo batean oinarritzen da, administrazio publikoek eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareek duten uste sendo batean: itxialdia agindu zenean kalean zeuden pertsonak migrazio eta gazte-politikan kokatu beharra, eta ez gizarte-zerbitzuetakoetan eta gizarte-bazterketakoetan; izan ere, oro har, ez baitote haien profilari erantzuten, lagundutako ostatu-alternatiba batera jotzen badute.

Bizitegi-bazterketa larria

Bi urtez behingo azken zenbaketak agerian utzi zuen kalean lo egiten duten pertsonen kopurua esanguratsua eta gero eta handiagoa dela. 2022ko urriaren 26tik 27ra bitarteko gauean 658 pertsona ziren: 42 Araban, 340 Bizkaian eta 276 Gipuzkoan. Horrela, 2012an EAEn zenbaketak egiten hasi zirenetik izandako baliorik handiena lortu zen.³⁷

8. taula. Kalean lo egiten zuten pertsonen kopurua udalerriz udalerriz. 2022ko urriaren 26tik 27ra

		Aurkitutako pertsonak			
		Gizonak	Emakumeak	*Zehaztu gabe	Guztira
Araba	Laudio/Llodio	0	0	0	0
	Vitoria-Gasteiz	34	7	1	42
	Guztira	34	7	1	42
Bizkaia	Arrigorriaga	4	0	0	4
	Barakaldo	25	0	0	25
	Bilbo	229	9	9	247
	Durango	4	0	0	4
	Erandio	8	0	0	8
	Ermua	0	0	0	0
	Galdakao	2	1	0	3
	Getxo	25	3	2	30
	Leioa	2	0	0	2

³⁷Informazio hori EAEn bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen egoerari buruzko azterlanaren datuen aurrerapenetik atera da. 2022ko urriaren 26tik 27ra bitarteko gauean etxerik ez duten pertsonen zenbaketan kalean gaua igarotzen ari diren pertsoneri buruzkoak dira datuak.

	Portugaleta	0	0	0	0
	Santurtzi	1	0	0	1
	Sestao	15	0	1	16
	Guztira	315	13	12	340
Gipuzkoa	Arrasate/Mondragón	0	0	0	0
	Bergara	4	0	0	4
	Donostia/ San Sebastian	196	15	7	218
	Eibar	2	0	0	2
	Errenteria	15	1	0	16
	Irun	20	1	0	21
	Legazpi	0	0	0	0
	Pasaia	2	0	0	2
	Tolosa	13	0	0	13
	Guztira	252	17	7	276
Guztira		601	37	20	658

* Lo zeuden pertsona horiek, eta ezin izan zen zehaztu zer sexutakoak ziren

9. taula. Bilboko Udalak etxerik gabeko pertsonekin kalean egindako esku-hartzearen bidez aurkitutako eta zenbatetsitako pertsonen kopuruaren bilakaera. Urte bakoitzeko urriko datuak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Zenbatetsiak	32	60	165	82	60	44
Aurkitutakoak	113	132	132	233	125	287

Iturria: Bilboko Udaleko Gizarteko Ekintzako Memorien seriea.

Egoera hori da, gainera, bizitegi-izaerako bazterketa larriaren adierazpenik muturrekoena, eta, kasu batzuetan, etxebizitzarako eskubideaz baliatzeko zailtasunarekin edo ezintasunarekin lotuta dago.

Bizitegi-bazterketa larriari erantzuteko, Euskadiko etxebizitza-merkatuko faktoreetan eragiteaz gain, beharrezkoa da gizarte-zerbitzuen bidez osatutako etxebizitzaren arloko gizarte-politika batean sakontzea, kasu bakoitzean gizarteratze-prozesuari laguntzeko beharrezkoak diren harremanezko laguntzak emanez; hala ere, ez da beharrezkoa bizitoki kolektibo bat ematea, ez eta arrunta ere, eta are gutxiago bizitoki egonkor bat, muturreko kasuetan izan ezik. Ildo horretan, uste da gizarte-zerbitzuek eskari desegoki bati erantzuten diotela, eta GZESren baliabideak eta laguntzak etxebizitzarako eskubidea benetan baliatzearekin konbinatzeak gizarteratze-prozesuak bizkortu ditzakeela eta zailtasun handiagoak dituzten pertsonen erantzun egokiagoak ere eman diezazkiekeela.

Beharrezkoa da *Housing First* ereduan oinarrituta dagoen etxebizitzaren gizarte-politika horretan sakontzea, pandemiaren aurretik eta pandemian zehar bideragarria eta eraginkorra izan baita. Etxebizitzaren aldeko gizarte-ituna aukera bat da, ikuspegi hori politiketan txertatzeko.

Dagoeneko adierazi dira Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren (2021) ebaluazioko gomendioak, gizarte-bazterketaren eremu espezifikoan, besteak beste, arreta gizarteratze-ibilbideetara egokitzeari lotuta, aurrerapenekin eta atzerapenekin, eta, horren ondorioz, arreta malgutzea, eta sarea deszentralizatzea edo zerbitzuak indartzea, baloraziotik hasita, edo

prestazioak, zerbitzuak eta ikuspegiak, hala nola bizimodu independentea, esparru horretara zabaltzea.

Bestalde, Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren ebaluazioak, bizitegi-izaerako bazterketa larriaren errealitate osoa aztertzen duenak, honako behar hauek nabarmentzen ditu:

- a) Bizitegi-izaerako bazterketa larriko egoerak prebenitzea, ikuspegi hori bultzatuz eta egiten den "inbertsioa" eta horrek dakarren aurrezpena kuantifikatuz.
- b) Paradigma-aldaketa bat sustatzea, etxebizitzan oinarritutako ikuspegia zabalduz eta Etxebizitza Saila estrategian inplikatur, I. GZPEren ebaluazioaren gomendioekin bat etorrira.
- c) Gizarte-zerbitzuen arloko baliabideak hobetzea, pandemian abian jarritako eredia sendotuz, eta arretaren kalitatea eta emaitzak hobetu direla ziurtatuz. Ildo beretik, Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioak Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren ebaluazioa egitea gomendatzen du, eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako bizitegi-zerbitzu eta -prestazioen planifikazioan, koordinazioan eta arauen garapenean aurrera egitea.
- d) Genero-ikuspegia zabaltzea, arriskuan edo kalean dauden emakumeen kalteberatasun berezia kontuan hartuta, prebentzio-neurriak lehenetsiz (gizarte-larrialdietako zerbitzuak egokitzea barne hartuta), emakume horien segurtasuna bermatzeko.
- e) Etxerik gabeko pertsonen herritarrek dituzten eskubideetarako sarbidea izango dutelabermentzeko neurriak hartzea, beren administrazio-egoera erregularizatuta; eta, horretarako, zenbait alderdik (adibidez, atzerriartasunari buruzko legeak) eragiten dituzten zailtasunak berariaz aztertzea, bai eta oso premia konplexuak eta babesgabetasun-arazo larriak dituzten pertsonen kopuru gero eta handiagoari erantzuteko neurriak hartzea ere, pertsona horiek ezin baitituzte zerbitzuak eskuratu, baldintzak betetzen ez dituztelako.
- f) Osasunaren, diru-sarreraren bermearen eta enplegurako sarbidearen arloan hobekuntza sektorialak sustatzea, Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia beste plan sektorial batzuekin lerrotatuz.
- g) Aisialdirako, hezkuntzarako eta partaidetza sozial eta politikorako sarbidea bultzatzen jarraitzea, etxerik gabeko pertsonen Estrategian bertan parte hartzeko mekanismoak indartuz, eta etxerik gabeko pertsonen eskubideak defendatzeko eta sustatzeko neurriak txertatzea.
- h) Erkidegoarekiko sentsibilizazio- eta inplikazio-ekimenak sustatzea, politika publikoek bizitegi-izaerako bazterketaren aurrean duten zilegitasun soziala indartzeko eta jarduera publikoa indartzeko.³⁸
- i) Koordinazioa sustatzea: erakundeen arteko estrategia bat diseinatzea, oinarritzat beste sistema batzuekin batera sortzea hartuta eta beste plan batzuekin bat eginda, lankidetzara eraginkorra bermatzeko. Ezinbestekoa da lehen eta bigarren mailako arretaren artean bi norabideko lankidetzaren mekanismoak ezartzea³⁹, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren ezarritakoa gaindituz.

³⁸ Evidentzia nahikoa dago, ez soilik etxerik gabeko pertsonarengan egiten den esku-hartzearen onura zuzenei buruz, baita beste sistema batzuetarako aurrezpenari buruz ere (osasuna, justizia, polizia). Hobeto ikusarazi behar zaio gizarte osoari etxegabetasunaren aurrean ekintza-politika publikoek sortzen dituzten onura indibidual eta sozialak. Adierazi da komenigarria dela Hezkuntza inplikatzeko ikastetxeetan kontzientziatzeko zeregin horretan, epe luzearako emaitzak nahi badira.

³⁹ Horri dagokionez, gogorarazi behar da EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren ebaluazioak (2021) agerian uzten duela bazterketa-sarearen artikulazioa hobetu egin behar dela lurraldean, lehen eta bigarren mailako arretaren arteko lankidetzatik abiatuta.

- j) Ezagutzaren kudeaketa eta arretaren kalitatea sustatzea, metodologia komunen bidez ebaluazioaren kultura ezarriz, zentroen eta programen kalitateari eta emaitzei dagokienez, eta erabiltzaileek parte hartzeko bideak ezarriz. Zenbaketak eta Euskadiko Bizitegi-bazterketari buruzko Jardunaldiak zabalkunde, topaketa eta eztabaida tekniko eta politikorako foro gisa mantentzea; baina datuak azkarrago argitaratzeko eta ebidentzian oinarritutako politika bat zabaltzeko beharra aldarrikatzen da, politika publikoek etxegabetasunaren aurrean zilegitasuna indartzeko.

Estrategiaren jarraipenari eta ebaluazioari dagokionez, erakundeek uste dute honako hauek egin beharko lirakekeela: Idazkaritzaren zeregina eta erakunde bakoitzaren jarduerari buruzko kontuak emateko mekanismoak indartzea; helburu kuantitatiborik ez ezartzea kaleko pertsonakopuruaren murrizketari dagokionez, gizarteratze-prozesuak egin dituzten pertsonenak baizik; programak banaka ebaluatzea, jarduketan arrakastak ikusarazteko, eta are gehiago trakzio-proiektuak aukeratzen badira.

Dibertsifikazioa eta dualizazioa: generoa, adina eta jatorria, bazterketa- eta babesgabetasun-faktore gisa

GZESk hartzen dituen lau gertakarien balizko bilakaerarekin batera, beharrezkoa da gizarte-zerbitzuen eskariaren bolumena eta ezaugarriak zehaztuko dituzten beste aldaketa soziologiko, sozioekonomiko eta soziodemografiko batzuk aipatzea.

Hauek dira sarritan elkarrekin hautematen diren funtsezko lau elementuak, eta gizarte-mugikortasunean desberdintasunak eta oztopoak sortzen dituztenak:

- Pobreziaren eta bazterketaren feminizazioa, eta, gizarte-zerbitzuen esparruan, genero-joerak, zaintzen gizarte-antolaketan eta babes-sistemetan.
- Arrisku- eta kalteberatasun-egoeren kontzentrazioa haurren eta gazteen artean, eta pobrezia belaunaldien artean ugaltzeko arriskua.
- Immigrazioaren hazkundera, hemengo biztanleriak baino pobrezia- eta bazterketa-tasa handiagoekin, eta atzeritar jatorriko biztanleria belaunaldiz belaunaldi sendotzea.
- Hornidurak eta oinarrizko beharrak asetzeko (etxebizitzarena, adibidez) beste baliabide batzuk eskuratzeko zailtasunak.

Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren feminizazioa, zaintza-sistemaren ezaugarri den genero-joerarekin batera, kontuan hartu behar da, GZESk hartzen dituen kontingentzia eta gizarte-premien bilakaera aurreikusteko.

Beharrezkoa da GZESren diagnostiko bat egitea genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektzionaletik, eta lau faktore hauen konbinazioei erantzutea: generoa, adina, jatorria eta autonomia-maila.

Horri dagokionez, honako datu interesgarri hauek azpimarratu behar dira:

- Pobrezia-tasak handiagoak dira emakumeak buru diren etxeetan, eta Euskadin pobrezia-egoeran dauden % 55 ere emakumeak dira (PGDI).
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titularren % 57 emakumeak dira, eta 2021ean, 20 urtetik gorako emakumeen % 4,2k eta gizonen % 3,4k eskuratu zuten.
- Aitzitik, bizitegi-izaerako bazterketa larrian dauden eta azken zenbaketan kalean lo egin duten pertsonen % 5 inguru dira emakumeak.
- Lehen esan bezala, zaintza informaleko zerbitzuak eskaintzen dituzten biztanleen ehunekoa % 2,7koa da gizonen kasuan, eta % 3,7koa emakumeen kasuan (OIN). Emakumeak

zaintzaile guztien % 60 dira, eta, gainera, inpaktu handiagoa dute, zaintzak dakarren kargari dagokionez.

- Gizarte Zerbitzuen eremuan lan egiten duten langileen % 75 baino gehiago emakumeak dira, bai eta mendekotasunari arreta emateko zerbitzuen eta prestazioen erabiltzaileen % 70 eta % 75 ere.

Pobreziaren belaunaldi arteko transmisio-arriskuari dagokionez, EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planak gogorarazi du oraindik ere pobrezia-diferentzialak jarraitu egiten duela, haurrak etxean izateari lotuta, eta Europa osoan honako hauen inguruko kezka hazten ari dela:

- Egoera horiek haurren bizi-baldintzetan, bizi-itxaropenetan eta garapenerako eta integrazioarako aukeretan epe labur, ertain eta luzera duten eragina.
- Pobreziaren belaunaldi arteko transmisioa, eta familiaren ingurune sozioekonomikoaren garrantzia, ingurune horrek erabakigarria izaten jarraitzen baitu emaitza akademikoetan, nahiz eta euskal hezkuntza-sistemak emaitza onak izan dituen hezkuntza-ekitatearen ikuspegitik.

Eta hauxe gaineratzen du: “Desberdintasunen eta pobreziaren gehikuntzak eragin handia du haurrengan; eraginik handiena lotzen da gorako mugikortasun sozialerako aukera txikiagoekin eta ondorengotza sozialaren gorakadarekin, beti ere gizartean gora egiteko aukerak degradatuta dauden testuinguru batean”.

Izan ere, gurasoen harremanetarako kapitalak eta kulturaren eta hezkuntzaren arloko kapitalak gero eta pisu handiagoa izango dute gizartean, kualifikazio txikiko eskulana gero eta urriagoa eta okerrago ordaindua izango den gizarte batean. Ezagutzaren gizartean, pertsonen bizi-aukerak gero eta gehiago daude haurtzaroaren lehen urteetatik metatzen den kapital kulturalaren, sozialaren eta kognitiboaren mende. Horren guztiaren ondorioa da, testuinguru berri horretan, desberdintasun-modu nagusiak eta bazterketa-iturri nagusiak, gaur egun eta etorkizunean ere bai, familiek eta hezkuntza-sistemek bizitzako lehen urteetan beharrezkoak diren estimuluak eta ikaskuntzak eskaintzeko duten ahalmenaren ondoriokoak direla.

Azterketa horren ildotik, gizarte- eta hezkuntza-programak eta eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzuko programak bultzatu behar dira, bai eta kultura indartzeko programa soziokulturalak ere.

Immigrazioari dagokionez, azpimarratu behar da immigranteen kopurua nabarmen hazi dela EAEn, azken hamarkadetan eta, bereziki, azken bosturtekoan.

2001etik, atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa % 2,2tik % 11ra igo da, eta ia 180.000 pertsona gehiago dira. Mugimendu hori, gainera, areagotu egin da 2014tik, finantza-krisiaren ondorengo suspertze ekonomikoko aldia hasi zenetik, hain zuzen. Izan ere, 2015etik, atzerrian jaiotako pertsonen kopuruak % 32 egin du gora, eta 60.000 pertsona egoiliar inguru daude.

Bestalde, jatorriz etorkinak diren pertsonen pobrezia- eta bazterketa-arrisku erlatibo handiagoa dutela adierazi da. Eta haurren babesgabetasunaren eta gizarte-bazterketaren esparruan, gizarte-zerbitzuen eskariaren zati handi bat generoak eta jatorriak zehazten dute.

Eta jatorriari dagokionez, babes-sistema osoak migrazio-fluxuei ematen dien erantzun desberdinak zehazten du, jatorriaren arabera, batez ere etorrera eta hasierako integrazio uneetan.

Hau da, harrera-eredu deritzogun horrekin, pertsona eta familia migratzaileak gizarteratzerantz bideratu behar da, kultura arteko ikuspegiarekin eta lehen belaunalditik, igogailu soziala lehenbailehen aktibatzen saiatuz, jatorria alde batera utzita, eta gizarteratzea sustatuz, eskubideetan eta betebeharetan oinarrituta.

Haurren pobrezia- eta babesgabetasun-egoeren bilakaera

PGDIren arabera, 2020an, 17 urtetik beherako haurren % 12,7 pobrezia larrian zeuden, eta 2008an, berriz, % 4,1 ziren. Mantentze-pobrezia adierazlea (PGDI) % 9,1etik % 13,6ra igo da.

Pobrezia-egoerak larriagotzen ari dira 14 urtetik beherako artean, eta egoerak hobera egin du 14 urtetik gorako artean.

10. taula. Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren bilakaera adinaren arabera (14 urtetik gorako edo beherako biztanleria). 2014 eta 2020. %	14 urtetik beherakoak		14 urtetik gorakoak		Guztira	
	2014	2020	2014	2020	2014	2020
Benetako pobrezia	11,2	11,7	5,1	4,8	5,9	5,6
Benetako ongizaterik eza	17,1	17,4	10,6	8,3	11,5	9,5
Iturria: PGDI 2002 eta GZEE-GPI 2014						

Hala, biztanleriaren % 17 badira ere, adingabeak biztanle pobre guztien ia % 25 dira.

Dualizazio sozialeko prozesuei buruz oro har adierazitakoaren ildotik, 2008tik, benetako pobrezia edo ongizaterik eza duten etxeetan bizi diren haur eta nerabeen ehunekoa % 13,4tik % 16,7ra igo da. Eta, aldi berean, erabateko ongizateko etxeetan bizi diren haur eta nerabeen ehunekoa % 27,2tik % 42,4ra igo da.

Ildo horretan, COVID-19aren krisiak areagotu egin du adingabeen pobrezia-egoera, batez ere egunero jaki proteinikoa eskuratzeari dagokionez (ehuneko 5,2 puntuko igoera) eta egunero fruta eta barazkiak eskuratzeari dagokionez (ehuneko 9,7 puntuko igoera).


11. taula. Gabeziak adingabeen artean 2016, 2018 eta 2020. %	2016	2018	2020
Ezin du egunero proteina-jakia jan	17,4	12,5	22,6
Ezin ditu egunero frutak edo barazkiak jan	10,7	6,6	20,4
Ezin du oinetako egokirik erabili	12,8	23,1	8,7
Oinarrizko arazo oso larriak	25,5	32,2	26,3
Ezin du arropa berririk izan	40,1	44,3	42,1
Ez du aisialdirako ekipamendurik (aire zabalean)	25,3	24,4	30,7
Ezin dute ospakizun berezirik egin	38,2	39,1	37,7
Oinarrizko beste arazo batzuk	38,6	31,6	38,2
Oinarrizko arazo nagusiak	64,1	63,8	64,4
Ikasturtea online egiteko bitartekorik ez	-	-	44,6
Iturria: PGDI 2016 2020 eta GZEE-GPI 2018			

Pobrezia-tasek lotura argia dute familia motekin. Pobrezia larriaren kasuan, adin txikikoak dituzten etxeetako pobrezia ia lau aldiz handiagoa da adin txikikorik gabeko familiei dagokiena baino. EAEko familia pobreen % 23 guraso bakarrekoak dira, eta % 41 seme-alabak dituzten bikoteek osatzen dute.

Adingaberik gabeko etxeen % 2k, adingabeak dituzten etxeen % 7,3k eta adingabeak dituzten etxe pobreen % 40,2k (biztanle guztien % 3,7k) hipotekaren ordainketan atzerapenak dituzte edo ez dute ordaindu, eta, beraz, etxebizitza galtzeko arriskuan daude. Argiaren, uraren edo gasaren fakturretan atzerapenak dituztenei edo horiek ordaindu ez dituztenei dagokien ehunekoa ia % 50ekoa da.

Babesgabetasun-egoeren detekzioari dagokionez, foru-aldundiek jasotako babesgabetasun-jakinazazpenei buruz Haurren eta Nerabeen Euskal Behatokiak emandako datuek agerian jarri dute, 2015etik 2018ra gora egin dutela –eta hori aldi horretan familia-erreferenterik ez duten adingabeen migrazio-fluxuek izandako gorakadarekin lot daiteke–, eta gutxituz joan direla 2020 arte, eta 2021ean, berriz, apur bat gora egin dutela.

1. grafikoa. Haurren babesgabetasunagatiko jakinarazpenen bilakaera EAEn. 2008-2021



Iturria: Haurren eta Nerabeen Euskal Behatokia, foru-aldundiek emandako datuetatik abiatuta

Era berean, arretarik ezaren, familia-bazterketaren, tratu txarren, jazarpenaren edo indarkeriaren arazoaren intzidentzia oso txikia da oraindik: 5 haur eta nerabe 18 urtetik beherako 1.000 pertsonako. Hala ere, kontrapuntu gisa, GPIk arazo horiek dituzten adingabeen ehuneko handitu egin dela hauteman du, bereziki, 2014tik aurrera.

Bestalde, 2010etik, delituak egiteagatik epai irmoarekin zigortutako gazteen kopurua eta proportzioa murrizten ari da.

Azken 20 urteetan, hiru urteko haurren eskolatzeta ia % 100ean mantendu da Euskadin. Bi urtekoen eskolatzeta % 60tik % 90,8ra igaro da epe horretan. Urtebeteko haurren kasuan, % 5etik % 43ra igaro da, eta urtea bete ez duten haurren kasuan, % 2,3tik % 15era.

Eskola-uzte goiztiarra, bai gizonen bai emakumeen artean, nabarmen murriztu da 2009tik, eta gaur egun, % 7tik behera dago. Estatu osoko eta EB osoko eskola-uzte goiztiarraren tasa baxuenetakoa da.

Bestalde, beharrezkoa dirudi eskola-segregazioa azpimarratzea, bai eta etorkinek emaitzak bertakoek baino gehiago hobeto dituztela ere.

Europako Haur Bermerako Ekintza Planeko Oinarrien Espainiako dokumentuak (UNICEF, 2021) jasotzen duenez, talde batzuek kalteberatasun maila handiagoa dute, kontingentzien (pobrezia, bazterketa, desgaitasuna) eta hainbat faktoreren (adina, jatorria, generoa, autonomia maila) ondorioz:

- Guraso bakarreko familiak eta familia ugariak, gabezia material eta pobrezia-tasa handiagoak dituztenak eta etxebizitzarekin lotutako gastuengatiko gaitzakeria finantzarioa dutenak.
- Atzerritar jatorriko edo gutxiengo etnikoetako pertsonak eta familiak, gabezia material, pobrezia eta gizarte-bazterketa tasa handiagoak dituztenak, eta bizitegi- eta eskola-bereizketa dutenak.
- Desgaitasuna edota osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak, osasun- eta hezkuntza-premia espezifikoak asetzeari defizita dutenak.

Euskadiko mantentze-pobreziari dagokionez, familia guztien % 8ren eta seme-alabak dituzten familien % 12ren aurrean, tasa horiek % 17,6 dira guraso bakarreko familien kasuan, % 25,9 familia ugarien kasuan, eta % 37,9 adingabeak ardurapean dituzten atzeritar jatorriko familien kasuan.

3.3.3. Krisien eragina GZESn

Pandemiak eta horren ondorio ekonomiko eta sozialek eragina dute, izan dute eta izaten jarraituko dute gizarte-zerbitzuen premian eta eskaintzan. Eta gauza bera esan daiteke Ukrainako gerrak Euskadin izan duen eragin ekonomikoaz eta sozialaz.

Pandemiaren eraginari dagokionez, lehen plan estrategikoaren ebaluazioak, pertsona eta familia hartzaileengan, profesionalengan, arreta-sareetan eta zerbitzuak ematen dituzten erakunde eta entitateetan duen eragina minimizatzeko epe laburreko neurriak identifikatzeko beharraz gain, bereziki azpimarratzen zuen beharrezkoa zela azterketa zabal bat egitea gizarte-zerbitzuetan izan duen eraginari eta horrek etorkizunera begira izango dituen ondorioei buruz (behar berriak, prestazio eta zerbitzu ekonomikoen eskaera handitzea...); azterketa horretatik ondorioak atera beharko lirarteke, GZESren erantzuteko gaitasuna hobetzeko (bereziki, adinekoentzako egoitzazentroen kasuan) eta azpiegituren arreta eta garapena egokitzeko estrategia soziosanitario bat diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko.

Erkidego-arreta garatzeari eta adinekoentzako egoitza-zentroak eraldatzeari buruz II. Plan honetan proposatutako zenbait neurri, esperientzia emateaz gain, GZESk etorkizunean antzeko egoerei erantzuteko duen gaitasuna indartuko dute.

Pandemiak gizartean izandako eraginarekin batera, nabarmentzekoa da, halaber, Ukrainako gerrak euskal herritarren gizarte-premietan eta, beraz, gizarte-zerbitzuetan izan duen eragina. Alde horretatik, gerrak izandako ondorio zuzenez gain, hau da, gerraren ondorioz Euskadira iritsitako iheslariak hartzeko eta gizarteratzeko ondorioez gain, gerrak eragindako krisi ekonomikoak eragina izango du epe labur eta ertainean gizartearen oinarriko premietan.

Eta, bereziki, lehen-mailako produktuen prezioen gorakadaren ondorioz, energiarenak eta etxebizitzarenak barne; izan ere, EAEn berez oso prezio altuak dituen alokairu-merkatua are gehiago tenkatu da, alokairu-parkearen tamaina txikia dela eta, beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta.

2013tik, alokairuko etxebizitzaren prezioa % 27 igo da, eta EAEn batez besteko prezioa 1.050 eurokoa da, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2021eko higiezinaren eskaintzari buruzko inkestaren datuen arabera.

2020ko irailetik, KPIak % 13ko igoera izan du, eta lehen-mailako ondasunetan igo dira bereziki prezioak. Inflazioaren eragina oso handia da diru-sarrera txikiak dituzten taldeengan, oinarriko produktuen igoerak eragin handiagoa baitu errenta txikieneko tartetean. Nabarmena da, halaber, energiaren prezioak izan duen igoera eta horrek pobrezia energetikoan duen eragina.

Horrela, 2020ko PGDI inkestaren datuek erakusten dutenez, 2008ko krisiak gizartean izandako eraginetik suspertzen hasiak ginenean, 2020an eta 2022an ondoz ondoko bi krisi aktibatu dira, eta horiek gizartean duten eragina batu zaio lehengoari, eta aurrera begira ere indarrean jarraituko du horrek. Nolanahi ere, esan beharra dago krisi horiek oso ezaugarri desberdinak dituztela.

2008ko krisiak eragin sozial handia izan zuen hurrengo hamarkadako lehen urteetan, eta luzatu egin zen denboran. Hala, krisia hasi aurreko bilketa-mailak ez ziren 2017ra arte suspertu. Baina gaur egungo krisiak ez dakigu zenbat iraungo duen, eta, inflazioaren ondorioz, eragin handia izan du hasiera-hasieratik oinarriko premien estalduran; hala, arrazoi beragatik, une honetan diru-bilketa handitu da, eta berehalako neurriak hartzea ahalbidetzen du horrek. Bestalde, pandemiak gizarte-premietan izan duen eraginak eta horniduren kostuak eragina dute erakundeek zerbitzuak emateko egiten duten kostuan.

GZESren iraunkortasunari eta ahaleginari (gastua diru-sarreraren arabera) dagokienez, horrek esan nahi du ahaleginari eutsiz soilik egin daitekeela, besteak beste, krisiak oro har izandako inpaktuari, eta, bereziki, GZESn izandakoari, erantzuteko gastu handiagoa.

Bestalde, bazterketaren arloan, Eusko Jaurlaritzak Inor Atzean Utzi Gabe Funtsa jarri zuen abian, eta lankidetzak publiko-publikotik eta publiko-sozialetik premiazko 8 programa diseinatu zituen esparru horretan; programa horietako bi egiturazko programa bihurtu dira, fase pilotu baten ondoren: Aukerak Suspertzen, eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzurako, eta Trapezistak, familia-sarerik gabeko gazteei laguntzeko. Era berean, abian jarritako programek egiturazko beste neurri batzuk sortzen edo indartzen lagundu dezakete, hala nola *Housing First* eredua eta, oro har, laguntza soziala duen etxebizitza eskuratzea eta etxebizitza-politika soziala bultzatzea.

Hala, larrialdiko egoera bat aukera bihurtzen da, larrialdi-politiketatik abiatuta, trantsizio-politikak bultzatzeko, proiektu pilotuen bidez. Proiektu horiek, azkenean, egiturazko izaera hartzen dute, eta egonkortutako politiketan txertatzen dira.

Berriz ere, Ukrainako gerraren ondorioz lekualdatutako pertsonen beharrei erantzuteko eta harrera-familiei laguntzeko, bai eta gerrak eragindako krisi ekonomikoaren gizarte-inpaktuari erantzuteko ere, Eusko Jaurlaritzak Isuri Funtsa jarri zuen martxan: pandemian abian jarritako koiuntura-programa batzuk aktibatu zituen berriro eta Ukrainako haur eta nerabeei Aukerak Suspertzen programan sartzeko bidea erraztu zien.

Edonola ere, pandemiak gizarte-zerbitzuen sistemetan izan duen eraginari buruz egindako azterketak partzialak eta osatugabeak dira oraindik, eta ez da erraza ondorio irmoak lortzea; gainera, eraginak aldatu egiten dira lurraldearen eta kontingentzien arabera.

Dena dela, azterketek agerian uzten dute gainkarga, nekea eta higadura dagoela, bai erabiltzaileen eta haien familien artean, bai profesionalen artean, eta adinekoentzako egoitzen ospea ere apur bat kaltetu da.

Pertzepzio horiek bateragarriak dira pandemian –bereziki lehenengo hilabeteetan– premiaz sortutako zerbitzu eta baliabide berri ugariekin, bai eta aurretik abian zeuden zerbitzuak egoera berrien eskakizunetara egokitzeko prozesuarekin ere.

Konfinamenduaren lehen asteetan, baliabide berri horiek egoera larrienei estaldura ematera zuzendu ziren –bai biziraupen materialari dagokionez, bai lagun egiteari eta zaintzari dagokienez–, eta hurrengo hilabeteetan, berriz, baliabide tradizionalak “normaltasun berria” deitu denaren arabera egokitzeko eta baliabide berriak doitzeko ahalegina egin da.

Gai horiek alde batera utzita, pentsa daiteke COVID-19ak beste aldaketa batzuk eragin dituela, gizarte-zerbitzuen pertzepzio sozialari eta horiek garatzeko aukerei dagokienez. Eta, bereziki, adinekoen arretarako eredua eta, oro har, zaintzen gizarte-antolamendua aldatzeko beharra azpimarratzen lagundu du. Izan ere, aldaketa horren beharra lehenago ere ikusten zen, eta gero eta ezinbestekoagoa dela ikusi da gero.

Aldi berean, nabarmendu behar da tokiko, nazioko eta nazioarteko erakunde gehienek pandemiaren aurrean izan duten erantzunean muturreko ikuspegi-aldaketa gertatu dela aurreko krisiekin alderatuta, eta elkartasun-mekanismo publikoek protagonismo askoz handiagoa izan dutela.

Alde horretatik, azterketa guztiak bat datoz esatean pandemiaren ondoren indartu egin dela esku-hartzearen eta inbertsio publikoaren egitekoa, bai osasunaren esparruan, bai beste gizarte-politika batzuen eremuan. Esku-hartze publikoari buruzko pertzepzio sozial eta politikoaren aldaketarekin batera, aldaketa horrek bultzada ekonomiko handia ekarri du, berreraikuntzarako Europako funtsen bidez, eta horrek gizarte-zerbitzuak hobetzen lagun dezake.

3.3.4. Trantsizio digitala, gizarte-berrikuntza eta lankidetzak publiko-soziala

Trantsizio digitala

Trantsizio digitalak gizarte-zerbitzuetan duen eraginak gutxienez bi dimentsio ditu: gizartean duen eragina eta GZESren zerbitzuetan eta kudeaketan eraldaketa digitaleko prozesuak, teknologia digitalak txertatzetik haratago doazenak.

Eten digitala, gaur egun, bazterketarako, desberdintasunerako eta babesgabetasunerako faktore bat da, eta horrek baldintzatu egiten du babes-sistamarako eta teknologia eta sare digitaletarako sarbidea sozializatzeko, gaitasunak garatzeko edo kultura eta balioak transmititzeko espazio bat izatea.

Ondoren, bi dimentsioetan abian jarritako hainbat ekimen zehaztuko dira. Eten digitala detektatzeko eta lantzeko, etxean bizi direnei arreta eraldatzeko eta administrazio publikoen eta GZESn esku hartzen duten erakundeen eraldaketa digitalerako ekimenak.

I. GZESren ebaluazioak jada adierazten zuen gune egokia sortu behar dela, digitalizazio-prozesuan jauzi bat egiteko eta arretarako (bereziki etxeko arretarako) eta erabiltzaileak eta zaintzaileak zaintzeko teknologia eta aplikazio digital berritzaileak eskuratu, garatu eta ezartzea bideratzeko proiektuak sustatu, horiek bultzatzeko eten digitala murrizteko modua eginda.

Gainera, pixkanaka aurrera egin nahi da, GZESren datuak digitalizatzeko ekimen pilotuetatik eta prozesu partzialetatik abiatuta egiturazko eraldaketetara, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) bultzatuz, eta datuak kudeatzeko plataforma eta tresna integratuetara, hala nola historia elektronikoa sozial eta soziosanitarioetara.

Bestalde, erakundeei dagokienez, European Social Networkek gizarte-zerbitzuen digitalizazioari buruzko lantalde bat du, eta gai horretan jarriko du arreta hurrengo biltzarrean. Eta Euskadin, APTEs Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkarteak eta antzeko ekimenek bi munduak lotzen dituzte, gizarte-erakundeak eta enpresa teknologikoak integratzen baitituzte. Horrez gain, diagnostiko eta txosten partzial batzuk egin dira, hala nola Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiak eraldaketa digitalari eta hirugarren sektore sozialari buruz egindakoa.

Baina mugimendu horietatik haratago, ez dago gizarte-zerbitzuen digitalizazioari buruzko diagnostikorik, estrategiarik edo lan-planik, lankidetzak publiko-publikotik eta publiko-pribatutik abiatuta, gizarte-ekimenaren nagusitasunarekin, dimentsio horiek eta beste batzuk barne hartzen dituenik.

Gaur egun, ordea, oinarrizko premia da, eta *Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren* hedapenarekin antolatu beharko litzatekeen sistamarako agindua, haren aplikazio-eremuak kontuan hartuta:

“Aplikazio-eremuak jarduera publikoaren eta pribatuaren arlo espezifikoak dira, zeinetan palanka teknologikoak haien prozesuak, produktuak, zerbitzuak, harreman-ereduak edo negozio-eredua errotik aldatzeko elementu izatera bideratuta dauden, haietan aberastasun handiagoa, enplegu hobea, ongizate-maila handiagoa eta ingurune baldintzen hobekuntza sor daitezten. Alde batetik, administrazio publikoen berezko eremuak hartzen dituzte (adib.: osasuna, segurtasuna, hezkuntza edo justizia, besteak beste), eta haien Eraldaketa Digitaleko prozesuan hartutako konpromisoa merkatu-aukera bat da sektore teknologikoko enpresentzat, eta, aldi berean, efektu eragilea sortzen dute gero eta bitarteko digitalagoak erabiliz lan egin behar duen edozein enpresaren digitalizazioan.

Gizarte-berrikuntza gizarte-politikan eta gizarte-zerbitzuetan

I. GZPEren ebaluazioak jada adierazten zuen martxan zeuden hainbat ekimen bultzatu behar zirela, hala nola Berrituz. Eta gizarte-zerbitzuen eta, bereziki, GZESren eremuan gizarte-berrikuntzako prozesuak sortzea proposatzen zuen, gizarte-berrikuntzako ekimentzat hartzen ditugun proiektu eragileen bidez, eta, beraz, lankidetzan, GZES zehaztutako helburu estrategikoetarantz bultzatzen dutenak, erantzunak 2030eko hamarkadan eraldatzeko.

I+G+b-ko ekimenetan inbertitzen duten eragileek gizarte-berrikuntzaren aldeko apustua (lankidetzan) indartu behar dute ezinbestean, uztarri berean lotuta premien ebaluazioarekin, prospekzioarekin, esku-hartze sozial berriak jorratzearekin, erakundeetan teknologia ezartzearekin, pertsonen ematen zaizkien laguntzak hobetzearekin eta abarrekin.

II. Plan Estrategikoak hainbat proiektu eragile aurreikusten ditu bere ardatzetan: autonomia, integrazioa, oreka, artikulazioa, eta genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala.

Besteak beste, zahartzeari eta bizi-luzetasunari buruzko gizarte-berrikuntzako hiru lurralde-polo bultzatzea, lankidetzaren eta nolabaiteko espezializazioaren ikuspegitik, bai eta gizarte-zaintza eta zaintza soziosanitarioei buruzko mugaz gaindiko polo bat ere, sinergiak eta ezagutza partekatua sortzeko Euskadin eta ABEN Euroeskualdean (Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa). Bai eta etorkizunean Pirinioetako edo Arku Atlantikoko Lan Elkartera heda daitekeen fokua ere.

Eta lehendik dagoen Gizarte Berrikuntzarako Euskal Ekosistema – unibertsitateek, sektore publikoak, gizarte-ekimeneko erakundeek eta enpresa teknologiko elektrikoek osatua – indartzea, besteak beste, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren hainbat ekimen antolatuz, gizarte arloko I+G+b bultzatzeko politiken eta gizarte-zerbitzuen esparruan:

- Saileko Estatistika Organoa.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (Behatuz), udal-eremura bideratutako Berrituz barne, Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia eta beste behatoki batzuk.
- Hirugarren sektoreko proiektuetarako laguntzen deialdia (esku hartzeko eta ezagutza kudeatzeko ildoak, pixkanaka proiektu berritzaileetara bideratuak).
- BHerria, tokiko lankidetzak publiko-soziala sustatzen duena.
- Innobasquerekin eta Sareen Sarearekin lankidetzan aritzea diagnostiko bat egiteko eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko (EHSS) erakundeetan gizarte-berrikuntza sustatzeko ibilbide-orri bat ezartzeko.
- Lankidetzako proiektu berritzaileak bultzatzea beste administrazio publiko batzuekin eta Jaurlaritzako beste sail batzuekin lankidetzan, autonomia-erkidegoan, estatuan eta European.
- Lankidetzak euskal unibertsitateekin eta CSICekin.
- Gizalab Fundazioa - Berrikuntza Zentroa garatzea.

Berrikuntza-eragileen sare bat sustatu behar da, gizarte-politiken eta gizarte-zerbitzuen esparruan gizarte-berrikuntza bultzatzeko (lankidetzan), honako hauekin lotu ahal izateko: a) GZESren jasangarritasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta hobekuntza; b) jarduera ekonomikoak bultzatzea eta gizarte-zaintzen sektorean kalitatezko enplegua sortzea; c) ezagutza eragitea eta transferitzea tokiko, estatuko eta nazioarteko mailan.

Horren bidez, I+G+b-ren balioa azpimarratu nahi da gizarte-politikaren eta gizarte-zerbitzuen esparruan, bai eta horrek jarduera ekonomikoan, enpleguan eta mugaz gaindiko eta nazioarteko loturetan duen gizarte-eragina ere. Eta hori bultzatzea eragileen arteko lankidetzak indartuz, sortutako edukiak zabalduz eta erabiliz, eta partekatutako erronka estrategikoen inguruko lan-ildoak eta ikerketa-taldeak egonkortuz.

Lankidetzak publiko-soziala

Aurrera egin da elkarriketa zibilaren ereduaren eta administrazio publikoen eta gizarte-ekimeneko eta esku-hartzeko erakundearen (hirugarren sektore soziala) arteko lankidetzaren ereduaren; izan ere, aurrerapenak egin dira politikak garatzean (Euskadiko Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren, adibidez), eta aurrerapausoak eman dira eremu soziosanitarioan, nahiz eta hobetzeko tartea dagoen euskal babes-sistemako sistemen arteko loturan.

Etorkizun ez oso urrun batean, sendotu eta formalizatu egin beharko litzateke administrazio publikoen eta gizarte-erakundearen arteko lankidetzak-eredua, zeinak elkarriketa zibilaren esparruan eraginkortasun eta zehaztasun handiagoa lortu duen, eta gizarte-itunaren araubidea hedatu beharko litzateke.

Bestalde, funtsezkoa izango da pertsonekin esku hartzea osatzen duten interes-taldearen arteko elkarriketa sustatzea, haien bizi-proiektuei laguntzeko laguntzen koordinazio egokia lortzeko.

Ildo horretan, eragileen arteko lankidetzatik aurrera egin behar da, erkidego-ikuspegiaren beste ezaugarri batzuk (integritasuna, jarraitutasuna, prebentzioa, hurbiltasuna, parte-hartzea) ezartzetik ondorioztatzen den eta autonomiaren eta autodeterminazioaren printzipioekin koherentea den laguntzak pertsonalizatzeko ereduaren ezarpen praktikoa.

Kasuen koordinazioan zerbitzuak ematen dituzten erakundeen parte-hartzea, Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitakoaren arabera, modu eraginkorrean sustatu eta ziurtatu behar da, bereziki jarduera berezia duten erakundeen kasuan, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean definitzen diren bezala.

3.3.5. Aldaketak GZESren pertzepzio sozialean

Herritarrek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskarien eta premien bilakaerak herritarren eta, bereziki, GZESren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak erabil ditzaketan pertsonen jarrerak eta pertzepzioak aztertzea eskatzen du.

Alde horretatik, azpimarratu behar da erabiltzaileak eta haien familiak pixkanaka beren gain hartzen ari direla eremu guztietan dituzten herritartasun-eskubideak, eta, bereziki, mendetasunaren eta desgaitasunaren eremuan dituztenak.

Arreta unibertsalizatzeko prozesuarekin eta errenta ertain eta altuko taldeek zerbitzuak eskuratzearekin batera, beste prozesu bat gertatu da baita ere: gizarte-zerbitzuak eskuratzea ez da ongintza- edo karitate-ekintzat hartzen soilik, baizik eta herritarrek beren zergen bidez finantzatutako zerbitzuak jasotzeko duten eskubidetzat.

Horrek esan nahi du, pixkanaka, kritikarako eta exijentziarako gaitasun handiagoa dagoela, zerbitzuen kalitateari eta edukiari dagokienez. Eskaera handiago hori, hain zuzen ere, arretaren eduki formalei eta eduki erlazionalagoei dagokie, erabiltzaileek eta haien senitartekoez gero eta gehiago ikusten baitute beren burua zerbitzu horren “bezero” edo “kontsumitzaile” gisa, finantzatzen lagundu dutelako eta laguntza hori jasotzeko eskubidea dutelako.

Aldi berean, azken urteetan, erabiltzaileek gero eta neurri handiagoan eskatzen dute beren independentzia, autonomia eta autodeterminazio-gaitasuna errespetatzeko, gizartearen indibidualizazio-prozesu orokor baten barruan (besteak beste, zerbitzuak pertsona bakoitzaren beharretara, nahietara, itxaropenetara eta lehentasunetara egokitzeko beharra dakar horrek).

Zahartzarora iristen diren pertsonen kultura-maila handiagoak eta edozein motatako ondasun eta zerbitzuen kontsumitzaile gisa duten esperientzia handiagoak eragin argia izango du, zalantzarik gabe, gizarte-zerbitzuen eskaintzan epe laburrean eta luzean.

Herritar guztiek GZESri buruz duten pertzepzioari dagokionez, nabarmendu behar da herritarrek Euskadiko gizarte-zerbitzuei buruz egiten duten balorazioa oso ona dela.

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egiten duen soziometroaren arabera, EAeko biztanleen % 55 inguruk uste du gizarte-zerbitzuek Euskadin duten funtzionamendua ona edo oso ona dela, eta erdi-mailako eta goi-mailako klaseek balorazio bereziki positiboa egiten dute.

Herritarren % 65 inguruk uste du, gainera, euskal erakundeek gaur egun baino diru publiko gehiago bideratu beharko luketela gizarte-zerbitzuetara, eta % 60 inguruk nahiago du gizarte-prestazio eta -zerbitzu gehiago izatea, zerga gehiago ordainduta.

Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2017an bereziki zaintza-zerbitzuei buruz egindako beste azterketa batek datu interesgarri hauek utzi zituen agerian:

- Gizonen % 34k eta emakumeen % 36k, mendekotasun-egoeran egonez gero, beren etxean bizitzea eta senitartekoren batek zaintzea nahiko luke, eta % 23k eta % 27k, hurrenez hurren, etxean bizitzea nahiko luke, ordainpeko zaintzaile batekin. Gizonen % 20k eta emakumeen % 16k egoitza batean bizi nahi luke.
- Gizonen % 59k eta emakumeen % 58k uste du familiek edo hurbilekoek izan behar dutela, nagusiki, mendetasunen bat duten pertsonak zaintzeko ardura, eta administrazio publikoek laguntza jaso behar dutela; % 25ek uste du administrazioak hartu behar dutela ardura hori, familien laguntzarekin. % 10ek baino ez du uste administrazioek ez dutela arlo horretan esku hartu behar.

- Gastuen lehentasunei dagokienez, emakumeen % 46k eta gizonen % 44k uste du etxez etxeko laguntza-zerbitzu gehiago garatu beharko liratekeela, eta emakumeen % 33k eta gizonen % 30k uste du etxebizitzak adinekoen beharretara egokitzeak lehentasuna izan beharko lukeela. Antzeko ehuneko batek uste du adinekoak zaintzen dituztenak babesteari eman behar zaiola lehentasuna, eta biztanleriaren % 20 inguruk uste du gizarte-zerbitzuek bakarrik bizi diren adineko pertsonen jarraipen zuzenagoa egiteari eta egoitza publikoetako plaza kopurua handitzeari nahiz zaintzaile profesionalak kontratatzeke aholkularitza eta laguntza ekonomikoa eskaintzeari eman behar zaiela lehentasuna.
- Azkenik, emakumeen % 22k eta gizonen % 25ek uste du familiako kide nagusiak etxean zaintzen dituzten pertsonen gizarte-zerbitzuen laguntza egokia jasotzen dutela; eta % 18k eta % 21ek uste du laguntza publiko nahikoa dagoela mendetasun-egoeran dauden adinekoek etxean bizitzen jarraitu ahal izateko

4. NORTASUNA, ORIENTABIDE ESTRATEGIKOA ETA HEDAPENA

4.1. EGINKIZUNA ETA PRINTZIOAK

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren definizioarekin (5. artikulua) eta haren xedearekin (6. artikulua) bat etorri, eta Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera sistema horren jardueraren oinarri izan behar duten printzipio gidariak (7. artikulua) eta erkidego-ikuspegia (8. artikulua) kontuan hartuta, honako hau ulertu behar da:

GZESren xedea da bizitza-zikloan pertsona guztien gizarteratzea ahalik eta autonomia handienarekin sustatzea, harreman-izaerako zerbitzu eta prestazio teknikoak eta prestazio teknologiko eta ekonomikoak barne hartzen dituzten laguntzen bidez. Eta, berezkoak dituen baliabideetatik, iraupen luzeko zaintza-sarea eta gizarte-babeseko euskal sistema osatzen duten beste sistema eta politika publiko batzuekin (gizarte-osasunaren, gizarte-hezkuntzaren, gizarte-lanaren, gizarte-bizitegiaren arloak) elkarrekintzan aritzeko espazioetan lankidetzan aritzea, gizarteratzearen, kohesioaren eta gizarte-ongizatearen mesedetan.

Gizarte-zerbitzuek barne hartzen dituzte, baina GZESren prestazio eta zerbitzuen zorroa gainditzen dute, eta, nagusiki, harreman-izaerako prestazio teknikoak, autonomia eta gizarteratzea sustatzeko laguntza gisa egituratuak, bai eta prestazio teknologiko eta ekonomikoak ere.

Plan estrategikoak, beraz, bere baitan hartzen ditu herritar guztiak ahalik eta autonomia handienaz gizarteratzea sustatzera bideratuta dauden gizarte-zerbitzuak eta, bereziki, GZES, bai eta GZESren, berezko dituen baliabideetatik, eta gizarte-babeseko sistema bakar bat osatzen duten beste sistema publiko batzuen arteko lankidetzaren, gizarteratzearen, kohesioaren eta gizarte-ongizatearen mesedetan.

Erkidego-eredua eta Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparrua

Gizarte Zerbitzuen Legearen 7. artikulua ezartzen duenez, hauek dira Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema arautuko duten printzipioak: erantzukizun publikoa, zuzeneko kudeaketa publikoaren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketaren nagusitasunarekin; unibertsaltasuna; berdintasuna eta ekitatea; hurbiltasuna, prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa; arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraitasuna; diziplinen arteko esku-hartzeak; koordinazioa eta lankidetzaren administrazio publikoen artean, irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimen pribatuarekin eta gainerako ekimen pribatuarekin, lege honetako V. tituluaren ezarritako eran; gizarte-ekimena sustatzea; herritarren parte-hartzea; eta kalitatea.

8. artikulua erkidego-eredua GZESren eredutzat hartzen du: <<Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema erkidegoa oinarri duen ikuspegiaren arabera jardungo da, alegia, zerbitzu eta prestazioen hurbiltasunaren ikuspegiaren arabera, eta, horretarako:

- a) baliabideak eta esku-hartzea tokian tokiko erkidegoaren ezaugarrien arabera izan daitezen saiaturiko da, eta, horretarako, beharrezkoak izendatu eta ebaluatzeko orduan, pertsonen eta erakundearen parte-hartzea izango du lagungarri.
- b) pertsonen arreta beren ohiko ingurunean emateko modua eskainiko du, ahal dela beren bizitokian, eta ohiko bizilekuan jarraitzeko modurik ez dutenean, beren ohiko ingurunearen ordezkari egokiak aurkitu behar dira, neurriagatik eta hurbil egoteagatik egokiak diren egoitza ordezkariak, alegia;
- c) kasu bakoitzerako egokia den esku-hartzea diseinatuko du, beharrezkoak ebaluatuz arreta pertsonalizatuko plan baten esparruaren barruan; plan hori, arreta-ibilbideen jarraitasuna eta koherentzia bermatzearen, erabiltzailearen parte-hartzearekin egingo da eta ebaluazioko eta berrikuspen aldizkako mekanismoak jasoko ditu plana pertsonen beharrezkoak egokitzen zaien jakiteko;
- d) pertsona edo familia bakoitzari erreferentziako profesional bat izendatuko zaio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, arreta-ibilbideen koherentzia eta esku-hartzearen arteko koordinazioa 19. artikuluan ezarritako moduan bermatze aldera;
- e) diziplina arteko esku-hartzea izatea bermatuko du, arreta integrala eta jarraitasun-irizpideen arabera eskaintze aldera;
- f) prestazio, zerbitzu, programa eta jardueraren guztietan prebentzio-ikuspegi bat sartuko du, eta, ahal dela, gizarte-arriskuak edo -beharrezkoak azaldu edo larriagotu baino lehen esku-hartuko du>>.

Europar Batasuneko Gizarte Babeserako Batzordearen *Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparrua*, Interes Orokorreko Gizarte Zerbitzuei (IOGZ) buruzkoa (zerbitzu sozialak, sanitarioak, hezkuntzakoak...) –, koherentea da erkidegoko arreta-ereduarekin, eta adierazle zehatzak

ezartzen ditu zerbitzu horien horniduraren ezaugarri izango diren dimentsioei lotuta: pertsonalizatzea, osotasuna, arretaren jarraitutasuna eta hurbiltasuna, prebentzioa, parte-hartzea eta abar.

Printzipioak gizarte-zaintzen ereduari aplikatzea

Adierazi den bezala, zaintzen gizarte-antolamenduaren ereduaren ezaugarri nagusiak ongizate-ereduari lotutako **sei aukera eta funtsezko printzipio** dira, eta hainbat ekintzatan zehazten dira:

1. *Emakumeen eta gizonen berdintasuna, eta genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala.*
 - Ordaindu gabeko zaintza-lana aitortuz, murriztuz eta birbanatuz, eta familia- eta erakunde-zaintzaren lanaren ordezkariak sustatuz (4R).
 - Arreta berezia eskainiz zainduei eta zaintzaileei (gehienak emakumeak) eragiten dieten askotariko diskriminazio-egoerei.
2. *Erkidegoan erakunde-zaintza eta -arreta (lehen eta bigarren mailakoa) indartzea.*
 - EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta lurralde-mapak hedatuz.
 - Aurrera eginez arreta-piramidea alderantzizkatzean, erkidego-arretaren ehunekoa handituz, egoitza-ingurune arretari dagokionez.
 - GZESren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa ebaluatuz, esperientziaren arabera, gizarte-aldaketetara eta helburu estrategikoetara egokitzeko, eta malgutzeko, laguntzak pertsonalizatze aldera.
3. *Zaintzen integraltasuna, jarraitutasuna eta pertsonalizazioa (laguntzak), bai erkidegoan, bai egoitzan, erkidego-ereduaren arabera.*
 - Erkidegoan zaintzak indartuz, lidergo publikotik eta sektoreen arteko lankidetzatik (4S), eta lehen eta bigarren mailako arreta konektatua, integrala, jarraitua, pertsonalizatua, prebentiboa, parte-hartzailea eta hurbila bultzatuz, bai eta kasu konplexuetan ere, nahi ez diren eta beharrezkoak ez diren instituzionalizazioak saihestuz.
 - Lankidetzak publiko-publiko eta sektoreen artekoak sustatuz, helize laukoitzaren ikuspegiarekin, zaintzen, gizarte-zaintzen eta osasun arloko zaintzen tokiko ekosistemen moduko ekimenen bidez.
 - Etxean bizi direnei eta senitarteko zaintzaileei arreta integrala ematea bultzatuz, etxeTIC eta antzeko eredu integratuen bidez.
 - Etxean Bai eta antzeko programen bidez baloratu ondoren beharrezkotzat jotzen diren laguntza dibertsifikatu eta moldakorrak (fisikoak, gizatiarrak eta teknologikoak) eskainiz.
 - Erkidegoan bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen etxebizitza eskuratzea eta gizarte-zaintzak (laguntzak) konbinatzea sustatuz, bai eta iraupen luzeko programetan ere.
 - Egoitza-zentroak dibertsifikatuz, bizikidetzak-unitateen tamaina murriztuz eta etxetat hartuz, bai eta egoitza-ingurunean harremanetan oinarritutako arreta-eredua garatuz ere, zentroa bera erkidego gisa ulertuta.
4. *Bizitza osoan autonomia sustatzea, norberaren gaitasunak egikaritzeko eta zabaltzeko eskubidearen adierazpen gisa, bai eta autonomia- eta autodeterminazio-printzipioak sustatzea ere.*
 - Gaitasunak sustatuz eta pertsonentzako eta familientzako laguntzak pertsonalizatuz, haien parte-hartzearekin, horiek konbinatuz eta gaitasunen eta beharren bilakaerara egokituz bizitza amaitu arte.
5. *Zainduen eta zaintzea aukeratzen duten senitartekoen eskubideak aitortzea eta baliatzea:* zainduen eta zaintzailearen erakunde-zaintza (informazioa, orientazioa, prestakuntza, atsedena), enpleguari eustea eta kontziliazio erantzukidea (baimenak, enpleguaren eta zaintzaren arteko joan-etorriak) eta gizarte-babesa (erretiroaren osteko diru-sarrerak).
 - Senitarteko zaintzaileen edo zaintzaile "informalen" estatutua onartzea, GZESren zeharkakoa.
6. *Familia- eta erkidego-zaintza babestea gizarte-balio gisa.*
 - Senitarteko helduak modu aske, kritiko eta mugatuan zaintzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatuz: erantzukidea, bateragarria, erakunde-zaintzarekin uztargarria.
 - Bizilagunen laguntza informaleko sareak, erkidego-babeseko programak, sareak eta elkarri laguntza emateko erakundeak bultzatuz.

Gizarte Zerbitzuen Legearen printzipioak GZESren dinamikan aplikatzea

GZESren erakunde-arkitektura koherentea da erkidego-ereduarekin eta, bereziki, hartzailleek politiketan duten hurbiltasun- eta partaidetza-printzipioekin; izan ere, printzipio horiek zerbitzuen deszentralizazioa eragiten dute, eta ez zerbitzuen deskontzentrazio hutsa, eta lurralde bakoitzaren arabera arreta-politikak eta -sareak diseinatzea bermatzen dute.

Izan ere, GZES bera prestazioen eta zerbitzuen sareen erantzukizun publikoaren eremuko loturan oinarritzen da, artatzen dituen lau kontingentziei (mendetasuna, babesgabetasuna, bazterketa, desgaitasuna) erantzuteko hiru lurralde historikoetan sortu baitziren, haien testuinguru, behar eta gaitasunekin bat etorritz.

Esparru horretan eta arkitektura horrekin, legeak, hain zuzen ere bere eskumen-araubidean, sistema osatzen duten euskal administrazio publikoen hiru mailetako zenbait eskumen ezartzen ditu, eta eskumen horiek garatzea ezinbestekoa da sistema deszentralizatua eratzeko.

Sistema horrek, aldi berean, unibertsaltasunaren, berdintasunaren eta ekitatearen printzipioei erantzungo die, erkidego-ikuspegiaren edo -ereduaren berezko printzipioez gain. Printzipio horiek erantzukizun publikoko sistema edo sare gisa ezaugarritzen dute, eta gizarte-babeseko euskal sisteman integratuta egongo da.

Eta, eskumen horien artean, sistemaren kudeaketa integratua bultzatzeko, legearen 40. artikulua Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkion eginkizunak, ezinbesteko koordinazioa gauzatzuz.

Eginkizun hauek barne hartzen ditu:

- erregelamenduak egiteko ahala;
- EAEn zerbitzuen plangintza orokorra;
- GZESren eta beste sistema eta politika publiko batzuen arteko koordinazio orokorra;
- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) diseinatzea eta mantentzea;
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB) zuzendu, antolatu eta bultzatzea;
- gizarte-zerbitzuen arloko prestakuntza, arretaren kalitatearen hobekuntza, berrikuntza eta ikerketa sustatzea;
- eta gizarte-ekintzako hirugarren sektorea (hirugarren sektore soziala) eta herritarren parte-hartzea sustatzea.

erantzukizun publiko eta deszentralizatuko sistema unibertsal bat sendotzeko bidean aurrera egiteko, are gehiago trantsizio-egoera batean, eginkizunak eraginkortasunez garatu behar dira, irizpide, prozedura eta tresna zehatzak garatzea eskatzen duen kide anitzeko gobernantzako eredu baten barruan, sareko lanaren, lankidetzaren publiko-publikoaren eta ikasten duten administrazioen ikuspegitik.

Gainera, funtsezkoa da GZES eta haren eginkizuna gizarte-babeseko euskal sisteman behar bezala txertatzea, gainerakoekiko dimentsio egokia emanez eta horien guztien artikulazioa hobetuz. Eta, ildo horretan, oinarri-oinarrizkoa da sistemen arteko elkargune- eta lankidetzaren espazioak definitzea, eta, aldi berean, horietako bakoitzak inklusioaren, kohesioaren eta gizarte-ongizatearen gainean duen erantzukizuna zehaztea.

Alde batetik, GZES, 12/2005 Legeak sistema moderno gisa eratzen du eta herritar guztiak ahalik eta autonomia handienaz gizareratzea du ardatza; hala ere, premiei erantzuten jarraitzen du, hala nola etxebizitzaren premiari, zeina unibertsaltzat ere definitu diren eta eskubide subjektiboak onartzen dituzten beste sistema batzuei dagokien.

Bestalde, gero eta maizago, gizarte-errealitate eta -premia askori ezin zaie azpisistema batetik soilik ekin, eta gizarte-babeseko euskal sistemaren azpisistema desberdinak inplikatu dituzten maila anitzeko eta sektorearteko politika publikoak behar dituzte (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, diru-sarreraren bermea eta gizarteratzeko politikak, enplegu-politika aktiboak eta etxebizitzaren gizarte-babeseko politikak).

Koordinazio eta lankidetzaren sendoa oinarritzen diren politikak, azpisistema bakoitzaren eta lankidetzari lotutakoen helburuen definizio zehatzean oinarrituak, bai eta lankidetzari bultzada emateko irizpideen,

kanal eta prozeduren definizioan ere. Politika publiko lerrokatuak, elkarren artean koherenteak, sartzeko baldintza eta sistema harmonizatuak, etab., Basque Country 2030 Agendan aurreikusitakoaren ildotik.

4.2. GOBERNU PROGRAMA ETA BESTE PLAN ETA ESTRATEGIA BATZUK

4.2.1. Plan estrategikoa Gobernu Programarekin lotzea

Plana XII. Legegintzaldiko Gobernu Programak egiaztatzen dituen bi beharriaren hari berekoa da:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari bultzada berri bat ematea, euskal gizarteak dituen erronketara egokitzeko, eta erronka demografikoan arreta berezia jartzea (7. or).
- Gizarte-politikak indartzea, babes-sistemarekiko zeharkakoak, eta orobat gizarte-zerbitzuak garatzea, desberdintasun- eta bazterketa-egoerei erantzuteko (8. or.).

Bi helburuek lotura dute honako hauekin:

- Bizi-itxaropena handitzea, zahartzea eta gizartea gero eta askotarikoagoa izatea. Horiek GZES egokitzeko eskatzen dute, eta adinekoen gizarte arloko partaidetzarako eta enplegurako aukera ere badira; gizarte-zerbitzuak nitxo bat dira.
- Euskal gizartea kohesionatuta dagoenez, eta azken bost urteetako lorpenak oso garrantzitsuak izan direnez, bazterketan eta desberdintasunean eragiten duten faktoreek sor jarraitzen dute, eta, oraindik ere, Gini koefizientearen hobekuntza-joera alderantzikatu egin da ulean-ulean. Faktore horiei ekin egin behar zaie gero eta gizarte bidezkoagoa, ekitatiboagoa eta solidarioagoa lortzeko, inor atzean utzi gabe.

Ildo horretan, planak lotura du bizi-itxaropena 85 urtera handitzearekin eta langabezia % 10etik behera murriztearekin, herrialdearen helburu gisa. Eta desberdintasuna dimentsio anitzekoa bada ere, Gini koefizientearen planaren eraginaren adierazlea da.

Esparru estrategikoak eta planak erantzuten dioten Gobernu Programaren beste konpromiso bat 94. konpromisoa da, eta, zehazki, 7. ekimena: <<Zaintzak berdintasun-politiken erdigunean jartzea, gero eta erantzunkideagoa den gizarte-antolakuntza batean aurrera egiteko eta kontziliaziotik erantzunkidetasunerako trantsizioa egiteko>>.

Gizarte-zaintzako politikarekin lotuta planteatutako esparru estrategikoak barne hartzen du gizonek zaintzan duten erantzunkidetasunaren ikuspegi hori, baina beste sektore batzuekin lankidetzan – besteak beste, erkidego- eta familia-sektoreekin – zaintzen gaineko lidergoa eta erantzukizun publikoa hartzerantz hedatzen du. Horiek horrela, beharrezkotzat jotzen da familia-zaintzaren pisua murriztea, emakumeen pisua ez gizonena (erantzunkidetasunaren planteamendutik) erakunde-zaintzari dagokionez (erantzukizun publikokoa).

II. Plan Estrategikoak gizarte-zerbitzuekin eta, bereziki, GZESrekin eta zerbitzu soziosanitarioekin lotutako gizarte-politiken jarduketa-arloko konpromisoak eta ekimenak ditu ardatz (12.1 jarduketa-arloa – Gizarte Politikak eta Gazteria/Gizarte Zerbitzuak eta Zerbitzu Soziosanitarioak).

Eta, Gobernu Programak bezala, gizarte-politikekin lotutako beste konpromiso eta ekimen batzuk ere biltzen ditu. Horiek, kolektibo edo kontingentzia jakin batzuetan zentratuta, gizarte-babeseko euskal sistema osatzen duten sistemekiko zeharkakoak dira, GZES barne.

Gizarte-zerbitzuei eta zerbitzu soziosanitarioei buruzko konpromisoak 76tik 80ra bitartekoak dira, eta zeharkako politikei buruzkoak (horien lidergoa gaur egun Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumen-eremuan dago) 81etik 90era bitartekoak. Planak horiek guztiak azpimarratzen ditu, baina zuzenean lotzen da 76., 78. eta 80., 81-84., 86., 88. eta 90. konpromisoekin.

Jarraian, horiek guztiak aipatzen dira, eta, ondoren, plan estrategikoarekin zuzenean lotutako ekimenak.

12. Jarduketa-arloa. Gizarte-politikak eta Gazteria			
12.1 Gizarteratzea. Gizarte-zerbitzuen eta Zerbitzu Soziosanitarioen Euskal Sistema			
76	Bazterketa-arriskuko egoeran dauden pertsonen arreta emateko lurralde-sareen finkapena babestea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
77	Zaugarritasun eta babesgabetasun bereziko egoerei arreta ematea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
78	Gizarte-zerbitzuen euskal sistema garatzea erkidego-ikuspegia kontuan hartuz eta kalitateko, berrikuntzako, zaintzen oreka berriko eta eraginkortasuneko printzipioetan oinarrituz	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
79	Gizarte- eta erkidego-garapena indartzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
80	Gizarte-zerbitzuen berrikuntza eta ebaluazioa eta kalitatea sustatzea, emaitza-irizpideekin eta erabilgarritasun publikoko irizpideekin	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
12.2 Adinekoak			
81	Bultzada estrategikoa ematea zahartze aktiboari eta adinekoen autonomia pertsonala, parte-hartze soziala eta bizitza osoa eta osasuntsua sustatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
82	Bakardade-egoeran dauden adinekoak laguntzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
83	Laguntzaren kalitatea bermatzea eta arreta indartzea adinekoen etxeetan zein horien ingurune hurbilean	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
84	Adineko pertsonen zerbitzurako jarduera ekonomikoa eta gizarte-berrikuntza sustatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA

			9. GJH INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
12.3 Familiak eta Haurrak			
85	Seme-alabak dituzten familiak laguntzeko eta jaiotze-tasa sustatzeko estrategia integrala garatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
86	Haurren babeserako, prebentziorako eta promoziorako plan integrala	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
12.4 Migrazioa			
87	Migrazio-egitatearen aurreko harrera-, integrazio- eta erantzunkidetasun-kultura zibikoa sustatzea eta hedatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
88	Migratzaileak hartzeko estrategia global bat finkatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
89	Asilo-politikaren euskal eredu bat definitu eta sustatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
90	Kalteberatasun-egoeran dauden migratzaileentzako babesa eta estaldura eta laguntza	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	1.GJH POBREZIA DESAGERRARAZTEA 10.GHJ DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Konpromisoen araberako ekimenak eta proiektu eragileak nahiz jarduketa osagarriak

Plana egitea Gobernu Programaren ekimen bat da (78. konpromisoa. 1. ekimena).

Jarraian, konpromisoari lotutako beste ekimen batzuk aurkezten dira, planak zuzenean eragiten dienak, bai eta horiei lotutako proiektu eragileak edo jarduketa osagarriak ere.

KONPROMISOEN ARABERAKO EKIMENAK	PROIEKTUAK edo JARDUKETAK
76. konpromisoa 2. ekimena. Aurrera egitea lurralde bakoitzean gizarte-zerbitzuen sarea zabaltzeko, gizarteratzeko ibilbide desberdinekiko modu koherentean eta integratuan.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bazterketa-sarearen deskontzentrazioa eta antolaketa ▪ Gizarte Zerbitzuen II. Mapa zabaltzea
77. konpromisoa 1. ekimena. Ekimena etxerik gabeko pertsonekin, pobrezia energetikoarekin eta bereziki ahulak diren pertsoneri (adinekoak, gazteak, haurrak, ezgaituak...) eragiten dizkieten bestelako egoera batzuekin lotutako prebentzio- eta kudeaketa-jarduketak indartzea, arreta berezia emanez diskriminazio anitzeko egoerak jasaten dituztenei eta/edo gizarte-babeseko sarerik ez duten pertsoneri (nahi gabeko bakardadea...).	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxerik gabeko Pertsonentzako II. Euskal Estrategia (EGPEE) ▪ Krisien ondoriozko gizarte-larrialdiko egoerei emandako erantzunak ▪ Nahi gabeko bakardadeen eta bakartze sozialaren Euskal Estrategia ▪ Diskriminazioaren Euskal Behatokia
77. konpromisoa 2. ekimena. Europar Batasunaren gomendioei jarraikiz, haur-bermeko programa sustatzea, haurren pobrezia aurrerako estrategia globalaren funtsezko elementu gisa, ardurapeko seme-alabak dituzten familientzako diru-sarrerak bermatzeko errenta hobetuz.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE), Aukerak Suspertzen programa barne
78. konpromisoa 2. ekimena. 2015eko Zorroari buruzko Dekretua ebaluatzea eta katalogoaren plangintzan, koordinazioan eta arau-garapenean aurrera egitea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zorroari buruzko Dekretuaren ebaluazioa eta arau-garapena
78. konpromisoa 3. ekimena. GZESren prestazioen eta zerbitzuen zorroa amaitzea, batez ere, adinekoentzako arretari dagokionez.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Zerbitzuen II. Mapa zabaltzea ▪ Zorroari buruzko Dekretuaren ebaluazioa eta arau-garapena
78. konpromisoa 4. ekimena. Adinekoen egoitzak arautzen dituen dekretua egokitzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Egoitza-zentroen egokitzapena.
79. konpromisoa 1. ekimena. Hurbiltasun handieneko prestazioak eta zerbitzuak indartzea, arretako erkidego-ereduan eta Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparruan sakonduz (interes orokorrekoa)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxean eta erkidegoan arreta eskaintzeko eredia garatzea ▪ Gizarte Zerbitzuen II. Mapa zabaltzea ▪ Bazterketa-sarearen deskontzentrazioa eta antolaketa ▪ Etxerik gabeko Pertsonentzako II. Euskal Estrategia
79. konpromisoa 2. ekimena. Programa integral bat abiaraztea gizarteratzerako babesak antolatzeke, hobetzeko eta bermatzeko, zehazki, gizarteratze-hitzarmenen bidez eta erreferentziako profesionalak esleituz, betiere diru-sarrerak bermatzeko politikaren eta bestelako politiken (gizarte-zerbitzuak, gizarte-lanekoak, soziosanitarioak...) arteko osagarritasuneko berariazko premien arabera. Inklusio Planarekin lotura.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Iraupen luzeko zaintzen, gizarte-zaintzen eta zaintza soziosanitarioen estrategia eta ekimen berritzaileak ▪ Berrikuntza-poloak, Europako poloa eta mugaz haraindiko ekimenak ▪ Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia 2021-2024 (EASSE)
79. konpromisoa 3. ekimena. Arreta-piramidea iraultzeko jarraitzea eta estrategia integral bat planifikatzea, bere ohiko etxebizitzan bizi diren pertsonentzako zerbitzuak indartuz, bizitzeko erabateko autonomia bermatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bizimodu independentearen eredia bultzatzea ▪ II. GZPEren orinetazioa eta aginte-koadroa

KONPROMISOEN ARABERAKO EKIMENAK	PROIEKTUAK edo JARDUKETAK
80. konpromisoa 1. ekimena. Gizarte-berrikuntzako sistema bat eta I+G+b sistema bat abiaraztea gizarte-zerbitzuen eremuan.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema ▪ Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia
80. konpromisoa 2. ekimena. Erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen ebaluazioa indartzea, arreta berezia jarriz pertsona hartzaileengan eta horien familiengan, bai eta ezagutzaren sistematizazioa eta transferentzia ere.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia ▪ Kalitatearen Ebaluazioa ▪ Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema
80. konpromisoa 3. ekimena. Eten digitala murrizten saiatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskadiko Haur Bermearen Estrategia - Aukerak Suspertzen ▪ Politika esperimentalak adineko autonomoekin ▪ Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia - Dokumentu-zaurgarritasuna
80. konpromisoa 4. ekimena. Sustatzea etxeko arretarekin eta erabiltzaileen zein horien zaintzaileen eta senitartekoen zaintzarekin lotutako teknologia eta aplikazio digital berritzaileen sarbidea, garapena eta ezarpena errazten dituzten proiektuak.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Iraupen luzeko zaintzen, gizarte-zaintzen eta zaintza soziosanitarioen estrategia eta ekimen berritzaileak ▪ Berrikuntza-poloak, Europako poloa eta mugaz haraindiko ekimenak ▪ Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia - Dokumentu-zaurgarritasuna
81. konpromisoa 1. ekimena. Adineko herritarrak aholkatzea eta ahalduntzea interesatzen zaizkien gaietan eta eremuetan: oinarrizko finantza-prestakuntza, jaraunspenak eta bizi-testamentua.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Politika esperimentalak adineko autonomoekin (Altxor 7.0)
81. konpromisoa 5. ekimena. Zahartze aktiboko indize europarrarekin lerrotatutako zahartze aktiborako euskal estrategia bat onestea. OHARRA: II. GZPEko ekimenak beste batzuekin antolatzen dira Adinekoekiko Euskal Estrategian, zahartze aktiboa barne hartzen duen bizitza betearen ikuspegiarekin.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Politika esperimentalak adineko autonomoekin ▪ Iraupen luzeko zaintzen, gizarte-zaintzen eta zaintza soziosanitarioen estrategia eta ekimen berritzaileak ▪ Berrikuntza-poloak, Europako poloa eta mugaz haraindiko ekimenak
81. konpromisoa 6. ekimena. Hirugarren adinerako trantsizioa prestatzeko programa berri bat sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Politika esperimentalak adineko autonomoekin
81. konpromisoa 8. ekimena. Adinekoen talentua baliatzea eta sustatzea, politika publiko guztietan parte har dezaten babestuz.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Politika esperimentalak adineko autonomoekin (Euskadiko Adinekoen Batzordea eta Nagusi Agenda)
82. konpromisoa 1. ekimena. Nahi gabeko bakardadearen aurka borrokatzeko erakunde arteko plan bat abiaraztea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nahi gabeko bakardadearen eta bakartze sozialaren Euskal Estrategia
82. konpromisoa 2. ekimena. Telelaguntzako zerbitzua hedatzea 80 urtetik gorako pertsona guztietara eta, apurka-apurka, 65 urtetik gorakoetara eta, zerbitzu horretatik, bakarrik dauden pertsoneri arreta profesionala emateko berariazko lerro bat abiaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Zerbitzuen II. Mapa zabaltzea
82. konpromisoa 3. ekimena. Gizarte-zerbitzuetako profesionalekin koordinazioan, lehen mailako solidaritateko eta gizarte boluntariotzako berariazko programa bat garatzea, adinekoen bakartze soziala txirotasun, menpekotasun eta/edo gaixotasuneko egoerekin elkartzen den egoerak goiz detektatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nahi gabeko bakardadearen eta bakartze sozialaren Euskal Estrategia
83. konpromisoa 1. ekimena. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak indartzea, adinekoek etxean ematen zaien arreta hobetzeko.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Zerbitzuen II. Mapa zabaltzea

KONPROMISOEN ARABERAKO EKIMENAK	PROIEKTUAK edo JARDUKETAK
83. konpromisoa 2. ekimena. Zaintzaileek atsedean hartzeko programak indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Zerbitzuen II. Mapa zabaltzea
83. konpromisoa 3. ekimena. Beren etxeetan edo egoitzetan bizi diren adinekoentzako arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatzea, osasun-laguntzako lehen mailako sarearekin koordinatuta egongo dena.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Iraupen luzeko zaintzen, gizarte-zaintzen eta zaintza soziosanitarioen estrategia eta ekimen berritzaileak ▪ Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia 2021-2024(EASSE)
83. konpromisoa 4. ekimena Zaintzaileak laguntzeko euskal estrategia abian jartzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Familia Zaintzailei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria 2021-2030 (FZLESS)
83. konpromisoa 5. ekimena. Zaintzaileen estatutua onartzea, gizonen erantzunkidetasuna sustatuz adineko senitartekoen zaintzetan, zehazki, sentsibilizazio-, kontziliazio- eta trebakuntza-neurrien bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Familia Zaintzailei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria 2021-2030 (FZLESS)
83. konpromisoa 6. ekimena. Adinekoei arreta emateko bulegoak irekitzea hiru lurralde historikoetan, erakunde eskudunekin koordinatuta.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Politika esperimentalak adineko autonomoekin (Altxor 7.0)
84. konpromisoa 2. ekimena. Gizarte-berrikuntzako interesguneak finkatzea eta indartzea adinekoentzako arretaren eremuan: Adinberri Gipuzkoan, Nagusi Intelligence Center Bizkaian eta Zahartzeari buruzko Ikerketa Zentroa Araban.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Berrikuntza-poloak, Europako poloa eta mugaz haraindiko ekimenak ▪ Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema
84. konpromisoa 3. ekimena. “Silver economy” delakoaren eremuan enpresa-ekimenak eta gizarte-berrikuntza bultzatzea, lerro hori indartuz egungo deialdietan eta laguntza-programetan.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Berrikuntza-poloak, Europako poloa eta mugaz haraindiko ekimenak ▪ Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema
84. konpromisoa 4. ekimena. Ikerketa aplikatuko proiektuak sustatzea adinekoekin lotutako produktuetan eta zerbitzuetan.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Iraupen luzeko zaintzen, gizarte-zaintzen eta zaintza soziosanitarioen estrategia eta ekimen berritzaileak ▪ Berrikuntza-poloak, Europako poloa eta mugaz haraindiko ekimenak ▪ Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema
84. konpromisoa 5. ekimena. Jardunbide kulturalak sustatzea adinekoen artean	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Politika esperimentalak adineko autonomoekin
85. konpromisoa 5. ekimena. Kontziliazio erantzunkidea indartzea, lan-bizitzaren eta aitatasun positiboaren kontziliazioa sustatzen duten neurriekin, etxeko lanen eta zaintzen gizonen eta emakumeen arteko banaketa zuzen eta berdinkidean aurrera egiteko, Lan eta Enplegu Sailarekin lankidetzan.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-ekimenak
86. konpromisoa 1. ekimena. Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko lege bat onestea, haurtzaroaren eta nerabezaroaren babes, prebentzio eta sustapeneko sistema arautze eta garatze aldera.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Haurren eta nerabeen eskubideen Lege integrala
88. konpromisoa 1. ekimena. Euskadira heltzen diren migratzaileak hartzeko euskal eredia onestea eta ezartzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Harrerarako euskal eredia + Trapezistak zabaltzea

KONPROMISOEN ARABERAKO EKIMENAK	PROIEKTUAK edo JARDUKETAK
89. konpromisoa 1. ekimena Espainiako Gobernuarekin akordio bat gauzatzea, Euskadik errefuxiatu eta nazioarteko babes-eskatzailleen harrera eta integrazioarako politikak kudeatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Harrerarako euskal eredua + Trapezistak zabaltzea
90. konpromisoa 1. ekimena. Erakunde arteko lankidetzaz bultzatzea, bakarrik dauden haur migratzaileei behar duten babesak bermatzeko, horrela gizarteratzeko ibilbideak egin ahal izateko. Gainera, heldutasunerako trantsizioan babesgabatasuna saihesten saiatuko da.	<ul style="list-style-type: none"> Harrerarako euskal eredua + Trapezistak zabaltzea (Euskarri Estrategiaren barruan)
90. konpromisoa 2. ekimena. Kalteberatasun-egoeran dauden adingabe eta gazte migratzaileak gizarteratu eta laneratu daitezzen sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Trapezistak

Ikuspegi integrala eta zeharkako politikak

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak gidatzen dituen zeharkako politikekin eta gizarte-babeseko euskal sistemako beste eremu eta sistema batzuekiko elkarguneekin lotutako guneei buruzko aurreikuspenak bat datoz Gizarte Zerbitzuen Legearen 40. artikuluan ezarritakoarekin.

Izan ere, lege horrek Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio GZESren koordinazio orokorra, bai eta gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ongizatean eragin zuzena duten sistema eta politika publikoen arteko koordinazio-mekanismoak ezartzea ere, bereziki osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, enpleguaren, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arlokoak, bere eskumeneko lurralde-eremuan.

Gizarte-babeseko euskal sistemaren ikuspegi integral horrek zaintza-politika integrala eta, beraz, zeharkakoa (gizarte-, osasun- eta hezkuntza arloko zaintzak) osatu beharko luke bizitzan zehar. Halaber, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumenak gainditzen ditu, bai eta gizarte-zerbitzuen plan estrategiko baten benetako aukerak ere, baina identifikatutako jarduketak osagarriek gai zehatzetan eragiten dute, eta gai horietan aurrera egin behar da eremu soziosanitarioen arteko elkarreragin-espazioetan, eta, zehazki, eremu soziosanitarioan eta hain garatuak ez dauden baina oso garrantzitsuak diren beste batzuetan, hala nola gizarte- eta bizitegi-arloan, bai eta zeharkako helburuetan ere, hala nola berdintasunean, inklusioan eta gizarte-kohesioan.

Horrela, bada, zeharkako ikuspegi batetik, honako hauek dira jarduketak osagarriekin zerikusia duten edo izan dezaketen konpromisoak: 7.a (zailtasun handienak dituzten pertsonak laneratzea eta enplegua eskuratzea), 11.a (diru-sarrerak bermatzeko sistema), 12.a (gizarteratzeko euskal plana), 36.a (Bultzatu 2030 Hiri Agenda), 37.a eta 39.a (etxebizitza), 59.a (lanbide-heziketa), 71.a (lehen mailako arreta indartzea, laguntza-integrazioan aurreratuz) eta 73.a (osasun-ikerketa).

Horiek XII. Legegintzaldiko Gobernu Programan mantentzen diren lan-ildoak osatzen dituzten bitartean, lotura-puntuak identifikatu eta plana garatu bitartean neurriak hartu ahal izango dira.

4.2.2. Plana beste estrategia eta plan batzuekin lotzea

Plana planak eta strategiak ebaluatu eta egiteko hainbat prozesurekin lotzen da, eta plana prozesu horietan kokatu behar da edo planak kontuan hartu behar ditu garatzean. Izan ere, helburu estrategikoekin lerrokatzen dira, baina dokumentu honetan ez dira jasotzen plan eta estrategia horiek barne hartzen dituzten ekimenak, ez eta horiek oinarritzen diren diagnostikoa ere.

Horietako batzuek XII. legegintzaldiko denbora-jomugatik gorako denbora-jomuga dute, eta honako hauek dira:

- II. GZPErekin lotutako zeharkako strategiak: *Erronka Demografikorako Euskal Estrategia*, Eusko Legebiltzarrean 2022an aurkeztua eta egiaztatua.

- II. GZPE egitean kontuan hartu diren zeharkako estrategiak eta planak, daukaten xedearekin elkarlotuta dauden neurrian (GZES eta gizarte-zerbitzuen esparrua eta gizarte-babeseko sistemaren beste esparru eta sistema batzuekiko interakzio-espazioak):
 - *Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia 2021-2024.*
 - *Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria 2021-2030*, denbora-ibilbide zabalekoa, zaintzen arloko trantsizio-politikarekin lotuta dagoenez.
 - *Euskarri estrategia*, familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileei laguntzeko.
 - *IV. Gizarteratze Planaren ebaluazioa eta V. Gizarteratze Plana.*
 - *2018-2021 aldirako Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren ebaluazioa*, 2022an etxerik gabeko pertsonen zenbaketa, pandemiaren osteko lehena, eta Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (abian).
 - *Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiaren ebaluazioa eta Adinekoekiko Euskal Estrategia.*
 - *Haur Bermearen Euskal Estrategia* (egiten).

Gainera, gero estrategietan txertatu diren ikuspegiak eta ekimenak bultzatu dira.

- Hala gertatu da Euskarri Estrategian txertatuta dagoen Trapezistak programarekin, familia-laguntzako sarerik gabeko gazteentzako arreta migrazio- eta gazteria-politika normalizatueta kokatzea eragin duena, GZESn egin ordez, eta, zehazki, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden eta etxerik ez duten pertsonentzako arreta-sarean.
- Era berean, adinekoei dagokien esparruan, Eusko Jaurlaritzak bizitza betearen ikuspegia bultzatu du, –Helduak Adirekin (Helduak Adi!) eta Euskadiko Adinekoen Batzordearekin (Euskadiko Elkarriketa Zibilerako Mahaiko Batzordea)– zahartze aktiboa txertatu eta gairitu duena, bizitzaren dimentsio guztiak txertatuz eta adinekoen bizi-proiektuak babestuz, parte-hartze kolektiboa txertatuta erkidegoan eragina duten proiektuetan eta adinekoei eurei eragiten dieten politiketan (*zahartze ekintzailea*).

Ikuspegi hori hiru proiektu pilotu diseinatzean eta zabaltzean txertatu da, proiektuarekin lerro berean kokatuta eta elkarrekin konektatuta: a) Altxor 7.0 (adineko pertsonen proiektu, banakakoak eta kolektiboak garatzeko informazioa, orientazioa eta laguntza emateko zerbitzua, online eta aurrez aurre eskaintzekoa); b) Bizitza Betea (adinekoen bizi-proiektuak garatzeko trebakuntza-plana); c) eta Helduak Zabaltzen (adinekoen gizarte-zentroak eraldatzeko eta digitalizatzeko proiektua).

Hari horretan, egokia zela erabaki zen ekimen partzialetan ikuspegi berriak, estrategietan eta planetan txertatu baino lehen, zehazten eta entseatzeko hastea. Bizitza betearen ikuspegia, adibide gisa, proiektu horietan landu da, eta dagoeneko txertatu da II. GZPEN, Adinekoekiko euskal estrategian eta etorkizuneko Osasun Plana egiteko prozesuan.

Gobernu-programaz eta aipatutako plan eta estrategiez gain, GZPEk nazioarteko erreferentzia giltzarriekin ere bat egiten du jarraian aurkezten diren zaintzen esparruan.

4.3. IKUSPEGIA, ARDATZAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

4.3.1. Ikuspegia

I. GZPEren ikuspegiak 2016-2019 aldiko gogoetari erantzuten zion. Izan ere, funtsezko etapa bat zen GZES jardunaren bidez finkatzeko. 2015ean Zorroari buruzko Dekretua onetsi zen, eta lehenagoz Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen barneko katalogoarekin lotuta memoria teknikoa egin zen.

Testuinguru horretan, hona hemen ikuspegiaren definizioa:

<<GZES erantzukizun publikoko sistema unibertsal gisa finkatzea, eskubide subjektibo modura zerbitzuak eta prestazioak eskuratzea bermatu ahal izateko. Eta legeak aurrez ikusten duen arretaren erkidego-ikuspuntua edo -ereduarekin bat etorritik zabaltzea>>.

Ikuspegiaren adierazpenak argi eta garbi zehazten zuen planaren asmoa, eta 2016-2019 aldirako maparen (prestazioak eta zerbitzuak garatzeko helburuak) nahiz memoria ekonomikoaren bidez zehazten zituen.

Ildo horri jarraikiz, 2011tik 2019ra, araudiaren bitartez Zorroko prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko eskubide subjektiboa onetsi zen, eta jardunaren esparrura helarazi ere bai. Hala, ahalegin garrantzitsua egin zen (gastua diru-sarreraren aldean), eta gastu publiko arrunta 2011-2018 tartean % 21 gehitu zen, nahiz eta 2008. krisiaren aurreko zerga-bilketa 2017. urtera arte ez berreskuratu.

Ahaleginaren ondorioz, zentroetan plaza-kopurua eta zerbitzuen zein prestazioen erabiltzaileak igo ziren, estaldurak eta lurraldeen arteko konbergentziak areagotzeaz gain. Gainera, besteak beste, zerbitzu berriak edo urri garatutakoak bultzatu ziren, zerbitzuen gaineko eskumenak argitu ziren eta lehen erantzukizun publikoko sarean diruz lagundutako zerbitzuak txertatu ziren.

Oraingo trantsizioiko gizarte-testuinguruan, GZESren prestazioetarako eta zerbitzuetarako eskubidea bermatzeak, ordea, ez du eskatzen bakarrik sistema finkatzeko, bai eta eusteari begira indartu eta gizarte-aldaketetara (bereziki, trantsizio sozio-demografikoa eta digitala) egokitzeko ere.

Testuinguru horretan, II. Planaren ikuspegiak ez du helburutzat hainbeste GZES finkatzea, indartzea eta egokitzea baizik, batetik, bere zeregina betetzeko eta, bestetik, 2030eko hamarkadan eskubideak eraginkortasunez gauzaten jarraitzeko.

<<GZES indartzea eta gure ongizatearen eredu propioan sakontzea; horretarako, eredu familistatik zaintzen gizarte-antolaketako eredura pasatzea eta trantsizio sozial, demografiko eta digitalari aurre egitea, 2030eko hamarkadarako erkidego-ereduarekiko egokiagoa den erantzukizun publikoko sistema unibertsala bermatuta. Hala, arretaren piramidea irauli nahi da>>.

II. GZPEren helburua da GZES gizarte-aldaketetara, hiru trantsizioetara eta, bereziki trantsizio sozial eta demografikora, egokitzea, gizarte-zaintzen eredu berrirantz aurrerapausoei eta hiru krisiei eutsiz. Ildo horretatik, desberdinkeria, pobrezia eta bazterketaren arloetan etengabeko eragina murriztu nahi da, diagnostikoak aipatu duen bidetik. Kokapenean adierazten den bezala, euskal erakundeak, gainerako sektoreen laguntzaz, premiazko politikak eta trantsizio politikak landu dituzte azken bi krisietan (pandemia eta gerra) eta ondoren. Nolanahi ere, politika horiek eta nazioarteko aipamenak planaren lehentasun, ardatz eta helburu estrategikoen oinarritzko iturriak dira. Gainera, bigarren plan estrategiko honek lehenengoaren ebaluazioan identifikatu diren beharrei erantzuten die. Gizarte-testuinguruaren bilakaera aintzat hartuta, dagoeneko aurkeztu den II. Planerako zenbait gomendio ematen ditu.

Aipatutako iturriak oinarritzat hartuta, planak 5 ardatz eta helburu estrategiko aurrez ikusten ditu, eta lortzeko gizarte-zerbitzuen eta GZESren arloan proiektu eragileak eta bestelako jarduketa osagarri garrantzitsuak identifikatzen dira, beste sistema eta politika publiko batzuen laguntzaz, betiere ikuspegiari erantzute aldera. Era berean, aginte-koadroak ikuspegia eta helburuak eraginkor bihurtzen ditu adierazleen eta xedeen bidez.

4.3.2. Ardatz eta helburu estrategikoak

Lehenengo bi ardatzak –autonomia eta integrazioa– GZESren helburuari dagozkio: herritar guztien kasuan ahalik eta autonomiarik handienarekin gizarteratzea sustatzea. Hurrengo beste hirurek, ordea, GZESk jakinarazi behar dituen hiru ezaugarriekin lotuta daude, eta aldi estrategikoan azpimarratu nahi dira.

AUTONOMIA

- a) Kontingentzia guztietarako (desgaitasuna, mendekotasuna, babesgabetasuna, bazterketa) erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta indartzea, eta GZESren esparruan gastu publiko arruntean egoitza-arretaren aldean garrantzia areagotzea.
- b) Egoitza-arreta zabaltzen jarraitzea eta egoitza-zentroak adinekoentzat egokitzea: dibertsifikatzea, bizikidetzaren unitateen tamaina murriztea eta ahal den neurrian etxeko giroarekin parekatzea.
- c) Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, bizimodu independentearen eredia eta bizi-kalitatea bultzatzea; bizitzan zehar babes-sarea diseinatu eta zabaltzea, beren bizi-proiektua autonomiaz garatu ahal izateko eta gizartean oso-osorik sartzearen alde aurrerapausoak emateko.

INTEGRAZIOA

- d) Gizarteratzeari begira, beste sistema batzuekin lankidetzan, bazterketa-sarea indartzea eta honako hauetan aurrera egitea: deszentralizazioa, lehen eta bigarren mailako arreta antolatu eta jarraipena ematea, arreta malgutzea eta pertsonalizatzea eta prebentzio-ikuspegia izatea.

OREKA

- e) Erakunde-zaintzaren aldean (erantzukizun publikoa), familia-zaintzaren pisua murriztea, eta, horretarako, zaindarien erakunde-zaintza sendotzea; erakunde-zaintzarekin egituratuta, familia-zaintza aske, kritiko, erantzunkide eta mugaturako baldintzak sustatzea.

ARTIKULAZIOA

- f) GZESren kide anitzeko kudeaketa integratuan aurrera egitea, eta legearen 40. artikulua koordinazio-eskumenak betetzeko Eusko Jaurlaritzari ematen dizkion eginkizunak bultzatzea.

EKITATEA

- g) GZESren baliabideak erabili behar direnean, unibertsaltasunari eta ekitateari begira, kontingentzia guztien arretan eta GZES kudeatzean genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala aintzat hartzea, eta GZESren arreta aniztasunari egokitzea; diskriminazioari aurre egitea.

Autonomiaren eta gizarteratzearen ardatzei dagokienez, honako hauek aipatu behar dira:

- Nahiz eta ardatz bakoitzak bere ikuspegia (autonomia edo gizarteratzea) azpimarratu, biak konektatuta daude. Ildo horri jarraikiz, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze osorako aurrerapausoak emateak integrazioaren ardatzarekin lotura du.
- Pandemiaren egungo eta etorkizuneko inpaktuak, batez ere mendekotasunari eta bazterketari edo bietarako arriskuari dagokienez, justifikatzen du bi arreta-(azpi)sare horiek xehetasunez birpentsatzea, adinekoentzako egoitza-zentroak eraldatuz eta, bi kasuetan (mendekotasuna eta bazterketa), arretaren jarraitutasuna (luzetarakoa eta zeharkakoa) hobetuz, lehen mailako eta bigarren mailako arretaren arteko lotura indartuz, bereziki erkidegoko arretari dagokionez.
- Bestalde, I. GZPERen ebaluazioak azpimarratzen du beharrezkoa dela, orain arte baino intentsitate handiagoz, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea eta autonomia- eta autodeterminazio-printzipioak sustatzea, GZES osoak eta desgaitasunaren arloko erakundeak egituratzen diren sareek partekatutako eredu batetik abiatuta. Laguntza eta bizimodu independentearen eredia, bazterketaren esparrura eramaten denean, planteatu behar da printzipio berberetan oinarrituta sakontzea.
- Gizarteratzearen ardatzean, zeharkako jarduketa osagarriak dira nagusi, zeinak Gizarte-Babeseko Euskal Sistemaren beste sistema batzuekin lankidetzan egiten baitira gizarteratzea eta gizarte-kohesioa lortzeko, *sistema horietako bakoitzaren bitartekoetatik abiatuta*. Jarduketan ezaugarriak direla eta, osagarriak badira, GZESren helburuan inpaktu handia izango dute, inklusiorako oztupoak kentzen baitituzte, eta, beraz, lehenetsunezko ekintzak dira.

Ebaluazioaren gomendioek laugarren barne-ardatz bat aipatzen dute, zeinak GZESren kudeaketa integratua bultzatu nahi baitu, hura indartzeko eta egokitzeko bidean aurrera egiteko, hauetatik abiatuta: lankidetzako gobernantza, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 40. artikulua Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkion eginkizunetako bakoitza indartzea, eta, bereziki, errealitatearen, berrikuntzaren eta etengabeko hobekuntzaren azterketa eta ebaluazioa, ongizatearen eredian aurrera egiteko eta GZES eta gizarte-zaintzen arloko trantsizio-politika egokitzea bultzatzeko.

Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren funtsezkoa da genero-ikuspegiari eta ikuspegi interseksionalari erreparatzea. Hala, hasteko datuak banatuta bilduko dira, arretari eta kudeaketari dagokienez aldizka ikuspegi horretatik GZESren diagnostikoa egingo da, eta ekintza-plan koherente bat definituko da, berdintasunari eta unibertsaltasunari begira ekitatea eraginkortasunez sustatuz.

Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoak GZES bultzatzen jarraitu behar du, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasuna ziurtatzeaz gain, euskal gizartearen bilakaerarekin eta herritarren lehentasunekin bat hedatzen dela bermatzeko. Gainera, bat etorriko da erkidego-ereduarekin, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen printzipioekin eta beste erreferentzia aipagarri batzuekin, hala nola Europar Batasuneko Gizarte Babeserako Batzordearen *Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparrua*.

I. GZPEren ebaluazioak aipatu zituen, batetik, lehentasunezko zenbait helburu eta, bestetik, proiektu gutxi batzuetan oinarritutako plan estrategikoa sustatzearen beharra, helburuak lortu ahal izateko. Horiek GZESn (proiektu eragileak) eta sistemaren eta Gizarte-Babeseko Euskal Sistemaren beste sistema batzuen arteko elkarrekintza-guneetan (jarduketa osagarriak) eragingo dute.

Hala, ondoren honako hauek azalduko dira: a) aginte-koadroa eta haren barruan I. Planaren ebaluazioarekin eta II. planari egindako ekarpenekin lotutako bost erronka nagusiak; b) ekintzen-koadroa, egutegia eta proiektu eragileen eta jarduketa osagarrien gaineko egikaritze-adierazleak, betiere 5 ardatzekin eta haien helburu estrategikoekin harremanetan; c) proiektu eragile eta jarduketa osagarri bakoitzaren xehetasuna, aurreko ataleko hurrenkera berean.

Proiektu eta jarduketa osagarri asko dagoeneko abian jarri dira, eta trantsizio-politika bati erantzuten diote. 2030eko jomugari begira, GZESren eta beste sistema batzuekin lankidetzaguneen ("gizarte-guneak") erantzunak gizarte-testuinguruaren bilakaerari (zahartzea, aniztasuna) egokitzeko. Horrez gain, inpaktua izan nahi dute autonomiaz gizarteratzean, batetik, eta inklusioan, gizarte-kohesioan eta ongizatean, bestetik.

4.4. AGINTE-KOADROA

Aginte-koadroaren helburua da helburu estrategikoen betetze-maila ebaluatzea eta, horretarako, adierazle gutxi batzuk definitzea. Azkenekoei 2026. urtearen amaieran lortzeko jomugak lotzen zaizkie. Aginte-koadroaren helburua da, beraz, **helburu estrategikoen arabera, gizarte-zaintzen antolaketa-ereduan aurrerapausoak eta GZESren aldaketak monitorizatzea**.

Gainera, aginte-koadroak **zenbait inpaktu-adierazle ditu, herrialdeko helburuekin eta bestelako helburu sistematikoekin** (inklusioa, kohesioa, ongizatea) lotuta. Helburu horiek soilik GZESk eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren beste sistema batzuek lankidetzan jardunez lortu ahal izango dira.

Hemen proposatzen den aginte-koadroan oinarrituta, ezinbestekoa da tresna bat garatzea orain arte erabili ez diren adierazleei edo indizeei dagokienez lortu behar den datu mota zehazteko eta datuak eskuratze aldera prozedura definitzeko. Proposamena itxi eta gero, GZEOri aurkeztuko zaio, eta, kontrastatu ostean, sistemak datuak lortzeko duen prozeduran txertatuko da, besteak beste, plana jarraitu eta ebaluatzeko.

Helburuak II. Planaren ebaluazioari lotzen zaizkie. Hala ere, datuak urtero lor daitezke, adierazleak itxi eta datuak lortzeko prozeduran sartu eta gero. Datu guztiak EAERako eta lurralde historiko bakoitzerako lortuko dira. Gainera, bananduta lortuko dira, kontingentzien arabera. Era berean, genero-ikuspegiari eta ikuspegi intersektionalari erreparatuko zaie, eta dagokionean generoaz gain, kontuan hartuko dira adina, autonomia-maila eta jatorria. Aginte-koadroaren ondoretarako, erabiltzailearen kontzeptuan ez dira sartzen balorazio bakarra jaso dutenak.

HELBURUAK	ADIERAZLEAK	HELBURUAK 2026 ⁴⁰
ARRETA		
Kontingentzia guztietarako erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta indartzea, eta GZESren prestazioen eta zerbitzuen esparruan gastu publiko arruntan egoitza-arretaren aldean garrantzia areagotzea.	Egoitza-arretako eta erkidegoko plazen ehunekoa GZESren plaza guztien gainean, kontingentzien arabera.	Plaza guztien gainean egoitza-arretaren ehunekoa mendekotasunaren esparruan 5 puntura arte murriztea eta gainerakoetan 10era arte. 2023-2026 aldian urte bakoitzeko gutxienez hilabete bat gehitzea.
	Adinekoentzako egoitza-zentroetan sartzeko batez besteko adinaren igoera	
	Adinekoentzat erkidegoan arretaren gastu publiko arruntaren (GPA) eta egoitza-zentroetan GPAREN ehunekoa GZESren GPA guztiaren gainean.	GZESren GPAREKIKO erkidegoan arretaren GPA-aren ehunekoa 5 puntu gehitzea. Adinekoentzako egoitza-zentroetan GPAREN ehunekoa geldiaraztea: GZESn GPAREN % 30 ez gainditzea eta bi urtez behin puntu bat murriztea.
	GZESko baliabideen konbinazioa (prestazioak eta zerbitzuak) duten pertsonen kopurua eta ehunekoa GZESren erabiltzaile guztien gainean.	Baliabide bat baino gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa 5 puntu gehitzea GZESren erabiltzaile guztien gainean.
Gizarte-partaidetza, gaitasunak eta talentua (autonomia) sustatzeko ekimenetan parte hartzen duten 60 eta 75 urte bitarteko pertsonen kopurua eta %		EAEEn 60 eta 75 urte bitarteko pertsonen % 5era iristea.

⁴⁰ Planak bere helburuen artean Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema diseinatzea eta zabaltzea aurrez ikusten duenez, helburuak modu zuhur eta saiatuan definitzen dira (goiko muga ezartzen dute), GZES osatzen duten euskal administrazio publikoetako hiru mailen eta sailen datu ziurrak izatearen zain.

HELBURUAK	ADIERAZLEAK	HELBURUAK 2026
Egoitza-arreta zabaltzen jarraitzea.	Lau kontingentzietan mapan aurrez ikusitakoaren arabera zabaltzea.	Ikus mapan aurrez ikusitako hazkuntza kontingentzien arabera.
Adinekoentzako egoitza-zentroak egoitzea; dibertsifikatzea, bizikidetz-unitateen tamaina murriztea eta, ahal dela, etxeko giroarekin parekatzea.	Zentroen etorkizuneko dekretuaren arabera (egun izapidetzen), zentroaren eta bizikidetz-unitateen gehieneko tamainari egokitzen zaizkion zentroen ehunekoa.	% 100 dekretuak aurrez ikusitako epean.
	Mota bakoitzeko zentro-kopurua.	Etorkizuneko dekretuaren arabera, zentroen tipologia dibertsifikatzea.
Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, bizitza independentearen eredia eta bizi-kalitatea bultzatzea, eta, horretarako, beren bizitzan zehar babes-sarea diseinatu eta zabaltzea, bizi-proiektua autonomiaz garatu eta erabat gizarteratzerantz aurrera egin ahal izateko.	Desgaitasuna dutelako laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) eta/edo bestelako laguntzak jasotzen dituzten pertsonen kopurua eta ehunekoa desgaitasuna duten pertsona guztien gainean. Datuak desgaitasun motaren arabera banatuko dira.	Desgaitasuna dutelako laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) eta/edo bestelako laguntzak jasotzen dituzten pertsonen ehunekoa 20 puntutan gehitzea desgaitasuna duten pertsona guztien gainean.
Gizarteratzeari begira, beste sistema batzuekin lankidetzan, bazterketa-sarea indartzea eta honako hauetan aurrera egitea: deszentralizazioa, lehen eta bigarren mailako arreta antolatu eta jarraipena ematea, arreta malgutzea eta pertsonalizatzea eta prebentzio-ikuspegia izatea.	Mapan aurrez ikusitakoaren arabera zabaltzea.	Ikus EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan eta lurralde-eranskinetan aurrez ikusitako hazkuntza.
	Lehen eta bigarren mailako arreta-plazen kopurua udalerrien edo eremu handiagoen arabera.	EAEko maparen lurralde-eranskinetan aurrez ikusitakoaren arabera.
	Protokoloen, partzuergoen, mandatuen edo arreta artikulatzeko beste modu batzuen bidez (bi mailak (lehenengoa eta bigarrena), GZES eta bestelako sistemak) artatutako pertsonen kopurua eta ehunekoa.	Bazterketaren esparruan artatutako erabiltzaile guztien % 25era (bi mailak) eta % 10era arte (gutxienez bi sistema).
Erakunde-zaintzarekiko (erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak) familia-zaintzaren garrantzia murriztea, bereziki pertsonak mendekoak eta desgaituak badira (haurren babesgabetasunaren kasuan, helburua alderantzizkoa izan daiteke).	Oro har, erakunde-zaintza eta senitarteko zaintzaileen zaintza areagotzea.	
	GZES erabiltzen duten pertsona zaindunen ehunekoa senitartekoek zaintzen dituzten pertsona guztien gainean, erreferentziatzen hartuta dauden bi iturriak (OIN (Osasun Inkesta Nazionala) eta EAEOI (Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta)).	Erakunde-zaintzak jasotzen dituzten pertsonen ehunekoa senitartekoek zaintzen dituzten pertsona guztien gainean 5 puntutan gehitzea.
	Familia-zaintza eta GZESren prestazio eta zerbitzuak konbinatzen dituzten familia zaintzaileen kopurua eta ehunekoa (GZESren erabiltzaileak) GZESren erabiltzaile guztien gainean.	Ehunekoa 10 puntutan gehitzea.

HELBURUAK	ADIERAZLEAK	HELBURUAK 2026
KUDEAKETA		
<p>GZESren kide anitzeko kudeaketa integratuan aurrera egitea, eta legearen 40. artikuluko koordinazio-eskumenak betetzeko Eusko Jaurlaritzari ematen dizkion eginkizunak bultzatzea.</p>	<p>Gizarte-zerbitzuen arloko trantsizio-politiken testuinguruan kide anitzeko etengabeko plangintza-zikloa zabaltzea.</p> <p>II. GZPE eta foru- nahiz udal-plangintza estrategikoa bi norabideetan konektatzea.</p>	<p>II. GZPEko helburuei, proiektu eragileei edo jarduketa osagarri dagokienez, plana jarraitu, ebaluatu eta eguneratzearen ondorioz 10 eta 50 egokitzapen aipagarriren artean egitea, betiere udaletako eta foruetako planak kontuan hartuta.</p>
	<p>Aukera berritzaileak eta ebidentzian oinarritutako politikak sortzea.</p>	<p>Aurretik dauden arazoei konponbide hobekak edo arazo berriei konponbide egokiak emate aldera jardunbide berriak sortzeko 10 eta 50 proiektu berritzaile garatzea.</p>
	<p>Sistemaren barnean eta sistemen artean koordinaziorako eta lankidetzarako irizpide eta prozedura zehatzak garatzea (gizarte-gune guztietan).</p>	<p>Aldeak pozik egotea koordinaziorako eta lankidetzarako irizpideekin eta prozedurekin.</p> <p>GZES kudeatzean eginkizunen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea (40. artikulua) honako hauek direla bide: GZESren prestazioen eta zerbitzuen plangintza eta garapen orekatua, helburu estrategikoen arabera garapen arauemailea, gizarte-zerbitzuei buruzko informazioko euskal sistema eta gizarte zerbitzuen euskal behatokia. Horiek guztiak prestakuntzari, kalitatea hobetzeari, ebaluaziorari, berrikuntzari eta ikerketari, erabiltzaile eta profesionalen partaidetzari eta gizarte ekintzako hirugarren sektorea sustatzeari lotuko zaizkio GZES hobetzeko.</p> <p>Gizarte-zerbitzuen zentroetan beste sistema batzuek berezkoak dituzten prestazioei eta beste sistema batzuek oinarritzko gizarte-zerbitzuei emandako eginkizunei dagokienez, egoki garatu eta finantzatzea.</p>
EKITATEA ARRETA EMATEAN ETA KUDEATZEAN		
<p>GZESren baliabideak erabili behar direnean, unibertsaltasunari eta ekitateari begira, kontingentzia guztien arretan eta GZES kudeatzean genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala aintzat hartzea, eta GZESren arreta aniztasunari egokitzea; diskriminazioari aurre egitea.</p>	<p>Genero-ikuspegi eta ikuspegi interseksionalean funtsatuta, sistemaren aldizkako diagnostikoaren datuen arabera, GZESren arreta eta kudeaketa planifikatzea.</p>	<p>20-60 hobekuntza aipagarri egitea honako hauek barne: a) GZESren zerbitzuak eta prestazioak egokitzeko edo berezko zerbitzuak eta prestazioak garatzeko neurriak; b) GZES kudeatzeko neurriak bai aniztasunaren arloan, bai eta maila guztietan ere, berdintasuna sustatzeko, zaintzen lana ikusarazteko, onartzeko eta ordeztzeko eta familia-zaintzaren pisua eta birbanaketa murrizteko; c) diskriminazioaren aurkako borroka.</p> <p>Egoera anitzetan GZESra iritsi eta erantzun egokiak aurkitzen dituzten genero-adin, jatorri eta/edo autonomia-maila desberdineko pertsonen ehunekoa 10 puntutan gehitzea.</p>

INPAKTUA (herrialdearen helburuak eta beste helburu sistemiko batzuk)		
HELBURUAK	ADIERAZLEAK	HELBURUAK 2026
TRANTSIZIO DEMOGRAFIKOA ETA GIZARTE- KOHESIOA	Bizi-itxaropena gehitzea (EUSTAT)	86 urte
	Osasun onez edo desgaitasunik gabe bizi-itxaropena handitzea (EAEOI)	71,5 urte (gizonak) 73,5 (emakumeak)
	Gini koefizientea (Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (PGDI))	26ren azpitik kokatzea
	AROPE tasa - pobrezia-aren eta bazterketaren arriskua (PGDI)	% 20ren azpitik finkatzea
	Pobrezia larriaren tasa (PGDI)	% 5en azpitik kokatzea
	Haurren pobrezia - 14 urtetik beherakoak dauden etxeetan biztanleriaren benetako pobrezia-tasa (PGDI)	% 11ren azpitik kokatzea
	Kalean lo egiten duten pertsonen kopurua	500en azpitik kokatzea
	Eskola uztearen tasa (uzte goiztiarra)	% 6aren azpitik finkatzea
	Bakarrik sentitzen direla dioten pertsonen kopurua (55etik gorakoan bizi-baldintzen inkesta eta EAEOI)	Tasa biztanleriaren % 7tik behera mantentzea
	Genero-berdintasuna	Pobrezia egoeran daudelako (PGDI) DSBEaren titularrak diren emakumeen ehunekoa gutxi gorabehera % 50era hurbiltzea (PGDI). Familia-zaintzaren lanak egiten dituzten emakumeen eta gizonen ehunekoa antzeko parametroetara hurbiltzea (OIN, EAEOI). GZESren erkidego- eta egoitza-arretara iristen diren emakumeak eta gizonak antzeko parametroetara hurbiltzea.

4.5. EKINTZEN KOADROA, EGUTEGIA ETA EGIKARITZE-ADIERAZLEAK

- **Ekimenen tipologia:** 1.- Proiektu eragilea; 2.- Jarduketa osagarria. Zenbakiak sistema orokorraren ordenarekin bat datoz (3.1 atala).
- **Lidergoa:** 1.- Eusko Jaurlaritza; 2.- Aldundiak; 3.- Toki erakundeak; 4.- GZES, kooperazioa. 5.- Gizarte Babeseko Euskal Sistema, kooperazioa.
- **Metodologiari buruzko oharra:** Adierazleak (helburuak) zenbatestean, bidezkoa bada, zenbakiak proiektu eragile bakoitzaren berariazko programazioetan sartuko dira.

1. ARDATZA. AUTONOMIA				
Ekintzak	Tipologia	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
1.1. Erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta indartzea kontingentzia guztietarako				
1 Etxean eta erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta-eredua garatzea (erkidego-arreta)	1	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Garatu, sistematizatu eta ebaluatutako jarduketak (ikus proiektu eragilearen fitxa) ▪ Lau kontingentziei dagokienez (desgaitasuna, babesgabetasuna, mendekotasuna eta bazterketa), prebentziozko ikuspegi indartua, detekzio eta heldze goiztiarra barne, bai eta prospekzio-eginkizunen garapena ere. ▪ Etxeko arretarako eredu bideragarria, prestazioen eta zerbitzuen osagarritasunetik eta diseinatu eta aztertutako zaintzen jarraitutasunaren ikuspegitik abiatuta (etxeko arretaren planteamendu global berri honen esparruan ELZ ikuskatzea eta laguntza eskaintzen duten ostatu-zerbitzuak gehitzea eta dibertsifikatzea). ▪ Kasuak, gizarte-laguntza eta erkidego-lana koordinatzea, gizarte-ekimenarekin batera eta eredu partekatu batetik abiatuta. ▪ Beste sistema batzuek udaletako gizarte-zerbitzuei mandatuak egitea eta administrazioen arteko lankidetzako tresnen bitartez definitu eta antolatzea, tresnek gauzatzeko modua, baldintzak eta finantzaketa nahikoa zehaztuta. ▪ II. GZPEren jarraipen- eta ebaluazio-sistemako prestazio eta zerbitzu guztietan estalduren konbergentzian aurrera egiten jarraitzeko ibilbide-orria, erkidego-arretaren indartzea eta zerbitzu-paketeem hedazpena baloratuko duen indizea barne. ▪ Hiru herrialdeetan eredu mistorantz bat egitearen aurrerapausoak; nagusi izango dira zuzeneko kudeaketa publikoa eta gizarte-ekimenaren bitartekoa, Gizarte Zerbitzuen Legeak eta I. GZPEren ebaluazioak xedatutakoaren arabera.

1. ARDATZA. AUTONOMIA				
Ekintzak	Tipologia	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
2 Iraupen luzeko zainketetarako (gizarte arlokoak eta arlo soziosanitariokoak) estrategia eta ekimen berritzaileak bultzatzea.	2	2	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030, Iraupen Luzeko Zainketetan Trantsizioa Sustatzeko Plana eta Etxea Bai Plana, zabaldu eta ebaluatzea. Zaintzen tokiko ekosistemak (Gipuzkoa eta Araba), Etxetik eta erreferentziatzko eskualde-zentroak (Bizkaia), proiektu pilotua eta Etxean Bai erreferentziatzko zentroa (Araba) garatuak, sistematizatuak, ebaluatua eta, bidezkoa bada, eskalatuak.
3 Gizarte-zaintza eta zaintza soziosanitarioetarako Euskadin eta nazioartean berrikuntzaren eta bizi-luzetasunaren poloak eta proiektuak bultzatzea.	2	2 2 1 eta 4 1 eta 4	2023-2026	<p>Diseinatu, garatu eta ebaluatutako poloak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Adinberri (iraupen luzeko zaintzak) Nagusi Intelligence Center (bizi-luzetasunaren ekonomia) Zahartzeari buruzko ikerketa-zentroa (zahartzea eta osasuna) NEXT-CARE: Mugaz Gaindiko Europako Poloa (MRR) eta bizi-luzetasunari nahiz gizarte-zaintzen eta zaintza soziosanitarioei buruzko mugaz gaindiko bestelako ekimenak.
4 Adineko autonomoekin batera bizi osoaren ikuspegitik politika esperimentalak diseinatu eta bultzatzea: Altxor 7.0, Bizitza Betea eta Helduak Zabaltzen proiektuak.	2	1	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Altxor 7.0 proiektuaren diseinua amaituta (OGP) eta proiektua modu pilotuan abian jarrita Bizitza Betea eta Helduak Zabaltzen proiektuei dagokienez, diseinu-prozesu amaituak, egindako proiektu pilotuak eta abian jarriak Hiru proiektuen monitorizazioa, sistematizazioa eta eskalatzea; elkarren artean konbina daitezke.
5 Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia garatu eta eguneratzea, toki eremua eta prebentziozko ikuspegia azpimarratuz (EASSEren 3. eta 4. arloak).	2	1 eta 5	2023-2024 (ebaluazioa) 2025-2026	<ul style="list-style-type: none"> 2021-2024 aldirako EASSEren ebaluazioa: 5 arlotan funtsezko 15 proiektu (ikus proiektu eragilearen fitxa), 3 eta 4 arloak azpimarratuz. Besteak beste, lurralde-koordinazioa egituratzean, bi zorroetatik abiatuta baliabide soziosanitarioen katalogoa antolatzean, informazio-sisteman eta finantzaketaren eredu bateratuan egindako aurrerapausoak. Etorkizuneko Osasun Planean diseinatutako estrategia berria, erkidegoan prebentzioaren eta arreta soziosanitarioaren ikuspegia indartuta. Osasun mentaleko arazoak dituzten gazteekin esku-hartzearen ildo edo programa eta erkidegoan osasun mentalaren arloan esku-hartzea diseinatu eta garatzea nahiz ebaluatzea

1. ARDATZA. AUTONOMIA				
Ekintzak	Tipologia	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
1.2. Desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentearen eredia eta bizi-kalitatea sustatzea				
6 GZESren esparruan, bizimodu independentearen eredia diseinatu eta bultzatzea eta, horretarako, bizitzan zehar, beste sistema batzuekin batera, babes-sarea bultzatzea.	2	1, 4 eta 5 2 2 1, 4 eta 5 1, 4 eta 5 2	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ EAEko bizimodu independentearen eredia definitu (2023), garatu eta ebaluatzea: LPPE eta beste laguntza batzuk bultzatzea (oinarri teknologikoa duten babes-proiektu berritzaileak barne), desgaitasuna duten pertsonen, haur eta gazteen eta babes-behar hain biziak ez dituztenen berezko erronkei erantzuteko bizitzan zeharreko babes-sare gisa ulertuta. ▪ Arabako eredia diseinatu, zabaldu eta ebaluatzea. ▪ Bizkaian desgaitasuna duten pertsonen partaidetza eta bizi-kaliterako plana garatu eta ebaluatzea, bereziki gai honi dagokionez (2. mahaia). ▪ Gizarte-babeseko euskal sistema beste sistema batzuekin elkarreraginean diseinatu, abian jarri eta ebaluatutako eredura egokitzea: osasuna, hezkuntza, diru-sarrerak bermatzea eta gizarteratzea, enpleguko politika aktiboak eta etxebizitzaren gizarte-babesa. ▪ Bizimodu independentearen eredia bultzatzeko, erakundeen eta sailen arteko ekintza-plana diseinatu, egin eta ebaluatzea. ▪ Egoitza-eskaintza ikuspegi horren arabera garatzea, bizimodu independenterako igarotzea eta desinstituzionalizazioa ahalbidetuta. ▪ Babesen eta bizimodu independentearen eredia bazterketa-egoeran dauden pertsonetara zabaltzearen analisia eta planteamendua egitea.
1.3. Adinekoentzako egoitza-zentroak egokitzea				
7 Egoitza-zentroak egokitzea (bereziki, adinekoentzat) eta bizikidetzak kolektibo berritzaileak bultzatzea.	1	2 1 eta 4 2 2 2	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Adinekoentzat egoitza-plazak gehitzea, EAEko mapan eta haren eranskinetan aurrez ikusitakoarekin bat etorritik. ▪ Egoitza-zentroei buruzko dekretua aldatu eta argitaratzea (2024) eta haren inbertsio-plana, bai eta balizko finantzaketa-mekanismoari buruzko azterlana egitea ere. ▪ Harremanetan oinarritutako arretaren Gizarea eredia (zentro mota desberdinetarako) diseinatu, garatu eta ebaluatzea. ▪ “Gipuzkoa: etorkizuneko egoitzaranzko trantsizioa” Liburu Berdearen ekimenak garatu eta ebaluatzea ▪ Bizkaiko Iraupen Luzeko Zainketetan Trantsizioa Sustatzeko Plana diseinatzea eta zentroen arloan ekimenak, bai eta bizikidetzak-aukerak (belaunaldien artekoak) ere garatu eta ebaluatzea.

2. ARDATZA. INTEGRAZIOA					
Ekintzak	Lehentasuna	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak	
2.1. Bazterketa-sarea indartzea					
8 GZESren barruan bazterketa-sarea deskontzentratzen aurrera egitea (lurrealdean zabaltzea) eta lehen eta bigarren mailako arretaren antolaketa hobetzea, antolatzeko formula berriak aztertuz eta ezarriz.	1	1 eta 4	2023-2025	<ul style="list-style-type: none"> Sarea EAEko mapak eta haren eranskinek definitzen dituzten helburuen arabera zabaltzea (2024). Arreta-sarean 50.000 biztanletik beherako udalerrriak gehitzea (2025) eta kontzentrazioa murriztea. Euskadiko, Estatuko eta Europako esperientziak eta ereduak aztertzea (2024) Lehen eta bigarren mailako arreta antolatzeko kudeaketa eredu bat edo batzuk testatzea (2024-2026): kudeaketa-mandatuak, partzuergoak eratzea, mankomunitateek edo kuadrillek kudeatzea... (eskumenak berriz esleitzeko aukera barne). Lehen eta bigarren mailaren arteko arretaren antolaketa jarraitutasunaren eta malgutasunaren baldintzapean hobetzea: bi norabideetan benetako iragatea ezartzen diren kudeaketa-protokolo edo -mekanismoen bidez. Emakumeak ikusgai bihurtzea eta zerbitzuak genero-ikuspegiarekin eta ikuspegi interseksionalaz diseinatzea, batez ere bazterketa larrialdikoentzat badira. 	
2.2. GZESk gizarteratzeko eta gizarte-inklusioko laguntzak eta Gizarte Babeseko Euskal Sisteman lankidetzaren bultzatzea					
9 Nahi gabeko bakardadearen aurkako Euskal Estrategia diseinatu eta bultzatzea, eta batik bat adinekoak (ez beren-beregi) aintzat hartzea; hirigunean eta landagunean bakartze sozialari erreparatzea.	2	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Estrategia diseinatu (2023), abian jarri (2024) eta ebaluatzea (2026). Datu sistematizatuak (EAEOI, 55+ inkesta...). Eragileen eta ekimenen mapa egitea (2023) eta aldizka eguneratzea. Sentsibilizazio-ekintzak (estigmaren aurkako borroka) abian. Detekzio-ekimenak eta prebentzio-ekimenak (bakardadearen eskola...) garatzea. Detektatu eta laguntzeko erkidego-sareak garatzea. 	
10 Etxerik gabeko Pertsonentzako II. Euskal Estrategia diseinatu eta abian jartzea.	2	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Etxerik gabeko Pertsonentzako II. Euskal Estrategia diseinatzea (2023), abian jartzea (2024) eta ebaluatzea (2025). Erakundeen eta sailen arteko jarduketan bidez dimentsio askoko ikuspegia. Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala integratzea eta emakumeentzako berezko laguntzak garatzea Dokumentuen zaurgarritasunari buruzko proiektua egitea. 	

2. ARDATZA. INTEGRAZIOA				
Ekintzak	Lehentasuna	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
2.2. GZESk gizarteratzeko eta gizarte-inklusiurako laguntzak eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemari lankidetzaren bultzatzea				
11 Gizarte eta egoitza arloko gunea, baita gizarte eta lege arlokoa ere definitu, garatu eta ebaluatzea.	2	1, 4 eta 5 1, 4 eta 5	2023-2024 2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarteratze eta gizarte-bazterketaren prozesuetan egoitza-egoeraren inpaktuari buruzko ebaluazioa egitea. ▪ Egoitza-bazterketaren egoera larrian dauden pertsonen etxebizitza eskuratzea (eskubidea benetan erabili ahal izatea). ▪ Etxebizitzaren eta gizarte eta egoitza arloko guneari buruzko gizarte-politikaren gaineko oinarrien dokumentua aurrez ikusitakoaren arabera egitea. ▪ Housing First eta Housing Ledaren ikuspegiak garatzea GZEStik kanpo gelditzen diren etxebizitzak eskuratzeko prestazioekin eta neurriekin. ▪ Gizarte eta lege arloko guneei buruzko oinarrien dokumentua egitea; bi guneak eta haien arteko elkarrekintza argi eta garbi definituta, eta haien artean mugitzeko irizpideak eta prozedurak zehaztea.
12 Haurrei eta nerabeei buruzko legea onestea eta zabaltzen hastea.	2	1 1, 4 eta 5	2024 2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Legea HEAAn argitaratuta. ▪ Sustatu, prebenitu edo arreta emateko eta babesteko ekimen berriak eta partaidetzaren arlokoak abian jartzea. ▪ Haurren eta nerabeen ikuspegia ekintza publikoaren plangintzan eta garapenean sartzea.
13 Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE 2023-2030) diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea.	2	1	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Estrategia diseinatzea (2023), abian jartzea (2024) eta ebaluatzea(2026). ▪ Estrategiaren esparru bakoitzean zabalduko ekimenak. ▪ Aukerak Susperitzen programa, eskolaz kanpo hezkuntzaren arloa indartzekoa, garatzea eta EGIF+ren programa operatiboan txertatzea (2024) ▪ Gurasobakar amadunaren/gurasobakarraren txostena egitea.
Emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan zerbitzuen eta erakundeen koordinazioa hobetzeko aurrera egitea.	2	1, 4 eta 5		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Leihatila bakarraren ikuspuntupean baliabideen sare integratuak sortzea (GZES eta sare integratua konektatzea). ▪ Lurralde-mailan koordinazio-protokoloak eta -mekanismoak sendotzea.

2. ARDATZA. INTEGRAZIOA				
Ekintzak	Lehetasuna	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
2.2. GZESk gizarteratzeko eta gizarte-inklusioko laguntzak eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren lankidetzaren bultzatzea				
14 Krisiek ekarri dituzten larrialdiko egoeren edo abaguneen aurreko erantzunak diseinatzea, aktibatzea eta sistematizatzea.	2	1	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Neurri zehatzak aktibatuta eta aktibazio-aldia: Azken Sarea Indartzen, GLL, Bonu termikoa, elikadura-pobrezia, materialgabezia (EGIF+) edo fitxan sartuta ez dauden bestelakoak ▪ Jarraipen- eta ebaluazio-txostena egitea
15 Abian jarri diren zenbait ekimen sistematizatu eta ebaluatu ondoren, Harrerarako Euskal Eredua kulturarteko ikuspuntuaren arabera zabaltzea.	2	1	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sarearen programak eta baliabideak (Harrera programa eta Harreragune zentroak, Aholku Sarea, babesteko erkidego-ekimenak eta Loturak programa, mentoretza-programa eta Trapezistak programa) diseinatu, gidatu, ebaluatu eta sistematizatzea (2023-2025) ▪ Ebaluazio-prozesuaren ondorioz sarea diseinatzea (2025) ▪ Sarearen garapen operatibo eta arauemailea (2026...) ▪ Trapezistak programa EGIF+ren programa operatiboan txertatzea (2024-2027) eta egiturazko programa gisa zabaltzea(2025-2026) ▪ Migrazioaren eta asiloaren arloan transferentzia

3. ARDATZA. OREKA				
Ekintzak	Lehentasuna	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
3.1. Lidergo publikotik abiatuta zaintzen gizarte-antolaketa bultzatzea, eta erakunde-zaintzen pisua gehitzea				
16 Gizarte-zaintzen aldeko Euskal Itunera iristea	1	4 eta 5	2023-2024	<ul style="list-style-type: none"> Elkarrizketaren lau arloetan (soziala, zibila, erakundekoa eta politikoa) lau sektoreekin elkarrizketa-prozesua egitea eta zuzeneko partaidetza-bideak antolatzea. Ituna onestea (lortutako adostasun-maila)
17 EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa zabaltzea eta erakunde-zaintzaren, zainduaren eta senitartekoaren zaintzailearen bilakaera jarraitzea, zaintza guztien gainean.	1	4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> EAEko Mapan sartu diren lurralde-eranskinak (2024). GZESren jarraipen- eta ebaluazio-txostenak, aginte-koadroaren ildotik eta II. GZPEk aurrez ikusitakoaren arabera egitea. Prestazioak eta zerbitzuak gehitzea, senitarteko zaintzaileentzako laguntzak barne (zaintzen duenaren zaintza). Zaintza guztien gainean familia- eta erakunde-zaintzaren garrantzia zehazteko indizea. Prestazio ekonomikoei buruzko hausnarketa eta planteamendu partekatua: FGZPE eta LPPE, ZLPE eta beste laguntza eta prestazio batzuk, baldin eta bazterketaren arloan egituratzen badira. Txandakatze-datuak, ZLPEren kopurua eta ehunekoa II. GZPEren jarraipen- eta ebaluazio-sisteman sartu diren GZESren baliabide guztien gainean.
18 Gizarte, osasun eta gune soziosanitarioaren arloko profesionalak erakartzeko eta itzultzeko ekimena bultzatzea.	2	1, 4 eta 5	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Bi ildoetan (erakartzea eta itzultzea) eta gizartearen, osasunaren eta gune soziosanitarioaren arloetan ekimena diseinatu, abian jarri, monitorizatu, ebaluatu eta sistematizatzea. Arreta pertsonalizatuko prestazioak eta bestelako neurri osagarriak garatzea (jatorrian kontratatzea, itzultzeko laguntzak, familientzako laguntzak edo prestazioak, kontziliazio-neurriak...). Zaintzen esparruan prestakuntza garatzea, Lanbideren eta Hezkuntza Sailaren laguntzaz, GZES zabaltzeko helburuekin bat etorritik eta barne hartuta pertsonak egoera kalteberan badaude, baztertuta ageri badira edo halakorako arriskua badute.

3. ARDATZA. OREKA

3.2. Familia-zaintza aukera bat izan dadin baldintzak sustatzea

<p>19 Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitarioa 2021-2030 (FZLE) zabaltzea.</p>	<p>2</p>	<p>1, 4 eta 5</p>	<p>2023-2026</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Senitarteko zaintzaileen estatutua lehenengoz definitzea (2024), eguneratzeen mende. ▪ II. GZPEren aldian EASSEren proiektu eragileak garatu, ebaluatu eta sistematizatzea. ▪ Ebaluazioaren ondoren definitzen den senitarteko zaintzaileen arreta-jarraitutasuna eta -sistema edo -sarea (2026) ▪ Zaintza arintzeko eta laguntzeko gizarte eta familia arloko sarea indartzeko neurriak eta zerbitzuak garatzea; inteksekzionalitatea baliatuta, zaintza-egoera desegokietan eta diskriminazio anitzeko egoeratan arreta berezia jartzea.
<p>20 Bizitzan zehar gizarte-zaintzen esparruan kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren ekimenak garatu eta aberastea.</p>				<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontzilia Erkidegoa eduki eta enpresa partaide gehiagorekin (diagnostikoa eta kontziliazio-plana barne). ▪ Kontziliaziorako laguntza ekonomikoak, Erronka Demografikorako Euskal Estrategian aurrez ikusitako bestelako neurriak garatzea (ikus fitxa) eta neurri berriak: garatu, ebaluatu eta sistematizatzea.

4. ARDATZA. ARTIKULAZIOA				
Ekintzak	Lehentasuna	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
4.1. GZESren kudeaketa eta GZLren 40. artikulua Eusko Jaurlaritzari ematen dion eginkizun bakoitza bultzatzea				
21 Zorroari buruzko dekretua ebaluatzea eta arau-garapenean aurrera egitea.	1	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Zorroari buruzko dekretuaren ebaluazioa egitea (2024) Adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko dekretuak, ituna (soziala) eta koordainketa onestea (2024). Tresna erkideei buruzko dekretuen garapena amaitzea: gizarte-diagnostikoa eta gizarte-fitxa; arreta pertsonalizatuko plana eta helduen babesgabatasun-egoerak baloratzea (2025). Zorroari buruzko dekretua eta memoria ekonomikoa eguneratzea (2026); zorroa erabat arautu arte plangintza estrategikoaren aldi berrirako arau-garapenaren lehentasunak identifikatzea.
22 Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) diseinatu eta zabaltzea.	1	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> GZIESren ezaugarriak identifikatzea (2023), GZIES diseinatzea (2024), GZIES eta bere hiru funtzionaltasunak (jarraipena eta ebaluazioa; prospekzioa eta plangintza; beste informazio-sistema batzuekin koordinazioa) abian jarri eta zabaltzea (2025), GZIES ebaluatu eta sistematizatzea (2026) Gizarte-historia eta historia soziosanitario elektronikoak garatu eta GZIESrekin konektatzea. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzen Estatistika (GZGEE) eta Gizarte Zerbitzuetan Gastu Publikoaren Estatistika GZIESrekin, II. GZPEren ebaluazioarekin eta hirugarrenaren plangintzarekin konektatzea GZPEren zabalkuntza monitorizatu eta jarraitzeko tresna garatzea eta GZIESrekin konektatzea. Balitzko senitarteko eta pertsona hartzaileei zorroaren gainean informatzeko eta hurbiltze proaktibo eta pertsonalizaturako ekimenak zabaldu eta ebaluatzea.
23 Gizarte Berrikuntzako Euskal Ekosistema (GBEE) indartzeko ekimena diseinatu eta abian jartzea.	1	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Identifikatutako aktore guztiei planteatutako ekimena politketan eta gizarte-zerbitzuetan, GZESn eta Gizarte Babesteko Euskal Sistemaren beste sistema batzuekin elkarrekintza-guneetan abian jartzea (2023). Eskura jarritako tresnak, garatuta eta antolatzea. Ekosistema eta haren ekimenak hedatzea. Nazioarteko konexioak zehaztea. Lankidetzeta-proiektuak eta bestelako sinergiak sortuta eta, horien ondorioz, gizarte-zaintzen eta zaintza soziosanitarioen arloan trantsizio-politikekin lotutako proiektu berritzaileak zabaltzea. Mugarazi eta lortutako finantzaketa.

4. ARDATZA. ARTIKULAZIOA				
Ekintzak	Lehentasuna	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
4.1. GZESren kudeaketa eta GZLren 40. artikulua Eusko Jaurlaritzari ematen dion eginkizun bakoitza bultzatzea				
24 Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB) bultzatzea.	1	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Webgunearen diseinua eta garapena eguneratzea: Behatuz webgunea eta haren funtzionaltasun berriak diseinatu eta zabaltzea (2023). ▪ 2023-2026 aldirako lan-plana eta urteko programazioak egitea. ▪ Behatokia arautzen duen dekretuaren eginkizunak garatzea; helburua da ezagutza (ezagutuz) eta berrikuntza (berrituz) dinamizatu eta bultzatzea eta biek zabaldu eta transferitzea (gizareratuz). ▪ Oraingo eta etorkizuneko beharrak identifikatzearen eginkizuna (prospekzioa) lau kontingentzietarako zehaztea, pertsona, familia eta erkidego hartzaileen eta GZESn esku hartzen duten erakundeen partaidetzari esker. Lau kontingentzien alderdi erabakigarrien ikerketari buruzko aurretiazko hausnarketa egitea. ▪ ABEN Euroeskualdeko bestelako behatokiekin ezarritako konexioak (Nafarroako Gizarte Errealitateari buruzko Behatokia, Adimen Aurreratuaren Sistema, Gerontopolea...). ▪ Trantsizio-politiken eta II. GZEPren prospekzio- edo ebaluazio-ekimenak garatzea (aginte-koadroa kudeatzea...).
25 Ebidentzian, ebaluazioaren kulturaren eta kalitatearen ebaluazioan oinarritutako politiken kudeaketa sustatzea.	1	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ebaluazioari buruzko jardunbide onak identifikatu eta zabaltzea eta gizarte-zerbitzuen ebidentzian eta kalitatearen ebaluazioan oinarritutako politikak kudeatzeko trebatze-ekimenak zabaltzea, bidezkoa bada, GZEO kontuan hartuta. ▪ Ebaluazioari eta kalitateari buruzko sustapenaren eginkizuna Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokian diseinatu eta garatzea. ▪ Erkidego-eredua eta Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparrua lau kontingentzietan zabaltzea eta prestazio eta zerbitzuengatik, arloengatik, eta abarregatik kontratuen, hitzarmenen eta itunen ebaluazioan, bai eta lizitazioetan eta deialdietan ere txertatzea. ▪ Politiken, planen, programen... ebaluazioak egitea (ikus beste ekintza batzuetan diseinu, zabaltze, ebaluazio eta sistematizazio edo eguneratzeen zikloa).

4. ARDATZA. ARTIKULAZIOA				
Ekintzak	Lehentasuna	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
4.2. GZESren kide anitzeko kudeaketa integratuan aurrera egitea.				
26 GZESren eraldaketa digitala bultzatzea.	1	1 eta 4	2024-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ GZESren eraldaketa digitalerako laneko plana eta eredia, trebatze-ekintzak barne, diseinatu, zabaldu, ebaluatu, eguneratu eta Eraldaketa Digitaleko Euskal Estrategiarekin konektatzea (2024). ▪ Lau arloetan (kontingentziak) arretaren (egoitzan eta erkidegoan) eta kudeaketaren eraldaketa digitaleko ekimenak diseinatu, zabaldu, ebaluatu eta sistematizatzea. ▪ Diseinatutako eta zabaldutako eten digitala prebenitu eta murrizteko ekimenak
27 Erakundeen eta beste sektore batzuen arteko lankidetzakulturarekin bat etorritik, prozedura eta tresna zehatzen bidez GZESren lankidetzako gobernantza-eredua (Besaide proiektua) bultzatzea.	1	1 eta 4	2024-2026	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakundeen arteko esparruan eta elkarrizketa zibil edo sozialari dagokionean, eredia diseinatzea, irizpide, prozedura eta tresna zehatzak barne. ▪ GZLren 40. artikulua arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren eginkizun bakoitzarekin lotutako ekimenak garatzea (2026). ▪ GZESren lankidetzako gobernantza-eredua esperientziatik abiatuta ebaluatu eta sistematizatzea (2026)

5. ARDATZA. GENERO-IKUSPEGIA ETA IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Ekintzak	Lehentasuna	Lidergoa	Egutegia	Egikaritze-adierazleak
28 GZESren arretari eta kudeaketari dagokionez, aldizka generoaren-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik diagnostiko sakonaren eragiketa diseinatu, abian jarri eta testatzea.	1	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Ikuspegia egituratu eta edukien aurretiazko identifikazioa amaitzea, fitxan aurrez ikusitako diagnostikoaren ezaugarrietatik (osotasuna, sektoreen artikulazioa, politiken koherentzia eta partaidetza) eta identifika daitezkeenetatik abiatuta (2023) Diagnostikoa diseinatu eta ikuspegiaren arabera abian jartzea (2024). Diagnostikoaren proiektuan identifikatutako parametro guztiei dagokionez, generoaren arabera banatutako datuak benetan eskuratu ahal izatea. Diagnostikoa amaitu eta jarduketa-plana, diagnostikoarekin bat, egitea (2025) eta jarraipenean (2026): emakumeak autonomiaz gizareratzten laguntzeko jarduketak eta ikuspegi intersektionaletik bazterketa, mendekotasun, babesgabetasun edo arrisku eta/edo desgaitasunaren egoeratan gizarte-inklusioa garatzea.
29 "Pertsonak eta Zaintzaileak" proiektua garatzea	1	1 eta 4	2023-2026	<ul style="list-style-type: none"> Fitxan zehazten diren irizpideen eta zehaztu daitezkeen bestelakoaren arabera, zaintzaileen panel egonkorra diseinatu eta konfiguratzeko, (2023) eta abian jartzea (2024). Topaketarako eta eztabaidarako gune iraunkorra diseinatu eta abian jartzea, panelarekin lotuta (2024). Panela eta gunea politika publikoen diagnostikoaren, diseinuaren, plangintzaren eta ebaluazioaren prozesuetan sartzea (2024-2026).
30 Gizarte-koheziarako eta -babeserako laborategi iraunkorra diseinatu eta abian jartzea.	2	1, 4 eta 5	2024-2026	<ul style="list-style-type: none"> GBEE-en euskarriarekin laborategia diseinatzea eta abian jartzea (2024). Laborategiaren partaidetzaz gauzaturako ekimenak (arlokakoak eta zeharkakoak, bai eta sailen eta erakundeen artekoak ere abian jartzea (2024-2026). Laguntza eta prestazio ekonomikoei buruzko zeharkako hausnarketa egitea, eta gutxienez pobrezia arloan ikuspegi globala sortzea herritarrei begira eraginkorragoa izateko eta hobe komunikatzeko.
31 Diskriminazioaren "Behatokiaren" eginkizuna bultzatzea.	2	1	2024-2026	<ul style="list-style-type: none"> Eginkizuna garatzeko Sailaren Behatokiaren artikulazioa diseinatu eta abian jartzea (2024). Adinagatiko, generoagatiko, jatorriagatiko edo autonomia-mailagatiko diskriminazio anitzeko egoerak detektatu eta bideratzea (hobekuntza-proposamenak eginda).

5. PROIEKTU ERAGILEAK ETA JARDUKETA OSAGARRIAK

5.1. ESKEMA OROKORRA

Ondoren helburu estrategikoak lortzeko proiektuak eta jarduketak aipatuko dira. Zerrenda irekia da, eta ekimen berriak sartu beharko dira. Gainera, gizarte-errealitatearen esperientziaren eta bilakaeraren arabera modulatu ahalko dira, are gehiago, trantsizio-politikak bultzatzean.

Aipatu den bezala, trantsizio-politikei eutsi egin zaie pandemian zehar. Dena den, testuinguru hori plangintza estrategikorako egokiena ez izan arren, II. Plana baino lehenago hasi ziren eta beren ibilbidea planak izango duen lau urteko indarraldia baino luzeago izan daiteke.

Ondoren, GZESrekin lotuta, proiektu eragileen zerrenda ageri da hondo urdinez. Halaber, jarduketa osagarriak daude, asko beste sistema batzuekin lankidetzan, hondo grisez.

Autonomia	1 Etxeko eta erkidegoko arreta-eredua garatzea.	2 Iraupen luzeko zainketarako (gizarte arlokoak eta arlo soziosanitariokoak) ekimen berritzaileak.	3 Berrikuntza eta biziluzetasunaren poloak eta mugaz gaindiko ekimena.	4 Adineko autonomoekin batera politika esperimentalak.
	5 Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024 (EASSE).	6 Desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentearen eredua eta bizikalitatea sustatzea.	7 Egoitza-zentroak egokitzea eta bizikidetzeta-aukera berritzaileak bultzatzea.	
Integrazioa	8 Bazterketa-sarea deskontzentratzea eta antolatzea.	9 Nahi gabeko bakardadearen eta bakartze sozialaren aurkako Euskal Estrategia.	10 Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (EGPEE).	11 Gizarte eta egoitza arloko gunea.
	12 Haurren eta Nerabeen Legea.	13 Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE), Aukerak Suspertzen barne.	14 Krisiek ekarri dituzten larrialdiko egoeren edo abaguneen aurreko erantzunak.	15 Euskal harrera-eredua + Trapezistak zabaltea.
Oreka	16 Gizarte-Zaintzen aldeko Euskal Ituna.	17 EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapa zabaltea.	18 Profesionalak erakarri, atxiki eta itzultzeko ekimena.	19 Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria 2021-2030 (FZLE).
	20 Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-ekimenak.			
Artikulazioa	21 Zorroari buruzko dekretuaren ebaluazioa eta arau-garapena.	22 Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) garatzea.	23 Gizarte Berrikuntzako Euskal Ekosistema (GBEE).	24 Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB).
	25 Kalitatea ebaluatzea.	26 Eraldaketa digitala.	27 Lankidetzako gobernantza-eredua.	
Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala	28 Genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik GZESren diagnostikoa (arreta eta kudeaketa).	29 "Pertsonak eta zaintzaileak" proiektua.	30 Gizarte-kohesioari eta -babesari buruzko laborategi iraunkorra.	31 Diskriminazioaren "behatokia".
Trantsizioa monitorizatzea (GZPEren jarraipena egitea).				

5.2. XEHETASUNA ARDATZEN ARABERA

1. ARDATZA. AUTONOMIA

I. proiektu eragilea. Gizarte-zaintzen aldeko Euskal Ituna

Itunak erreferentzia partekatua izan nahi du euskal gizartearen lau sektoreentzat, gizarte-zaintzak ematean eta haien gizarte-antolaketan, erantzukizun eta lidergo publikoan aurrerapenak bultzatzeko oinarrien inguruan.

Trantsizio-politikek adostasun sozial eta politiko nahikoa behar dute, talde desberdinek epe ertain eta luzean bultzatu ditzaten, oinarri eta helburu estrategiko partekatu batzuetan oinarrituta.

Gizarte-zaintzen politika trantsizio-politika bat da, eta jomuga tasatua du: 2023eko hamarkada.

Eta nolabaiteko adostasuna dago zaintza-eredua eraldatzeko eta ongizatearen familia-eredua gainditzeko, zaintzak familia-eredutik kanporatuz eta desfeminizatuz.

Adostasun horren edukia handitzeko eta eragile eta sektore sinatzaileak gehitzeko, prozesu bat garatu nahi da lau eremutan (soziala, zibila, instituzionala eta politikoa) eta lau organotan (Elkarrizketa Sozialerako Mahaia, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa eta Legebiltzarra).

Pasa den apirilean, Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko Gizarte Politikei buruzko lantaldeak dagoeneko erabaki bat hartu zuen etorkizuneko herrialdeko itunaren gainean, Gizarte Eskubideen Europako Zutabearekin eta Zaintzen Europako Estrategiarekin lerrokatuta.

Eremu bakoitzerako berezko prozedura eremu bakoitzean esku hartzen duten eragileekin elkarrizketa eginda antolatuko da. Gainera, Irekiaren bitartez zuzeneko partaidetza-bideak egokituko dira. Eztabaida-eta elkarrizketa-prozesua elikatuko duen beste gune bat da “Gizarte-zaintzen aldeko euskal itunerantz” biltzarra.

Prozesua 2023. urtean zehar garatu nahi da, 2024/03/30a baino lehenago amaitzeko.

Arlo arduraduna	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	2023-2024

II. proiektu eragilea. Desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentearen eredia eta bizi-kalitatea sustatzea

Bizimodu independentearen eredia amaitu nahi da. Orain arte Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak landu du Elkartearen eta FEVAS Plena Inclusión Euskadi erakundeekin batera, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko desgaitasunari buruzko batzordearen esparruan. Gainera, erakundeekin alderatu da.

Behin fase hori amaituta, eredu hori eta, eremu zehatz horretan, zorroari buruzko dekretuaren ebaluazioaren emaitza oinarria izango da plangintza, koordinazio eta arau-garapenaren arloan beharrezkoak diren jarduketak gauzatzeko, bestea beste, eta jarduera horiek bizimodu independentearen eredia bultzatzeko erakundeen eta sailen arteko jarduketa-plan batean zehaztuko dira.

Bizimodu independentearen eredia bultzatzea desgaitasunaren arloko sareen helburu bat da, baina harremanen edo bestelako en esparruan laguntza behar duten pertsona guztien beharrian bat da, autonomiaz gizarteratzeko, beraz, beste eremu batzuetara zabaltzea bidezkoa da.

Esan daiteke GZESn harremanetarako laguntzak garatzea zabaltzat jo daitekeela. Dena den, adierazi daiteke aurrez ikusitako laguntzak garatzean gabezia dagoela, batez ere, prestazioen bidez ematen direnetan, esaterako Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoan (LPPE), jatorrizko esanahiarekin eta lurraldeen arabera garapen-mailekin.

Testuinguru horretan, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapak LPPE garatzea aurrez ikusten du desgaitasuna duten pertsonekin, hasiera batean beraientzat diseinatu baitzen.

Proiektu eragile honen bitartez Araban bizimodu independentearen eredia zabaldu nahi da, Arabako Foru Aldundiak eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek osatutako lan-mahaian diseinatu ostean. Dinamizazio-lanak talde eragile baten esku daude. Dagoeneko ereduarekin lotutako zerbitzuen katalogoa egin da, eta orain katalogoko lan-ildo bakoitzaren banako fitxak garatzen ari dira.

Horrez gain, gaur egun talde eragileak gauzatu duen lan-prozesuko mugarri aipagarrienak dira aniztasun funtzionala duten pertsonen bizimodu independentearen ibilbidea garatze aldera behar dituzten laguntzak eskuratzeko prozedurari buruzko araudia egitea eta hirugarren sektore sozialaren laguntzaz bizimodu independentearen bulegoa irekitzeko proiektua.

Era berean, proiektu eragile honek barne du Bizkaiko Pertsona Desgaituen Partaidetzarako eta Bizi Kalitaterako Plana 2021-2023. Bizimodu independentea eta arretaren pertsonalizazioa nabarmentzearen ildotik, desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien partaidetza eta bizi-kalitatea hobetzen lagundu nahi du. Hala, hautatu duten bizi-proiektua garatzean autonomia pertsonal handiagoa izateko aurrerapausoak eman nahi ditu, eta bide horretatik erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistemak kalitatezko estaldura eraginkorra emango du, inguruneak baldintza inklusiboak eskaintzeaz gain (aukera-berdintasuna, irisgarritasun unibertsala eta diskriminaziorik eza). Horretarako, eremu guztietan gizarte-eraldaketako arlo arduradunak zeharka gehiago nahasiko dira.

Hirugarren sektore sozialarekin egin den baterako lanaren ondorioz, palan 5 jarduketa-ardatz ditu:

- Bizkaian desgaitasuna duten pertsonak erkidegoaren barruan gehieneko autonomia, inklusio eta partaidetza aktibora iristeko baldintza egokiak sustatzea.
- Benetako irisgarritasun unibertsala eta guztientzako diseinua sustatzea, desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunarekin eta diskriminaziorik gabeko tratu egokiarekin batera.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako eta haien familientzako foru erantzukizuneko prestazioei eta zerbitzuei dagokienez, unibertsaltasuna eta benetako sarbidea bermatzeko baldintza nahikoak eta egokiak bultzatzea.
- Erkidegoan partaidetzaren eta bizi-kalitatearen eredia ezartzen eta sistemaren esku-hartze ereduaren barruan pertsonentzat eta pertsonekin oinarritutako plangintza-metodologia definitzen aurrera egitea.
- Foru erantzukizuneko gizarte-zerbitzuen sistema (zerbitzuak ematea, plangintza, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza...), elkarrizketa zibila eta gizarte-ekimeneko erakundeen interes orokorreko beste jarduketa batzuk bideratu eta zabaltzeko gizarte-ekimeneko erakundeen lankidetzak bultzatzea.

Plana praktikoki eta operatiboki aplikatzeko eta jarraitu nahiz ebaluatzeko, lau lan-mahai antolatu dira Bizkaian desgaitasunaren esparruan lanean diharduten gizarte-erakundeekin:

- 1. mahaia: planaren aplikazioa monitorizatu, jarraitu eta ebaluatzea.
- 2. mahaia: Bizimodu independenterantz egindako bidean beharren bilakaerari erantzuteko sistema. Mahaia honi esker, baterako lana egingo da taldeen bizimodu independenterako programak finkatzeko, egonkortzeko eta zabaltzeko, hortaz, behar-profilen ezaugarri eta berezitasun desberdinetara egokituko dira.
- 3. mahaia: Pertsona - banaka esku hartzeko oinarrizko prozedura eta baliabideen arteko trantsizioa.
- 4. mahaia: Ingurunea - ingurunea eraldatzeko mahaia, eta elkarrekin sortuz ekimenak bultzatzea.

Erakunde arduradunak	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (EJ), Foru Aldundiak, udalak.
Abian jartzeko egutegia	2023 (eredua) - 2026

III. proiektu eragilea. Etxeko eta erkidegoko arreta-eredua garatzea

Gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik jasangarria den eredu bat sortu nahi da, zeinak ahalbidetuko baitu erkidegoaren ikuspegia benetan garatzea eta, bereziki, prebentziozko arretaren, osotasunaren, jarraitutasunaren eta pertsonalizazioaren ikuspegia garatzea, GZESren bi arreta-mailen arteko lankidetzatik abiatuta. Izan ere, Mapak dagoeneko sartu du prestazioen eta zerbitzuen paketeetan (konbinazioak) oinarritutako plangintza.

Eredu hori esperientzian oinarrituta eraiki behar da, eta, beraz, kontuan hartu behar dira, besteak beste, honako alderdi hauek: a) I. GZPEren ebaluazioa; b) ELZren artikulazio alternatiboko prozesuak (Gipuzkoa eta Araba); c) berrikuntza-prozesuak erkidegoan, mendekotasun-egoeran edo horren arriskuan dauden eta beren etxean bizi diren pertsonen zuzendutako lehen eta bigarren mailako arretari dagokionez, esaterako etxeTIC (Bizkaia) eta Etxean bai (Araba); d) telelaguntzaren eta lehen eta bigarren mailako beste arreta-zerbitzu batzuekiko konexioaren garapena (Euskadi); e) zorroaren ebaluazioa eremu horretan.

Erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta indartzeko ibilbide mailakatua da honako hauetara iristeko: a) kasuan-kasuan zerbitzuen pakete edo konbinaziorik egokiena zabaltzeko; b) prestazio eta zerbitzu guztien estaldurak bateratzen aurrerapausoak emate aldera ibilbidea zehazteko; helburua da estaldura bateratuei esker zaintza aske aukeratu ahal izatea eta ez baldintzatzea behin eta berriz lehen edo bigarren mailako zerbitzu zehatzek estaldura urria izateak.

Beraz, lan-planak, lehenengo fasetik, honako hauek jaso eta konbidatzen ditu: a) ekimen berritzaileak, haien sistematizazioa eta ebaluazioa bultzatzea; b) bi arreta-mailek (lehen eta bigarren maila) eta hiru lurraldeetan partekatutako esparru bat eraikitzea.

Testuinguru horretan, I. GZPEren ebaluazioak azpimarratzen du beharrezkoa dela etxeko arretaren planteamendu orokor bat egitea, eta esparru horretan, ELZri buruzko hausnarketa sakon bat egitea, kontuan hartuta azken urteetan estaldurak pixka bat berreskuratu direla, baina, hala ere, intentsitateak behera egiten jarraitzen duela. Hala, etxeko arretarako eredu bideragarri bat diseinatu behar da, lehen eta bigarren mailako arretako prestazio eta zerbitzuak bateragarriak direlarik, zaintzen prozesu jarraituaren ikuspegiarekin. GZESren egokitzapenari dagokionez, eta, bereziki, arreta-piramidea iraultzeari dagokionez, funtsezko gertaera da etxean bizi diren pertsonen arreta garatzea, lehen eta bigarren mailako arretaren artikulazio handiagoa eta hobe bilatu eta eremu horretan eraldaketa digitala bultzatuz. Gainera, adinekoen belaunaldi berrien helburu eta itxaropenetara egokitzen da.

Bestalde, oinarrizko gizarte zerbitzuek, I. GZPEren ebaluazioan adierazitakoaren ildotik, babeseko beste sistema batzuen zereginak gauzatzen dituzte eta, bereziki, aipatzen zuen <<babesteko beste sistema batzuek kausa koordinatzearekin lotuta gero eta zeregin gehiago eskatzen dituztela, beraz, baliteke 1.1 zerbitzuaren hazkuntza handiagoa behar izatea eta hala erabakiz gero sistema arduradun bakoitzak finantzatu beharko luke>>. Ildo horri eutsiz, azken urteetan oinarrizko gizarte-zerbitzuek gero eta errealitate konplexuagoak eta interseksionalagoak artatzen dituzte, babeseko sistemei erreparatuz (diru-sarrerak bermatzeko sistema, etxebizitza, hezkuntza justizia edo osasuna), koordinazio eta koherentzia egokirik gabe. Horrez gain, eginkizun burokratikoak gehiegizkoak direnez, teknikariek erkidegoan egindako gizarte-lanarekin edo gizartean zuzenean esku hartzearekin zerikusia duten zereginak baztertu behar dituzte. Ondorioz, GZESk benetan berezkoak dituen udaletako gizarte-zerbitzuen eginkizunak ez dira oso-osorik garatzen. Langile berdinekin biderkatu diren zerbitzuak eman behar dira.

Horregatik, ezinbestekoa da II. GZPEk berezko zerbitzuak eta prestazioak ematen dituela bermatzeaz gain, proiektu eragile honek, batetik, beste arreta-sistema batzuek eskatzen duten udaletako gizarte-zerbitzuen lankidetzaz azpimarratzea eta, bestetik, ordenamendu juridikoaren arabera, administrazioen arteko lankidetzaren bitartez antolatzea. Hala, zehaztu beharko dira gauzatzeko modua, baldintzak eta finantzaketa nahikoa.

Gainera, txertatuko dira planteamendu honetan eraldaketa digitalari lotutako ekintzak (ikus proiektu eragilea), baldin eta etxeetan bizi diren arreta hobetzeko badira, eta predikziozko telelaguntzaren proiektua, Oarsoaldearen kasuan (LJG) Adinberrirekin egindako hitzarmenean aurrez ikusitakoa..

Azkenik, Erronka Demografikoari aurre egiteko Euskal Estrategiaren hiru jarduketa sartzen dira hemen. Haietako lehenengoak adinekoekiko zerbitzu eta programa guztiak barne hartzen ditu: adinekoekiko euskal estrategia bultzatzea, Euskadi Lagunkoia Sustrietatik indartzea, proiektu pilotuak aktibatzea, eta zaugarritasun-egoeran dauden adinekoen ingurune hurbilean edo etxean arreta indartzea.

Erakunde arduradunak	Udalak, Foru Aldundiak, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (EJ).
Abian jartzeko egutegia	2023-2026

IV. proiektu eragilea. Egoitza-zentroak egokitzea eta bizikidetzeta-aukera berritzaileak bultzatzea

Adinekoentzako egoitza-zentroak (2.4.1) egokitzeko prozesu bat bultzatu nahi da, eta, horretarako, etxebizitza gisa ulertu, diseinatu eta kudeatuz eta haien tamaina eta beraietako unitateen tamaina murriztuz eta aniztuz, prestazioen intentsitatea (gizartearen eta osasunaren arlokoa) zentro bakoitzeko eta sareko erabiltzaileen premien bilakaerara egokituz, arretaren jarraitutasun eta pertsonalizazio handiagoa lortzeko.

Beharrezkoa da osasun-prestazioen horniduran eta antolaketan ere eragitea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin elkarlanean, hainbat formula aztertuz.

Lan-planaren barruan sartzen da adinekoentzako egoitza-zentroak arautzen dituen dekretua parametro horietara egokitzea eta ondoren betearaztea.

Dekretua betearazteko fasean, lehenik eta behin, plan bat egingo da, zeinak inbertsioak eta haiek gauzatzeko kronograma bat jasoko baititu. Gauzatu ahala, amortizazio-zuzkiduretan sartuko dira, eta GZESren gastu publiko arruntean jasanaraziko dira. Dekretuak neurri batzuk aurrez ikusten ditu aurreko araudian ez zeudenak, beraz, neurri horiek betearaziko dituzten inbertsio berrietarako, behin dekretua onartuta eta haren zenbatespena eta ezarpen-kronograma ezagututa, finantzaketa-mekanismo bat ezartzeko aukera aztertuko da.

Bestalde, ekimen pilotuak bultzatzen jarraituko dira adinekoentzako egoitza-zentroetan eta,aldi berean, bizikidetzeta-aukera kolektiboak sortuko dira, bai adinekoentzat, bai belaunaldien artekoentzat, hala nola Getxoko belaunaldien arteko zentroa.

Ezinbestekoa da adinekoentzako egoitza-zentroak moldatzea aipatutako hobekuntza-ildoetan aurrera egiteko eta indarreko dekretuak dagoeneko sartuta dituen kalitate-irizpideak egokitzeko. Horien guztien helburua da prebentzioan oinarritutako arreta pertsonalizatua, jarraitua eta osoa ematea, erkidego-ereduarekin bat etorritik. Hala, eskaintza aniztu nahi da, profil desberdinetara eta gorantz doazen mendekotasun larrien egoeretara eta dementzietara hobe egokitzeaz gain.

Proiektu eragileak honako hauek aurrez ikusten ditu:

- Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko zentro eta zerbitzuetan (Haur eta Familia, Esku-hartze Sozialaren, Adinekoen eta Desgaitasuna duten Pertsonen arloetan) harremanetan oinarritutako arreta-eredua (Gizarea) ezartzea, egoitza-zentroak zaintza-erkidegotzat hartuta.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak “Gipuzkoa: etorkizuneko egoitzaranzko trantsizioa” Liburu Berdea egin eta zabaltzea.

Gizarea. Harremanetan Oinarritutako Arretaren Eredua (HOA)

HOAk onartzen du kalitatezko arretarako eginkizun horretan nahasitako pertsona guztiek (pertsona zaindua, familia eta langileak) harreman estuak, elkarrekikoak eta interdependenteak izan behar dituztela. Helburua da egoiliarren, haien familien eta langileen harremanak eta arreta-esperientzia eraiki eta hobetzea eta laguntza emozionalari, adiskidetasunari eta enpatiari lehentasuna ematea.

HOAren kontzeptuak “personan oinarritutakoaren” kontzeptua gaindituko luke, egoitzak zaintzen erkidego bihurtu nahi baitu, non zaintzen diren pertsonak eta langileak nahiz familiak eta laguntzak baloratzen diren.

Helburua da denborarekin eredua Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen arlo guztietan ezartzea, baina aurretiaz esperientziak izan diren pertsonen profila kontuan hartuta, Lakua, Ajuria, Zadorra eta

Txagorritxuko adinekoentzako egoitzetan eta Etxebidea desgaitasuna eta laguntza-behar orokorra duten pertsonentzako egoitzan hasi da.

“Gipuzkoa: etorkizuneko egoitzaranzko trantsizioa” Liburu Berdea

Liburu Berdeak Gipuzkoako egoitza-zentroetan arreta- eta zaintza-ereduaren trantsizioa bultzatzeko gizarte-politikaren palanka eta jarduketei buruzko ikuspegi bateratua ematen du 3 helburu estrategikori erantzuteko:

- Diagnostikoa. Gipuzkoako egoitza-zentroen erronka nagusiei buruzko ikuspegi diagnostikoa ematen du (2021).
- Etorkizuna. Egoitza-zentroetan zaintza- eta arreta-eredua eraldatzeko etorkizuneko ikuspegia egituratzen du (2030).
- Politikak. Gipuzkoan egoitza-zentroaren eredu berrirantz trantsizioa bultzatzeko palankak eta jarduketak definitzen ditu.

Gipuzkoako egoitza-sistema osatzen duten alderdi eta pertsona guztientzako gida izango da. Egiteko metodologia parte-hartzailea baliatu da, eta 3 zati ditu: diagnostiko bat 14 ikuspunturekin, egoitzaren sektorearen barnekoak eta kanpokoak; 7 palanka zaintza-ereduaren trantsiziorako; eta gobernantza. Azkeneko kasuan, abian jartzen dira egikaritzeko eta ebaluatzeko tresnak: batik bat egoitza-arduradunek osatzen duten alderatze-talde bat eta 5 jarraipen-batzorde.

Erakunde arduradunak	Foru Aldundiak, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (EJ), udalak.
Abian jartzeko egutegia	2023 (dekretua egokitzea) -2026

Jarduketa osagarriak autonomiaren eremuan

1. jarduketa. Adineko autonomoekin batera politika esperimentalak

Jarduketa honen bidez, adinekoen bizi-proiektuak bizitza beteko ikuspegitik garatzea ahalbidetuko duten ekimenak diseinatu, aktibatu eta ebaluatu nahi dira, adinekoekin batera, pertsonaren dimentsio guztiak garatzera bideratuta.

Adinekoekiko Euskal Estrategiak zahartze aktiboa txertatu du bizitza beteko ikuspegiari, eta jarduketa honen esparru estrategikoa da. Jarduketa hau definitu aurretik, elkarri lotutako hiru proiektu bultzatu ziren, adinekoen autonomia, gaitasunak, talentua eta gizarte-ekarpena onartzera eta garatzera bideratuta.

- **Bizitza Betea.** Gaitasun pertsonalak bizitza betearen ikuspegitik garatzeko programa, metodologia aktibo baten bidez eta ingurunearekin elkarreraginez.
- **Altxor 7.0.** Erkidegoan eragina duten proiektuak (banaka edo bikoteka eta taldeka) garatzeko informazioa, orientazioa eta laguntza eskaintzeko online eta aurrez aurreko zerbitzua.
- **Helduak Zabaltzen.** Adinekoentzako gizarte-zentroak eraldatzeko prozesua bultzatzen duen proiektua, zentro horien eragina handituz eta belaunaldi berrien sarbidea ahalbidetuz. Digitalizazioan aurrera egiteko jarduketak ere barne hartzen ditu.

Proiektuak adineko pertsona autonomoengan zentratuta daude, haientzako eta haiekiko politiken defizita arintzen lagundu eta mendekotasuna prebenitzeko eta autonomia sustatzeko ikuspegia dute, baina adineko guztiei zuzenduta daude, eta belaunaldien arteko osagaia dute.

Lehentasunezko Jarduketa Guneen esparruan, aipatu den bezala, Adinberriekin hitzarmen bat garatuko da gizarte-zaintzen politikarekin lotuta, Oarsoaldea eskualdean zenbait esku-hartze bultzatzeko. Esku-hartze horiek barne izango dute prebentzioa eta autonomia sustatzearen ikuspegia. Gainera, adineko autonomoekin lankidetzan jardungo da.

2. jarduketa. **Berrikuntza eta bizi-luzetasunaren poloak eta mugaz gaindiko ekimena**

Jarduketa honen bidez, bizi-luzetasunarekin lotutako lurralde-berrikuntzako poloan jarduketa sustatu eta antolatu nahi da, baina EAEn lurralde bakoitzerako espezializatzeko eta sinergiak sortzeko estrategia integral batetik abiatuta: Adinberri Gipuzkoan (iraupen luzeko zaintzak), Nagusi Intelligence Center Bizkaian (bizi-luzetasunaren ekonomia) eta Zahartzeari buruzko Arabako Ikerketa Zentroa (zahartzea eta osasuna).

Era berean, mugaz gaindiko NEXT-CARE ekimena bultzatzen hasi da ABEN Euroeskualdean (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa), bizi-luzetasunari buruzko mugaz gaindiko Europako lehenengo poloa egituratzeko, gizarte-zaintzak eta zaintza soziosanitarioak eta *silver economy* izenekoak sustatzeko, *reference sites* ereduarekin bat, sinergiak sortzeko eta Euroeskualdea arlo horietako erreferente gisa kokatzeko. Ekimen honek mugaz gaindiko proiektu zehatzak gehitzeko aukera izango du.

3. jarduketa. **Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024 (EASSE).**

Jomuga II. legegintzaldia izanik, hauetan bat dator II. GZPErekin: a) Euskal Osasun Sistemak eta GZESk batera sustatu behar dituzte trantsizio soziosanitarioko politikak, sakon eraldatzen ari den gizarte-testuinguru batean; b) ikuspuntu edo eredu ekosistemikoa abiapuntutzat hartuta, zaintzen arloan erantzukizun publikoa zabaldu eta arreta-piramidea irauli nahi duen ikuspegia, erkidego-arreta sendotuz (EASSEn zaintza-lana erakundeen eremutik ateratzea); c) euskal herritarren egungo eta etorkizuneko arreta soziosanitarioko beharrei erantzuteko proiektu giltzarriak bultzatzea (15 EASSEn, 5 jardun-arlotan).

1. *Gobernantza*: Euskadiko gobernantza soziosanitarioaren onarpen juridikoa eta hedapena; Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza antolatzea; Finantzaketa Soziosanitarioaren esparru partekatua.
2. *Elkarreragingarritasuna*: Historia soziosanitario elektronikoa, aginte-koadro integrala (AKI), Osabide egoitzetan, elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko dekretua.
3. *Prebentzioa*: Prebentzio soziosanitarioko esparru koordinatua; arrisku soziosanitarioa detektatzeko tresna.
4. *Arreta*: Lehen mailako arreta soziosanitarioa zabaltzea, jarduketak arretaren xede-kolektiboetan, arreta goiztiarra eta gizarte-, osasun- eta hezkuntza-eremuaren garapena.
5. *I+G+b-a*: Arreta soziosanitarioaren ataria, ezagutza sortzea eta hedatzea; I+G+b soziosanitarioko politikari eta ekimenei buruzko erreferentzia-nodoa; berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik.

Laugarren jarduketa-arloaren barruan, I. GZPEren ebaluazioko emaitzen arabera eta osasun mentaleko zerbitzuen beharrak eta eskeak gehitu direla kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da honako hauek bultzatzea:

- Gaixotasun mentala duten gazteekin (12-30 urte) esku hartzeko ildo edo programa soziosanitario bat; helburua da pandemiaren ondoren arlo horretan sortzen ari diren beharren bilakaerari erreparatzea.
- Erkidegoaren testuinguruan osasun mentalaren arloan esku hartzeko ildo bat; helburua da udaletako gizarte-zerbitzuetara helarazten diren gero eta behar handiagoi erantzutea, GZESren prestazioei eta zerbitzuei buruzko zorroaren dekretuaren 33. artikuluko laugarren atalaren arabera, haiek ez baitute halako zerbitzuak emateko eskumenik.

Estrategia Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluaren esparruan egin zen. Kontseilu hori euskal administrazio publikoen hiru mailek osatzen dute, eta haren jarraipen- eta ebaluazio-sistemak, luzetarako ikuspegiarekin, jardueraren urteko memoriak eta 2024ko ebaluazio-memoria biltzen ditu.

4. jarduketa. **Iraupen luzeko zainketetarako (gizarte arlokoak eta arlo soziosanitariokoak) ekimen berritzaileak**

Hiru Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzaren eta zenbait udal eta tokiko erakunderen antzera, gizarte arloetan eta arlo soziosanitarioetan iraupen luzeko zaintzen arloan trantsizioko politikak abian jarri dituzte osasun-sistemaren laguntzaz. Horiek guztiak:

- Estrategia, plan edo ekimen berritzaileak dira, eta gizarte-zerbitzuen euskal sisteman, baita gune soziosanitarioan ere aldaketa sistemikoak sortuko dituzte. Horregatik jarduketara gisa jasotzen dira. Dena den, pixkana erantzunak eraldatzerantz aurrera egiteko proiektuak dira. Hala, trantsizioetara (soziodemografikoa eta teknologiko-digitala) legealditik goragoko jomugan egokituko dira.
- Guztiek xede bera dute, hain zuzen ere, arreta-piramidea aldatzea; ildo horretatik, erkidegoan lehen eta bigarren mailako arreta publikoa indartu nahi dute eta, gainera, lankidetzak-ikuspegi sistemikoa (ekosistemikoa) eman lehen eta bigarren mailako arreta-zerbitzuei, gizarte- eta osasun-arlokoiei, sektore publikoekoei eta gainerako sektoreetakoiei, betiere gizarte-ekimena, erkidegoak eta familiak nabarmenduz.

Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030 - Iraupen Luzeko Zaintzetarako Lurralde Estrategia

Jarduketara honek tokiko zaintza-ekosistemak (gizarte eta osasunaren arlokoak nahiz soziosanitarioak) dinamizatu, sistematizatu, ebaluatu eta eskalatzen ditu helize laukoitzaren ikuspegitik. Hala, *reference sites* ereduaren arabera, zenbait arloko lankidetzak bateratzen du: gizarte- eta osasun-zerbitzuetako sistemak, administrazio publikoen hiru mailak, lau sektoreak (4S) eta esparru akademikoa (unibertsitateak eta gizarte-zaintzetan eta zaintza soziosanitarioetan adituak diren beste ezagutza-zentro batzuk).

Gipuzkoan dagoeneko 14 tokiko ekosistema daude Gipuzkoa Zaintza Lurraldea - Iraupen Luzeko Zaintzetarako Lurralde Estrategiaren barruan, eta lehen esperientzia egin nahi da Arabako landaguneari. UPV/EHUk 2023. urtean ibilbide jakin bat eginga duen lehenengo ekosistema ebaluatuko du: Pasaia Herri Lab. Era berean, Gipuzkoako Gizarte Politiketako Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren arteko hitzarmena esparrutzat joko da Gipuzkoan tokiko zaintzen ekosistema dinamizatu, sistematizatu, ebaluatu eta eskalatzeko. Aurrekoaren harira, Eusko Jaurlaritzak zenbait tresna EAE guztira zabalduko ditu, lurralde bakoitzeko administrazio publikoekin lankidetzan.

Bere helburua da Gipuzkoa lurralde zainzaile bihurtzea eta, horretarako, zaintzen eraldaketa eta zerbitzuetan oinarritutako arreta- eta zaintza-eredutik erkidegoaren partaidetzarekin pertsonengan funtsatutako zaintza-eredurantz trantsizioa errazten duten prozesuak bultzatzea.

Hona hemen 2030erako Lurralde Estrategia:

- 7 printzipiotan oinarritzen da: 1.- Arreta, zaintzak eta laguntzak pertsonalizatzea. 2.- Bizitzan zehar zaintzen jarraitutasuna (haurtzarotik bizitza amaitu arte). 3.- Zaintza etxean eta erkidego-laguntza. 4.- Aurreratzea eta prebenitzea. 5.- Lankidetzako gobernantza. 6.- Esperimentazioa / berrikuntza. 7.- Monitorizazioa eta ebaluazioa.
- 5 erronka lantzen ditu: **1.** Pertsonaren zentralitatea. **2.** Arreta- eta zaintza-ereduak. **3.** Sistemen gobernantza. **4.** Ekosistemen jasangarritasuna. **5.** Ebaluazio sistemikoa eta sistematikoa.
- Hona hemen beraiekin dakarrena: a) zaintzaren ekonomia garatzeko eragileen konektibitatean oinarrituta, tokiko arreta- eta zaintza-ekosistemak sortu eta bultzatzea; b) berrikuntza sustatzeko eredu esperimentaletan funtsatuta, etxeetan eta erreferentziazko egoitzetan/zentroetan esperientzia pilotuak diseinatu eta inplementatzea; c) esperientzia pilotuetan sortu eta testatutako berrikuntzen jasangarritasuna bermatze aldera, ekosistemak kudeatzeko tokiko gaitasunen garapen-planak diseinatu eta inplementatzea.
- Ikaskuntza-dinamika sortzen du honako hauetan oinarrituta: a) ustiapena (arazoen diagnostikoa eta antolaketa), b) esperimentazioa (proiektu esperimentalak eta erabiltzaileek testatzea), c) ebaluazioa (sistematizazioa eta eragina aztertzea), d) eta eskalatzea (modelizazioa eta transferentzia).

Iraupen Luzeko Zaintzetan Bizkaiko Trantsizio Plana

Ahaldun nagusiak aurkeztu zuen 2021eko irailaren 20an, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren bultzada du iraupen luzeko zaintzak arreta pertsonalizatuagorantz eraldatzeko, baldin eta pertsonak beren bizitza-proiektua garatzeko laguntza behar badute. Helburua da etxean eta egoitza-zentroetan aniztasunari eta beharren, itxaropenen eta lehentasunen bilakaerari erantzutea. Planak lau proiektu eragile ditu.

1. *Etxean geratzen laguntzeko etxeTIC zerbitzua* doakoa da. Etxean ematen diren zaintzetan laguntzen die mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri eta haien zaintzaileei, betiere etxeTIC zentroaren eraginpeko eremu batean bizi badira. Horretarako, lehenengoak familia-ingurunean zaintzeko prestazioen hartzaileak izango dira. Zerbitzu horrek aurrez aurreko laguntza (zentroan bertan) edo telematikoa (etxetik gailu teknologikoen bidez) ematen du. Xede horrez, aurretiaz etxeko zaintza-ekosistemari laguntzeko plana egiten da, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat eta zaintzaileentzat ekintza pertsonalizatuak ditu.

2. 25 pertsonara arteko *bizikidetza-unitateen bidez egoitza-zentroetan bizi diren pertsonen arretaren pertsonalizazioa bultzatzea*; hala, arreta pertsonalizatua sustatzen da laguntza behar duten pertsonen beharren, itxaropenen eta lehentasunen bilakaerari erantzuteko eta, bide batez, erkidegoekiko zentro irekietan eta etxe-ingurunean bizikidetza errazteko. Helburua da bertan bizi diren pertsonak etxeko giroari gehien hurbiltzean zaiona izatea.⁴¹

3. *Eskualdeko erreferentziako zentroak*; osasun-sistemaren laguntzaz, zerbitzu soziosanitario espezializatuak dituzte, pertsoneri (instituzionalizatuta edo ez) hobe erantzuteko, baldin eta honako behar hauetakoren bat badute: zaintzak, prebentzioa, errehabilitazioa edo errekupeazio funtzionala. Horrez gain, sare guztiarentzat laguntza-erreferentzia da, eta laguntza-talde espezializatuak dituzte egoitza-zentro guztiei aholkatu eta laguntza emateko.

4. *Arlo soziosanitarioan profesionalen prestakuntza hobetzea*. Profesionalen prestakuntza eta, batez ere, egoitzetan dihardutenena hobetzearen aldeko apustua da, arreta pertsonalizatuagoari begira arretaren kalitatea hobetzeko funtsezko tresna baita. Hala, ezagutzak, gaitasunak, laneko prozedurak eta dinamikak iraupen luzeko zaintzen etorkizuneko eredura egokituko dira, eta, aldi berean, laneko aukera-hobiaren barruan enplegu kualifikatuaren aukerak sortuko dira.

Etxean Bai Foru Plana (Araba)

Nahiz eta mendekotasuna edo desgaitasuna izan, etxean bizitzen jarraitzeko arabar gehienen nahiari erantzute aldera Arabako Foru Aldundiaren estrategia da. Horretarako, balorazioa egin ondoren, laguntza anitzak eta moldakorrak (fisikoak, gizakienak eta teknologikoak) beharko dituzte.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Saila lanean ari da Etxean Bai erreferentziako zentroa sortzeko proiektuan. Oso-osorik gauzatu arte Arabako Gurutze Gorriaren laguntza izan da hitzarmenaren bidez 50 erabiltzaile eta, hala bazegokion, haien senitarteko edo pertsona zaintzaile profesional gidatzeko (ELZ, laguntzaile pertsonala). Proiektu pilotu honek urtebete iraungo du, eta honako pertsona hauei emango die arreta:

- 65 urtetik gorakoak eta 2. edo 3. mendekotasun-gradua onartuta dutenak.
- 18-65 urtekoak, gutxienez % 65eko mendekotasuna eta/edo desgaitasuna onartuta dutenak.
- 18-65 urtekoak, gaixotasun mentala eta edozein graduko mendekotasuna onartuta dutenak.

Esku-hartzeetan sartuta egongo da zaintzen ekosistema, eta, ondorioz, autozaintzei eta/edo zaintzei buruzko ezagutzen gainean orientatu, prestatu eta hedatzeko ekintzak azalduko dira senitarteko zaintzaileentzat, zaintzaile profesionalentzat eta arestian deskribatutako profilak dituzten erabiltzaileentzat. Halaber, Arabako Foru Aldundiak landagunean, proiektu pilotu gisa, tokiko zaintzen ekosistema abian jartzea aurrez ikusita du, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango du.

⁴¹ Jarduketa honek berariaz konektatzen du egoitza-zentroak egokitzeko proiektuarekin, hurrengoak egiten duenaren antzera.

2. ARDATZA. GIZARTERATZEA

V. proiektu-eragilea. Bazterketa-sarearen deskontzentrazioa eta antolaketa

Proiektu honen bidez aurrera egin nahi da bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta emateko sarearen deskontzentrazioan, eta horretarako, lurraldean banaketa hobetu nahi da arreta eta haren emaitzak hobekitzeko. Helburua da 50.000 biztanletik gorako udalerrietan eta, bereziki, Bilbon eta Donostian, pertsonen eta baliabideen egungo kontzentrazioa saihestu eta murriztea.

Gizarteratze aldera, pertsonak urratsak eman ditzakeen erkidegoarekin lotura izateaz gain, arretaren jarraitutasuna eta pertsonalizazioa hobetu nahi dira, lehen eta bigarren mailako arreta antolatzeke formula alternatiboak zehaztuz, probatuz, sistematizatuz, ebaluatu eta eskalatuz, kontingentzia horren ezaugarriei hobeto erantzuteko, non autonomiaz gizarteratzeke prozesuan aurrerapenak eta atzerakadak eta bazterketaren balorazioak egoten baitira.

Lehenengo helburuari dagokionez, lurralde-mapak egitean, bazterketa-sarearen deskontzentrazio-helburuak ezarriko dira, GZEOren irizpideak partekatuz.

Bigarrenari dagokionez, Euskadin dauden esperientziak eta ereduak eta Estatuko eta/edo Europako erreferentzia garrantzitsu batzuk sistematizatu eta partekatu ondoren, lurralde historiko bakoitzean zerbitzuak emateko eskumena duten administrazio publikoek lehen eta bigarren mailako arreta antolatzeke alternatibak identifikatu eta aztertuko dituzte.

Antolaketa-eredu bat edo gehiago definitu ostean, modu esperimentalean abiaraziko dira, EAE osoko esperientziak bateratuz.

Eusko Jaurlaritzak prozesu hori erraztuko du, eta, bestalde, GZESren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa ebaluatzearekin elkarreragingo du. Ildo horretan, badirudi beharrezkoa dela bazterketa-sarea osatzen duten prestazioen eta zerbitzuen antolaketa arretaren jarraitutasunari gehiago egokitzea eta beste politika eta sistema batzuekiko lotura hobetzea, autonomiaz gizarteratzeke prozesuak bizkortzeke eta sendotzeke (ikus gizarteratzeke egoitzaren espazioa).

Bazterketa-sarea da GZESn finkatu den azkena; hiriguneetan eta, bereziki, hiriburuetan zabaldu da. 50.000 biztanletik gorako beste udal batzuetan eta bestelako udalerrietan arreta-baliabideen garapenak apur bat hobetu du egoera, baina antzeko zailtasunak sortu ditu, udalerririk horietako ekintza-eremuari dagokionez.

Zerbitzu hauek garatzeko eta, biztanleak gorabehera, udalerririk guztietan eman ahal izateko, ezinbestekoa da administrazioen arteko lankidetzaren formulatzea jo edo haiek arakatzea. Aldi berean, planteatutako estrategien joera izango da administrazio publiko guztiak elkartzea, lurraldeen eta udalerririk artean erantzuna desberdina ez izateko, azkenean, "eragindako eskearen" egoerak sortuko baitituzte.

Sarea deskontzentratzea eta hobeto antolatzea GZESren barruan eta beste sistema batzuekin, batez ere etxebizitza sistemarekin, lagungarria izan daiteke arreta hobetzeko, eta autonomiaz eta inklusioz gizarteratzeke prozesuak bizkortzeke eta finkatzeko.

Zorroa ebaluatu ostean, lehen eta bigarren arreta antolatzeke aukerak aztertzeke sortzen diren proposamenen arabera.

Erakunde arduradunak	Foru Aldundiak, udalak, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (EJ).
Abian jartzeko egutegia	2023-2024 (analisi), sarea hedatzea (2024-2025), 2024-2026 (fase esperimental)

VI. proiektu eragilea. Nahi gabeko bakardadearen eta bakartze sozialaren aurkako Euskal Estrategia.

Adinekoentzat abian dauden foruko bi estrategiekin eta Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiarekin (EASSE) lotuta eta ikaskuntzetatik abiatuta, zaintzen erkidegoaren ikuspegitik **Nahi gabeko bakardadearen Euskal Estrategia** diseinatu eta bultzatu nahi da.

Proiektu eragileak barne ditu adinekoentzako Araba a punto eta Hariak estrategiak, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Adinberri Fundazioak sustatutakoak, hurrenez hurren, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024ren jarduketekin batera.

Bestalde, zenbait datu-iturri daude, batzuk lortuta edo aldizkako eragiketetan lortu beharrekoak. Bakardadeari buruzko adierazleen taula bakarrean sartu behar diren datuak, errealitatearen argazkia eta bideoa izateko eta lurraldean (hirigunean eta landagunean) duen adierazpena ezagutzeko.

EUSKADIKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESTRATEGIA 2021-2024

EASSEren iritziz, nahi gabeko bakardadea eta bakartze soziala arrisku soziosanitarioko faktoreak dira, eta osasunerako inpaktu aipagarria dute, beraz, politika-koordinazioaren eta prebentzio soziosanitarioko jarduketan berezko arloak dira (EASSEren 8. proiektua). Ildo horri eutsiz, <<fenomenoaren konplexutasunak eta gorantz doan gizarte-eraginaren mailak (osasunerako ondoreekin) Euskadin eskatzen dute ikuspuntu askotatik esku hartzeko (hirigintza, garraioa, irisgarritasuna, zaintzak, boluntariotza, pobrezia, erkidegoak, gizartea, osasuna, etab.)>>. Helburua da nahi gabeko bakardadea, bakartze soziala eta bi horiek sustatzen dituzten gizarte-desparekotasunaren elementuak arintzea.

ARABA A PUNTO

Arabako Foru Aldundia 2021az gero estrategia kolektiboa bultzatzen ari da adinekoen kasuan nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko (Araba a punto) bi helburu estrategiko lortu nahian.

1. helburua. Gizarte-babesa sendotzea. ARABA A PUNTO SAREA

Helburu estrategiko honen orientabideak sentsibilizazioa jorratzen du, nahi gabeko bakardadearen egoerak arintze aldera laguntzeko baliabide formalak adituz ematearekin batera. Gainera, beharrak eta egoera horretan dauden pertsonak detektatzen ditu, bai eta erkidegoaren babesa (bizilagunak, pertsona ezagunak...) indartu ere.

Helburu honek bultzatzen dituen ekintza aipagarrien artean daude eragileen eta ekimenen mapa identifikatu eta etengabe eguneratzea eta erkidegoko eragileen sarea sortzea, guztiok batera, dauden baliabideak eta elkarrekintzak aprobetxatuz eta harreman eta sinergia berriak sortuz, ekintza-plan komuna diseinatzeko.

Talde eragilea talde aktiboa da, eta aldizka biltzen da hausnarketa egin eta has daitezkeen ekintzak abian jartzeko. Gaur egun balizko bi ekintza-ildotan lanean ari da: Bakardadearen eguna ospatzea eta "harilen" sarea sortzea (pertsonak, profesionalak eta erreferentziazko erakundeak Arabako lurralde historikoan, nahi gabeko bakardadea detektatzen eta prebenitzen batera aritzeko). Bestalde, Landaguneko Emakumeen Sarearekin, Belaunaldien arteko Bizikidetzatza Solidarioa proiektuan lan egiten da.

2. helburua. Gizarte-trebeziak areagotzea: BAKARDADEAREN ESKOLA. Bakardadeak Eskolak

Helburu honen orientazioak bereziki prebenitu nahi ditu pertsona bat bakarrik sentitzeko arriskuak areagotzen dituzten baldintzak (autoestimua gutxi, eraginkortasun pertsonalari buruzko itxaropen altuak, ezintasunaren edo arbuioaren sentipena, gainerakoei irekitzeko zailtasuna, norberari baino ez erreparatzea, gizarte-jardueren partaidetza urria, etab.).

Helburu hau garatzeko "Bakardadeak Eskolak" sortzen dira. Esperientzia pilotu gisa, hasiera batean Laudion ezarri zen, eta berriki beste eskola bat abian jarri da Bastida udalerrian. Aurten beste bat ipiniko

da, eta etorkizunean bestelako eskolak irekitze aldera eman behar diren urratsei buruzko gida egin nahi da.

Bakardadeak Eskolak topaketa-gune bat da, bai eta ezagutza eta ikaskuntza sortzeko gunea ere (betiere nahi gabeko bakardadearen egoerak prebenitzeko).

HARIAK ESTRATEGIA

Xede du Gipuzkoa eta Euskadi eraikitzean baldintza batzuk ezartzea bakardadearen egoeren aurrean (hautatzeko, pozgarriagoa izateko, alderantzikatzeko edo ez gertatzeko) pertsona guztiek gaitasun eta baliabide pertsonal gehiago izateko, esanahia duten lotura afektibo, sozial eta komunitarioak izateko eta gizartean partaidetza- eta lotura-maila handiagoak izateko.

Ikuspegiaren arabera, lurraldean eta herrialdean pertsona orok eskura ditu pertsonak, egiturak, jarduerak, laguntzak eta tresnak administrazio publikoen, hirugarren sektoreko erakundeen, enpresa teknologikoen eta beste eragile batzuen lankidetzako ekintza itunduen esparruan bakardade-egoerak prebenitzeko, haiei heltzeko edo laguntza izateko. Nolanahi ere, ezagutzan oinarrituko da, eta gobernantza parte-hartzaileak nahiz lankidetzako kudeaketak bultzatuko du.

Adinekoei eta zahartze-prozesuei erreparatzen zaie, baina ez beren-beregi eta modu baztertzaillean. Hona hemen jarduketa-ardatzak / ibilbide estrategikoak: 1: Sarea eta gobernantza. 2: Elkarrizketa publikoa. 3: Berrikuntza eta zabalkuntza. 4: Ebaluazioa eta ezagutza. Estrategia, batik bat, hiru elementuren inguruan antolatzen da: gomendioak, konpromisoak eta proiektu eragileak.

Erakunde arduradunak	Arabako Foru Aldundia eta beste foru aldundi batzuk, udalak, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (EJ).
Abian jartzeko egutegia	2023-2026

Jarduketa osagarriak gizarteratzearen eremuan

1. jarduketa. **II Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (EGPEE)**

Euskal administrazio publikoen hiru mailen artean adostutako ekintza itundu eta jarraitua bultzatu nahi da, hirugarren sektore sozialarekin lankidetzan, Euskadin *bizitegi-bazterketa larria* prebenitzeko eta murrizteko eta helburu gisa hartuta bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen prozesu bat hastea autonomiaz gizarteratzen aurrera egiteko, eta etxebizitza edo aldi baterako ostatu-alternatiba bat eskuratzeko.

2002. urtearen amaieran, Etxerik gabeko Pertsonentzako lehenengo Euskal Estrategia ebaluatu zen. Estrategia hori loteslea zen atxikitako erakundeentzat, eta errealitate horretara hurbildu zen, bederatzi ardatz landuz, arlo anitzeko ikuspegi batetik eta erakunde publikoen arteko eta erakunde publikoen eta sozialen arteko lankidetzaren ikuspegitik.

Orain, estrategia berri bat landu nahi da, arlo anitzeko eta lankidetzako ikuspegi horri eutsiz, batetik, aipatutako helburuetara bideratutako gizarte- eta etxebizitza-politika eta, bestetik, administrazio publikoen hiru mailetan eta hirugarren sektore sozialak bultzatutako esperientziak finkatzeko, baldin eta baliozkoak suertatu badira edo etorkizunean hala izan badaiteke. Estrategia horrek, besteak beste, bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeentzako arreta espezifikoak bultzatu nahi du.

Jarduketa hori aurreko proiektu eragilearekin eta ardatz honetako bi jarduketekin lotuta dago, eta jarduketa-ildo estrategiko bakarra osatzen du. Zeharki, honako bi jarduketa hauekin:

- Gizarte-egoitza espazioaren definizioa, egitura eta garapena, etxebizitzaren gizarte-politika bultzatzearen esparruan.
- Trapezistak programa, zeinak kokatu baitu familia-laguntzako sarrerik gabeko gazteentzako arreta migrazioen eta gazteen politika normalizatuetan, eta ez GZESn.

Etxebizitzaren gizarte-politika eta gizarte-egoitzaren espazioa bultzatzeak aldaketak eragin ditzake bazterketa-sarean. Izan ere, gaur egun, GZESren ostatu-zerbitzuetan edo egoitza-zentroetan dauden pertsonen etxebizitza-premiak estaltzen ari dira, horietan irauteak gizarteratze-prozesuarekin eta autonomia-prozesuarekin koherentzia gorde ala ez.

Arlo anitzeko ikuspegiak, GZES abiapuntutzat hartuta, erakunde arteko lanketa eskatzen du, bai eta sailen artekoa ere, administrazio publikoen maila guztietan, eta gizarteratze-prozesuaren une bakoitzean beharrezkoak diren erantzunak aktibatu behar dira, honako ikuspegi hauetatik: etxebizitza, enplegua, diru-sarreraren bermea, gizarteratzea aisiarako sarbidea, gizarte-partaidetza. Erakundeen eta sailen arteko lanketa, eskubideak benetan baliatzeko orientazioa, genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala dira aldi berri honetarako lehentasunak.

2. jarduketa. **Gizarte-egoitzaren eta gizarte-legearen espazioak**

Jarduketa honen helburua da gizarte-egoitzaren eta gizarte-legearen espazioak definitu eta bultzatzea, nahiz eta arlo soziosanitariokoak eta gizarte-lan arlokoak baino garapen gutxiago izan, gizarteratze-prozesuan funtsezkoak baitira.

Lehenengoari dagokionez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren lidergoa kontuan hartuta, eta Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna garatzen ari dela baztertu gabe, etxebizitzaren gizarte-politikari eta gizarte-egoitzaren espazioari buruzko oinarrien dokumentu bat zehazten hastea planteatzen da.

Dokumentua egiten denean, lan-plan baten bidez gauzatuko da, eta etxebizitzaren gizarte-politikaren eta gizarte-egoitzaren espazioaren eremua definituko du, garatzeko oinarriak eta helburuak zehaztuko ditu eta etxebizitzarako eta autonomiaz gizarteratzeko eskubidea erabiltze aldera sistema bakoitzak bere bitartekoekin eta lankidetzan zeregin partekatutak ezarriko ditu.

Gizarte-bizitegiaren espazioa ez dago oso garatuta, baina etxebizitza eskubide bat da, bai eta inklusio-faktore garrantzitsua ere. *Housing First* eta *Housing Led* gisako ikuspegiak foru programetan eta bestelako programetan (hala nola Lehen Urratsak eta Trapezistak) aplikatzeak erakusten du etxebizitza banaka edo partekatuta eskuratu eta gizarte-laguntzarekin konbinatuz gero, autonomiaz egindako gizarteratze-prozesuak bizkortu eta sendotzen direla eta etxegabetasuna prebenitu edo gelditzen dela. Etxebizitza eta

diru-sarrerak bermatzeko laguntzak edo prestazioak bateratzeak eta ohiko etxebizitzetarako gizarte-laguntza emateak xede horretara heltzen laguntzen dute.

Gizarte-legearen espazioari eutsiz, modu berean, oinarrien dokumentu bat zehazten hasi nahi da bi espazioak, elkarrekintza-eremua eta, bereziki GZESren eta lege-sistemaren arteko iragateak (bereziki, espetxearen eremuari dagokiona) argi eta garbi definitzeko, beharrezkoa den jarraitutasunez kudeatu nahi baitira. Dokumentua egindakoan lan-plana egiteari ekingo zaio. Dokumentua egiten denean lan-planaren bidez gauzatuko da, eta espetxeen eskumena transferitzearen esparruan espetxe-araubidearen berezko espazioaren definizioarekin, prestazio eta zerbitzuekin eta lankidetzaren publiko-sozialarekin koherentzia izango du.

3. jarduketa. **Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko lege integrala**

Proiektu honen helburua da arau-esparru berri bat onartu eta zabaltzea, haurren eta nerabeen eskubideak ikuspegi integraletik onetsi eta eraginkortasunez aplikatzeko. Izan ere, ikuspegi integral horretan prebentzioaren, sustapenaren eta arreta nahiz babesaren eginkizun hirukoitza nahasiko da.

Hala, lege-proiektuak aurrera egin nahi du adingabeak eskubideen subjektu titular gisa aitortzeko bidean, eta ez babesa merezi duten subjektu gisa soilik. Eta, horretan oinarrituta, adingabe guztiek, bereizkeriarik egin gabe, giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak erabat eta eraginkortasunez bai eta berdintasun-baldintzetan ere baliatzen dituztela bermatzeko eta babesteko beharrezkoak diren baldintzak bultzatzea eta sustatzea, eta, bereziki, edozein portaera edo indarkeria motaren aurrean, eta edozein ingurunetan gertatzen dela ere (familian, gizartean, hezkuntzan, eta abarrear).

Lege-esparru berriarekin, urrats erabakigarria eman nahi da haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gaur egun indarrean dagoen euskal ordenamendu juridikoa nazioarteko (Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartua eta Espainiak 1990ean berretsia), Europako (Europar Batasuneko itunak eta Europako Kontseiluaren hitzarmenak) eta Estatuko esparrura egokitzeko

Eta,aldi berean, berrikuntza garrantzitsuak sartu nahi dira haurren eta nerabeen eskubideen edukari dagokionez. Berrikuntza horien artean hauek nabarmentzen dira: a) haurren edo nerabearen interes gorenaren lehentasunerako eskubidea berriaz aitortzea; b) entzuna izateko eskubidearen funtsezko edukia eta parte hartzeko eskubidea garatzea.

Lege-proiektuaren edukia hiru irizpidetan oinarritu da:

- *Integraltasuna*; haurren eta nerabeen eskubide guztien aitortzan eta defentsan aurrera eginez, 3 jarduketa-ardatzetatik: sustapena, prebentzioa eta arreta nahiz babesa.
- Haurren eta nerabeen *zeharkakotasuna* ekintza publiko osoan.
- *Erantzunkidetasuna*, haurren eta nerabeen ongizatea, eskubideak benetan baliatzea eta betebeharrak eta erantzukizunak beren gain hartzen dituztela bermatzea erantzukizun kolektiboa, soziala eta instituzionala da, eta familiei, botere publikoei, gizarte osoari eta haurrei nahiz nerabeei eurei ere eragiten die.

4. jarduketa. **Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE 2023-2030)**

Haurren Bermearen Euskal Estrategia diseinatu, abiaraziz, jarraituz eta ebaluatuz, neurri sorta bat abian jarri nahi da, pobrezia-egoeran edo pobrezian egoteko arriskuan dauden pertsonentzat. Dena den, prebentziozko ikuspegia, normalizatua eta inklusiboa erabili nahi da.

Neurri horiek gizarte-babeseko euskal sistema osatzen duten sistemetan diseinatu eta garatu dira, gizarte zibilarekin eta haurren eskubideen alde lan egiten duten erakundeekin lankidetzan, eta haurrek eta haien familiek honako eremu hauetan parte hartuz: dira-sarreraren bermea; enplegua eskuratzea edo hobetzea; etxebizitza eskuratzea; prestazio ekonomiko unibertsalak; hezkuntza-desberdintasuna eta eskola-bereizketa; osasun-arreta eta bizi-ohitura osasungarrien sustapena; hezkuntzaren eta gizartearen arloan esku-hartzea, arreta goiztiarra, zaintzak eta babesgabetasun-egoeren arreta; gurasotasun positiboa eta

mentoretza; elikadura osasungarria; ekitatea aisia-, kultura-, eskolaz kanpoko eta kirol-eskaintza eskuratzeko orduan; eten eta arrisku digitalak; gizarte-partaidetza.

Estrategiaren barnean dago Aukerak Suspertzen programa pilotua haurren eta familien arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailaren egiturazko programa gisa finkatzea, udalerrri berrietan zabaltzen jarraitzea eta 2021-2027 aldian Europako Gizarte Funtsen (EGIF+) programa operatiboaren esparruan hedatzea, txertatzeko lan egin ondoren. Halaber, Erronka Demografikorako Euskal Estrategiaren 15. jarduketa aurrez ikusten da (guraso bakarrei buruzko txosten bat egitea).

Neurri horiek lagundu beharko dute 2016-2018 aldian ikusten hasi zen haur-pobrezia murrizteko bideari berriro heltzen, 2008tik lehen aldiz 14 urtetik beherako biztanlerian pobrezia tasa jaitsi zenean, eta, era berean, pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondorioz ondoko bi krisiek izan duten inpaktua birbideratzen lagundu beharko dute.

Estrategia erakunde artekoa da, eta bat dator Kontseiluaren 2021eko ekainaren 14ko 2021/1004 (EB) Gomendioarekin (Europako Haurren Bermea ezartzen duena) eta Haurren Eskubideei buruzko Europar Batasunaren Estrategiarekin, eta eremu horretan ziurtatu nahi du, ekitatearen eta aukera-berdintasunaren printzipiotik abiatuta, gizarte-babeseko kontuan familien eta seme-alaben eginkizunean gastuaren hazkunde etengabearen inpaktua. Hazkunde hori 2000. urtetik 2020. urtera bitartean gertatu da, 2010. eta 2011. urteetan izan ezik, 2008ko krisiaren ondorioz.

Erakunde arteko elkarrizketa eta lankidetzatik abiatuta eta gizarte zibilaren eta hartzailen eta haien familien parte-hartzearekin diseinatu eta onartu ondoren, 2030era arte zabaltzea planteatzen da, trantsizio-politikekin lotutako bestelako ekimenen eta Erronka Demografikorako Euskal Estrategiaren ildotik.

5. jarduketa. **Krisiek ekarri dituzten larrialdiko egoerekiko erantzunak**

Jarduketa honek azken hiru krisiek gizartean izan duten eraginari erantzuten dio. Krisialdi horiek faktore desberdinen ondorio izan dira (finantza-krisia, pandemia eta Ukrainako gerra), baina kasu guztietan, ekonomia eta gizarte-inpaktua nabarmena izan da, eta, gainera, azkeneko krisiaren kasuan, inpaktu hori aurreko krisialditik irauten zuten ondorioei gehitu zaie.

Testuinguru horretan, beharrezkoa den bitartean, presazko neurriak aktibatuko dira, inguruabarraren arabera, ohikoez gain, laguntza osagarriak behar dituzten abagune edo egoera egonkorragoei erantzuteko. Helburua da funtsezko beharrak estaltzea eta etxegabetasun-egoerak prebenitzea. Besteak beste, honako neurri hauek aurreikusten dira:

- Azken Sarea Indartzen programa (pandemiaren gizarte-inpaktuari erantzuteko eta Ukrainako gerrak lekualdatutako pertsonen harrera-familiei laguntzeko).
- Gizarte-larrialdiko laguntzak indartzea.
- Energia-pobrezia aurkako neurriak: bonu termikoa.
- Elikagai-pobrezia aurkako neurriak.
- Europako Gizarte Funtsaren (EGIF+) programaren gabezia materialaren ildo zabaltzea.

6. jarduketa. **EAEko Harrera Eredua zabaltzea**

Jarduketa multzo bat bultzatu, sistematizatu, ebaluatu eta, pixkana, finkatu nahi da; batzuk dagoeneko hasita daude, beste batzuk, berriz, diseinu-fasean ageri dira, baina guztiek EAEko harrera-eredua egituratzen dute kulturarteko ikuspegiarekin (ez kulturantzuna, ez asimilazionista), bizikidetzaren (ez elkarrekin bizitze hutsa) sustatu eta antolatze, gero eta anitzagoa, abegitsuagoa eta inklusiboagoa den euskal gizarte batean.

Programa eta baliabideen sare bat da, migratzaileek eta beren familiek Euskadin bizi-proiektu bat garatu nahi izanez gero, harreran eta, batzuetan, gizarteratze-prozesuan laguntzeko.

Zehazki: a) Harrera programa; bizikidetzaren alternatibak eskaintzen ditu; b) erkidego-babesletzako ekimenak, tokiko harrera sareek osatuak (Loturak programak indartzen ditu Ukrainako gerraren ondorioz); c) mentoretzako, harrerako eta laguntza pertsonalizatuko programa; d) laguntzarako Trapezistak programa; bizikidetzako eta gizartearen eta hezkuntzaren nahiz gizartearen eta lanaren arloan esku hartzeko; e) eta Aholku Sarea, aholkularitza juridikoko sarea. Gainera, Eusko Jaurlaritzak Estatuko

Administrazio Orokorraren Aldi baterako Nazioarteko Harrera eta Babes Sistema osatzen du Oñati, Tolosa eta Berrizko zentroekin.

Testuinguru horretan, jarduera honen helburuak honako hauek dira:

- a) aipaturako ekimenak bultzatzea, sistematizatzea eta ebaluatzea; b) Harreraguneak (pertsonek harrerako, informazio integraleko eta deribazioko zentroak) abiaraztea; c) laguntza multzo hori pertsona eta familia migratzaileak hartzeko eta gizarteratzeko sare eta prozesu bakar batean antolatzea; d) eta, ebaluazio integral baten ondoren, harrerako euskal sarea eta eredia sendotzea, operatiboki eta arau bidez.
- Barnean dago Trapezistak programa pilotua emantzipazioan eta heldutasunerako bidean laguntzeko gaztediari eta migrazioei buruzko politika normalizatuen esparruan egiturazko programa gisa finkatzea, zabaltzen jarraitzea eta 2021-2027 aldian Europako Gizarte Funtsen (EGIF+) programa operatiboaren esparruan hedatzea, txertatzeko lan egin ondoren.
- Eta Erronka Demografikorako Euskal Estrategiaren 25. jarduketarekin lotzen da: migrazio eta asiloaren arloko transferentziari lehentasuna ematea eta migratzaileak hartzeko eta gizarteratzeko euskal eredia diseinatzea.

3. ARDATZA. ZAINTZEN OREKA

VII. proiektu eragilea. EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta lurralde historiko bakoitzeko mapak zabaltzea

EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapak, aipatutako irizpideetan oinarrituta, GZESren zorroko prestazio eta zerbitzuak zabaltzen ditu plazei, erabiltzaileei eta prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen dagokienez, eta zerbitzuak orientazio orokor gisa ezartzeko irizpide egokienak definitzen ditu.

EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa egin ondoren, eta haren aurreikuspenak eta orientabideak kontuan hartuta, lurralde historiko bakoitzeko erakunde arteko mahaiek lurralde-mapak egingo dituzte. Mapa horiek EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapari erantsiko zaizkio eta publikoak izango dira.

Eusko Jaurlaritzak eta GZEOk II. GZPEren jarraipen- eta ebaluazio-sistema bultzatuko dute, eta, aurreikusitako tresnen bidez, GZESren eta zaintza- eta ongizate-eredua aginte-koadroko helburu operatiboetara egokitzea monitorizatuko dute.

Mapari dagokionez, zorroko prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak zabaltzean emandako aurrerapausoak monitorizatuko dira, eta bere garaian ebaluatu ere bai, kasu bakoitzean aurreikusitako aldian. Zaintzen orekari dagokionez, datu horiekin, erakunde-zaintzaren gorakada (familiako zaintzaileei zuzendutakoa barne) eta familia-zaintzarekiko proportzioa identifikatu ahal izango da, eta horretarako, beharrezkoa da adierazle egokia eta bideragarria garatzea.

Erakunde arduradunak	Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak eta udalak.
Abian jartzeko egutegia	2023-2026

Jarduketa osagarriak zaintzen orekari dagokionez

1. jarduketa. Profesionalak erakarri eta itzultzeko ekimena

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Osasun Sailarekin batera eta Euskadi Talent eta Lehendakariartzako Ameslariak programaren laguntzaz, gizarte- eta osasun-arloko eta arlo soziosanitarioko profesionalak (EEkoak zein EEtik kanpokoak) erakarri eta itzultzea indartzeko ekimen bat bultzatu nahi du.

Programa hori batera diseinatuko dute, dagoeneko Euskadin bizi direnen esperientzia eta Estatuaren eta Europar Batasunaren testuingurua aztertuz, hari erantzuteko hartutako neurriak barne, eta programaren batera jarraitu eta ebaluatuko da, hartutako ekimenei buruzko esperientzia partekatuz.

Profesionalak erakartzeko eta itzultzeko ekintza multzo bat prestatuko da. Sistema bakoitzaren barruan, lan arloko jarduketak eta jarduketa osagarriak egongo dira, Euskadin kokatu nahi duten pertsonen (eta, hala badagokio, familien) premiak kontuan hartuta, bai erakartzeko bai itzultzeko kasuetan.

Prozesuan laguntzeko ikuspegi pertsonalizatua joko da, pertsonak erakarri, lekualdatu eta harrera egitea kudeatuz. Era berean, EAEko osasun-sistemen eta gizarte-zerbitzuen ardura izango dira sistema bakoitzera iristeko baldintzak definitzea eta hartzea eta gizareratzea nahiz laneratzea.

Oro har, ekimenak arreta pertsonalizatua eta integratua eskainiko die pertsonen eta familien, ikuspegi komun eta prozesu partekatu batekin.

Arreta pertsonalizatuarekiko neurri osagarriak, haietako batzuk gaur egun daudenak (jatorrian kontratatzea, itzultzeko laguntzak, familientzako laguntzak edo prestazioak, kontzilio-neurriak...), kasu bakoitzean eskumena duten erakundeek eta sistemek diseinatuko dituzte.

2. jarduketa. Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitarioa

Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitarioa, kontzeptu- eta arau-esparruan aurkeztutako gizarte-zaintzen politikarekin bat eginda, murrizteko joera egiaztatu ostean, familia-zaintza babestera eta sostengatzera bideratuta dago, honako hauek sustatuz: a) erakunde-zaintzari dagokionez duen proportzioa murriztea; b) zaintzailearen erakunde-zaintza bultzatzea (informazioa, orientazioa, prestakuntza, atsedena...); c) familia-zaintza aukera libre eta mugatu gisa, eta, beraz, erakunde-

zaintzarekin antolatuta, bizitza pertsonalarekin, familiarekin eta lanarekin bateragarria, erantzunkidea eta zereginetan eta denboran mugatuta.

Hala, estrategiak, 8 helburu orokorren eta 5 proiektu eragileren bidez, zaintzen oreka berri bat lortu nahi du (zaintzen arloko trantsizio-politika osoaren 2030eko jomugan) erakunde-zaintza eta gizonen parte-hartzea indartuz zaintzetan, eta pertsona eta familia zaintzaileei gizarte- eta osasun-laguntza hobea emanaz, aurrez aurre eta baliabide digitaletan.

Helburuak honako hauek dira:

- Zaintzen balioaren gizarte-kontzientzia handitzea.
- Zaintzaileen kopurua eta familia-zaintzaren intentsitatea mantentzea, baina profilak dibertsifikatuz (adina eta generoa).
- Urtero GZESTik harremanetan jartzea pertsonekin eta familiekin.
- Lehen mailako arretako gizarte- eta osasun-zerbitzuek informazio-, orientazio-, prestakuntza- eta laguntza-zerbitzu pertsonalizatueterako sarbidea sustatzea.
- Zaintza-unitate bakoitzari gizarte-zaintza eta zaintza soziosanitarioetarako plan bat eskaintzea, bai eta, sistema bakoitzeko erreferentziazko pertsona bat ere, ohiko atsedendaldiko 15 egun urtean, eta aldizkako osasun-azterketa bat; f) zaintza-egoera desegokiak detektatzea eta horiei heltzea.
- Tresnak definitzea (kotizazioa, BGAE), etorkizunean diru-sarrerak bermatzeko senitarteko baten zaintzaileak diren pertsoneri, enplegurik ez badute.
- Enplegua duten pertsoneri beren lan-bizitzaren etapa batean laguntza ekonomikoak eskaintzea, ohiz partzialki edo beren-beregi senitarteko bat zaintzen aritzen badira.
- Enpresa handiek eta, ahal den neurrian, ETE-ek ordutegiak antolatzeko neurriak eta bestelako lan-jardunbideak har ditzaten bultzatzea, baldin eta enplegua eta zaintza kontziliatzeko badira.

Helburu horiek lortzeko *5 proiektu eragile* identifikatu dira 36 jarduketatan:

- Familietara hurbiltze proaktiboa eta kanal anitzekoa.
- Gizarte- eta osasun-arreta etengabe hobetzea eta elkarrekiko laguntza eta boluntariotza bultzatzea.
- Gainkarga-egoerak eta premia berezien arreta detektatzea, prebenitzea eta lantzea.
- Kontziliazio erantzunkidea eta zaintzaren inpaktu ekonomikoa murriztea.
- Zaintza-lanak onartu eta murriztea.

Horrekin guztiarekin, arretaren prozesu jarraitua, gizarte-izaera eta izaera soziosanitariokoa, osatu nahi da familia zaintzaileei laguntzeko sistema integral baten barruan, neurri handi batean, izaera esperimentalak duten programak garatuz; programa horiek ikuspegi operatibotik ebaluatuko dira, eta estrategiak garatuko duen zaintzaileentzako estatutu batean jasoko dira.

3. jarduketa. **Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-ekimenak**

Jarduketa honen bidez sustatu nahi dira, batetik, familia-eremuan zaintzaileen kontziliazioa eta, bestetik, gizonen familia barruko zaintzan duten erantzunkidetasuna. Horretarako, enpresei, erakundeei eta familiei zuzendutako neurriak sistematizatu, ebaluatu, partekatu eta bultzatzen dira, eta enpresetatik eta hirugarren sektore sozialetik neurri berriak sustatzen dira, sektore publikoaren laguntzarekin.

Kontzilia Erkidegoa bultzatzen jarraitu nahi da; erkidego hori ezagutza partekatuko gune bat da, eta bertan, enpresek sarean lan egiten dute kontziliazio-baldintzak hobetzeko jarraitzeko, diagnostikoa eta kontziliazio-plana egin ondoren. Kontzilia Erkidegoak honako hauek ditu: webgunea, banakako arreta-zerbitzua (telefonoz eta online), talde-topaketak eta kontziliazio erantzunkideari eta enpresa-intereseko beste arlo batzuei buruzko informazioa eta prestakuntza (telelana, malgutasuna, langileen adina kudeatzea, etab.). Enpresa eta erakunde pribatuentzako laguntzei buruzko agindu berriaren helburua da diagnostikoa egin ondoren, bizitza pertsonala, familia eta lan bateragarri egiteko plana duten enpresen kopurua handitzea, erantzunkidetasuna, aukera-berdintasuna eta soldata-arrakala murrizteko asmoz.

Kontziliaziorako laguntzak honako hauen bidez antolatzen dira: a) 164/2019 Dekretua, urriaren 22koa, Familia eta Lana Bateragarri Egiteko Laguntzei buruzkoa, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak edo seme-alabak zaintzeko xedez eszedentzian dauden edo lanaldi-murrizketa duten langileentzako laguntzak, eta kasu horietan dauden langileak ordeztzeko laguntzak; b)

102/2022 Dekretua, 14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzkoa.

Hemen Erronka Demografikorako Euskal Estrategiaren 16., 17. eta 18. jarduketak sartzen dira: aitatasun- eta amatasun-baimenak luzatzea; adingabeen adina luzatzea adingabeak zaintzeko kontratazioan; ordainsari-berdintasunari buruzko kanpainei eta berdintasun-planei eustea.

Neurri multzo horren bidez, zaintzen ardua batez ere emakumeena izatea saihestu eta zereginen banaketa desorekatua zuzendu nahi dira, zeina emakumeek bizitzako hainbat esparrutan jasaten duten egiturazko desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera oinarrian baitago. Ildo horretan, funtsezkoa da neurri horiek emakumeen eta gizonen kontziliazioan eta gizonen erantzunkidetasunean duten inpaktu bereizgarria ebaluatzea, eta esperientziatik eta ebaluaziotik abiatuta berbideratzea.

4. ARDATZA. GZESren ANTOLAKETA

• VIII. proiektu eragilea. Zorroari buruzko dekretuaren ebaluazioa eta arau-garapena

GZES gizarte-testuinguruko aldatetara egokitzeko, bereziki garrantzitsua da, batetik, *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua* ebaluatzea eta, bestetik, prestazio eta zerbitzuei buruzko arauak garatzea, halaberrez ebaluazioaren emaitza egokitzeko.

Trantsizio-testuinguruan, ebaluazioak zorroa egokitzea izango du helburu, eta, xede horrez, onartu zenetik izandako gizarte-aldaketei eta esperientziari, trantsizio soziodemografiko eta digitalari eta zaintzei buruzko gizarte-antolaketaren ereduari erreparatuko zaie. Ebaluazioak dekretuaren zenbait alderdi landuko ditu, eta arreta berezia jarriko die prestazioei nahiz zerbitzuei, funtsezko beste alderdi batzuekin batera, hala nola prozedurak. Horrez gain, analisiari eraldaketa digitala gehituko dio, zerbitzuak hurbildu eta errazago eskuratzeko.

Orain adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko dekretua eguneratzen ari da, eta GZESren zeharkako bi dekretu-proiektu lantzen ari dira: a) GZESn gizarte-itunari buruzko araubidea eta hitzarmenak; b) doakoak ez direlako GZESren prestazioak eta zerbitzuak finantzatzeko ordaintzera behartuta dauden pertsonen parte hartzea.

Era berean, zorroa ebaluatzeko prozesua amaitzen denean, kasuaren koordinazioari lotutakoak garatzen amaitzea aurrez ikusten da: gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari eta gizarte-fitxari buruzko 353/2013 Dekretua berrikustea, lehenengoa sinplifikatzeko; Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) dekretu espezifiko batean edo aurrekoaren esparruan arautzea; eta helduen babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna diseinatzea eta abian jartzea.

Ebaluazio-prozesurako gutxi gorabehera 12 hilabete beharko dira, eta genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala erabiliko dira, eraginpeko zenbait eragilek parte hartzeaz gain. Bidezkoa denean, eguneratzeko orientabideak emango dira, eta proposatutako aldaketei dagokienez, lehen balorazio ekonomikoa izango du. Eguneratzeko administrazio-prozedura hurrengo aldi estrategikoan hasi eta memoria ekonomikoa 2026ko uda baino lehen amaituko da.

Zorroari buruzko dekretua eguneratzen denean, lan-plana definituko da, eta zorroko prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen arau-garapena bukatu arteko lehentasunak nahiz kronograma izango ditu. Modu horretan saihestuko da prestazioa harmonizatzen duen testua ez izateagatik zerbitzua edo prestazioa ematen duen lurralde historikoaren edo udalerrriaren arabera desberdin tratatzea.

Erakunde arduradunak	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza eta GZEO
Abian jartzeko egutegia	2023- 2026

IX. proiektu eragilea. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) garatzea

GZES osatzen duten euskal administrazio publikoen hiru mailen parte-hartzearekin diseinatutako sistema bat bultzatu nahi da, zeinak erantzungo baitie behar komunei eta jasoko baitu lurralde historiko bakoitzeko sistemetan sortutako informazioa.

GZIESk aukera eman behar du Eusko Jaurlaritzaren eskumenei (Gizarte Zerbitzuen Legearen 40. artikuluan ezarritakoak) lotutako informazioa tratatzeko prozesuak eta eginkizunak gauzatzeko, eta ziurtatu behar du eginkizun hauek, besteak beste, betetzeko beharrezko datuak eskuragarri daudela: a) GZESren hedapena jarraitzea eta ebaluatzea; d) prospekzioa eta plangintza; c) beste informazio-sistema batzuekiko koordinazioa erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen esparruan (AMAS barne) eta gizarte- eta osasun-zerbitzuen esparruan. Gainera, GZIESk, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Maparekin eta haren eranskinekin batera, ahalbidetuko du GZES gero eta ezagunagoa eta irigarriagoa izatea.

Proiektua hiru fasetan garatuko da, eta lehenengoa hasita dago: a) GZIESren ezaugarriak identifikatzea, diseinua kontratatzea; b) GZIESren diseinua; c) ezarpena. Fase bakoitza GZES osatzen duten administrazio publikoekin hitz eginda garatuko da.

Bestalde, adierazi den bezala, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiak, elkarreragingarritasun soziosanitarioaren garapenari buruzko ardatz bat jasotzen du, eta ardatz hori ere proiektuarekin lotu behar da.

EAEEn, GZIESren garapena, GZESren maparen eta memoria ekonomikoaren berezko datuei dagokienez, aldizkako bi estatistika-eragiketara mugatu da, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikokoak txosten bakar batean jaso du: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika (GZGEE) eta Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoaren Estatistika.

2015ean zorroari buruzko dekretua onartzeko eta, ondoren, I. GZPE egiteko euskarri izan zen memoria ekonomikoa gauzatzeko, haiekin lotutako eragiketa espezifiko bat egin zen, baina, oso konplexua denez, ez da berriro horrelakorik egin. Aitzitik, GZEOrekin alderatuta, datuak biltzeko sistema simple bat diseinatu da GZESren hedapena jarraitzeko, eta GZGEEren bi zailtasun gainditzen ditu: batetik, neurri batean, txostenen dataren eta datuen dataren arteko aldea (GZGEEen ere murriztuz joan da) eta, bestetik, sekretu estatistikoa.

Lurralde historiko bakoitzean, foru aldundiek eta zenbait udalek beren sistemak garatu dituzte, baina foru eta toki mailako sistemak konektatzen dituzten sistemak ere badaude (Gipuzkoa). Erakunde bakoitzak, Eusko Jaurlaritzak barne, Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema (AMAS) osatzen duten GZESren prestazio eta zerbitzuei buruzko datuak ematen dizkio AMASISri.

Eremu soziosanitarioan, OSABIDE ezarri zen adinekoentzako egoitza-zentroetan, eta, oro har, historia soziosanitario elektronikoa garatzen lan egin da.

Sistema eta tresna horiek guztiak GZIESrekin konektatu behar dira, egokitzat jotzen den moduan.

Erakunde arduradunak	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza, GZEO, ASEK
Abian jartzeko egutegia	2023 – 2026

XI. proiektu eragilea. Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB) bultzatzea

Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia bultzatu nahi da (Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bidez (77. artikulua) sortu eta urriaren 26ko 225/2011 Dekretuaren bidez arautzen da), ezagutzaren kudeaketari, ikerketari, berrikuntzari, ebaluazioari eta kalitatearen etengabeko hobekuntzari lotutako tresna aurreratu gisa, beste tresna batzuekin batera, GZES, zaintza-eredua eta ongizate eredua egokitzeko.

Horretarako, GZEBk tresna dinamiko bat eratu behar du, ebidentzian oinarritutako politikak errazago kudeatzeko (plangintza, ebaluazioa, koordinazioa, berrikuntza...) eta trantsizio-prozesuetan laguntzeko, balioa emanez zerbitzuen eta prestazioen hornidurari (arau-garapena, diseinua, ebaluazioa eta kalitatearen etengabeko hobekuntza), bai GZESren kudeaketari (prospekzioa, premien detekzioa, plangintza) eta gizarte-babeseko euskal sistemako beste sistema batzuekiko interakzio-espazioei (gizartea eta osasuna, gizartea eta hezkuntza, gizartea eta lana...).

Testuinguru horretan, GZEBk hurrengo plan estrategikoekin konektatu behar du, eta plan horiek hedatzen lagundu behar du berezko jarduketan bidez. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Legearen 40. artikulua Eusko Jaurlaritzari ematen dizkion eskumenen ondoriozko eginkizunak erraztu behar ditu.

Xede horrez, I. GZPEren ebaluazioaren gomendioei jarraikiz, GZEBren diseinu berri bat egiten hasi da, ezagutza (ezagutuz), berrikuntza (berrituz) eta bien hedapena edo transferentzia (gizarteratuz) dinamizatze edo sustatzeko logika txertatuz, garatzen ari ziren hainbat ekimen konektatuz eta dinamika eta produktu berriak ezarriz. Horrez gain, plataforma digital berri bat diseinatu da (2022ko azaroan aurkeztu zen).

2023an II. GZPE onartu ondoren, eta harrekin koherente izanik, 2023-2023 aldirako plan-plan bat egingo da, eta haren barruan sartuko dira hurrengo urteko programazioak. GZEB kudeatzeari dagokionez, aurrerapausoak eman nahi dira arlo hauetan: hiru arloen eta produktu eta dinamika berrien hedapen progresiboa; eginkizun espezifikoak garatzea, esaterako, prospekzioa eta ebaluazioa (II. GZPEren aginte-koadroa garatzea barne); lotura gizarte-politiken beste behatoki batzuekin eta ABEN Euroeskualdearekin, proiektu partekatuei dagokienez, hala nola NEXT CARE, eta zahartzearen, bizi-luzetasunaren eta gizarte-

zaintza eta zaintza soziosanitarioen arloko prospekzio-eginkizunekin. Adibidez, Nafarroako Gizarte Errealitatearen Behatokiarekin eta Adimen Aurreratuko Sistemarekin (AAS).

Erakunde arduradunak	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.
Abian jartzeko egutegia	2023- 2026

XII. proiektu eragilea. Lankidetzako gobernantza-eredua (Besaide proiektua)

Lankidetzako gobernantza ez da printzipio bat, irizpide, prozedura eta tresna zehatz batzuen multzoa baizik. Multzo horrek harreman-eredu batekin bat egingo du, non uztartzen baitira sistema osatzen duten lurralde eta eragileak, sistemaren definizioarekin bat etorrita.

Jarduketa honen helburua da, hain zuzen ere, eredu hori eta hari lotutako irizpide, prozedura eta tresna zehatzak definitzea, eredia ezarri, ebaluatu eta estandarizatzeko.

Ezinbestekoa da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gobernuan eta kudeaketan erakunde publikoen arteko lankidetzaren sustatzea, erantzukizun publikoko sistema unibertsal eta,aldi berean, deszentralizatu eta misto batean, kudeaketa publiko zuzena eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketa nagusi direla.

Testuinguru horretan, nahitaezkoa da, era berean, Eusko Jaurlaritzak garatzea Gizarte Zerbitzuen Legearen 40. artikulua, bere koordinazio-eskumena egikaritzuz, sistemaren gobernuari eta kudeaketari buruz esleitzen dizkion eginkizunak, ezinbestekoa baita lankidetzako gobernantza batetik erantzukizun publiko sistema unibertsal, deszentralizatu eta misto bat eraikitzeko. Zehazki:

- Erregelamenduak egiteko ahala, artikulua horren 1. atalean zehaztutakoetan arreta berezia jarrita.
- EAEko zerbitzuen plangintza orokorra.
- GZESren eta beste sistema eta politika publiko batzuen arteko koordinazio orokorra.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) diseinatu eta garatzea.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia zuzendu, antolatu eta bultzatzea.
- Gizarte-zerbitzuen arloko prestakuntza, arretaren kalitatearen hobekuntza, berrikuntza eta ikerketa sustatzea.
- Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea eta herritarren partaidetza sustatzea.

Gobernantza-eredu hori bat dator lankidetzako gobernantzarekin, eta elkarrizketa zibila bezalako ikuspegiak ere biltzen ditu, interes eta aplikazio berezikoak presazko eta trantsizioko politikak diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean, pixkana sareko erakundeak eta ikasten duten erakundeak eratuz, gizarte zibilarekin eta gizarte-solaskideekin elkarrizketan.

Erakunde arduradunak	Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta EUDEL.
Abian jartzeko egutegia	2023 – 2026

XIII. proiektu eragilea. Ebidentzian, ebaluazioaren kulturen eta kalitatearen ebaluazioan oinarritutako politikak kudeatzea

Jarduketa honen bidez, jardunbide egokiei buruzko ebaluazioaren eta trukearen kultura sustatu nahi dira. Halaber, ebidentzian oinarritutako politikak kudeatzeko sistemak eta prozedurak garatzeko gaitasuna ere, eta, zehazki, egoitzen eta erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen kalitatearen ebaluazioa, arretaren kalitate-ezaugarriak kontuan hartuta, gero eta gehiago sartzen baitituzte zorroko zerbitzuen garapen-dekretuek.

Zerbitzuak araz garatzen direnean, arretaren kalitatea ebaluatzean eta kontratuak eta, bereziki, hitzarmenak eta gizarte-iturak jarraitzean, arreta erkidego-ereduari egokitzea sustatuko da, pertsonarengan eta haren harremanetan eta kontingentziei arreta emateko zerbitzuan eta sarean oinarritutako ikuspegi batetik.

Zerbitzuen kalitatea ebaluatzearen helburua izango da, beraz, arreta-zerbitzu eta -sare bakoitza erkidego-ereduaren dimentsioetara egokitzea, eta ez baldintza materialak, funtzionalak eta langileei dagozkienak betetze hutsera. Era berean, eredu horrekin bat etorritik, Europar Batasuneko Gizarte Babeserako Batzordearen Gizarte Zerbitzuen Kalitaterako Europako Borondatezko Esparruak jasotzen dituen adierazleak hartuko dira kontuan.

Horrela, zerbitzuen kalitatea zerbitzu horiek emateko ardura duten erakundeek ebaluatu behar dutenez, aurrera egingo da kalitatearen ebaluazioaren irizpide komunak ezartzen, erkidego-ereduarekin eta Europako estandarrekin bat etorritik.

Jarduketa hori garatzeko eta, bereziki, ebaluazioaren kultura sustatzeko, jardunbide egokiak trukatzeko eta gai horretan trebatzeko, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia egongo da.

Erakunde arduradunak	Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak eta EUDEL.
Abian jartzeko egutegia	2023 – 2026

XIV. proiektu eragilea. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eraldaketa digitala

Jarduketa honen bidez, GZESren eraldaketa digitalerako lan-eredu eta -plan bat egin nahi dira, GZES zabaltzeko, ebaluatzeko eta dimentsio hori hobekuntzako ziklo berri bati ekiteko, beharrezko gaikuntzarako PDCA zikloarekin batera.

Planak esku-hartze arloari helduko dio, eta arreta berezia jarriko du trantsizio digitalak gizartearen arloko esku-hartzean, aukera-berdintasunean eta erabiltzaileen inklusioan (eten digitala) duen inpaktuan; bestalde, GZESren kudeaketa-arloari ere helduko dio, eta eraldaketa digitalerako helburuak eta bitartekoak ezarriko ditu, barne-bizitzarekin, koordinazioarekin, informazio-trukearekin, plangintzarekin eta prospekzioarekin lotu, prospekzioari, ezagutzaren kudeaketari, prestakuntzari edo berrikuntzari, besteak beste, aplikatutako adimen artifiziala barne.

Esku-hartzearen ikuspegitik, egoitza-eremua, erkidegokoa eta etxebizitza (*smart home*) hartuko dira kontuan. Ildo horretan, ezinbestekoa da planteamendu horretan dagoeneko abian diren eraldaketa digitalarekin lotutako ekintzak sartzeari, baldin eta etxean bizi direnen arreta hobetzeko aplikagarriak badira: Etxetic, iragarpen-telelaguntza eta zaintzaileei laguntzeko BetiON programa garatzea; zaintzaileei laguntzeko APPa, Zaintel, Altxor 7.0 ekosistema birtuala, etab.

Azkenik, planak arlo anitzeko ikuspegia izan behar du eragile askorekin, lehen eta bigarren mailako arreta eta GZESren kudeaketa beharretara eta arlo (publikoa, pribatua, soziala eta erkidegoa, familia) eta eragile (profesionalak, hartzaileak, familiak, boluntarioak...) desberdinen ekarpena egokitzeko. Gainera, datuak partekatuta kudeatzeko aukerak gehituko dira.

Erakunde arduradunak	Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak eta EUDEL.
Abian jartzeko egutegia	2023 – 2026

Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak GZESren antolaketaren eremuan

1. jarduketa. Gizarte Berrikuntzako Euskal Ekosistema

Jarduketa honen bidez, GZESko gizarte-zerbitzuen eta -politiken esparruan dagoen gizarte-berrikuntzako ekosistema identifikatu, onartu, indartu eta kokatu nahi da, Euskadin eta Euskaditik kanpo, bai eta sistemen arteko elkarrekintza-espazioak ere, lankidetzan horizontaletik abiatuta.

Arlo honetako ekintza ikusarazteko, indartzeko eta proiektu berritzaileak sustatzeko da, GZES garatzeko funtsezko faktoreei lotutako ekintza eragile gisa, ekintzen arteko sinergiak sortu eta egiten jakitea partekatuz.

I. GZPE ebaluatzean planteatutakoaren ildotik, <<berrikuntza-eragileen sare bat sustatu behar da (unibertsitateak, hirugarren sektoreko erakundeak eta sareak, teknologia-enpresak), gizarte-politiken eta gizarte-zerbitzuen esparruan gizarte-berrikuntza bultzatzeko (lankidetzan), honako hauekin lotu ahal izateko: a) GZESren iraunkortasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta hobekuntza; b) jarduera ekonomikoa bultzatzea eta zaintza-sektorean kalitatezko enplegua sortzea; c) ezagutza eragitea eta transferitzea tokiko, estatuko eta nazioarteko mailan>>.

Hau da, gizarte-politiken, gizarte-zerbitzuen, GZESren eta beste sistema publiko batzuekin elkarrekintzaren esparruan berrikuntza-ekosistema, orotara babes-sistemaren eraginkortasuna indartzeko eta politika koherenteak, ebidentzian oinarrituta daudenak, sustatzeko. Hala, ebaluaziotik abiatuta, ekintzarako ezagutza aipagarria sortu behar da. Ekosistema bat, ez, ordea, sistema bat, sektoreen arteko

lankidetzatik eta akademiaren eta beste ezagutza- eta berrikuntza-zentro batzuen laguntzaz sendotzen dena.

Horretarako, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila berrikuntza-eginkizuna zabaltzeko dituen tresnak garatzen eta antolatzen hasi da, bereziki presazko eta trantsizioko politikei lotuta: hirugarren sektore sozialeko proiektuetarako laguntzen deialdiak (ezagutza kudeatzeko eta esku hartzeko ildoak), lankidetzaren Innobasquerekin, proiektu berritzaileak bultzatzea beste administrazio publiko batzuekin eta erkidego, estatu eta Europa mailako gobernuaren beste sail batzuekin lankidetzan, lankidetzaren euskal unibertsitateekin eta CSICekin, Gizalab Fundazioa, lankidetzaren proiektuetan, eta abar. Izan ere, ardatz horren proiektu eragileek ahalegin horretan aurrera egitea ahalbidetuko dute.

Hala, aurrera egin nahi da gizarte-berrikuntzako euskal ekosistema antolatzen eta garatzen, jardunbide horien sistematizaziotik eta ebaluaziotik abiatuta, eta GZES osatzen duten erakunde eta eragileekin hitz eginez, bai eta EAEko unibertsitateekin, Innobasquerekin eta erkidego, estatu eta Europa mailan berrikuntzaren eremuan lan egiten duten beste eragile batzuekin ere.

5. ARDATZA. GENERO-IKUSPEGIA ETA IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

XV. proiektu eragilea. Genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik GZESren diagnostikoa

GZESren diagnostiko sakon bat diseinatu eta egin nahi da, genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik, harekin koherentzia izango duen jarduketa-plan bat diseinatu eta abian jartzeko. Diagnostikoak eta jarduketa-planak, besteak beste, honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

Integraltasuna. Esku-hartzea (zerbitzuak, prestazioak, kasuaren koordinazioa) eta sistemaren kudeaketa, lau kontingentziak eta horien loturak genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik kontuan hartuta (adibidez, mendekotasun- eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden adineko emakumeak).

Sektoreak antolatzea. EAEko administrazio publikoen hiru mailak, gizarte-ekimeneko erakundeak (hirugarren sektore sozial) eta zerbitzuen horniduran parte hartzen duten enpresak, eta horien guztien arteko elkarrekintzak GZESren barruan, bai eta erakunde-zaintzaren eta familia-zaintzaren arteko elkarreraginak ere.

Politiken koherentzia. Berdintasun-politikek sisteman eta alderantziz duten inpaktua aztertuz.

Partaidetza. Emakumeek rol desberdinetan zuzenean parte hartzeko prozesuak egituratuz, bai sistemaren barruan, bai sistemaren, hirugarren sektorearen (gizarte-ekimena) eta laugarren sektorearen (familiak eta erkidegoa) arteko elkarrekintzaren ikuspegitik: zuzendariak, erdi mailako agintariak (koordinatzaileak...), esku-hartze zuzeneko profesionalak, batetik, eta boluntarioak eta familia barruko zaintzaileak, bestetik.

Erakunde arduradunak	GZES. Eusko Jaurjaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Foru aldundiak eta udalak.
Abian jartzeko egutegia	2023-2024 (diagnostikoa eta jarduketa-plana) 2024-2026 (garapena eta ebaluazioa)

XVI. proiektu eragilea. "Pertsonak eta zaintzaileak"

Gizarte-zaintzei buruzko topaketarako eta eztabaidarako gune iraunkor bat sortu eta dinamizatu nahi da, profil anitzeko zaintzaileen panel egonkor bat eratuta: a) sektore desberdinak (publikoa, pribatua, soziala eta familia-erkidegokoa); b) profesionalak, boluntarioak eta senitartekoak; c) zenbait genero, adin, jatorri eta zaintza-ibilbidekoak.

Panela osatzen duten pertsonak denbora jakin batean hartuko dute parte panelean, eta, denbora igaro ahala, txandakatu egingo dira, profilen aniztasuna aldatu gabe. Hainbat gairen inguruko dinamikak konfiguratu ahal izango dira, eta eragina izango dute profil bakoitzean, baina, normalean, profil guztietako pertsonak parte hartuko dute.

Zaintzak bere luze-zabalean ikusgai daudela aitortzeko eta sustatzeko tresna bat da, profil desberdinak dituzten zaintzaileen arteko elkar ezagutzekoa eta elkarreragitekoa, bai eta errealitatea aztertzekoa, ikuspegi berriak sortzeko eta ikuspegi anitzeko gizarte-zaintzei buruzko ereduak, ikuspegiak eta proposamenak eratzekoa ere.

Ildo horretan, tresna kualitatibo berritzailea da, eta oso lagungarria izan daiteke zaintzen arloko politika publikoen diagnostiko-, diseinu-, plangintza- eta ebaluazio-prozesuetan, zaintzaileek zuzenean parte hartzea ahalbidetzen duen tresna baten bidez, politika publikoak eraikitzeko prozesuetan beste tresna batzuk osatuz.

Hasteko, tresna diseinatu eta panela osatuko da, zehaztutako profilen arabera ausazko hautaketa-prozedura batean oinarrituta; ondoren, tresna abian jarriko da, eta landu beharreko lehen edukiak identifikatu eta lehenetsiko ditu. Nolanahi ere, arreta berezia jarriko zaie genero-ikuspegiari, ikuspegi intersektionalari eta zaintzailea zaintzeari.

Erakunde arduradunak	Eusko Jaurjaritza.
Abian jartzeko egutegia	2023 (panelaren diseinua eta osaera)- 2026

Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak genero-ikuspegiari eta ikuspegi interseksionalari buruz

1. jarduketa. **Gizarte-kohesio eta -babesari buruzko laborategi iraunkorra**

Helburua da gizarte-kohesio eta -babesaren inguruan berrikuntzako espazio eta dinamika iraunkor bat sortzea, diagnostikoa, esperimentazioa eta ebaluazioa lotuz, gizarte-berrikuntzaren ekosistematik, eta, beraz, unibertsitateen eta beste agente batzuen lankidetzarekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren babesarekin eta Lehendakartzaren parte-hartzearekin.

Jarduketa honek diseinu eta laguntza iraunkorreko espazio bat sortu nahi du, euskal gizarteak lortutako gizarte-kohesio eta -babesekeko mailak mantendu eta handitzeko lagungarriak izango diren ekimen berritzaileak martxan jarri eta ebaluatzeko. Gainera, trantsizio sozial eta demografikoaren testuinguruan, gero eta askotarikoa eta inklusiboagoa izatea nahi den gizarte batean, gizarte-politikak egokitu behar dira, gizarte-kohesioa sustatzeko eta genero, adin, jatorri edo autonomia-mailarekin lotutako desberdintasunak eta dualizazio sozialeko prozesuak aurreikusteko. Desberdintasun eta prozesu horiek ongizatearen hazkundearen testuinguru batetik ikus daitezke baita ere (PGEI 2020).

2. jarduketa. **Diskriminazioaren “behatokia”**

Helburua da diskriminazio anizkoitzeko egoerak antzematea, genero-ikuspegitik eta ikuspegi interseksionaletik, eta, beraz, desberdintasunean eta gizarte-dualizazioko prozesuetan eragina duten oinarriko lau faktoreen artean (adina, jatorria, generoa eta autonomia-maila) gertatzen diren askotariko elkarrekintzei lotutakoak.

Jarduketa hau garatzeko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko askotariko behatokiak lotuko dira, bai eta errealitate horiek modu kolektiboan (ez banaka) aztertzeke bideratutako beste tresna batzuk ere. Gainera, errealitatearen analitikatik eta datuetatik, hobekuntza-proposamenak egingo dira, gizarte-politikekin eta gizarte-babesekeko sistema osatzen duten erantzukizun publikoko askotariko sistemekin lotutakoak, bai eta beste sektoreekin eta, oro har, gizartearekin lotutakoak ere.

6. GIZARTE-ZERBITZUEN MAPA ETA MEMORIA EKONOMIKOA

6.1. HORIEK EGITEKO IRIZPIDEAK

6.1.1. Mapa eta memoria ekonomikoaren alderdi komunak

Lehendabizi, adierazi behar da GZESren datuak, abiapuntuko egoera zehazteko eta EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Memoria Ekonomikoaren proiektzioen oinarri izateko erreferentzia gisa hartutakoak, askotariko administrazio publikoek EAeko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioaren esparruan emandakoak direla. Informazio hori 2019. urtekoa da (2020/01/01) eta bat dator I. GZPEren indarraldiko azken urtearekin.

I. GZPEren ebaluazio-prozesuan, 2018ko datuak (2019/01/01) eta, ondoren, 2019koak (2020/01/01) eskaini ziren, planak aurreikusi bezala. Horregatik, 2018, 2019 eta, baita ere, 2020ko datuak ditugu, nahiz eta azken horiek osagabeak izan.

Kontuan izan behar da pandemiak 2020ko eta 2021eko datuetan izandako eraginak eragotzi egiten duela horiek plangintza estrategikorako oinarri egokia izatea. Izan ere, hasteko, plazen eta gastuen proiektzioan beheraka egongo lirarteke. Gaur egun, lanean ari da 2021eko datuak lortzeko.

GZESren eta Eusko Jaurlaritzaren helburu bat da, beren arteko koordinazioaren arabera, datu horiek jasotzen dituen urteroko operazio bat egonkortzea eta bere emaitzak hurrengo urteko bigarren seihilekoan aurkeztea. Hori lortuz gero, jarraipena egin ahal izango zaie maparen urteroko aurreikuspenei, edozelan ere, balioespenak direla jakinda.

Gastu publiko arrunta zenbatesteko eta dagozkion estaldurak ezartzeko oinarri gisa balio duten plazen, pertsona erabiltzaileen eta prestazio ekonomikoen hartzaileen proiektzioak honako hiru urrats hauei jarraituz egin dira:

- a) egoera demografikoa ezartzea;
- b) lurraldeen artean konbergentzia-mekanismo bat aplikatzea;
- c) I. GZPEren ebaluazioaren ostean identifikazio-irizpideak aplikatzea, bereziki, arreta-piramidea iraultzeko eta erakunde-zaintza indartzeko helburua dutenak, familiakoarekiko duen proportzioa handituz.

Mapa sortzeko Gizarte Zerbitzuen Legearen aurreikuspenak (36. artikulua) eta I. GZPErekin lotutako esperientzia kontuan hartuta, honako irizpide hauek proposatzen dira EAeko Zerbitzu Sozialen II. Mapa eta memoria ekonomikoa sortzeko.

6.1.2. EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapari dagokionez

EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapa legearen aurreikuspen guztiak kontuan hartuta sortu da, eta, horiek guztiak aldi berean betetzeko, honako irizpide hauek ezarri dira:

- *Biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak* (35.4 artikulua), honako bi hauek bereiziz: gutxieneko maila bat (*gutxieneko estaldurak* edo, hala badagokio, gutxieneko intentsitateak), 2. urratseko emaitzari dagokiona, eta *adierazle sintetiko bat* (36.4 artikulua), 3. urratsean esparru edo kontingentzia bakoitzerako (mendekotasuna/adinekoen autonomiaren sustapena, desgaitasuna, babesgabetasuna eta bazterketa) ezarritako irizpideak aplikatzearen emaitza dena.
- *Biztanleriari buruzko irizpideak*, berdinak EAE osorako, *Zorroko zerbitzuak* (36.1 artikulua) ezartzeko *egokienak direnak*, oinarritzko eremua (36.2 eta 36.3 artikulua) barne.

Arau izaerako irizpide orokor horiekin batera, honako hauek hartu dira kontuan:

- GZESren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuko zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztientzako aurreikuspenak edo balioespenak ezartzea, orain arte bezala, 1.5 salbu. Izan ere, norbanakoentzat ez ezik, oro har, herritarrentzat eta erakundeentzat eta gaueko zentroarentzat ere bada, autonomiaren mugekin lotutako beharrei erantzuteko (2.3.1), zerbitzu horrek garapen errealik eta aurreikusitako garapenik ez duelako.

- Estaldura-aurreikuspenak EUSTATEN proiektzio demografikoak, eta ez EINenak, kontuan hartuta egitea, xede populazioarekiko (zerbitzu edo prestazio bakoitzeko hartzailea) zehatzagoak baitira, eta, hala badagokio, estaldura-aurreikuspenak beste faktore batzuk kontuan hartuta egitea, hala nola, kontingentzia zehatz baten nagusitasuna, adibidez desgaitasuna dutenentzako EZ edo mendekotasuna, proiektzioa egiterakoan.
- 2025/12/31 eta 2030/12/31 datei begira, estalduren eta gastu publiko arruntaren aurreikuspenak egitea zerbitzu edo prestazio bakoitzaren arduradunak diren administrazioetatik zuzenean lortutako 2019ko datuetatik abiatuta.
- Aurreikuspenak ezartzerakoan, irizpide desberdinak adosteko aukera aztertzen jarraitzea, eta salbuespenak ezartzea prestazioak eta zerbitzuak emateaz zuzenean arduratzen diren erakundeen esperientzia eta irizpideak kontuan hartuta.
- Estalduretan konbergentzia-irizpidea gutxi gorabehera % 15ean mantentzea, EAEko batez besteko estaldurari dagokionez.
- Plangintzan ZLPEk sartzen jarraitzea, abiapuntuan duten garrantzia kontuan hartuta. Helburua da etorkizunean proportzio handiagoa ez proiektatzea (gainera, jarraipenean txandakatze-datuak sartuko dira).
- Bi egoera ezartzea: 2025 eta 2030. Lehena, II. GZPEren azken ebaluazioan kontuan hartzeko. Bigarrena, gizarte-zaintza eta zaintza soziosanitarioen eredu berri baterako trantsizio-politikak zabaltzeko jomuga gisa (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Ehuntzen 2030).

Horretarako, honako hau egin beharko da:

- a) arreta-piramidea iraultzea. Horretarako, arreta komunitarioa indartu eta bizikidetzarako alternatibak babesarekin dibertsifikatu beharko dira;
- b) erakunde- eta familia-zainketaren arteko oreka berria sustatzea, lehendabizikoaren alde;
- c) arreta-sareak berriz diseinatzea mendekotasun, bazterketa eta desgaitasunaren esparruan, arretaren erkidego-ikuspegia kontuan hartuta eta lehen eta bigarren mailako arreten lotura indartuta, bereziki erkidegoan.

Trantsizio-prozesu horretako lehen urrats bat balioespenak egitea da, 2019an kontingentzia bakoitzeko zerbitzu eta prestazioetako oreka ardatz izanda.

Beste urrats bat kontingentzia bakoitzera bideratutako prestazio eta zerbitzuen egungo oreka aldatzean oinarritu beharko litzateke, II. Mapak bere eboluzioa pixkanaka epe ertain (2030) eta luzerako arreta-eredu jakin baterantz zuzendu dezan.

Eredu horren arabera, zerbitzuen pakete bakoitzeko balioespenak egin dira, abiapuntuko egoera aldatu gabe (esaterako, prestazioen eta zerbitzuen osagarritasunari dagokionez).

Horrekin erkidego-arretarako zorroko zerbitzu eta prestazio guztien garapen unibertsal, zuzen eta pertsonalizatuaren bidez erkidego-arreta indar dadin bultzatu nahi da, osatze aldera: a) kasuan-kasuan zerbitzuen pakete edo konbinaziorik egokiena zabaltzeko; b) prestazio eta zerbitzu guztien estaldurak bateratzen aurrerapausoak emate aldera ibilbidea zehazteko; helburua da estaldura bateratuei esker zaintza aske aukeratu ahal izatea eta ez baldintzatzea behin eta berriz lehen edo bigarren mailako zerbitzu zehatzek estaldura urria izateak.

Edozelan ere, erkidego-arreta handiagorantz pasatzearen urratsa maila askori erreparatuz balioetsi behar da, eta, adibidez, helburu bakoitzari heltzeko ordena ezarri beharko da: egoitza-zentroen egokitzapena, laguntza duten bizitegi-alternatibak dibertsifikatzea, lehen eta bigarren mailako arreta sustatzea beren etxeetan bizi direnentzat, eta abar. Errealismoa eta exigentzia uztartzen dituzten eszenatokiak diseinatu dira, gizarte-testuingurua kontuan hartuta. Gainera, horiek zabaltzeko plan bat prestatu da, epe labur eta ertainera finantzaketa-beharrak dimentsionatzeaz gain.

- I. Mapa sortzeko prozesuan bezala, foru-aldundiek, tokiko erakundeekin lankidetzan, Lurralde Mahaien bidez eta erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuz, lurralde historiko bakoitzeko Gizarte Zerbitzuen Maparen elaborazioa zuzenduko dute.

Prozesu horretan, EAeko Mapa une horretan eskura dauden lurralde historikoko datuetara egokitzeaz gain, lurraldean zerbitzuak eta, bereziki, zentroak banatuko dira, *lurraldean zerbitzuak ezartzeko egokientzat jotzen diren irizpideekin* bat etorriz.

Lurralde bakoitzaren mapak osatzen direnean, GZPEn jasoko dira EAeko Gizarte Zerbitzuen Maparen eranskin gisa, GZEOk eta GZEK-k txostena egin eta gero. Eranskin horiek publikoak izango dira eta planari erantsiko zaizkio.

6.1.3. Memoria ekonomikoari dagokionez

I. Planean bezala:

- Zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzarentzako gastu publiko arrunta balioetsi da kontingentzia, lurralde historiko eta guztizkoaren arabera. Horretarako, 2025 eta 2030ean balioetsitako plazen, pertsona erabiltzaileen eta hartzaileen kopurua biderkatu da zerbitzu edo prestazio bakoitzarentzat zehaztutako gastu publiko arruntarekin. Hori guztia beti 2019ko datutik abiatuz eta, 2020tik, zuzenketa-faktore bat aplikatuz.
- Gastuaren aurreikuspenak egiterakoan, 2019. urtean zeuden plazen titulartasunaren egitura mantendu da (plaza publiko eta pribatuen ehunekoa).
- Diru-sarrerei dagokienez, aldaketarik gabe mantendu da koordainketaren, erabiltzaileen beste diru-sarrera batzuen eta beste diru-sarrera batzuen ehunekoa, gastu publiko arruntarekiko. Eta, bestalde, gaurkotu dira bestelako askotariko finantzaketa-tresnen diru-sarreraren aurreikuspenak. Zehazki, AMASetik, hitzarmen soziosanitarioetatik, GZES zabaltzeko aurreko erakunde arteko funtsetik eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko Europako finantziatutik heldutako finantziaketa.

6.2. EAEKO GIZARTE-ZERBITZUEN MAPA

Lehendabizi, balioespenak egiteko erabilitako hiru urratsak aurkeztu eta urrats bakoitzean kontuan hartutako irizpideak zehazten dira.

Ondoren, honako hauen estimazio zehatza aurkezten da, eremu edo kontingentzien arabera: zentro bakoitzeko plazak eta beste zerbitzu batzuetako erabiltzaileak eta hartzaileak, eta, prestazio ekonomikoen kasuan, estalduren datuak gaineratzen dira.

Azkenik, 2025era begira estimazioak egiteko jarraitutako irizpideak aurkezten dira, 2030eko estimazioetatik abiatuta, bai eta zerbitzuak ezartzeko irizpide egokienak eta EAeko Mapari lotutako lurralde-mapak sortzeko prozedura ere.

6.2.1. Urratsak estimazioak egiteko

1. urratsa. Egoera demografikoa ezartzea

Lehen urratsa da 2019ko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen estaldurari buruzko datuak, kasuan kasuko administrazio publiko eskudunak emandakoak, 2030. urterako EUSTATEk lurralde bakoitzean aurreikusitako eboluzio demografikora proiektatzea.

Horretarako, honako hau biderkatu da:

- 2019an zerbitzu bakoitzarentzat (zentroetako plaza-kopuruaren, beste zerbitzu batzuetako erabiltzaileen edo, ELZren kasuan, arreta-orduen kopuruaren arabera kalkulatu) edo prestazio ekonomiko bakoitzarentzat (hartzaileen kopurua) dagoen estaldura⁴².
- 2030ean zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzeko hartzailea den eta erreferentziako adierazle demografikotzat hartutako populazio multzo espezifikokoaren tamainagatik.⁴³

Erabilitako populazio-datuak EUSTATEk 2031ko urtarrilaren 1era arte lurralde historiko bakoitzerako egindako proiektzio demografikoetatik datoz. Zehazki, erakunde publiko horrek 2021ean Biztanleen Udal Estatistikako 2020ko urtarrilaren 1eko populazio-datuekin egindako epe labur eta ertainerako proiektzioak dira⁴⁴.

EUSTATEN Proiektzio Demografikoen arabera, 2030erako (2031/01/01) EAEk 2.215.900 biztanle izango ditu, hau da, 2019an baino 16.200 pertsona gehiago, eta urtetik urtera % 0,07ko hazkunde-tasa izango du. Esanenez **biztanleriaren bolumena ia egonkortu** egingo dela.

Lurraldearen ikuspegitik, aurreikusitako populazioaren eboluzioa pixka bat aldatuko da. Izan ere, Araban eta Gipuzkoan 2030ean 2019an baino 9.500 eta 17.900 biztanle gehiago izatea aurreikusten da, hurrenez hurren; Bizkaietan, berriz, 11.200 pertsona gutxiago egon litezke.

Desberdintasun horiek baieztatzen dute azken bosturtekoetan EAEko biztanleriari dagokionez Arabak izandako hazkunde mailakatu, Bizkaiaren kaltetan.

2019. eta 2030. urteen bitartean, biztanleria ia egonkortuko da, hazkunde demografikoaren bi osagaietako saldoak konbinatzearen ondorioz. Osagai horiek naturala (jaiotzak ken heriotzak) eta migratzailea (immigrazioak ken emigrazioak) dira. Lehenengo osagaiak gero eta saldo negatiboagoak izango lituzke, heriotzak handitu eta jaiotza gutxiago izango direlako; bigarrenak, berriz, immigrazioen hazkundearekin, galera horiek konpentsatuko lituzke.

EUSTATEN proiektzioek populazioaren zahartzea ere erakusten dute.

- 2019. eta 2030. urteen bitartean, kalkuluen arabera EAEn 18 urtetik beherako biztanleria % 11,4 murriztuko da; 18 eta 64 urte bitarteko populazioaren bolumena, berriz, % 4,5 gutxituko da.
- 65 urteko edo urte gehiagoko biztanleriak, berriz, 118.300 pertsona irabaziko lituzke. Ondorioz, 2030ean biztanleriaren % 27,7 izango litzateke.
- Hazkunde erlatibo handienak 80 urteko eta urte gehiagoko biztanlerian izango lirateke: 202.300 pertsona izatera helduko lirateke, hau da, guttizkoaren % 9,1, eta multzo horrek % 29,4ko hazkundera izango luke 2019 eta 2030 artean.

2. urratsa. 1. GZPEren ebaluazioaren ostean identifikatutako irizpideak aplikatzea

Bigarren fase honetan aplikatutako hedapen-irizpideek 1. urratsean egindako aldaketak dituzte abiapuntu, eta I. GZPEren ebaluazioaren gomendioek planteatutako helburuetan eta erronketan oinarritzen dira. Bereziki, lehen eta bigarren mailako arretaren piramidean iraultzean, erkidego- eta erakunde-zaintza indartzean, familiaren zaintzarekiko proportzioa handituz.

Irizpide horiek berdina dira EAE osoan, eta GZESren lau kontingentzietako bakoitzarentzat eta zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitzarentzat ezarri dira.

⁴² Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztiak barne hartzen dira, gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta inklusioa sustatzeko zerbitzua (1.5.) eta autonomiaren mugek eragindako beharrei erantzuteko gaueko zentroa (2.3.1) izan ezik. Bestalde, ez da hazkunderik proiektatu foru-aldundiek zaintzaileei laguntzeko garatutako zerbitzuan, udal eskumeneko zerbitzua baita. Horrez gain, ez dira proiektatu hiriburuek bakarrik garatutako gizarte larrialdietako zerbitzuak, foru eskumeneko zerbitzuak baitira.

⁴³ Zerbitzu eta prestazio bakoitzarentzako erreferentziako adierazle demografikoak [2. eranskinean](#) zehazten dira.

⁴⁴ [3. eranskinean](#) kontsultatu daitezke erreferentziako adierazle demografikoak zehazteko erabilitako askotariko populazio multzoentzat erabilitako populazio-proiektzioak.

I. GZPEn bezala, zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza hornitzeko ardura duten erakundeek jarrera partikularrak har ditzakete lurraldearen berezko ezaugarriak kontuan izanda, lurralde-mapak egiterako orduan EAEko Maparen eranskin gisa, lurralde historiko bakoitzaren erakundeen arteko koordinazio-mahaien esparruan.

Jarraian zehaztutako irizpide teknikoek gain, plazak zein zerbitzuen erabiltzaileak edo hartzaileak edo prestazio ekonomikoak ez handitzeko irizpidea ere aplikatzen da, lurralde bateko estaldura EAEko batez besteko estaldura baino % 115 handiagoa denean⁴⁵.

Honako hauek dira kontingentziengatik (eremuak) aplikatu diren hedapen-irizpide teknikoak:

- **Adinekoen mendekotasunaren / autonomiaren eremua**⁴⁶

Ezarrirako irizpideen xedea etxean eta erkidegoan (aurrerantzean, erkidego-arreta) lehen eta bigarren mailako arreta sustatzea da, eremu horretan eta GZES osoan adinekoen egoitzek gastu publiko arruntan duten pisu erlatiboari pixkanaka eutsi eta pisu hori murrizten joateko.

Horretarako, 2019 eta 2030 bitartean proiektzio demografikoek adineko pertsonentzako egoitza-zentroei (2.4.1.) emandako hazkundea identifikatu eta gero⁴⁷, hazkunde horren % 50 lehen eta bigarren mailako erkidego-arretara birbideratu da, egoitza- eta erkidego-arretaren arteko proportzio berri hori, egoitza-arretaren hazkundea ere dakarrena, gizarte-testuinguruarentzat eta, bereziki, demografia-erronkarentzat egokiagoa dela ulertuta.

Horretarako, hainbat zerbitzu eta prestazio ekonomikoren hazkundearen aurreikuspena kontuan hartu da, II. eta III. graduko mendekotasuna duten eta egoitzetan plazarik lortuko ez luketen baina arreta intentsiboa beharko luketen adineko pertsonen beharrei erantzuteko.

Aplikaturako hazkundeak honako arrazoiketa honen arabera egin dira. Eboluzio demografikoa kontuan hartuta proiektatu ahal izango liratekeen adineko pertsonentzako egoitza-zentroetako (2.4.1) plaza guztien erdia laguntzarako zerbitzu eta prestazioetara bideratu dira, jarraian ikusiko ditugun eguneko aplikazioa kontuan izanda. Ondorioz, praktikan horiek zerbitzu edo prestazio bat baino gehiago bateragarri egiten dituzten paketeetan antolatzen dira:

- % 50 etxeko laguntza-zerbitzuko ordu bihurtu dira (1.2)⁴⁸.
- % 75a, FIZPE (3.2.1) edo LPPEren (3.1.1) hartzaile⁴⁹.
- % 75, telelaguntza-zerbitzuko erabiltzaile (1.6).
- % 50, mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro edo zerbitzuko plaza (2.2.1.1).
- % 50, adineko pertsonentzako atsedenerako zerbitzuko erabiltzaile (2.5).
- Eta, azkenik, % 25 autonomia pertsonala hobetzeko laguntzen onuradun.

⁴⁵ [5. eranskinak](#) lurralde historiko bakoitzean irizpide hori zer zerbitzu eta prestaziori aplikatu zaion jasotzen du.

⁴⁶ Eremu horretan sartzen dira, gehien bat, baina ez bakarrik, mendekotasuna duten 65 urte baino gehiagoko adineko pertsonentzako zerbitzuak eta prestazioak, hala nola etxeko laguntza-zerbitzua edo telelaguntza. Plangintzari dagokionez, eremu horretan kontuan hartu dira baita ere FIZPE, LPPE eta autonomia pertsonala errazten duten laguntzak, nahiz eta prestazio horiei dagozkien emaitzak zeharkako zerbitzuei buruzko tauletan aurkeztea erabaki den.

⁴⁷ 2019an, adineko pertsonentzako egoitza-zentroetako estaldurei (2.4.1) 1. urratseko irizpide demografikoak aplikatuz, 2030. urterako emaitza 17.858 plazatakoa da: 2019an zeuden 14.412 plazak baino 3.446 plaza gehiago (lurralde bakoitzeko plazen banaketa eta ZLPE konstante mantenduta). Hortik aurrera, urrats horretan, alde horren erdia lehen eta bigarren mailako erkidego-arretako prestazio eta zerbitzuetara bideratzen da.

⁴⁸ Plaza-kopurua ELZren arreta-orduetara aldatzeko, urteko 552 ordu-kopurutik abiatu da plaza bakoitzeko. 12 hilabetez hilean 46 ordu kontabilizatzearen baliokidea da.

Edozelan ere, II. Planaren helburuetan jasotzen den bezala, ezinbestekoa da etxeko laguntza birpentsatzea, erkidego-arretari buruzko gogoeta zabalago baten baitan. Gogoeta horrek, besteak beste, hemen egiten den moduan, arreta-paketeak ezarriko ditu pertsonen profil edo bizikidetzaren bakoitzeko egokiak diren prestazioak eta zerbitzuak konbinatuz, eta, horrez gain, familiako zaintzaileentzako erakunde-zaintzak ere barne hartuko ditu.

⁴⁹ LPPE eta ZIRPEri dagokionez, lurralde-eredu espezifikoek bultzatu eta garatu dituztenez, horietako bakoitzaren hazkundea erakunde eskudunaren irizpidearen arabera banatu da.

Desgaitasunaren eremua

EUSTATen proiektio demografikoen arabera, 2030ean EAEn 18 eta 64 urte bitarteko populazioa eta, bereziki, 0 eta 6 urte bitartekoa murriztuko dira, % 4,5 eta % 7,2 2019. urtearekiko, hurrenez hurren (ikus [3. eranskina](#) eta [beste eranskin metodologiko batzuk erantsi den eranskinei buruzko dokumentuan](#))⁵⁰.

Horren ondorioz, 1. urratsa aplikatzean, 2030ean desgaitasunaren eremuko zerbitzu eta prestazio guztiek plaza edo, hala badagokio, erabiltzaile edo hartzaile gutxiago edukiko lituzkete.

Hala ere, zerbitzu guztietan 2019ko plaza-kopurua bermatzea erabaki da. Izan ere, uste da demografiaren bilakaeraren ondorioz ez dela eremu horretako eskaria eta zerbitzuen beharra murriztu.

Kontuan hartu behar da, desgaitasuna duten pertsona gutxiago egon arren, beste joera batzuek egon daitekeen eskaera txikiagoa orekatuko dutela, hala nola honako hauek: desgaitasuna duten pertsonen zahartzea, bai eta haien zaintzaz arduratzen diren senideena ere; arreta handiagoa eskatzen duten desgaitasun anitzak nagusi izatea; eta bizimodu independentearen eredua bultzatzea.

Horrez gain, beharrezkotzat jotzen da desgaitasuna duten pertsonentzako eta gaixotasun mentalak dituztenentzako zerbitzuak sustatzea.

Horregatik guztiagatik, honako hedapen-irizpide hauek ezarri dira.

- Plazak % 10 gehitzea desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zerbitzu edo -zentroetan (2.2.1.2/2.2.1.3), laneko zerbitzu edo zentroetan (2.2.2) eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan (2.4.2).
- Plazak % 15 gehitzea gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako zerbitzuetan edo eguneko zentroetan (2.2.1.4), gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroetan (2.4.3) eta desgaitasuna eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonen atsedenerako zerbitzuan (2.5).

I. GZPEren ebaluazioaren arabera, bizimodu independenterako laguntza-zerbitzua (2.7.2.1) eta LPPE (3.1.1) ere sustatu behar dira, desgaitasuna duten pertsonen modu independentean bizitzeko eta elkartearen parte izateko eskubidea izateko babes nahikoak eduki ditzaten.

Hori dela eta, hedapen-irizpide gisa, zerbitzua eta prestazioa % 20 gehitzea zehaztu da.

Babesgabetasunaren eremua

EUSTATen proiektio demografikoek 2030ean 18 urte baino gutxiagoko pertsonen bolumena nabarmen jaitsiko dela badiote ere⁵¹—eremu honetan sartutako lau zentro eta zerbitzuen estaldurak kalkulatzeko erabilitako adierazle demografikoa⁵²—, erabaki da zerbitzu guztietan gutxienez 2019ko plaza-kopurua eta pertsona erabiltzaileen kopurua mantentzea. Izan ere, uste da demografiaren bilakaeraren ondorioz ez dela eremu horretako eskaria eta zerbitzuen beharra murriztu.

Halaber, beharrezkotzat jotzen da emakumeenganako indarkeriaren biktimentzako ostatu- eta egoitza-zerbitzuak indartzea, behar horiei erantzuteko aukera hobek izateko.

Hori lortzeko, alde batetik, lurraldean lehen mailako arretaren baliabideak deszentralizatu behar dira, eta, bestetik, bigarren mailako arretaren plaza-kopurua gehitu behar da, esku-hartze prozesuak egokitu ahal izateko, eta, horrela, kasu konplexuenetan eta arazo anitzeko kasuetan arreta lasaiagoa eta espezializatuagoa eskaintzeko aukera egon dadin.

⁵⁰ Desgaitasunaren eremuan, 1. urratsean zerbitzuen eta prestazioen estaldurak kalkulatzeko erreferentzia gisa hartu den adierazle demografikoa 18 eta 64 urte bitarteko biztanleria da, arreta goiztiarreko gizarte arloko esku-hartze zerbitzuan izan ezik (2.7.4). Izan ere, zerbitzu horren kasuan 0 eta 6 urte bitarteko biztanleria hartzen da erreferentziako adierazle demografikotzat. (Ikus [2. eranskina](#)).

⁵¹ Zehazki, aurreikusten da EAEn 2019 eta 2030 bitartean gehienez 17 urte dituzten haurrak eta nerabeak % 11,4 gutxiago izatea, 2019an baino 41.300 pertsona gutxiago, hain zuzen ere (ikus [3. eranskina](#)).

⁵² Zehazki, babesgabetasunaren eremuko 12 zerbitzu eta prestazioetatik 4 dira (ikus [2. eranskina](#)): adingabeentzako eta haien familientzako gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3), adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4), babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.1) eta deribazio judicialaren bidezko familia-elkargunea (2.7.3.2).

Horretarako, irizpide gisa % 10 gehitu dira etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxebizitzetako (1.9.1.2) eta emakumeentzako egoitza-zentroetako plazak (2.4.6).

Azkenik, beharrezkotzat jotzen da familia-harrera sustatzen jarraitzea eta eremu horretan eta orokorrean arretaren desinstituzionalizazioan aurrera egiten jarraitzea. Horretarako, % 10 gehituko da familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzuaren estaldura (2.7.6.1).

Bazterketaren eremua

Diagnostikoak pobrezari eta bazterketari buruz –bereziki, bizitegi-bazterketa larriari buruz– jasotako datuak eta I. Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren eta I. GZPEren ebaluazioaren emaitza kontuan izanda, beharrezkotzat jotzen da bazterketa egoeran dauden edo egoera hori bizitzeko arriskuan dauden pertsonentzako arreta-sarea sendotzea. Horretarako: a) Erkidegoan lehen eta bigarren mailako arretaren esparruan eragingo da; b) Sarea lurraldetik zabalduko da, hiriburuetan eta, neurri txikiagoan, arreta-baliabideak garatu dituzten beste udalerrri batzuetan dagoen zerbitzuen kontzentrazioa murriztuko da.

Sarea sendotu eta hedatzeko irizpide gisa, eremuko zerbitzu guztietan plaza-kopurua % 15 gehitu da.

Bestalde, sarearen kontzentrazioarekin bukatzeko xedea lurralde-mapetan jaso behar da. Plaza-kopurua handitzeaz gain, lurraldean lehen eta bigarren mailako arretaren banaketa erkidego-ereduarekin koherenteagoa izatea nahi da, arretaren hurbiltasun, prebentzio eta jarraitutasunari dagokionez.

Zeharkako zerbitzuak (biztanleria guztiarentzat edo kontingentzia bat baino gehiagorentzat)

Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua (1.1) eta mendekotasuna, desgaitasuna, bazterketa eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua (2.1) indartu behar dira. Aurreikusitako % 10eko hazkunde horren atzean, populazioaren eboluzio demografikoa oro har beheranzkoa izango bada ere⁵³, bi arrazoi nagusi daude: a) adineko pertsonen eta immigrazioaren pisu gero eta handiagoa, zerbitzu horiek handitu eta egokitzea eskatuko duena; eta b) erkidego-eredutik erreferentearen irudia eta gizarte-laguntza sustatzeko beharra.

Bestalde, beste babes-sistema batzuek kasuen koordinazioari lotuta gero eta lan gehiago eskatzen dituztenez, hazkunde handiagoa beharrezkoa izan liteke, eta hori adostuz gero, sistema arduradun bakoitzak finantzatu beharko luke.

Bizkaian, populazioa gutxitzea aurreikusten bada ere, 2019an zerbitzu guztietan dagoen arretarako gaitasuna (plazak, erabiltzaileak, etab.) bermatzeko irizpidea ere aplikatzen da.

Era berean, adierazi behar da ez dela pertsona heldu ezgaituentzako tutoretza-zerbitzua (2.7.2.3) murriztu. 8/2021 Legeak⁵⁴ ezgaitze-deklarazio judiziala debekatzen badu ere, baliteke tutoretza-zerbitzuek jarduera mantentzea neurri txikiagoan bada ere, egoera juridiko horren ordezkari zuzenaren kuradoretza edo gaitasunaren babes-sistema bat aplikatuko direlako.

Azkenik, adierazi behar da zaintzaileei laguntzeko zerbitzuaren kasuan (1.4) ez dela urrats honetan irizpide espezifikorik aplikatu. Izan ere –eremu honetako gainerako zerbitzuetan ez bezala–, egoera demografikotzat ezarri da 65 urteko eta urte gehiagoko biztanleei dagokiena. Irizpide demografiko hori erabili da, dagoeneko esan dugun bezala, FIZPE eta LPPEren eta autonomia pertsonala errazten duten laguntzen kasuan.

⁵³ EUSTATen Proiektzio Demografikoen arabera, 2019 eta 2030 bitartean EAeko populazioa % 0,7 baino ez da handituko. Zenbateko horren atzean, ordea, lurralde-errealitate ezberdinak daude, Araban eta Gipuzkoan populazioa % 2,9 eta % 2,5 haziko liratekeelako, hurrenez hurren, eta Bizkaian, berriz, % 1 murriztu.

⁵⁴ 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, desgaitasunaren bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena.

3. urratsa. Hiru lurraldeetan estaldura batez beste +/- % 15 ingurukoa izatea

Konbergentzia-mekanismo hori I. GZPEren elaborazio-prozesuan adostu zen +/- % 20 aplikatzen hasi bazen ere eta, bigarren plan estrategiko honentzat, bigarren plana egiteko prozedurak eta irizpideak aurkeztu eta baliozkotu ziren GZEOren bileran.

Hala, autonomia-erkidegoan estalduren nolabaiteko harmonizazioan aurrera egiteko, urrats honetan zehazten da lurralde historiko bakoitzean zerbitzu edo prestazio ekonomiko baterako proposatutako estaldura inoiz ez izatea EAERako proposatutako batez besteko estalduraren % 85 baino txikiagoa.

Horrela, lurralde batean zerbitzu edo prestazio ekonomiko jakin baterako 2030. urterako proiektatutako estaldura EAeko batez besteko estalduraren % 85 baino txikiagoa bada, lehenengo bi urratsak aplikatu ondoren, estaldura hori EAeko batez besteko estalduraren % 85 horretara arte handituko da.

Irizpide hori zerbitzu eta prestazio guztietan aplikatu da⁵⁵, honako hauetan izan ezik:

- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) eta Familia ingurunekeo zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE). Izan ere, dagoeneko esan dugunez, lurralde-eredu espezifikoek bultzatzen dituzte. Hori dela eta, lurralde bakoitzean bi prestazioek batera izandako estaldura aztertu da, bai eta EAeko % 85eko batez besteko estaldurarekiko duten distantzia ere. Nolanahi ere, zorroaren ebaluazio-prozesuarekin eta proiektzioekin lotuta, prestazio ekonomikoei buruzko eta, bereziki LPPE eta FIZPEren gaineko hausnarketaren ondoren, II. GZPEren jarraipen-esparruan berezita aztertuko dira.
- Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4), foru-aldundiek ere eskaintzen dutelako. Beraz, EAeko batez besteko estaldura kalkulatzeko, udal- eta foru-zerbitzuei dagokien estaldura kontuan hartu da. Hala ere, EAeko % 85eko batez besteko estaldurara heltzeko behar den hazkundera bakarrik aplikatu zaio udal-zaintzaileei laguntzeko zerbitzuari (1.4), eskumena udalena baita.

Azkenik, erakunde eskudun bakoitzak, erkidego-arretaren ereduarekin bat etorritz (Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 8. artikulua), bere proiektzioak ezarri ditzake, bere lurraldearen berezitasunei ahalik eta modurik onenean (integrala, jarraitua, pertsonalizatua, prebentiboa, hurbilekoa, parte-hartzailea eta, beraz, deszentralizatua) erantzuteko, beharri zein kontingentzia bakoitzaren eta kontingentzia horiei erantzuteko konfiguraturako sareen arabera instalatutako gaitasunei dagokienez.

6.2.2. PLAZEN ETA PERTSONA ERABILTZAIILEEN EDO PRESTAZIO EKONOMIKOEN HARTZAILEEN BALIOESPENA EREMUEN ARABERA

Jarraian ikusiko ditugun taulek zentroetako plaza-kopurua, zerbitzuetako pertsona erabiltzaileak edo, ELZren kasuan, arreta eskainitako orduak, eta prestazio ekonomikoen hartzaileak erakusten dituzte. Datuak urrats bakoitzean jasotako hedapen-irizpideen aplikazioaren emaitza dira.

Taula baliokide bat egin da eremu (kontingentzia) bakoitzerako. Tauletan, 2025⁵⁶ eta 2030. urteetan lurralde historiko bakoitzean izango diren zerbitzu edo prestazio bakoitzaren datuak aurkezten dira. Gainera, urte baten eta bestearen artean dagoen aldea jasotzen da. Horrez gain, eta eremu (kontingentzia) bakoitzerako, bigarren taula bat egin da, emaitzak estalduren arabera adierazten dituena⁵⁷.

⁵⁵ 4. [eranskinean](#) zerbitzu edo prestazio bakoitzerako EAeko batez besteko estalduraren % 85eko irizpidea aplikatu zaien lurralde historikoen zerrenda.

⁵⁶ Dokumentu honen 3.2.3 epigrafean, 2025. urterako hedapenean erabilitako metodologia zehazten da.

⁵⁷ Estaldurak 2. [eranskinean](#) jasotako populazio-taldeak kontuan izanda kalkulatu dira.

6.2.2.1. Adinekoen mendekotasunaren / autonomiaren eremua

1. taula1. Eskaintzaren dimentsioa planifikatzeko prozesua adinekoen mendekotasunaren / autonomiaren eremuan, lurralde historiko bakoitzeko. 2019-2025-2030

	Egoera 2019	Proposamena 2025	Proposamena 2030	Aldea 2030-19
EUSKADI				
ELZ (1.2) [Ordu]	3.548.756	4.246.675	4.935.366	1.386.609
Telelaguntza (1.6) [Erab./urte]	55.851	68.399	80.992	25.141
EZ adinekoak (1.7.1) [Plaza]	1.000	1.271	1.633	633
Adinekoen ostatua (1.9.3 eta 1.9.4) [Plaza]	1.403	1.700	2.009	606
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [Plaza]	3.424	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [ZLPE, abe. 31]	53	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) Guztira	3.477	4.231	5.005	1.528
Zahar-egoitzak (2.4.1) [Plaza]	11.169	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [ZLPE, abe. 31]	3.243	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) Guztira	14.412	15.357	16.195	1.783
Atsedena [adinekoentzat] (2.5) [Erab./urte]	927	1.228	1.686	759
ARABA				
ELZ (1.2) [Ordu]	846.202	977.124	1.101.572	255.370
Telelaguntza (1.6) [Erab./urte]	6.687	8.451	10.273	3.586
Adinekoentzako EZ (1.7.1) [Plaza]	341	394	444	103
Adinekoen ostatua (1.9.3 eta 1.9.4) [Plaza]	429	495	558	129
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [Plaza]	517	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [ZLPE, abe. 31]	50	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) Guztira	567	725	890	323
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [Plaza]	1.069	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [ZLPE, abe. 31]	943	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) Guztira	2.012	2.172	2.316	304
Atsedena [adinekoentzat] (2.5) [Erab./urte]	234	270	305	71
BIZKAIA				
ELZ (1.2) [Ordu]	1.465.120	1.813.732	2.166.820	701.701
Telelaguntza (1.6) [Erab./urte]	30.494	37.235	43.977	13.483
Adinekoentzako EZ (1.7.1) [Plaza]	147	306	563	416
Adinekoen ostatua (1.9.3 eta 1.9.4) [Plaza]	434	602	790	356
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [Plaza]	1.347	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [ZLPE, abe. 31]	0	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) Guztira	1.347	1.762	2.203	856
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [Plaza]	5.402	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [ZLPE, abe. 31]	2.023	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) Guztira	7.425	7.885	8.289	864
Atsedena [adinekoentzat] (2.5) [Erab./urte]	147	348	714	567
GIPUZKOA				
ELZ (1.2) [Ordu]	1.237.435	1.455.820	1.666.973	429.539
Telelaguntza (1.6) [Erab./urte]	18.670	22.713	26.743	8.073
Adinekoentzako EZ (1.7.1) [Plaza]	512	571	626	114
Adinekoen ostatua (1.9.3 eta 1.9.4) [Plaza]	540	603	661	121
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [Plaza]	1.560	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [ZLPE, abe. 31]	3	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) Guztira	1.563	1.745	1.912	349
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [Plaza]	4.698	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [ZLPE, abe. 31]	277	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) Guztira	4.975	5.301	5.590	615
Atsedena [adinekoentzat] (2.5) [Erab./urte]	546	609	668	122

1. taula2. Estaldurak adinekoen mendekotasunaren / autonomiaren eremuan, lurralde historiko bakoitzeko. 2019-2025-2030

	Egoera 2019	Proposamena 2025	Proposamena 2030	Aldea 2030-19
EUSKADI				
ELZ (1.2) [Ordu]	% 717,843	% 766,133	% 805,511	% 87,668
Telelaguntza (1.6) [Erab./urte]	% 11,298	% 12,340	% 13,219	% 1,921
Adinekoentzako EZ (1.7.1) [Plaza]	% 0,202	% 0,229	% 0,266	% 0,064
Adinekoen ostatua (1.9.3 eta 1.9.4) [Plaza]	% 0,284	% 0,307	% 0,328	% 0,044
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [Plaza]	% 0,693	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [ZLPE, abe. 31]	% 0,011	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) Guztira	% 0,703	% 0,763	% 0,817	% 0,114
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [Plaza]	% 2,259	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [ZLPE, abe. 31]	% 0,656	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) Guztira	% 2,915	% 2,771	% 2,643	-% 0,272
Atsedena [adinekoentzat] (2.5) [Erab./urte]	% 0,188	% 0,221	% 0,275	% 0,088
ARABA				
ELZ (1.2) [Ordu]	% 1.217,207	% 1.222,934	% 1.217,207	% 0,000
Telelaguntza (1.6) [Erab./urte]	% 9,619	% 10,578	% 11,351	% 1,732
Adinekoentzako EZ (1.7.1) [Plaza]	% 0,491	% 0,493	% 0,491	% 0,000
Adinekoen ostatua (1.9.3 eta 1.9.4) [Plaza]	% 0,617	% 0,620	% 0,617	% 0,000
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [Plaza]	% 0,744	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [ZLPE, abe. 31]	% 0,072	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) Guztira	% 0,816	% 0,907	% 0,983	% 0,168
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [Plaza]	% 1,538	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [ZLPE, abe. 31]	% 1,356	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) Guztira	% 2,894	% 2,719	% 2,559	-% 0,335
Atsedena [adinekoentzat] (2.5) [Erab./urte]	% 0,337	% 0,338	% 0,337	% 0,000
BIZKAIA				
ELZ (1.2) [Ordu]	% 556,601	% 615,659	% 667,741	% 111,140
Telelaguntza (1.6) [Erab./urte]	% 11,585	% 12,639	% 13,552	% 1,967
Adinekoentzako EZ (1.7.1) [Plaza]	% 0,056	% 0,104	% 0,174	% 0,118
Adinekoen ostatua (1.9.3 eta 1.9.4) [Plaza]	% 0,165	% 0,204	% 0,243	% 0,078
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [Plaza]	% 0,512	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [ZLPE, abe. 31]	% 0,000	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) Guztira	% 0,512	% 0,598	% 0,679	% 0,167
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [Plaza]	% 2,052	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [ZLPE, abe. 31]	% 0,769	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) Guztira	% 2,821	% 2,676	% 2,554	-% 0,266
Atsedena [adinekoentzat] (2.5) [Erab./urte]	% 0,056	% 0,118	% 0,220	% 0,164
GIPUZKOA				
ELZ (1.2) [Ordu]	% 765,654	% 809,688	% 843,183	% 77,529
Telelaguntza (1.6) [Erab./urte]	% 11,552	% 12,632	% 13,527	% 1,975
Adinekoentzako EZ (1.7.1) [Plaza]	% 0,316	% 0,318	% 0,316	% 0,000
Adinekoen ostatua (1.9.3 eta 1.9.4) [Plaza]	% 0,334	% 0,335	% 0,334	% 0,000
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [Plaza]	% 0,965	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) [ZLPE, abe. 31]	% 0,002	--	--	--
Mendekotasuna duten adinekoentzako EZ (2.2.1) Guztira	% 0,967	% 0,970	% 0,967	% 0,000
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [Plaza]	% 2,907	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) [ZLPE, abe. 31]	% 0,171	--	--	--
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1) Guztira	% 3,078	% 2,948	% 2,828	-% 0,251
Atsedena [adinekoentzat] (2.5) [Erab./urte]	% 0,338	% 0,339	% 0,338	% 0,000

6.2.2.2. Desgaitasunaren eremua

1. taula3. Eskaintzaren dimentsioa planifikatzeko prozesua desgaitasunaren eremuan, lurralde historiko bakoitzeko. 2019-2025-2030

	Egoera 2019	Proposamena 2025	Proposamena 2030	Aldea 2030-19
EUSKADI				
Desgaitasuna dutenentzako EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plaza]	1.620	1.813	1.999	379
Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako EZ (2.2.1.4) [Plaza]	621	700	778	157
ZO (2.2.2) [Plaza]	2.847	2.939	3.020	173
Egoitzak desgaitasunarentzat (2.4.2) [Plaza]	2.348	2.536	2.706	358
Gaixotasun mentalerako egoitzak (2.4.3) [Plaza]	665	794	924	259
Atsedena (2.5) [Erab./urte]	897	966	1.051	154
Bizimodu independenteko zerbitzua (2.7.2.1) [Erab./urte]	209	311	576	367
Arreta goiztiarreko esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Erab./urte]	3.460	4.112	4.989	1.529
ARABA				
Desgaitasuna dutenentzako EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plaza]	128	173	222	94
Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako EZ (2.2.1.4) [Plaza]	28	43	63	35
ZO (2.2.2) [Plaza]	433	456	476	43,3
Egoitzak desgaitasunarentzat (2.4.2) [Plaza]	267	302	335	68
Gaixotasun mentalerako egoitzak (2.4.3) [Plaza]	160	176	190	30
Atsedena (2.5) [Erab./urte]	195	195	195	0
Bizitza independenteko zerbitzua (2.7.2.1) [Erab./urte]	53	53	53	0
Arreta goiztiarreko esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Erab./urte]	810	909	1.000	190
BIZKAIA				
Desgaitasuna dutenentzako EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plaza]	764	805	840	76
Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako EZ (2.2.1.4) [Plaza]	359	387	413	54
ZO (2.2.2) [Plaza]	1.298	1.367	1.428	130
Egoitzak desgaitasunarentzat (2.4.2) [Plaza]	1.194	1.258	1.313	119
Gaixotasun mentalerako egoitzak (2.4.3) [Plaza]	255	290	323	68
Atsedena (2.5) [Erab./urte]	571	571	571	0
Bizitza independenteko zerbitzua (2.7.2.1) [Erab./urte]	126	139	151	25
Arreta goiztiarreko esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Erab./urte]	1.958	1.958	1.958	0
GIPUZKOA				
Desgaitasuna dutenentzako EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plaza]	728	835	937	209
Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako EZ (2.2.1.4) [Plaza]	234	269	302	68
ZO (2.2.2) [Plaza]	1.116	1.116	1.116	0
Egoitzak desgaitasunarentzat (2.4.2) [Plaza]	887	976	1.058	171
Gaixotasun mentalerako egoitzak (2.4.3) [Plaza]	250	328	411	161
Atsedena (2.5) [Erab./urte]	131	200	285	154
Bizitza independenteko zerbitzua (2.7.2.1) [Erab./urte]	30	118	372	342
Arreta goiztiarreko esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Erab./urte]	692	1.245	2.031	1.339

1. taula4. Estaldurak desgaitasunaren eremuan, lurralde historiko bakoitzeko. 2019-2025-2030

	Egoera 2019	Proposamena 2025	Proposamena 2030	Aldea 2030-19
EUSKADI				
Desgaitasuna dutenentzako EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plaza]	% 0,120	% 0,138	% 0,156	% 0,035
Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako EZ (2.2.1.4) [Plaza]	% 0,046	% 0,053	% 0,061	% 0,014
ZO (2.2.2) [Plaza]	% 0,212	% 0,223	% 0,235	% 0,023
Egoitzak desgaitasunarentzat (2.4.2) [Plaza]	% 0,175	% 0,192	% 0,211	% 0,036
Gaixotasun mentalerako egoitzak (2.4.3) [Plaza]	% 0,049	% 0,060	% 0,072	% 0,023
Atsedena (2.5) [Erab./urte]	% 0,067	% 0,073	% 0,082	% 0,015
Bizitza independenteko zerbitzua (2.7.2.1) [Erab./urte]	% 0,016	% 0,024	% 0,045	% 0,029
Arreta goiztiarreko esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Erab./urte]	% 2,745	% 3,674	% 4,264	% 1,520
ARABA				
Desgaitasuna dutenentzako EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plaza]	% 0,063	% 0,087	% 0,113	% 0,050
Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako EZ (2.2.1.4) [Plaza]	% 0,014	% 0,022	% 0,032	% 0,018
ZO (2.2.2) [Plaza]	% 0,213	% 0,229	% 0,243	% 0,030
Egoitzak desgaitasunarentzat (2.4.2) [Plaza]	% 0,132	% 0,152	% 0,171	% 0,039
Gaixotasun mentalerako egoitzak (2.4.3) [Plaza]	% 0,079	% 0,088	% 0,097	% 0,018
Atsedena (2.5) [Erab./urte]	% 0,096	% 0,098	% 0,099	% 0,003
Bizitza independenteko zerbitzua (2.7.2.1) [Erab./urte]	% 0,026	% 0,027	% 0,027	% 0,001
Arreta goiztiarreko esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Erab./urte]	% 3,801	% 4,859	% 5,291	% 1,490
BIZKAIA				
Desgaitasuna dutenentzako EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plaza]	% 0,108	% 0,117	% 0,128	% 0,019
Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako EZ (2.2.1.4) [Plaza]	% 0,051	% 0,057	% 0,063	% 0,012
ZO (2.2.2) [Plaza]	% 0,184	% 0,200	% 0,217	% 0,033
Egoitzak desgaitasunarentzat (2.4.2) [Plaza]	% 0,169	% 0,184	% 0,199	% 0,030
Gaixotasun mentalerako egoitzak (2.4.3) [Plaza]	% 0,036	% 0,042	% 0,049	% 0,013
Atsedena (2.5) [Erab./urte]	% 0,081	% 0,083	% 0,087	% 0,006
Bizitza independenteko zerbitzua (2.7.2.1) [Erab./urte]	% 0,018	% 0,020	% 0,023	% 0,005
Arreta goiztiarreko esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Erab./urte]	% 3,121	% 3,606	% 3,496	% 0,375
GIPUZKOA				
Desgaitasuna dutenentzako EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plaza]	% 0,167	% 0,193	% 0,219	% 0,052
Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako EZ (2.2.1.4) [Plaza]	% 0,054	% 0,062	% 0,071	% 0,017
ZO (2.2.2) [Plaza]	% 0,256	% 0,257	% 0,260	% 0,004
Egoitzak desgaitasunarentzat (2.4.2) [Plaza]	% 0,204	% 0,225	% 0,247	% 0,043
Gaixotasun mentalerako egoitzak (2.4.3) [Plaza]	% 0,057	% 0,076	% 0,096	% 0,038
Atsedena (2.5) [Erab./urte]	% 0,030	% 0,046	% 0,067	% 0,036
Bizitza independenteko zerbitzua (2.7.2.1) [Erab./urte]	% 0,007	% 0,027	% 0,087	% 0,080
Arreta goiztiarreko esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Erab./urte]	% 1,647	% 3,200	% 4,824	% 3,178

6.2.2.3. Babesgabetasunaren eremua

1. taula5. Eskaintzaren dimentsioa planifikatzeko prozesua babesgabetasunaren eremuan, lurralde historiko bakoitzeko. 2019-2025-2030

	Egoera 2019	Proposame na 2025	Proposame na 2030	Aldea 2030-19
EUSKADI				
Esku-hartze zerbitzua (1.3) [Babesgabetasuna] [Erab./Urte]	15.744	16.014	16.252	508
Etxeko indarkeriarako harrera-etxea (1.9.1.2) [Plaza]	261	283	303	42
Adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4) [Plaza]	1.477	1.484	1.491	14
Emakumeentzako egoitzak (2.4.6) [Plaza]	183	196	208	25
Umeen informazio-zerbitzua (...) (2.7.1.1) [Erab./urte]	848	995	1.139	291
Emakumeentzako informazio-zerbitzua (...) (2.7.1.2) [Erab./urte]	1.614	1.631	1.645	31
Esku-hartze zerbitzua familiekin (2.7.3.1) [Erab./urte]	2.718	3.045	3.359	641
Familientzako elkargunea (2.7.3.2) [Erab./urte]	1.375	1.391	1.405	30
Tratu txar eta sexu-erasoentzako zerbitzua (...) (2.7.5) [Erab./urte]	4.279	4.555	4.849	570
Familia-harrerarako zerbitzua (2.7.6.1) [Erab./urte]	898	994	1.083	185
Adopzio-zerbitzua (2.7.6.2) [Erab./urte]	37	37	38	1
Prestazio ek. genero-indarkeria (3.1.2) [Hartzaile/urte]	194	205	215	21
ARABA				
Esku-hartze zerbitzua (1.3) [Babesgabetasuna] [Erab./Urte]	2.309	2.309	2.309	0
Etxeko indarkeriarako harrera-etxea (1.9.1.2) [Plaza]	48	50	51	3
Adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4) [Plaza]	228	228	228	0
Emakumeentzako egoitzak (2.4.6) [Plaza]	19	22	25	6
Umeen informazio-zerbitzua (...) (2.7.1.1) [Erab./urte]	92	123	156	64
Emakumeentzako informazio-zerbitzua (...) (2.7.1.2) [Erab./urte]	292	297	302	10
Esku-hartze zerbitzua familiekin (2.7.3.1) [Erab./urte]	757	769	779	22
Familientzako elkargunea (2.7.3.2) [Erab./urte]	264	264	264	0
Tratu txar eta sexu-erasoentzako zerbitzua (...) (2.7.5) [Erab./urte]	1.388	1.410	1.428	40
Familia-harrerarako zerbitzua (2.7.6.1) [Erab./urte]	126	135	143	17
Adopzio-zerbitzua (2.7.6.2) [Erab./urte]	6	6	6	0
Prestazio ek. genero-indarkeria (3.1.2) [Hartzaile/urte]	37	38	39	2
BIZKAIA				
Esku-hartze zerbitzua (1.3) [Babesgabetasuna] [Erab./Urte]	9.245	9.245	9.245	0
Etxeko indarkeriarako harrera-etxea (1.9.1.2) [Plaza]	131	143	153	22
Adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4) [Plaza]	857	857	857	0
Emakumeentzako egoitzak (2.4.6) [Plaza]	129	130	131	2
Umeen informazio-zerbitzua (...) (2.7.1.1) [Erab./urte]	501	578	651	150
Emakumeentzako informazio-zerbitzua (...) (2.7.1.2) [Erab./urte]	886	886	886	0
Esku-hartze zerbitzua familiekin (2.7.3.1) [Erab./urte]	981	1.098	1.206	225
Familientzako elkargunea (2.7.3.2) [Erab./urte]	731	731	731	0
Tratu txar eta sexu-erasoentzako zerbitzua (...) (2.7.5) [Erab./urte]	2.115	2.115	2.115	0
Familia-harrerarako zerbitzua (2.7.6.1) [Erab./urte]	325	382	437	112
Adopzio-zerbitzua (2.7.6.2) [Erab./urte]	21	21	21	0
Prestazio ek. genero-indarkeria (3.1.2) [Hartzaile/urte]	118	119	120	2
GIPUZKOA				
Esku-hartze zerbitzua (1.3) [Babesgabetasuna] [Erab./Urte]	4.190	4.460	4.698	508
Etxeko indarkeriarako harrera-etxea (1.9.1.2) [Plaza]	82	91	99	17
Adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4) [Plaza]	392	399	406	14
Emakumeentzako egoitzak (2.4.6) [Plaza]	35	43	52	17
Umeen informazio-zerbitzua (...) (2.7.1.1) [Erab./urte]	255	294	332	77
Emakumeentzako informazio-zerbitzua (...) (2.7.1.2) [Erab./urte]	436	448	457	21
Esku-hartze zerbitzua familiekin (2.7.3.1) [Erab./urte]	980	1.178	1.374	394
Familientzako elkargunea (2.7.3.2) [Erab./urte]	380	396	410	30
Tratu txar eta sexu-erasoentzako zerbitzua (...) (2.7.5) [Erab./urte]	776	1.031	1.306	530
UDALAK	96.675.579	135.124.803	161.895.507	38.449.224	65.219.928	% 40	% 67
Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4) [Foru Aldundiak]	54.882	65.882	68.557	10.999	13.674	% 20	% 25
Mendekotasuna, desgaitasuna, bazterketa eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua (2.1)	6.404.961	8.098.912	8.800.901	1.693.951	2.395.940	% 26	% 37
Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa edo zerbitzua (2.2.1) (Plazak)	18.043.328						
Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa edo zerbitzua (2.2.1) (ZLPE)	0						
Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa edo zerbitzua (2.2.1) GUZTIZKOA	18.043.328	28.328.764	36.869.062	10.285.437	18.825.735	% 57	% 104
Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.1.2 / 2.2.1.3)	16.441.780	20.790.217	22.592.250	4.348.437	6.150.470	% 26	% 37
Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.1.4)	2.150.766	2.786.336	3.089.648	635.570	938.882	% 30	% 44
Laneko zerbitzu edo zentroa [desgaitasuna eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat] (2.2.2)	9.264.526	11.714.760	12.730.160	2.450.234	3.465.634	% 26	% 37
Zerbitzua edo eguneko zentroa gizarteratze-premiei erantzuteko (2.2.3)	13.550.265	16.265.977	16.926.445	2.715.712	3.376.180	% 20	% 25
Gauko harrera-zentroak gizarteratze-premiei erantzuteko (2.3.2)	137.320	215.464	280.275	78.144	142.955	% 57	% 104
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1) (Plazak)	138.848.319						
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1) (ZLPE)	9.690.933						
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1) GUZTIZKOA	148.539.252	189.345.555	207.145.411	40.806.303	58.606.159	% 27	% 39
Egoitza-zentroak desgaitasuna duten pertsonentzat (2.4.2)	57.962.381	73.291.972	79.644.697	15.329.591	21.682.316	% 26	% 37
Egoitza-zentroak gaixotasun mentala duten pertsonentzat (2.4.3)	4.514.130	6.167.760	7.149.308	1.653.631	2.635.178	% 37	% 58
Egoitza-zentroak adingabeentzat (2.4.4)	46.700.000	56.059.503	58.335.757	9.359.503	11.635.757	% 20	% 25
Egoitza-zentroak bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzat (2.4.5)	4.079.103	5.917.854	7.211.170	1.838.750	3.132.067	% 45	% 77
Egoitza-zentroak emakumeentzat (2.4.6)	3.074.089	3.722.764	3.902.400	648.675	828.311	% 21	% 27
Atsedeen-zerbitzua [adinekoentzat] (2.5)	247.378	703.158	1.500.739	455.780	1.253.360	% 184	% 507
Atsedeen-zerbitzua [desgaitasuna eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat] (2.5)	2.382.512	2.860.010	2.976.138	477.497	593.626	% 20	% 25
Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua [Foru-aldundiak] (2.6)	55.320	139.814	270.573	84.494	215.253	% 153	% 389
Bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2.7.2.1)	768.217	1.018.606	1.151.551	250.389	383.334	% 33	% 50
Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua (2.7.2.2)	1.004.791	1.303.305	1.446.649	298.514	441.858	% 30	% 44
Ezintasuna duten pertsona helduentzako tutoretza zerbitzua (2.7.2.3)	3.020.000	3.654.845	3.829.093	634.845	809.093	% 21	% 27
Garraio egokikuko zerbitzua (2.7.2.4)	513.000	615.814	640.819	102.814	127.819	% 20	% 25
Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua familiekin (2.7.3.1)	4.186.432	5.625.670	6.431.191	1.439.238	2.244.759	% 34	% 54
Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua (2.7.4)	3.697.189	4.438.170	4.618.379	740.982	921.190	% 20	% 25
Gizarte- eta lege-arloko eta arlo psikosozialeko zerbitzuak/Tratu txarrak eta sexu-erasoak (...) (2.7.5)	1.153.731	1.384.959	1.441.195	231.228	287.463	% 20	% 25
Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua (2.7.6.1)	2.709.307	3.820.872	4.547.345	1.111.564	1.838.038	% 41	% 68
Adopzioa sustatzeko eta babes teknikoak emateko zerbitzua (2.7.6.2)	312.900	373.601	387.037	60.701	74.137	% 19	% 24
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) (3.1.1)	331.369	2.952.479	10.153.528	2.621.110	9.822.159	% 791	% 2.964
Familia ingurune zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) (3.2.1)	65.730.115	86.191.682	96.543.889	20.461.567	30.813.774	% 31	% 47
LPPE (3.1.1) + FIZPE (3.2.1)	66.061.484	89.144.160	106.697.417	23.082.676	40.635.933	% 35	% 62
Autonomia pertsonala sustatzeko laguntzak (3.3)	1.236.301	1.749.123	2.087.256	512.822	850.955	% 41	% 69
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	418.265.346	539.603.827	602.771.424	121.338.481	184.506.078	% 29	% 44
Telelaguntza zerbitzua (1.6)	4.828.277	7.077.112	8.697.971	2.248.835	3.869.694	% 47	% 80
Etxeo indarkeriaren edo sexu-erasoen biktimak diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua (2.7.1.2)	205.541	279.330	290.672	73.789	85.131	% 36	% 41
Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.1)	108.425	222.467	260.821	114.042	152.396	% 105	% 141
Deribazio judizialaren bidezko familia-elkargunea (FE) (2.7.3.2)	961.040	1.153.649	1.200.492	192.609	239.452	% 20	% 25
Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala (2.7.3.3)	394.383	473.424	492.647	79.041	98.264	% 20	% 25
Ordainketa bakarrek prestazio ekonomikoa Euskadin genero-indarkeriaren biktimak diren emakumei (3.1.2)	662.004	801.696	840.380	139.692	178.376	% 21	% 27
EUSKO JAURLARITZA	7.159.670	10.007.678	11.782.984	2.848.008	4.623.314	% 40	% 65
GUZTIRA	522.100.595	684.736.308	776.449.915	162.635.713	254.349.320	% 31	% 49

GIPUZKOA	2019	2025	2030	Aldea 25	Aldea 30	% 2025	% 2030
Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua [OGZ] (1.1)	20.209.882	24.588.002	25.874.070	4.378.120	5.664.189	% 22	% 28
Etxeo laguntza-zerbitzua – ELZ (1.2)	26.562.374	37.513.240	44.698.328	10.950.866	18.135.954	% 41	% 68
Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3) [Babesgabetasuna]	5.591.473	7.144.486	7.831.596	1.553.013	2.240.123	% 28	% 40
Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3) [Bazterketa]	1.373.468	2.713.928	4.278.158	1.340.460	2.904.690	% 98	% 211
Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4) [Udalak]	20.472	78.556	215.297	58.084	194.825	% 284	% 952
Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.1)	1.118.780	1.499.041	1.709.541	380.261	590.761	% 34	% 53
Bazterketa-egoeran dauden pertsonen eguneko arreta emateko zerbitzua (1.7.2)	1.455.177	1.972.146	2.270.565	516.970	815.388	% 36	% 56
Gauko harrera-zentroa [gizarteratze-premiei erantzuteko] (1.8)	2.197.326	3.257.282	4.041.086	1.059.956	1.843.760	% 48	% 84
Ostatu-zerbitzuak/Gizarte-premiako egoerei erantzuteko harrera-etxea (1.9.1.1)	311.435	383.614	407.858	72.179	96.423	% 23	% 31
Ostatu-zerbitzuak / Etxeo indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako harrera-etxea (1.9.1.2)	67.994	90.481	102.598	22.487	34.604	% 33	% 51
Ostatu-zerbitzuak / Tutoretzapeko etxebizitza bazterketa-egoera jasateko arriskua duten pertsonentzat (1.9.2)	230.230	306.375	347.406	76.145	117.177	% 33	% 51
Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak (1.9.3 eta 1.9.4)	3.549.326	4.755.703	5.423.514	1.206.377	1.874.188	% 34	% 53
Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua [Hiriburuak] (2.6)	534.450	641.563	667.613	107.113	133.163	% 20	% 25
UDALAK	63.222.386	84.944.417	97.867.630	21.722.031	34.645.245	% 34	% 55
Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4) [Foru Aldundiak]	324.175	389.145	404.946	64.970	80.771	% 20	% 25
Mendekotasuna, desgaitasuna, bazterketa eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua (2.1)	4.805.297	6.158.253	6.767.276	1.352.956	1.961.979	% 28	% 41
Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa edo zerbitzua (2.2.1) (Plazak)	21.363.402						
Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa edo zerbitzua (2.2.1) (ZLPE)	1.821						
Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa edo zerbitzua (2.2.1) GUZTIZKOA	21.365.224	28.627.031	32.646.930	7.261.808	11.281.706	% 34	% 53
Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.1.2 / 2.2.1.3)	18.347.360	25.275.063	29.498.488	6.927.703	11.151.128	% 38	% 61
Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.1.4)	1.989.600	2.745.415	3.208.622	755.815	1.219.022	% 38	% 61
Laneko zerbitzu edo zentroa [desgaitasuna eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat] (2.2.2)	6.908.597	8.291.580	8.626.848	1.382.983	1.718.251	% 20	% 25
Zerbitzua edo eguneko zentroa gizarteratze-premiei erantzuteko (2.2.3)	1.599.647	2.154.379	2.467.434	554.732	867.787	% 35	% 54
Gauko harrera-zentroak gizarteratze-premiei erantzuteko (2.3.2)	307.404	585.810	895.992	278.406	588.588	% 91	% 191
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1) (Plazak)	102.404.315						
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1) (ZLPE)	2.367.694						
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1) GUZTIZKOA	104.772.009	133.550.646	146.127.069	28.778.637	41.355.061	% 27	% 39
Egoitza-zentroak desgaitasuna duten pertsonentzat (2.4.2)	28.711.521	37.938.705	42.767.420	9.227.183	14.055.898	% 32	% 49
Egoitza-zentroak gaixotasun mentala duten pertsonentzat (2.4.3)	6.658.569	10.475.856	13.657.525	3.817.287	6.998.956	% 57	% 105
Egoitza-zentroak adingabeentzat (2.4.4)	32.210.513	39.399.686	41.646.706	7.189.173	9.436.193	% 22	% 29
Egoitza-zentroak bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzat (2.4.5)	10.785.364	13.773.459	15.091.249	2.988.095	4.305.885	% 28	% 40
Egoitza-zentroak emakumeentzat (2.4.6)	1.265.161	1.879.221	2.335.321	614.060	1.070.160	% 49	% 85
Atsedeen-zerbitzua [adinekoentzat] (2.5)	898.059	1.203.300	1.372.271	305.241	474.212	% 34	% 53
Atsedeen-zerbitzua [desgaitasuna eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat] (2.5)	495.042	908.218	1.345.826	413.176	850.784	% 83	% 172
Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua [Foru-aldundiak] (2.6)	587.830	715.173	752.580	127.343	164.750	% 22	% 28
Bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2.7.2.1)	364.042	1.094.582	3.100.594	730.540	2.736.552	% 201	% 752
Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua (2.7.2.2)	1.463.094	1.780.048	1.873.153	316.954	410.059	% 22	% 28
Ezintasuna duten pertsona helduentzako tutoretza zerbitzua (2.7.2.3)	1.294.340	1.800.324	2.118.091	505.984	823.751	% 39	% 64
Garraio egokikuko zerbitzua (2.7.2.4)	0	0	0	0	0	--	--
Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua familiekin (2.7.3.1)	4.498.214	6.492.279	7.877.167	1.994.065	3.378.953	% 44	% 75
Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua (2.7.4)	1.271.988	2.747.084	4.663.423	1.475.096	3.391.435	% 116	% 267
Gizarte- eta lege-arloko eta arlo psikosozialeko zerbitzuak/Tratu txarrak eta sexu-erasoak (...) (2.7.5)	427.339	681.368	898.250	254.028	470.911	% 59	% 110
Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua (2.7.6.1)	3.593.200	4.604.884	5.060.286	1.011.684	1.467.086	% 28	% 41
Adopzioa sustatzeko eta babes teknikoak emateko zerbitzua (2.7.6.2)	93.692	115.750	123.370	22.058	29.678	% 24	% 32
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) (3.1.1)	31.094.114	43.379.360	51.190.751	12.285.246	20.096.637	% 40	% 65
Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) (3.2.1)	27.493.616	33.003.821	34.343.917	5.510.205	6.850.301	% 20	% 25
LPPE (3.1.1) + FIZPE (3.2.1)	58.587.730	76.383.181	85.534.667	17.795.451	26.946.937	% 30	% 46
Autonomia pertsonala sustatzeko laguntzak (3.3)	1.404.833	2.592.522	3.860.521	1.187.689	2.455.688	% 85	% 175
GIPUZKOA FORU ALDUNDIA	315.029.844	412.362.962	464.722.027	97.333.118	149.692.183	% 31	% 48
Telelaguntza zerbitzua (1.6)	2.956.120	4.316.981	5.289.369	1.360.861	2.333.249	% 46	% 79
Etxeo indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua (2.7.1.2)	101.233	141.074	149.905	39.840	48.672	% 39	% 48
Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.1)	55.225	113.310	132.845	58.085	77.620	% 105	% 141
Deribazio judizialaren bidezko familia-elkargunea (FE) (2.7.3.2)	419.800	525.474	566.219	105.674	146.419	% 25	% 35
Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala (2.7.3.3)	247.281	300.850	316.585	53.569	69.305	% 22	% 28
Ordainketa bakarrek prestazio ekonomikoa Euskadin genero-indarkeriaren biktimak diren emakumei (3.1.2)	217.260	316.790	387.649	99.530	170.389	% 46	% 78
EUSKO JAURLARITZA	3.996.919	5.714.478	6.842.573	1.717.560	2.845.655	% 43	% 71
GUZTIRA	382.249.148	503.021.857	569.432.230	120.772.709	187.183.082	% 32	% 49

6.3.4. Eusko Jaurlaritzak proiektu eragileetan eta jarduketa osagarrietan izandako gastua balioestea

Jarraian, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak dituen sailak zuzentzen, koordinatzen edo parte hartzen duen proiektu eragileetarako eta jarduera osagarrietarako aurreikusitako gastua aurkezten da. Gaur egun eskuduna Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila da.

Beraz, proiektu eragileetarako eta jarduketa osagarrietarako beste administrazio publiko batzuek edo Osasun Sailak aurrez ikusitako gastua ez da sartzen, baldin eta haiek gidatzen, koordinatzen edo parte hartzen badute, dagoeneko beren aurrekontuetan sartuta daudelako.

Diru-sarrerei buruzko atalean, ordea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa duten proiektuen eta jarduketaren kostua balioesten da.

GASTUA ARDATZAREN ETA EKIMENAREN ARABERA		
AUTONOMIA		
PROIEKTU ERAGILEAK	Gizarte-zaintzen aldeko ituna	200.000 (2023)
	Bizimodu independentearen eredia bultzatzea	25.000 (2023)+ 100.000
	Etxeko eta erkidegoko arreta-eredua garatzea	60.000
	Egoitza-zentroak egokitzea	30.000 (inbertsioen plana egitea)
JARDUKETA OSAGARRIAK	Politika esperimentalak adineko autonomoekin	Oarsoaldea, pilotuak: 300.000 (2023-2024) Bizitza Betea, pilotuak: 30.000 Helduak Zabaltzen*, pilotuak: 30.000 Altxor (ikus BEM).
	Berrikuntza-poloak eta mugaz gaindiko ekimena	Europoia (ikus BEM) POCTEFA proiektua (ebazteke)
	Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024 (EASSE).	Senitarteko zaintzaileentzako APPa 1,1 (ikus BEM)
	Gizarte-arloetan eta arlo soziosanitarioetan iraupen luzeko zaintzetarako ekimen berritzaileak bultzatzea	Zaintzen toki ekosistemak: 1,9 M ⁶⁷ : Pasaia Herri Lab, eskalatzeko / ebaluatzeko hura UPV/EHU: 200.000 (2022-2023)
INTEGRAZIOA		
PROIEKTU ERAGILEAK	Bazterketa-sarea deskontzentratzea eta antolatzea	30.000
	Nahi gabeko bakardadearen eta bakartze sozialaren aurkako Euskal Estrategia.	100.000
JARDUKETA OSAGARRIAK	Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (EGPEE)	235.000
	Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko lege integrala	--
	Gizarte eta egoitza arloko gunea	20.000
	Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE), Aukerak Suspertzen barne.	HBEE: 2 M (Aukerak Suspertzen 1,4)
	Krisiek ekarri dituzten larrialdiko egoerak edo abaguneekiko erantzunak	GLL: 30 M Gabezia materiala 2023-2026 (EGIF+): 22 M Pobrezia energetikoa: 1,3 M Elikagaientzako laguntza: 2,7 M
	EAEko harrera-eredua zabaltzea, Trapezistak barne.	EAEko harrera-eredua zabaltzea: 11.488.641 Trapezistak: 4 M
OREKA		
PROIEKTU ERAGILEAK	Gizarte Zerbitzuen II. Mapa zabaltzea	60.000 (monitorizazioa eta ebaluazioa)
JARDUKETA OSAGARRIAK	Profesionalak erakarri, atxiki eta itzultzeko ekimena	Zehazteke
	Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitarioa 2021-2030 (FZLE)	150.000 + 1,1 M (APPa)
	Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-ekimenak	35.864.000

⁶⁷ Hemen ez da sartzen sailen ekarpenari buruzko dimentsio ekonomikoa, ez gizarte-zerbitzuen arlokoa (halaber, ez da adierazten foruetako eta udaletako gastua), ez eta osasunaren arlokoa ere.

GASTUA ARDATZAREN ETA EKIMENAREN ARABERA		
ANTOLAKETA		
PROIEKTU ERAGILEAK	Zorroari buruzko dekretuaren ebaluazioa eta arau-garapena	70.000
	Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) garatzea	Ikus BEM (gizarte-historia elektronikoa...)
	Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB) bultzatzea	180.000 * 4 (720.000)
	Lankidetzako gobernantza-eredua	30.000
	Kalitatea ebaluatzea	20.000
	Eraldaketa digitala	40.000
JARDUKETA OSAGARRIAK	Gizarte-berrikuntzako ekosistema	150.000 + hirugarren sektore sozialaren proiektuei laguntzeko deialdiak finantzatzen dituen proiektu berritzaileak
GENERO-IKUSPEGIA ETA IKUSPEGI INTERSEKZIONALA		
	Genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik GZESren diagnostikoa (arreta eta kudeaketa)	100.000
	"Pertsonak eta Zaintzaileak" proiektua	30.000
	Gizarte-kohesio eta -babesari buruzko laborategi iraunkorra	40.000
	Diskriminazioaren "behatokia"	20.000

2.3.3. Diru-sarrerak

GZESren finantzaketa-iturri egonkor nagusiak honako hauetatik datoz: a) ordaintzera behartuta dauden pertsonen parte-hartzetik (koordainketa); b) aurreko Gizarte Zerbitzuen Funtsetik (egun baliabideak banatzeko barne-ereduan sartuta); c) Hitzarmen soziosanitarioetatik; d) Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasunari arreta eskaintzeko sistemaren (AMAS) finantzaziotik. Azken horretan, 2019tik eta Kupoaren bidez, adostutako maila txertatzen da.

Horrez gain, 2023-2026 epean, hortaz, II. GZPERen barruan, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismitik (BEM) heldutako finantziaketa izango da. Finantzaketa hori 2026ko abenduaren 31ra arte lortutako mugarrien eta egindako gastuen bidez justifikatu ahal izango da. Hala ere, Estatuko Administrazio Orokorren erabakiz, 2023ko abenduaren 31 baino lehen askotariko ekimenei finantzaketa osoa esleitu beharko zaie.

FINANTZATZEKO ORDAINTZERA BEHARTUTA DAUDEN PERTSONEN PARTAIDETZA

Ondorengo taulan 2022 ekitaldian foru-eskumeneko GZESren prestazioak eta zerbitzuak finantzatzeko ordaintzera behartuta dauden pertsonen benetako partaidetzari buruzko datuak ageri dira.

25. taula Finantzatzeko ordaintzera behartuta dauden pertsonen partaidetza lurralde historikoaren arabera (koordainketa, sektore publikoa/forukoa (2022))

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Koordainketa, sektore publikoa/forukoa (2022)	20.320.167,76	59.434.736,90	87.306.554	167.061.458,66

AURREKO GIZARTE ZERBITZUEN FUNTSA BALIABIDEEN BANAKETARAKO BARNE EREDUAN TXERTATZEA

Aurreko Gizarte Zerbitzuetako Funtsen zuzkidura 20 milioi eurokoa bazen, 2022-2026 aldirako baliabideak banatzeko barne-ereduan **35 milioi euro** txertatzen dira.

Koefiziente bertikala kalkulatzeko aurreko funtsa txertatzearen ondorioz, 24.514.000 euro (% 70,04) Eusko Jaurlaritzaren ekarpenari dagozkie; 10.486.000 euro (% 29,96), ordea, Foru Aldundien ekarpenak dira.

HITZARMEN SOZIOSANITARIOAK

Ondorengo taulan Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Foru Aldundien arteko hitzarmen sozioekonomikoetan 2022rako sartuta dagoen finantzaketa eta 2011tik 2023ra bitartean finantzaketak izandako bilakaera azaltzen dira.

26. taula Hitzarmen soziosanitarioak (egoera 2022an)

2022/000748	AFA hitzarmenak. Arreta soziosanitarioa 2022.	4.431.977
2022/000750	BFA hitzarmenak. Arreta soziosanitarioa 2022.	7.754.422
2022/000759	BFA hitzarmena. Arreta soziosanitarioa Nahasmendu Mental Larria 2022.	5.800.000
2022/000749	GFA hitzarmenak. Arreta soziosanitarioa 2022.	12.103.206
		30.089.605

Iturria: Osasun Saila. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza.

27. taula Hitzarmen soziosanitarioen bilakaera (2011-2023)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
2011	2.900.348	3.801.059	7.507.643	14.209.050
2022	4.431.977	7.754.422	12.103.206	24.289.605
2023	4.600.000	8.012.673	12.190.206	24.802.879

AMASen ONDORIOZ GZESren AUTONOMIA ETA MENDEKOTASUNAREN ARRETARI DAGOZKION PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK FINANTZATZEA

Hemen mendekotasunaren eta autonomia sustatzearen arloan GZESren zerbitzuei eta prestazioei dagokien finantzaketa adierazten da. Estatuko Administrazio Orokorretik dator, Autonomia eta Mendekotasunaren Arreta Sustatzeko Sistemarekin (AMAS) duen lotura dela eta. 2011 / 2021 (azken datu eskuragarria) gutxieneko mailaren bilakaera eta 2021 eta 2022rako adostutako maila azaltzen dira.

28. taula AMASetik datorren finantzaketa

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
AMAS. Gutxieneko maila (2011 / 2021)	12.175.845 / 10.723.450	34.252.345 / 35.508.365,46	29.024.843 / 35.335.896,20	75.453.033 / 81.567.711,66
AMAS. Adostutako maila (2022)	5.100.000	15.840.000	10.520.000	32.174.000

Iturria: Foru-aldundiak.

29. taula AMAS. Babesaren arloan 2011., 2021. eta 2022. urteetan gutxieneko eta adostutako maila. EAEn eta lurralde historikoen arabera + Gizarte Zerbitzuen Funtsa

Jarraian ageri diren taulek AMASi eta Gizarte Zerbitzuen Funtsari dagokionez Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzaren informazioa dute. Aztertutako dokumentuaren homogeneotasunari jarraikiz, 2011., 2021. eta 2022. urteetako datuak azaltzen dira.

	EAE		
	2011	2021	2022
GUTXIENKO BABES MAILA (Kutxa irizpidea)	66.191.369	81.949.077	89.042.179
ADOSTUTAKO MAILA	18.803.180	41.393.000	56.347.154
KOEFIZIENTE BERTIKALEAN TXERTATU GABE ¹		18.847.610	32.158.190
2022-2026 ALDIRAKO KOEFIZIENTE BERTIKALEAN TXERTATUTA ²	18.803.180	22.545.390	24.188.964
GIZARTE ZERBITZUEN FUNTSA		20.000.000	35.000.000
GUZTIRA	84.994.549	143.342.077	180.389.333

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2011	2021	2022	2011	2021	2022	2011	2021	2022	2011	2021	2022
GUTXIENKO BABES MAILA (Kutxa irizpidea)	66.191.369	81.949.077	89.042.179	12.175.845	10.723.451	12.273.796	24.990.680	36.174.641	40.048.869	29.024.843	35.050.986	36.719.514
ADOSTUTAKO MAILA	18.803.180	41.393.000	56.347.154	3.155.174	6.713.945	9.120.213	9.442.957	20.816.540	28.369.142	6.205.049	13.862.516	18.857.799
KOEFIZIENTE BERTIKALEAN TXERTATU GABE ¹		18.847.610	32.158.190		3.057.082	5.196.764		9.478.463	16.204.512		6.312.065	10.756.915
2022-2026 ALDIRAKO KOEFIZIENTE BERTIKALEAN TXERTATUTA ²	18.803.180	22.545.390	24.188.964	3.155.174	3.656.862	3.923.450	9.442.957	11.338.077	12.164.630	6.205.049	7.550.451	8.100.884
GIZARTE ZERBITZUEN FUNTSA		20.000.000	35.000.000		3.244.000	5.656.000		10.058.000	17.636.500		6.698.000	11.707.500
GUZTIRA	84.994.549	143.342.077	180.389.333	15.331.019	20.681.395	27.050.010	34.433.637	67.049.181	86.054.511	35.229.892	55.611.501	67.284.813

ITURRIA. Ogasun Saila. Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

¹ 2011ko behin betiko zenbatekoa 20.388,14 mila eurokoa izan zen,, 2017-05-17an EIBMn lortutako akordioen ondorioz.

² 2022ko zenbatekoa Ekarpene Orokorra kalkulatzearen ondorioz banatu behar diren baliabideen hazkuntzarekin kalkulatu da.

BEM
30. taula Berrekuratzeko eta Erresilientzia Mekanismotik datorren finantzaketa

	Proiektuaren izena	Zenbatekoa			
		2021	2022	2023	Guztira
AFA	Laguntza Integraleko Proiektua Arabako foru-egoitzentzat	2.040.000	2.315.000	2.350.000	6.705.000
BFA	GETXOKO BELAUNALDIEN ARTEKO ZENTROA. Getxon zentro berritzaile bat sortzea, adinekoen eta gazteen arteko bizikidetzak sustatzeko	4.660.000	4.300.000	4.300.000	13.260.000
BFA	ERREFERENTZIARTEKO ESKUALDEKO ZENTRO SOZIOSANITARIOAK. Eskualde mailan, erreferentziako eskualdeko egoitzak zentroak garatzea, eremu soziosanitarioan laguntza espezializatuak eskainiko dituztenak, hala nola prestakuntza espezializatua, laguntza, orientazioa, koordinazioa eta baliabide partekatua.	3.230.000	3.900.000	3.900.000	11.030.000
GFA	GIPUZKOAKO ADINEKOEN EGOITZA-ZENTROEN SAREA PERTSONENGAN OINARRITUTAKO ELKARBIZITZA-EREDUETARA EGOKITZEA	7.165.886,99	7.462.667,54	10.565.718,83	25.194.273
GFA	DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEI LAGUNTZEKO BERRIKUNTZA-ZENTROA	500.000	1.000.000	1.000.000	2.500.000
GFA	INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO HARRERA ETA ARRETA INTEGRATURAKO ZENTROA	125.000	1.151.000	0	1.276.000
GFA	EGOITZA-BAZTERKETAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO HARRERA-ETA ARRETA-ZENTRO INTEGRATUA	641.050	1.282.098	641.050	2.564.198
AFA	Etxean Bai proiektua	2.000.000	1.000.000	4.000.000	7.000.000
BFA	etxeTIC. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean gelditzeko laguntza zerbitzua, teknologia berrietan oinarritutako arriskuen monitorizazio, prebentzio eta detekzioaren bidez.	4.800.000	7.820.000	9.780.000	22.400.000
EJ	Gizarte-historia elektronikoa eta udaletako gizarte-zerbitzuen digitalizatorako laguntza	1.100.000	1.500.000	1.500.000	4.100.000
EJ	Gizarte- eta osasun-historia elektronikoa	300.000	1.500.000	1.500.000	3.300.000
EJ	Altxor 7.0. Adinekoen bizi proiektuei laguntzeko zerbitzu pilotua	1.000.000	340.000	830.000	2.170.000
EJ	Bizi-luzetasunari buruzko Mugaz Gaindiko Europako Poloa	200.000	100.000	100.000	400.000
EJ	Gipuzkoan parte hartzea Zaintza Lurralde eta APP etxean familia zaintzaileentzat	1.000.000	1.000.000	1.000.000	3.000.000
GFA	GIPUZKOA ZAINZTA LURRALDEA 2030/ GIPUZKOA	1.148.875	903.264	903.264	2.955.403
BFA	EGOITZA ZENTROETAKO PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA HOBETZEKO PLANA. Profesional soziosanitarioen kualifikazioa eta prestakuntza bultzatzea adinekoen egoitzetan.	1.700.000	1.700.000	1.700.000	5.100.000
AFA	Arabako adingabeentzako zentroak	600.000	2.400.000	0	3.000.000
		32.210.812	39.674.030	44.070.033	115.954.874

Plangintzan aurrez ikusitako garapenak

Adinekoentzako egoitza-zentroetarako inbertsio-plana

Adinekoentzako egoitza-zentroi buruzko dekretu berria betearazteko fasean adierazitakoaren ildotik, lehenik eta behin, plan bat egingo da, zeinak inbertsioak eta haiek gauzatzeko kronograma bat jasoko baititu. Gauzatu ahala, amortizazio-zuzkiduretan sartuko dira, eta GZESren gastu publiko arruntan jasanaraziko dira. Dekretuak neurri batzuk aurrez ikusten ditu aurreko araudian ez zeudenak, beraz, neurri horiek betearaziko dituzten inbertsio berrietarako, behin dekretua onartuta eta haren zenbatespena eta ezarpen-kronograma ezagututa, finantzaketa-mekanismo bat ezartzeko aukera aztertuko da.

Finantzaketa soziosanitariorako esparru partekatua

2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiak gobernantzari buruzko lehen ardatzean finantzaketa soziosanitariorako esparru partekatu bat zehaztea aurrez ikusten du eta, xede horrez, lau ekintza aipatzen ditu: a) Euskadin arreta soziosanitariorako finantzaketa publikoaren eredu partekatu eta egonkorra egitea; b) erakunde publikoen artean akordio finantzarioak definitzea baliabide sozioekonomikoen kostua berdindatzeko; c) erakunde publikoen artean hitzarmenak definitu eta sinatzea baliabide soziosanitarioen kostua ordaintzeko; e) erakundeen arteko batzorde betearazlea eratzea baliabide soziosanitarioen katalogoan dauden baliabideen inbertsio estrategikoa planifikatzeko eta finantzaketa-plana definitzeko (aldizkakotasuna, itzulketa-mekanismoak, etab.).

Gizarte-zerbitzuen erakundeen arteko funtsa

2022-2026 aldiran baliabideak banatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen finantzaketari foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legeak (II. plan estrategiko hau hartara egokitu da) aurreko funtsa baliabideak banatzeko barne-ereduan txertatu du, eta aipatu den bezala, urteko zuzkidura 20 milioi eurotik 35 milioi eurora pasa da.

Testuinguru honetan eta, aldi berean, gobernu-programan aurrez ikusitakoaren ildotik, orain (2023-2024) zorroari buruzko dekretua ebaluatzea planteatzen da. Gainera, ebaluaziotik abiatuta, finantzaketa-eredu jasangarria, adostua eta eskumenen eta baliabideen arabera erakunde arduradunetz osatuta definitu nahi da (2025-2026), etorkizunean lan-prozesuen ondorioz (besteak beste, zorroari buruzko dekretua ebaluatu eta eguneratzea, halabeharrezko memoria ekonomikoa egitea, bazterketa-sarea antolatzea eta administrazioen arteko lankidetzako formulak erabiltzea) izan daitezkeen aldaketen eta finantzaketa-akordioen kalterik gabe.

Plangintza horrek GZESren zerbitzuen eta prestazioen plangintzaren eta arau-garapenaren eta finantzaketaren arteko ezinbesteko loturari erantzuten dio, hortaz, memoria ekonomikoa batek eutsiko du zorroari buruzko dekretuaren baliozko eguneraketa. Horrez gain, azkenekoak kontuan hartuko ditu II. Plan Estrategikoaren behin-behineko emaitzak, bereziki I. eta II. ardatzei dagozkien proiektu eragileenak.

7. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

Lehen planarekin izandako esperientzia eta bere ebaluazioa ardatz izanda, II. Planak, alde batetik, koordinazio-, dinamizazio- eta jarraipen-sistema arin eta bideragarriago bat eta, bestetik, konprometituago bat aurreikusten du. Koordinazio-egitura sinplifikatu eta ikuspegi eta helburu estrategikoei lotutako adierazle-kopuru txikia izango duen aginte-koadro bat txertatzen da. Gainera, ekimen traktore gutxiago izango dira.

Adierazi den bezala, helburua ez da, GZPEk GZESren hobekuntza-eremu guztiak barne hartzea, baizik eta sistemak nahi den norabidean eraginkor eta erritmo egokian aurrera egitea.

Bestalde, zenbait alderdi berri ditu, hala nola joera eta egoeren analisi etengabearekin (etorkizunen behatokia) eta berrikuntzarekin lotuta.

7.1. PLANAREN KOORDINAZIOAZ, DINAMIZAZIOAZ, JARRAIPENAZ, EBALUAZIOAZ ETA EGUNERATZEAZ ARDURATZEN DIREN ORGANOAK ETA FIGURAK

GZES erakundeen artekoa denez, planaren koordinazioa, dinamizazioa, jarraipena, ebaluazioa eta gaurkotze-prozesua Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren (GZEO) laguntzarekin egingo da, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eta organo hori arautzen duen martxoaren 30eko 101/2010 Dekretuak ezarritakoarekin bat.

Halaber, gizarte-erakundeek parte hartuko dute, erakundeekin batera, planaren jarraipenean, ebaluazioan eta gaurkotze-prozesuan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren (GZEK) bidez, kasu honetan ere arautzen duen dekretuak jasotakoaren arabera.

GZEO ebaluazioaren diseinuaren eta azken txostenaren igorpenaren arduraduna izango da. Txosten horren elaborazioan Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak ere parte hartuko du, eta, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hobetzeko dituen gomendioak txertatuko ditu.⁶⁸

Gizarte-zerbitzuen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak:

- EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoaren koordinazio-, dinamizazio-, jarraipen-, ebaluazio- eta eguneratze-prozesu teknikoak zuzenduko du.
- Eragiketa eta azpieragiketa estatistikoak sustatuko ditu.
- Planaren ebaluazioari buruzko txostenen zirriborroak egingo ditu, behar denean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren laguntzarekin.
- Dagokion momentuan, plan berri baten zirriborroa egingo du, aurrekoaren ebaluaziotik abiatuta, GZEO eta GZEKri aurkeztuko dizkie, eta onartuko du, horretarako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak aurreikusitakoarekin bat.

Gainera, prozesu tekniko hori errazteko, aurrez ikusten da GZEOren baitan lantalde batek plana dinamizatzen, jarraitzen eta ebaluatzen laguntzea. Talde honetan administrazio publikoetako hiru mailek parte hartuko dute, eta plana jarraitzeaz gain, ebaluatzeako erakunde bakoitzak behar diren ekintzak gauza ditzan sustatuko du, GZEOk eman diezazkiokeen beste eginkizun batzuen artean.

⁶⁸ Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua gizarte zibil antolatuaren kontsulta- eta partaidetza-organo gorena da, gizarte-zerbitzuei eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruzko politika publikoetan.

Ekimen pribatuak eta, bereziki, sozialak gizarte-zerbitzuen eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zorroaren horniduran duten garrantzia dela eta, eta **Gizarte Zerbitzuen Legeak** zerbitzu horien hornidurari buruz eraturako eredu mistoa kontuan hartuta, oso garrantzitsua da organo horrek eta gizarte zibilaren erakundeek GZESren plangintzan eta ebaluazioan duten parte hartzea aurreikustea eta dinamizatzea. Hala ere, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia horretan eta hirugarren sektore sozialari eragiten dion beste edozein politikatan parte hartu ahal izango du. Gizarte Elkarrizketarako Mahaia ere parte hartu ahal izango du, bere erantzukizunaren esparruan, adibidez gizarte-zaintzen eremuan.

Halaber, ebaluazioak jaso behar ditu zerbitzuen hartzaileek eta erabiltzaileek zuzenean parte hartzeko mekanismoak, adibidez, honako hauek: ebaluazioaren momentuan erabil daitezkeen tresna espezifikoak eta/edo zerbitzuei (eta prestazio ekonomikoei) buruzko gogobetetasun-inkestetako datuen tratamendua, kexa eta iradokizunen sistemak, eta abar.

Eusko Jaurlaritzak, beraz, maila teknikoan gidaritza dauka eta bideratzailea da. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Legeak aurreikusitakoarekin araberaz, hurrengo plan estrategikoak onartu behar ditu, baina planaren dinamizazio-, jarraipen-, ebaluazio- eta eguneratze-prozesua, bere elaborazioa bezala, kolegiatua da.

Eusko Jaurlaritzaren barruan, plana garatzea eta ebaluatzea gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailari dagokio. Gainera, koordinazioa eta lankidetzaz ezarriko dituen beste sailekin, bereziki gizarte babeseko euskal sistema osatzen duten gainerako sistemen arduradunekin, politiken arteko koherentzia eta eraginkortasun eta efikazia handiena lortzeko.

Ez dirudi egokia erakundearen arteko lan-espazio partekatu bat formalizatzea GZESren helburuaren inguruan. Helburu hori hau da: gizarteratzea ahalik eta autonomiarik handienarekin. Bestalde, dagoeneko Eusko Jaurlaritzaren barruan zeharkako koordinaziorako tresnak daude, bai eta beste erakunde batzuekin koordinatzeko tresnak ere, demografia-erronkari lotutako askotariko sailen zeharkako helburuetarako edo familia-erreferenterik gabeko gazteen gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko (Euskarri). Gainera, koordinazio-tresnak daude esku-hartze sozialaren eremua osatzen duten gizarte-esparruak konfiguratu eta hedatzeko, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12 6/2016 Legeak ezarri bezala. Gizarte-osasunaren, gizarte-hezkuntzaren eta gizarte-lanaren arloetan, zehazki, eta gizarte-kultura, gizarte-lege edo gizarte-bizitegiaren arloetan gehiago garatu beharko litzateke, azken horrek lehentasuna izanda.

Gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailak, planaren sustatzaile gisa, planaren jarraipen eta ebaluazioari buruzko informazioa bidaliko die Koordinazio Zuzendaritzari eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari eta Aurrekontukoari.

Planaren koordinazio, dinamizazio, jarraipen, ebaluazio eta eguneratze-prozesuko ekintzek bi helburu nagusi izango dituzte: proiektuak eta jarduketak betearaztea eta helburu estrategikoak lortzea (horien jarraipen eta ebaluaziorako Mapa eta haren lurralde-eranskinak, memoria ekonomikoa, zerbitzuak garatzeari begira aurreikuspenak eta aginte-koadroa daude).

Nolanahi ere, EAEko Mapa eta bere eranskinak proiektzio demografikoetatik abiatuta egindako estimazioak dira, eta, beraz, GZESren gaitasuna doitzeko bide bat, aurreikusitako behar eta eskariari aurre hartzeko, bai eta bere eboluzioari ere. Eboluzio hori ez da zertan estimazioek adierazitakoa izan behar, eta funtsezkoa da berari kasu egitea eta bere araberaz moldatzea.

Planaren jarraipen eta ebaluazioan, kontuan hartuko dira Gizarte Zerbitzuen Legeak GZESren plangintzarekin lotuta aipatutako alderdi guztiak, dagoeneko adierazi dugunez, honako hauek direnak: titulartasunaren egitura (sektore publikoak eta pribatu itunduak zerbitzuak ematean duten partaidetzari buruzko orientazioa) eta kudeaketa publiko zuzenaren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketaren lehentasuna... Hala ere, GZEOk, GZEK-k eta elkarrizketa zibilerako eta gizarte elkarrizketarako mahaiek ere, beharrezkotzat jotako beste batzuei heldu ahal zaie.

7.2. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-TRESNA NAGUSIAK

Planaren edukian, lehen planean bezala, ebaluazioari ematen zaion funtsezko garrantzia horrela islatzen da: plana onartzen duen Gobernu Kontseiluaren Akordioan bere jarraipen eta ebaluazioari buruzko apartatu bat egon behar da, eman beharreko dokumentuak (ebaluazio-txostenak) eta bete beharreko epeak zehaztuko dituenak.

Halaber, **“GOBERNUAK XII. LEGEALDIRAKO DITUEN PLAN ESTRATEGIKOAK ETA HORIEK IZAPIDETZEKO PROZEDURA ONARTZEN DITUEN GOBERNU KONTSEILUAREN AKORDIO-PROPOSAMENAK”** honako hau ezartzen du:

- Gobernuaren Plan Estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa egingo da Planak berak aurreikusi bezala, eta plan estrategikoak Gobernu Kontseiluaren Onarpen-akordioan jaso beharko dira.
- Garatuko diren jarraipena eta ebaluazioa bat etorriko dira aldeztatik Planean dagokion apartatuan txertatutako formatuarekin. Jarraipen-formatu horrek Planaren monitorizazioa garatzeko kontuan

izango diren alderdiak eta/edo adierazleak identifikatuko ditu, bai eta jarraipenari heltzeko ardatz izango diren oinarri estatistikoak ere.

- Sail sustatzaileak planaren jarraipenari eta egingo diren ebaluazioei buruzko informazioa bidaliko die Koordinazio Zuzendaritzari eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari eta Aurrekontukoari. Edozelan ere, urtero jarraipen-txosten bat egingo da, ezarritako helburuen, politiken eta adierazleen betetze-maila aztertzeko.

Halaber, adierazleen sistema bat ezarriko da, garatutako estrategiaren eta neurrien egokitasuna egiaztatu ahal izateko, eta adierazle horiek Gobernuaren kudeaketa adierazleen sistemarekin lerrokatuta egongo dira. Horrez gain, planaren ebaluazioan aztertuko da proiektu eragileek eta jarduketak osagarriek GJHei (Agenda 2030) eta herrialdeak dituen helburu batzuei egindako ekarpena. Helburu horiek, besteak beste, honako hauek dira: Euskadi Europan gizarte-desberdinkeria gutxien duen 5 herrialdeetako bat izatea (Gini indizea); Euskadi Europan genero-berdintasuneko indize handiena duen 6 herrialdeetako bat izatea; bizi-itxaropena 85 urtera arte igotzea; eskola uzte-tasa % 7aren azpitik egonkortzea.

Esparru horretan, eta lehen planeko esperientziatik abiatuta, egokitzen jotzen da honako prozedura eta jarraipen- eta ebaluazio-tresna hauek zabaltzea. Horiek koherenteak dira 2030eko hamarkada jomuga duen trantsizio-politikari lotutako estrategia batekin.

1) *II. GZPEren jarraipen-txostena 23-26, 2023ko datuak bildu eta honako hau barne hartuko duena:*

- Zati deskribatzaile bat planaren proiektu eta jarduketan inplementazioari eta EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapa zabaltzeari buruz, 2023/12/31ko datuekin. Lehen zati hori 2024ko lehen lauhilekoan egingo da.
- Bigarren zatian, balioespen bat egingo da aurreko datuetatik abiatuta, eta 2024ko bigarren seihilekoan burutuko da. Gainera, besteak beste, beharren eboluziora moldatzeko orientazioak eskaini eta balioespenean identifikatu ahal izan diren hobekuntzak jaso ditzake. Ondorioz, helburu estrategikoak, proiektuak eta jarduketak moldatu ahal izango dira, bai eta, hala badagokio, mapa eta memoria ekonomikoa ere.

2) *II. GZPEren ebaluazio-txostena 23-26, 2027ko lehen seihilekoan, 2025eko (edo 2026ko) datuekin.*

Ebaluazioak honako hauek deskribatu eta balioetsiko ditu: EAeko Gizarte Zerbitzuen Maparen hedapena, helburu estrategiko bakoitzarekin lotutako proiektuen eta jarduketan egikaritze-maila, lorpenak helburu estrategiko bakoitzari dagokionez, kontuan hartuta aginte-koadroa.

Gainera, zenbait gomendio jasoko ditu GZESrekin eta bere hedapenarekin lotuta, *EAeko Gizarte Zerbitzuen III. Plan Estrategikoa* sortzean kontuan hartuko direnak.

3) *Urtero jarraipen-txosten deskribatzaile bat* sortzea, dokumentu honetan EAeko Gizarte Zerbitzuen Maparekin (lurraldean eranskinak gabe) lotuta jasotako datuekin.

Txosten guztiak gizarte-zerbitzuen eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak egingo ditu - behar denean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren laguntza izan dezake-, eta GZEOk orientatu eta gainbegiratu ditu, GZEkren laguntzarekin. Hala ere, aurreko azpiapartatua adierazi den moduan, beste partaidetzarako beste gune eta prozesu batzuk aurreikusi daitezke.

GZEOk ebaluazio-txostenen zirriborro bat bidaliko dio GZEkri, eta, egokitzen jotako gomendioak kontuan hartu eta gero, itxiko du.

GZPEk lau urteko epea ezartzen du, Gizarte Zerbitzuen Legearen 35. artikulua zehazten duen moduan. Epe horretan, zurren egoerak eta inguruabarrak aldatu eta desbiderapenak izango dira. Horrela, Planak aurreikusitako ebaluazio-sistemak horiek aztertu beharko ditu, ondoren bere edukia moldatu eta inguruabar berrietara egokitzeko.

Horretarako, informazio- eta ebaluazio-sistemak informazio egokia eman behar die erabakiak hartu behar dituztenei, eta, gainera, informazio horren jakinarazpenak balio izango du herritarrek ezagutu dezaten hartutako konpromisoen eta sortutako itxaropenen betetze-maila.

Hori horrela, beharrezkoa dirudi eskaintzan **plangintza jarraituko sistema** bat sustatzea, GZESren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen behar eta eskariaren (bereziki, bidezkoa dena eta aztertu ez dena) eboluziora moldatzeko egindako analisisian oinarrituta, planaren, maparen eta memoria ekonomikoaren aurreikuspenak gaurkotu eta beharretara moldatu ahal izateko.

Behar horren arabera antolatzen dira urteko jarraipen-txostenak eta honako aldizkako eragiketa estatistiko hauek, behatokiak eta bereziki Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiak egin ditzakeen txostenekin eta har dituen tresnekin batera.

Zehazki:

- **Zerbitzuen eta Zentroen Estatistika (GZGEE)**; epigrafe bat gordeko zaio “gizarte-zerbitzuen gunea” izenekoari, eta bat etorriko da lantzen ari den zorroarekin.
- **Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE)** lau urtean behin Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organoak egiten duena.
- **GZEBren Zentroen Direktoria**, gaurkotuta mantenduko dena baliabide bakoitzari buruzko informazioarekin, eta horien geolokalizazioarekin.
- **GZEBk igorritako txostenak**, 77.3 artikuluko d letran jasotakoaren arabera. Txosten horiek plangintza jarraituko sisteman sartu edo kontuan hartuko dira hurrengo plan estrategikoak egiteko, beren aldizkakotasunaren arabera.
- **Joeren analisi iraunkorrari (Etorkizuneko Behatokiak)** dagokionez, GZEBk egindakoak eta berriazko edukia duten bestelakoak, hala nola AAS (Adinberri).

Edozelan ere, gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailak zehaztu eta aurkeztuko dizkie GZEOri eta GZEKri egokitzat joz gero, GZES zabaltzean, plangintzarekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotuta, txosten horiek eta bestelako eragiketa estatistikoak nahiz beste tresna batzuk antolatzeko metodologia eta epeak.